



Universidad del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fakultatea
Soziologia II saila

DOKTORADUTZA TESIA

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAZTE ETORKIN TUTELATU
OHIEN GIZARTERATZE PROZESUAK
Gizarte laguntasunezko esku-hartzeak aztergai**

MADDALEN EPELDE JUARISTI

ZUZENDARIA: Benjamín Tejerina Montaña

2016

Etxekoei

HIRE ETORKIN

*Erotzat naun, nik aldiz errotzat
Lur galduaren errotik erotu hiretzat.*

*Errotik natorkin
erro gabeko etorkin
erotu nahi hirekin.*

Hego haize, ero haize, uztargin.

Agur urdin! Agur uhin!

Kaixo herrimin eta bihozmin

Nere erroari eskumin

-Xabier Soubelet Laskibar-

ESKER ONAK

Tesiaren azken une honetara iritsita, denbora luzeko iraupena izan duen lan hau aurrera eramatea ahalbidetu eta erraztu duten hainbat pertsonari eskerrak eman beharrean aurkitzen naiz. Horrela bada, datozen lerroetan pertsona guzti horiei nire esker ona agertzen saiatuko naiz. Asko izan dira, eta denak aipatzeko ahaleaginean baliteke bidean norbait ahaztea; hala izatekotan barkamena eskatzen dut aldez aurretik.

Lehenik eta behin Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzari eskerrak eman nahiko nizkioke, horrek abian jarritako euskarazko tesia egiteko ikertzaileak prestatzeko laguntza eskuratu izanak doktoradutza tesi hau aurrera eramateko beharrezko denbora eta finantzazioa ahalbidetu dizkidalako.

Eskerrak eman nahi dizkiot baita ere prozesu honetan zuzendari izan dudan Benjamín Tejerina Montaña jaunari. Gracias Benjamín por la confianza que has mostrado desde el principio en mi, desde el momento en el que te ofreciste a dirigir mi tesina en el master de Sociología Jurídica de Oñati hasta hoy. Te agradezco la enseñanza y el apoyo recibido durante todo el camino, pero sobre todo en estos últimos meses en los que más allá del ámbito profesional también me has apoyado en lo personal. Gracias asimismo por haberme abierto las puertas a tu grupo de investigación Centro de Estudios de la Identidad Colectiva (CEIC), que ha sido un espacio de aprendizaje y un lugar donde compartir experiencias con otros investigadores. Agradezco también a todos los compañeros del grupo, ya que inmersa en un proceso tan solitario como es la realización de una tesis doctoral se agradece enormemente el poder compartir dificultades y alegrías con gente que está viviendo o ha vivido la misma experiencia.

Bereziki eskerrak eman nahi dizkiet Gizarte Langintzako Fakultateko kideei ere. Bertan hasi zen nire ibilbide akademikoa eta garai hartan jakin nuen gizarte gaien ikerketan eta batik bat aurkitutako bidegabeko gizarte errealitateak eraldatzeko bidea ematen duten esku-hartzeen proposamenean jardun nahi nuela. Mila esker Julen Zabalo, Ainhoa Berasaluze eta Gorka Morenori, bere garaian irakasle eredugarri izateaz haratago, behar izan dudanero nire doktoradutza tesia burutzeko aholku eta gomendioak emateko prest agertu direlako.

Argi dago ikerketa honen buruketa ez litzatekeela posible izango eskuzabaltasunez elkarrizketen bidez parte hartzeko prest agertu diren pertsona guztiak gabe. Horiek edukia, ahotsa eta zentzua eman diote lan honi, eta euren istorioak nire istorioaren parte izatera igaro dira. Guztiei eskerrak eman nahi dizkiet igorritako informazioarengatik eta elkarrekin igarotako uneengatik. Eta zentzu batetan lan hau eurei dedikatzen diet, igaro dituzten eta jasaten dituzten egoera latz eta bidegabeei kanporako bide bat eta gizarte islada bat emateko ahaleginean.

Azkenik, eta maila pertsonalera pasatuta, eskerrak eman nahi dizkiet tesi hau errealitate bihurtzeko indarra eman didaten lagun eta familiako kide guztiei. Nire koadrilari, uneoro tesia zer moduz doan galdetzeagatik, hainbeste ordu eskaini beharreko lana ulertzeagatik eta euren konpainian deskonektatzeko bidea emateagatik. Animo bereziak Ainarari, ni bezalaxe doktoradutza tesi baten buruketan murgilduta aurkitzen denari eta aurki bukaerako unera iritsiko denari. Unibertsitateko lagunei, bereziki erasmus esperientzia elkarrekin bizitzeko aukera izan nuen Laia eta Iratiri, harrezkero lagun min bilakatu direnei. Eskerrik asko Laia nire lanak irakurri eta gomendioak emateko prest agertzeagatik beti. Baita Aneri ere, esparru profesional eta pertsonaleko kontuak partekatzeko mantendu ditugun kafe elkarrizketengatik, aurrerantzean ere halaxe jarraitu dezagun. Eta Garbiñeri, nire korrika eta pasiera lagunari, mila esker nire kontuak pazientziaz entzun eta ulertzeagatik. Eskerrik asko Aitor eta bere familiari ere, prozesuaren zati handi batetan bidelagun izan zaituztedalako.

Eta amaitzeko eskerrik asko nire familia osoari. Donostiko eta Azpeitiko familiari, osaba-izeba eta lehengusuei, horien artean aipamen berezia Marinari, eskerrik asko une zailtan hor egoteagatik, galdetzeagatik, entzuteagatik, eta baita zorakeria momentuak partekatzegatik ere. Nire eskerrik beroenak aiton-amonei, gurekin daudenei eta joan zirenei, eurei esker garelako eta beti-beti eredugarri izan direlako; hemen edo beste aldean, beti gure bihotzetan izango direlako.

Azkenik etxekoei. Mireni, lan hau egiteko indarra emateagatik, nire kezkak entzuteagatik eta dena ondo joango dela behin eta berriz errepikatzeagatik; eta lan honetaz haratago, bizitza pertsonalean nitaz horrenbeste arduratzeagatik, nirekin batera negar egiteagatik baina beti irrifar batez bukatzen laguntzeagatik. Alexi, nire lana ulertzera iristeagatik eta zenbaitetan horrenbeste lan ez egiteko

eskatzeagatik, nik ere deskantsua merezi dudala gogorarazteagatik, batzuetan hain indibiduala den lanean oso beharrezkoa dena. Amari, beti hor egoteagatik, nire nahiak betetzen laguntzeagatik, nire erabakiak beti errespetatzeagatik eta uneoro babesa eta maitasuna emateagatik. Eta aitari, ikaskuntza prozesu osoan eredu izateagatik, edozein zalantza argitzen laguntzeagatik, nire lanak irakurri, zuzendu eta euren inguruko iritzia emateko prest agertzeagatik, gure artean sortu diren elkarrizketa eta eztabaida interesgarriengatik, doktoradutza tesi hau burutzerara iristeko ezinbestekoa izan zaidan oinarria eskaintzeagatik. Mila esker denoi azkenaldiko momentu zailetan nitaz arduratzeagatik, asko balio dudala gogorarazteagatik, bakarrik ez nengoela sentiarazteagatik, une hobeak iritsiko zirela errepikatzeagatik, iluntasunera argia ekartzeagatik.

AURKIBIDEA

SARRERA	15
INTRODUCCIÓN	21
INTRODUCTION	28
I. KAPITULUA: ETORKINEN GIZARATERATZEA	37
1.1. ANIZTASUN TERMINOLOGIKOA	38
1.2. GIZARATERATZEA VS. TXERTATZEA	40
1.2.1. TXERTATZE EREDUAK	43
1.3. GIZARATERATZEA: PROZESU DINAMIKOA	52
1.4. GIZARATERATZEA: DIMENTSIO ANITZEKO PROZESUA	54
1.4.1. ESPARRU SOZIOESTRUKTURALA	58
1.4.2. GIZARATERATZE SOZIOKULTURALA	62
II. GIZARTE SAREA ETA BERTATIK ERATORRITAKO GIZARTE KAPITALA ETA GIZARTE LAGUNTASUNAREN ERAGINA ETORKINEN GIZARATERATZE PROZESUAN	75
2.1. GIZARTE SAREA	76
2.2. GIZARTE KAPITALA: GERTURAPEN KONTZEPTUALA	79
2.2.1. KONTZEPTUAREN JATORRIA	79
2.2.2. AUTORE FUNDATZAILEAK: BOURDIEU, COLEMAN ETA PUTNAM	82
2.3. GIZARTE KAPITALAREN IKUSPEGI PSIKOSOZIALA: GIZARTE LAGUNTASUNA	88
2.4. GIZARTE KAPITAL ETA GIZARTE LAGUNTASUNAREN OSAGAIK	89
2.4.1. OSAGAI ESTRUKTURALA	90
2.4.2. OSAGAI FUNTZIONALA	100
2.5. GIZARTE SAREETAN ESKU-HARTZEA: GIZARTE KAPITALA ERAGIN ETA GIZARATERATZEA	
AHALBIDETZEKO ESTRATEGIA	104
2.6. ETORKINAK ETA GIZARTE SAREAK	111
2.6.1. GIZARTE SAREEN ERAGINA MIGRAZIO PROZESUAN	113
2.6.2. MIGRAZIO PROZESUAREN ERAGINA ETORKINEN GIZARTE SAREETAN	115
2.6.3. ETORKINEN GIZARTE SAREETAN ESKU-HARTZEAK: GIZARTE KAPITALA GEHITZEKO ESTRATEGIA	124
III. KAPITULUA: IKERKETA METODOLOGIA	139
3.1. ANALISI EREDUAREN ERAKETA	139

3.1.1. IKERKETA HELBURU ETA HIPOTESIAK	139
3.1.2. ANALISI EREDUA	143
3.2. METODOLOGIA ETA IKERKETA TEKNIKAK	145
3.2.1. ENFOKE METODOLOGIKO KUALITATIBOA	145
3.2.2. ELKARRIZKETA SAKONA TEKNIKA GISA	149
3.3. DATUEN ANALISIRAKO DISEINUA	156
3.3.1. DATUEN LABURTZEA	157
3.3.2. DATUEN AURKEZPENA	158
3.3.3. ONDORIOAK ATERA ETA EGIAZTATZEA	159

IV. KAPITULUA: IMMIGRAZIO FENOMENOA ESPAINIAN ETA EUSKAL AUTONOMIA

ERKIDEGOAN **161**

4.1. EPAINIAKO MIGRAZIOAK	161
4.1.1. ESPAINIA HERRIALDE IGORLE GISA	161
4.1.2. ESPAINIA HERRIALDE HARTZAILE GISA	164
4.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MIGRAZIOAK	168
4.2.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGO HERRIALDE IGORLE GISA	169
4.2.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGO HERRIALDE HARTZAILE GISA	170

V. KAPITULUA: SUBIEKTU MIGRATORIO BERRI BATEN AGERPENA: INOREN

KARGURA EZ DAUDEN ADINGABE MIGRATZAILEAK **181**

5.1. IKEDAMAK DEFINITZEKO AHALEGINA	182
5.2. IKEDAMEN BILAKAERA, DIMENTSIOA ETA PERFIL SOZIODEMOGRAFIKOA ESPAINIAN ETA EAEN	185
5.2.1. ESPAINIAN	187
5.2.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN	190
5.3. IKEDAMEN EMIGRAZIO ARRAZIOAK	197
5.4. ADIN TXIKIKO IZATEAGATIKO BABES JURIDIKO ETA INSTITUZIONALA	200
5.4.1. HAURTZARO EDO ADINGABEKOEI DAGOKIEN LEGEDIA	200
5.4.2. ATZERRITARTASUN LEGEDIA	205
5.5. IKEDAMETATIK IKEDAM OHIETARA	206
5.5.1. IKEDAM OHIEN EMANTZIPAZIORAKO GIZARTERATZE BALIABIDEAK	207

VI. KAPITULUA: IKEDAM OHIEN GIZARTERATZE EGOERA EAEN **221**

6.1. IKEDAM OHIEN GIZARTERATZE EGOERA	221
6.1.1. ESPARRU SOZIOESTRUKTURALA	221

6.1.2. ESPARRU SOZIOKULTURALA	239
6.2. KRISI EKONOMIKOAREN ERAGINA IKEDAM OHIEN GIZARTERATZE PROZESUAN	265
6.3. EMANTZIPAZIO BALIABIDEAK IKEDAM OHIEN GIZARTERATZE PROZESUAN	269
6.4. EREDU PROTOTIPIKOEN AURKEZPENA	275
1. EREDUA: ARRAKASTA ERLATIBOKO IBILBIDEA	275
2. EREDUA: IBILBIDE ZAPUZTUA	277
<u>VII. KAPITULUA: IZEBA PROIEKTUAN PARTE HARTU DUTEN IKEDAM OHIEN GIZARTE KAPITALAREN METAKETA ETA HORREK GIZARTERATZE PROZESUAN DUEN ERAGINA</u>	281
7.1. IZEBEGANDIK JASOTAKO GIZARTE LAGUNTASUNA ETA GIZARTE KAPITALAREN METAKETA	281
7.1.1. LAGUNTASUN INSTRUMENTALA	283
7.1.2. INFORMAZIOZKO LAGUNTASUNA	287
7.1.3. EMOZIOZKO GIZARTE LAGUNTASUNA	291
7.2. IZEBEN GIZARTE LAGUNTASUNA GIZARTERATZE PROZESUAN	294
7.3. EREDU PROTOTIPIKOEN AURKEZPENA	300
1. EREDUA: ARRAKASTA ERLATIBOKO IBILBIDEA	300
2. EREDUA: ARRAKASTA OSOKO IBILBIDEA	302
<u>VIII. KAPITULUA: ONDORIOAK</u>	307
8.1. HIPOTESIEN EZTABAIDA	307
8.3. JARDUERA PROPOSAMENAK	317
<u>BIBLIOGRAFIA</u>	323
<u>ERANSKINAK</u>	345
1. ERANSKINA: ELKARRIZKETA GIDOIA	347
2. ERANSKINA: KODIGOEN ZERRENDA	351
3. ERANSKINA: ELKARRIZKETATUTAKO IKERAM OHIEN DATU ESANGURATSUENAK JASOTZEN DITUEN TAULA	353

IRUDI, GRAFIKO ETA TAULEN AURKIBIDEA

1.1. IRUDIA: ETORKINEN TXERTATZE EREDU OROKORRAK	44
1.2. IRUDIA: GIZARTE JAKIN BATETAN BAZTERKERIATIK GIZARATERATZERA DOAZEN GUNEAK.....	53
1.3. IRUDIA: GIZARATERATZE ESPARRU ETA DIMENTSIOAK	58
2.1. IRUDIA: GIZARTE LAGUNTASUN ETA GIZARTE KAPITALAREN ARTEKO BATERAGARRITASUNA.....	89
2.2. IRUDIA: ITXITURARIK GABEKO (1. KASUA) ETA ITXITURADUN (2. KASUA) GIZARTE SAREAK	94
2.3. IRUDIA: HARREMAN SENDOAK ETA HARREMAN AHULAK GIZARTE SAREAN	95
2.4. IRUDIA: EGITURA ZULOAK GIZARTE SAREAN	96
2.5. IRUDIA: GIZARTE SAREA ERATZEN DUTEN HARREMAN MOTAK	99
2.1. TAULA. POPULAZIO ETORKINAREKIN GIZARTE LAGUNTASUNEZKO ESKU-HARTZEAK BURUTZEKO TIPOLOGIA .	127
3.1. TAULA: IKERKETAREN HELBURU ETA HIPOTESIAK	143
3.2. TAULA: GIZARATERATZE MAILA NEURTZEKO ESPARRU, DIMENTSIO ETA ADIERAZLEAK	144
3.3. TAULA: IKEDAM OHIEK IZEBEGANDIK JASOTZEN DUTEN GIZARTE LAGUNTASUNA ETA HORREK GIZARATERATZE PROZESUAN NOLA ERAGITEN DUEN NEURTZEKO EREDU ANALITIKOA	145
3.4. TAULA: ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONAK LURRALDE HISTORIKO, PROGRAMA ETA KATEGORIAREN ARABERA	152
4.1. GRAFIKO: BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN BILAKAERA ESPAINIAN. 1998-2014 (DATU ABSOLUTUAK)....	168
4.2. GRAFIKO: BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN BILAKAERA EAËN. 1998-2015 (DATU ABSOLUTUAK)	175
4.3. GRAFIKO: BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN BILAKAERA EAËN ETA ESPAINIAN. 1998-2015 (%).....	175
4.1. TAULA: EAËN ETA LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN DAUDEN BIZTANLE ATZERRITARRAK. 1998-2015 (DATU ABSOLUTUAK).....	176
4.4. GRAFIKO: BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN BILAKAERA EAËKO LURRALDE HISTORIKOETAN. 1998-2015 (DATU ABSOLUTUAK).....	177
4.5. GRAFIKO: BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN BILAKAERA EAËN ETA LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN. 1998-2015 (%).....	178
5.1. GRAFIKO: ESPAINIAN ABEGI EMANDAKO IKEDAM KOPURUAREN BILAKAERA. 1993-2009 (DATU ABSOLUTUAK)	188
5.1. TAULA: ESPAINIAN DAUDEN IKEDAMEN JATORRIA. 2008 ETA 2009 (%)	189
5.2. TAULA: ESPAINIAKO HIRU AUTONOMIA ERKIDEGOTAN DAUDEN IKEDAMEN SEXUA. 2006 (%)	189
5.2. GRAFIKO: HAURTZAROKO GIZARTE ZERBITZUEK ABEGI EMANDAKO IKEDAM BERRIEN BILAKAERA. 2004- 2015 (DATU ABSOLUTUAK)	192
5.3. GRAFIKO: HAURTZAROKO GIZARTE ZERBITZUEK ABENDUAREN 31AN ABEGI EMANDAKO IKEDAMEN BILAKAERA. 2005-2014 (DATU ABSOLUTUAK)	193
5.4. GRAFIKO: EAËKO LEHEN HARRERAKO ZENTROETAN ABEGI EMANDAKO IKEDAMEN JATORRIA. 1996-2007	194
5.3. TAULA: IKEDAMEN BANAKETA LURRALDE HISTORIKO ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA. 2006-2007 ..	195
5.4. TAULA: IKEDAMEN BANAKETA LURRALDE HISTORIKO ETA SEXUAREN ARABERA. 2006-2007 (%)	196
5.5. TAULA: ARABA ETA GIPUZKOAN 2007AN ABEGI EMANDAKO ETA BIZKAIAN 2007KO ABENDUAREN 31AN ABEGI EMANDA ZEUDEN IKEDAMEN ADINA (DATU ABSOLUTUAK)	197

5.6. TAULA: BALDINTZAK BETETZEN DITUZTEN BIZKAIKO IKEDAM OHIEK JASOKO DUTEN HILEKO ZENBATEKOA	212
6.1. IRUDIA: ELKARRIZKETATUTAKO IKEDAM OHIEN GIZARTE SAREAREN ERAKETA.....	245
6.1. TAULA: ELKARRIZKETATUTAKO IKEDAM OHIEN EGOERA GIZARTERATZE PROZESUAREN ESPARRU ETA DIMENTSIOETAN	264
6.2. IRUDIA: ENPLEGUA IKEDAM OHIEN GIZARTERATZE PROZESUAREN ERAGILE.....	267
6.3. IRUDIA: KRISIAREN ERAGINA IKEDAM OHIEN ENPLEGU ESKURAKETAN ETA GIZARTERATZE PROZESUAREN GALERAN	268
6.4. IRUDIA: EMANTZIPAZIO BALIABIDEEN ERAGINA IKEDAM OHIEN GIZARTERATZE PROZESUAN.....	274
6.5. IRUDIA: IKEDAM OHIEN IBILBIDEAK GIZARTERATZE PROZESUAN	280
7.1. IRUDIA: <i>IZEBA</i> PROIEKTUAN PARTE HARTU DUTEN IKEDAM OHIEN GIZARTE SAREAREN ERAKETA.....	283
7.1. TAULA: IKEDAM OHIEK IZEBENGANDIK JASOTZEN DUTEN GIZARTE LAGUNTASUNA	294
7.2. TAULA: IKEDAM OHIEK IZEBENGANDIK JASOTAKO LAGUNTASUNAK GIZARTERATZE PROZESUAN DUEN ERAGINA	295
7.2. IRUDIA: IZEBAK IKEDAM OHIEN GIZARTERATZEAREN ERAGILE.....	297
7.3. IRUDIA: <i>IZEBA</i> PROIEKTUAN PARTE HARTUTAKO IKEDAM OHIEN IBILBIDEA GIZARTERATZE PROZESUAN.....	304

SARRERA

Doktoradutza tesi honek Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) dauden gazte migratzaileen gizarteratze prozesuak, politikak eta zailtasunak ikerkertzera du objektutzat. Azken hamarkadetan, bizitza hobeago baten bila beste herrialde batetara bakarrik emigratzeko erabakia hartu edo horretara behartuta sentitu ziren adingabe atzerritarrak agertu dira mapa migratorioan; herrialde hartzaileek Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe Migratzaile (IKEDAM) izendatu dituztenak. Fenomenoa Europako toki ezberdinetan nabarmendu da, hala nola, Alemania, Danimarka, Frantzia, Italia, Belgika, Suitza, Ingalaterra, Irlanda, Portugal edota Espainian; eta baita Estatu Batuetako zenbait herrialde edo Argentinan ere. Espainiako kasuan, adingabe hauen banaketa desberdina da, eta hartzaile nagusien artean EAE aurkitzen da.

Hainbat izan dira azken urteetan aipaturiko fenomenoaren inguruan ikertu eta idatzi duten autore eta organismoak. Violeta Quiroga izan zen estatu mailan gai honetaz tesi doktoral bat burutu zuen lehendabiziko antropologoa, honek ikuspegi trasnazionala bereganatu zuen, gazte hauek Katalunian zein euren jatorrizko gizarteetan agertzen zuten errealitatea ikertu zuelarik (Quiroga, 2003). Autore berak gertaera ikertzen jarraitu zuen, eta denobra gutxi barru, inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileek Europar Batasuneko zortzi herrialdetan bizi zuten egoeraren berri ematen zuen txosten konparatibo bat zuzendu zuen, berriro ere ikuspegi trasnazionalaz baliatuz (Quiroga, Alonso eta Armengol, 2005). Beranduago, IKEDAMek estatu mailan aurkezten zuten egoeraren berri ematen zuen txostena burutu zuen, kolektiboaren baitan azaleratzen ari ziren talde berrietan arreta jarritz, jatorrietan aldaketak eta fenomenoaren baitan feminizazio bat azpimarratuz (Quiroga, Alonso eta Sòria, 2010). Fenomenoak Espainian izan duen bilakaera estatistikoaren inguruko analisiak ere egin dira, berriena 2011 kaleratutakoa (Quiroga, Alonso eta Sòria, 2011).

Maila nazionalean gaiaren lanketan esanguratsua izan den beste autore bat Daniel Senovilla dugu. Quirogak ikuspegi sozial batetik landu izan badu gazte hauen errealitatea, Senovillak ikuspegi juridikoa bereganatu du, eta Espainiako kasua ezezik Europako beste herrialde batzuetako IKEDAMen egoera ere ikertu du

(Senovilla, 2007 eta 2010). Eta beste organismo batzuek ere burutu dituzte ikerketak gai berari buruz, horien artean 2009an Unicef eta Espainiar Abokatutzaren Kontseilu Orokorrak (CGAE) argitaratu zutena, adingabe hauen gizarte errealitatea eta euren egoera juridikoa aztertzen zuena.

EAEn harrera egindako IKEDAMen egoerak lehentasunezko arreta berezia jaso du Ararteko erakundearen eskutik (Euskal Herriko herriaren defendatzailea). Horren adierazgarri dira 2005 eta 2011an kaleratutako txosten bereziak, lehendabizikoa IKEDAMen errealitatearen ingurukoa eta bigarrena arrisku egoera berezietan dauden adingabeen ingurukoa, horien artean IKEDAMak nabarmenduz. Horiez gain, jarraipen eta urtekariak ere burutu ditu erakunde berak, 2010etik Haur eta Nerabeentzako Bulegoak Eusko Legebiltzarrarentzako txosten berezi bat burutzen du urtero, beste gai batzuen artean EAEn dauden IKEDAMen errealitatea lantzen delarik (Ararteko, 2015). Entitate honek berak, lagundu gabeko adingabe atzerritarren gaineko esku-hartze politikak aztertzeko ikerketa bat ere burutu zuen (Gonzalo, Jiménez eta Vozmediano, 2010). Estatu mailan bezala, Quirogak, IKEDAMen baitan sortzen ari ziren talde berriak ezagutzeko ikerketa burutu zuen maila autonomikoan ere (Quiroga, Alonso eta Sòria, 2009).

Aldiz, Ararteko-ren (2013, 2014 eta 2015) txosten edo gomendio orokorren bat salbuetsita, ez da ikerketa soziologikorik burutu gazte hauek adin nagusitasunera iristean bizi duten errealitatearen inguruan. Haurtzaroaren babeserako sistemak harrera emandako adingabeen oinarrizko beharrak asetzen ditu 18 urte bete arte. Aldiz, arazoa behin adin nagusitasuna betetzen dutenean agertzen da, bat batean babes instituzional horretatik at geratzen direlako, atzerritartasun legediaren pean. Horrela bada, gauetik egunera euren errealitatea guztiz aldatzen da, babes legal eta instituzional osoa izatetik kalteberatasun sozial, instituzional eta legalean egotera pasatzen direlarik, harrera gizartean integrazio prozesua erabat zailtzen diena. Hori dela eta, egoera berezi horretan aurkitzen diren subjektuen gizarteratze prozesua zein baldintzetan ematen den aztertzea du ikerketa objektutzat tesi honek.

Gizarteratze prozesu horretan gaur egungo testuinguru sozioekonomikoa kontutan hartzen da, krisi ekonomiko sakon batek ezaugarritzen duena. Gertaera horrek izan duen ondorio nagusienetarikoa enplegu tasaren jaitsiera izan da, eta horrenbestez, IKEDAM ohien gizarteratzea ahalbidetzen zuen tresna nagusia

(enplegua) kolokan geratu dela uste da. Gazte etorkin hauek adin nagusitasuna betetzean agertzen duten bulnerabilitate egoera horren aurrean (babes juridiko eta instituzionaletik at, eta kontrako testuinguru sozioekonomikoan) emantzipazio baliabideak eskaintzen dituzte EAEko hiru lurralde historikoek. Horrenbestez, horien nolakotasuna eta IKEDAM ohien gizarteratze prozesuan nola eragiten duten ezagutzea ere nahi du tesi honek.

Enplegua eskuratzeko zailtasunak direla eta, komenigarria da potentzialtasun integratzailea duten eta mekanismo tradizionalen gabeziak osatzen dituzten elementu eta ekintzak ikertu eta horiekiko apostua. Hori dela eta, doktoradutza tesi honetan, pertsonen gizarteratzea lan merkatu edo formakuntza bezalako faktore klasikoetatik haratago gizarte harremanen bidez ere sustatu daitekeela planteatzen da, zeintzuetatik gizarte kapitala eratortzen eta metatzen den. Horretarako, adin txikiko ziren bitartean Gipuzkoako *Izeba* proiektuan (IKEDAMak familia autoktonoekin harremanetan jartzea helburu duena) parte hartzeko aukera izan duten IKEDAM ohiek izebengandik jasotzen duten gizarte laguntasuna eta gizarte kapitala aztertzea nahi da, eta laguntasun horrek gazte etorkinen gizarteratze prozesuan nolako eragina duen ezagutzea.

Doktoradutza tesi honen ikerketa objektu nagusia EAEn dauden IKEDAM ohiek aurkezten duten gizarteratze egoera ezagutzea da, eta familia autoktonoekin mantendutako gizarte harremanek prozesu horretan betetzen duten papera aztertzea. Horrela bada, ikerketaren lehendabiziko helburua IKEDAM ohiak gizarteratze prozesuari dagozkion esparru eta dimentsioetan zein egoeratan aurkitzen diren aztertzea da. Eta hipotesi modura, gaur egungo krisi ekonomikoak IKEDAM ohien gizarteratze eredu tradizionala (enplegu bat eskuratzearen bidez lortzen zena) kolokan jartzea eragin duela planteatzen da batetik (1. hipotesia); eta berez mugatuak diren emantzipazio baliabideak ez direla gaur egungo testuinguru sozioekonomikora egokitzen bestetik, IKEDAM ohien gizarteratzea bermatzeko zailtasunak gehitzen dituen (2. hipotesia). Hori dela eta, IKEDAM ohien gizarteratze egoera aztertzerakoan krisi ekonomikoak horretan izan duen eragina aztertzeko eta erabilitako emantzipazio baliabideek duten eraginkortasuna neurtzeko ahalegina egingo da.

Gizarteratze mekanismo tradizionalen urritasun eta eraginkortasun eza dela eta, gure begirada azken urteetan martxan jarritako proiektu eta

programetara bideratu dugu. Horien artean *Izeba* proiektua nagusitzen da. Doktoradutza tesi honen bigarren helburua, *Izeba* proiektuan parte hartu duten IKEDAM ohiek pilatzen duten gizarte kapitala ezagutzea da, eta horrek gizarteratze prozesuan nola eragiten duen ulertzea. Hipotesi gisa *Izeba* proiektuan parte hartu duten gazte etorkinek gainontzekoek baino gizarteratze egoera hobea aurkeztuko dutela planteatzen da, izan ere, familia autoktonoengandik gizarteratze esparru eta dimentsioetan bilakaera egokia izaten lagunduko dien gizarte laguntasuna jaso eta gizarte kapitala metatuko dute. Hain zuzen, gizarte sareetatik eratortzen den gizarte laguntasuna eta metatzen den gizarte kapitala gizarteratze prozesuan aurrera egiteko mesedegarriak suerta daitezke. Etorkinen kasuan, bizi duten familia egoera berezia dela eta, autoktonoekin mantentzen dituzten harremanek garrantzia berezia izango dute, horiek gizarte berriko funtzionamendua hobeto ezagutzen dutelako, eta aspektu pragmatikoetan laguntza eskaini edota laguntasun afektibo eta emozionala eman dezaketelako.

Erabili den metodologia kualitatiboa izan da, izan ere, gizarte errealitatearen analisi kualitatiboak etorkinen gizarteratzea bezalako prozesu konplexu eta kuantifikatzeko zailak direnak interpretatzea eta ulertzea ahalbidetzen du. Alde batetik, gizarteratze esparru eta dimentsio bakoitzean aurkeztzen duten egoera ezagutzea posible egiten du, baita krisi ekonomikoak horietan nola eragin duen ikustea ere, edota emantzipazio baliabideen izaera eta eraginkortasun maila ezagutzea. Eta bestalde, izebek bermatu dieten laguntasuna ezagutu eta hori gizarteratze esparru eta dimentsioekin lotzea.

Ikerketa kualitatiboko teknika ezberdinen artean elkarrizketa erdi-egituratua hautatu da. Teknika horrek galdetzen zaien gaiarekiko pertzepzio eta arrazoiketaren inguruko diskurtso espontaneo ahalbidetzen du, elkarrizketa gidoi baten bitartez. Ikerketa EAEko hiru lurralde historikoetan erdiratu da, bakoitzean IKEDAM ohiak (16), eurekin kontaktuan lan egiten duten hezitzaile, tekniko eta koordinatzaileak (7) eta euren errealitatearekiko ezagutza duten adituak (2) elkarrizketatu dira.

Lan honen emaitzak hiru atal nagusitan eta zortzi kapitulutan banatuta aurkeztzen dira. Lehendabiziko atalak ikerketa objektuaren eraketari dagokio, eta I. eta II. kapituluek osatzen dute. I. kapituluan, etorkinen gizarteratze prozesuari dagozkion lanketa teoriko nagusiak aurkeztzen dira eta prozesu hori neurtzeko

esparru, dimentsio eta aldagaiak zehaztu. Lau azpi-atalek eratzten dute: lehendabizikoaren baitan *gizarteratze* kontzeptuaren inguruan existitzen den aniztasun terminologikoa aurkezten da; eta bigarrenetik aurrera kontzeptu hori tesi honen xedeetarako nola ulertuko den zehazteko ahalegina burutzen da, *txertatze*arengandik bereiziz (2. azpi-atala), prozesu dinamiko gisa definituz (3. azpi-atala) eta dimentsio anitzeko kontzeptu gisa ulertuz (4. azpi-atala).

II. kapituluak gizarte sarea eta bertatik eratorritako gizarte laguntasunak eta metatutako gizarte kapitalak etorkinen gizarteratze prozesuan izan dezakeen papaera aztertzen du. Kapituluak sei azpi-ataletan banatzen da: lehendabizikoan *gizarte sarea* definitzen da; bigarrenean *gizarte kapitalaren* gerturapen kontzeptuala burutzen da, kontzeptuaren jatorria landuz eta autore fundatzaileen ekarpenak aztertuz; hirugarrenean *gizarte kapitalaren* ikuspegi psikosoziala lantzen da, *gizarte laguntasun* gisa izendatzen dena; jarraian *gizarte kapital* eta *gizarte laguntasunaren* osagaiak aztertzen dira (egiturari dagokiona eta funtzioari dagokiona); bostgarrenan *gizarte sareetan* esku-hartzeak gizarteratze prozesurako izan dezakeen onura lantzen da; eta azkenik *gizarte saretik* eratorritako *gizarte laguntasun hartu-emanek* zein pilatutako *gizarte kapitalak* etorkinen gizarteratzean izan dezakeen eragina lantzen da.

Bigarren atalak ikerketaren kokapenari dagokio, eta bere baitan III, IV eta V kapituluak lantzen dira. III. kapituluak ikerketarako diseinatutako ikuspegi metodologikoa jasotzen da. Lehendabiziko zatian ikerketa helburu eta hipotesiak eta analisi ereduak aurkezten dira. Bigarren zatian metodologia kualitatiboaren erabilera eta datuen ekoizpenerako erabilitako ikerketa teknikak justifikatzen dira, hau da, elkarrizketa sakon erdi-egituratuaren aukeraketa ikerketa teknika nagusi gisa. Laginari dagozkion erabakiak ere argudiatzen dira eta sarbide estrategiak zehaztu. Azkenik, datuen analisirako diseinua aurkezten da.

Jarraian, IV. kapituluak, immigrazio fenomenoak Espainian zein EAEn izan duen inpaktua lantzen da. Batean zein bestean ezagutu diren emigrazio eta immigrazio aldiak azaltzen dira, gaur egungo estatuaz gaindiko migrazioen testuingurura iritsi arte. Izan ere testuinguru horretan kokatzen da ikerketa honen subjektu diren gazte migratzaileen agerpena: Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe Migratzaileak (IKEDAMak). V. kapituluak lantzen da fenomeno hori, eta bere baitan bost azpi-atal bereizten dira: lehendabizikoan IKEDAMak definitzeko

ahalegina burutzen da; bigarrenean horien bilakaera, dimentsio eta perfil soziodemografikoa aurkezten da; hirugarrenean emigratzera bultzatzen dituzten arrazoiak lantzen dira; laugarrenean adin txikiko izateagatik jasotzen duten babes instituzional eta juridikoa; eta azkenik, adin nagusitasuna betetzean aurkitzen duten errealitatea (babesgabeziak ezaugarritzen duena) eta egoera hori hobetzeko helburuz EAEko lurralde historiko bakoitzean eskuragarri jartzen zaizkien emantzipazio baliabideak aurkezten dira.

Hirugarren atalak analisiaren emaitzei eta horien interpretazioari dagokio, VI, VII eta VIII kapituluetan antolatuta aurkezten direnak. VI. kapituluaren EAEn dauden IKEDAM ohiek agertzen duten gizarteratze egoera lantzen da, I. kapituluaren zehazten diren gizarteratzeari dagozkion esparru eta dimentsio bakoitzean zein egoeratan aurkitzen diren agertzen delarik. Kapitulu horretan bertan, krisi ekonomikoak IKEDAM ohien gizarteratze eredu tradizionalen nola eragin duen aztertzen da, eta emantzipazio baliabideek horien gizarteratze prozesuan aurkezten duten eraginkortasuna ere ikertzen da.

VII. kapituluaren adin txikiko ziren bitartean *Izeba* proiektuan parte hartu zuten eta behin adin nagusitasuna betetzean izeba familiarekin harremanetan jarraitzen duten IKEDAM ohien kapitalen metaketa aztertzen da. Gizarte laguntasunaren eta gizarte kapitalaren osagai funtzionala ikertzeko, II. kapituluaren zehaztutako laguntasun mota ezberdinak bereizten dira (instrumentala, informaziozkoa eta emoziozkoa); eta horietako bakoitzaren baitan izeben aldetik jasotzen duten laguntza ikertzen da. Ondoren, laguntasun horrek IKEDAM ohien gizarteratze prozesuko esparru eta dimentsio ezberdinetan nola eragiten duen azaltzen da.

Amaitzeko, VIII. kapituluaren ikerketaren ondorio nagusiak jasotzen dira. Lehenik eta behin ikerketako hipotesiak eztabaidatzen dira, eta ondoren, ikerketako emaitzetatik abiatuta eta EAEn dauden IKEDAM ohien gizarteratze prozesuak hobetze aldera jarduera proposamenak burutzen dira.

INTRODUCCIÓN

La presente tesis doctoral tiene como objeto investigar los procesos de integración social, las políticas y las dificultades de los jóvenes extranjeros no acompañados que se encuentran en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV). Desde hace algún tiempo, han aparecido en el mapa migratorio menores extranjeros que decidieron o se vieron forzados a emigrar solos a otro país a la búsqueda de una vida mejor; menores que en los países de acogida son denominados Menores Migrantes No Acompañados (MMNA). El fenómeno se ha hecho visible en varios países de Europa, entre otros, en Alemania, Dinamarca, Francia, Italia, Bélgica, Suiza, Inglaterra, Irlanda, Portugal y España, así como en Estados Unidos y algunos países de América Latina. En el caso de España, la distribución de estos menores es desigual, y entre los receptores principales se encuentra la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En los últimos años distintos autores se han encargado de investigar y escribir acerca de esta realidad. Violeta Quiroga fue la primera antropóloga en llevar a cabo una tesis doctoral sobre el tema en el ámbito estatal, realizando una investigación transnacional, en la que se analiza la realidad del fenómeno tanto en Cataluña como en la sociedad de origen de los menores (Quiroga, 2003). La misma autora ha seguido investigando sobre dicho fenómeno, realizando poco después un informe comparativo sobre la situación de los menores migrantes no acompañados en ocho países de la Unión Europea, adoptando de nuevo la perspectiva transnacional (Quiroga, Alonso y Armengol, 2005). Más tarde realizó otro informe que daba a conocer la realidad de los MMNA a nivel estatal, donde prestaba atención a nuevos grupos emergentes dentro del colectivo, señalando cambios en los orígenes y una cierta feminización (Quiroga, Alonso y Sòria, 2010). También se han hecho análisis sobre la evolución estadística que ha tenido el fenómeno a nivel estatal, el más reciente publicado en 2011 (Quiroga, Alonso y Sòria, 2011).

Daniel Senovilla es otro de los autores que ha trabajado la realidad de los menores extranjeros a nivel nacional. Si Quiroga ha tratado el tema desde una perspectiva social, Senovilla ha adoptado una perspectiva jurídica, e incorporando la realidad de otros países europeos (Senovilla, 2007 y 2010). Asimismo, otros

organismos como Unicef y el Consejo General de la Abogacía Española (CGAE) han realizado investigaciones al respecto, publicando en 2009 un informe en el que se analizaba tanto la situación social como la realidad jurídica de estos jóvenes.

La situación de los menores extranjeros no acompañados acogidos en nuestra Comunidad ha sido objeto de una atención preferente y específica por parte de la institución del Ararteko (Defensoría del pueblo del País Vasco). Ello se plasma en el informe extraordinario sobre la realidad de los MMNAs publicado en el año 2005, en el de 2011 sobre infancias vulnerables, en el que se trataba el tema de los menores migrantes sin acompañamiento adulto, y en los seguimientos e informes anuales. Desde el año 2010 y con periodicidad anual, la Oficina de la Infancia y la Adolescencia perteneciente a la mencionada institución, viene realizando un informe específico en el que, entre otras cuestiones, se da a conocer la realidad del colectivo de los MMNAs en el País Vasco (Ararteko, 2015). En las mismas fechas, esta institución también subvencionó una investigación sobre el análisis de las políticas de intervención sobre menores extranjeros no acompañados (Gonzalo, Jiménez y Vozmediano, 2010). Al igual que a nivel estatal, Quiroga dirigió un estudio a nivel autonómico para conocer los nuevos grupos emergentes dentro de los MMNAs (Quiroga, Alonso y Sòria, 2009).

Sin embargo, salvo algún informe y recomendación general del Ararteko (2013, 2014 y 2015), no son muchos los estudios sociológicos realizados sobre la situación en la que estos jóvenes se encuentran una vez cumplen la mayoría de edad. El sistema de protección a la infancia cubre las necesidades básicas de la población menor acogida hasta la edad de 18 años. No obstante, en el instante que alcanzan dicha edad estos jóvenes adquieren automáticamente plena capacidad jurídica y las administraciones cesan, en gran medida, en sus aportaciones de recursos. Así, de la noche a la mañana su realidad cambia por completo, pasando de una situación de amparo legal e institucional plena, a una situación de vulnerabilidad social, institucional y legal que dificulta su integración en la sociedad de destino. Así pues, esta tesis doctoral tiene como objeto de estudio las condiciones en las que se produce la integración social de estos sujetos que se encuentran en una situación de vulnerabilidad tan particular.

A la hora de investigar su proceso de integración social se tiene en cuenta el contexto socioeconómico actual, caracterizado por una profunda crisis económica.

Una de las principales consecuencias que ha originado la crisis es la pérdida de empleos, cosa que hace intuir que la herramienta principal que posibilitaba la integración de estos jóvenes, el empleo, ha dejado de serlo o ha reducido su eficacia. Ante la situación de vulnerabilidad en la que se encuentran estos jóvenes al cumplir la mayoría de edad (sin protección legal e institucional, y en un contexto socioeconómico adverso), los tres territorios históricos de la CAPV disponen de recursos de emancipación. Así pues, esta tesis doctoral también quiere conocer el impacto que tienen dichos recursos en el proceso de integración social de los ex-MMNAs.

Ante la dificultad de obtener un empleo, es conveniente analizar y apostar por otros elementos y actividades que tengan un potencial integrador y puedan suplir las carencias de los mecanismos tradicionales. Así pues, en esta tesis doctoral se plantea que más allá de los factores clásicos, como son el mercado de trabajo o la formación, la integración social de las personas también se puede impulsar propiciando relaciones sociales, a través de las que se desprende y acumula capital social. Para ello, se quiere analizar el apoyo social y el capital social que obtienen los jóvenes que durante su minoría de edad tuvieron la oportunidad de participar en el proyecto *Izeba* de Gipuzkoa (que tiene como objetivo establecer relaciones entre familias autóctonas y MMNAs), y conocer la influencia que tiene dicho apoyo en el proceso de integración social de los jóvenes extranjeros.

El objeto principal de estudio de la presente tesis doctoral es conocer la situación de integración social en la que se encuentran los ex-MMNAs en la CAPV, y analizar cómo influyen en dicho proceso las relaciones mantenidas con familias autóctonas. Así pues, el primer objetivo que se plantea el presente trabajo es identificar en qué situación se encuentran los ex-MMNAs en los diferentes ámbitos y dimensiones de la integración social. La hipótesis que se plantea es, por un lado, que a raíz de la crisis económica actual el modelo tradicional de integración social de los ex-MMNAs, la que se impulsaba a través de la obtención de un puesto de trabajo, se ha vuelto crecientemente ineficiente (hipótesis 1). Y, por otro lado, que los recursos de emancipación ya de por sí limitados, no se han adecuado al contexto socioeconómico actual, lo que ha añadido mayor dificultad a la integración social de los ex-MMNAs (hipótesis 2). Por lo tanto, a la hora de analizar

la situación de integración social de estos jóvenes se estudiará la influencia que ha tenido en dicho proceso la crisis económica, y el impacto que tienen los recursos de emancipación utilizados.

Ante la insuficiencia de los mecanismos de integración tradicionales, hemos vuelto nuestra mirada a nuevos proyectos y programas implementados en los últimos años. Entre todos ellos destaca el proyecto *Izeba*. El segundo objetivo es conocer el capital social que acumulan los jóvenes que han participado en el proyecto *Izeba*, y comprender cómo ha incidido en su proceso de integración social. Como hipótesis se plantea que los ex-MMNAs que han participado en el proyecto *Izeba* presentarán una mejor situación de integración social, puesto que por parte de las familias autóctonas recibirán apoyo social que les facilitará progresar en los diferentes ámbitos y dimensiones de su integración social. Ciertamente, el apoyo social que proviene de las redes sociales y el capital social que se acumula pueden resultar favorecedores para avanzar en el proceso de integración social. En el caso de los inmigrantes, dada su situación familiar peculiar, cobrarán importancia sobre todo las relaciones que se mantienen con personas autóctonas, ya que éstas conocen mejor el funcionamiento de la nueva sociedad y pueden ofrecer ayuda en aspectos pragmáticos, al tiempo que proporcionan apoyo afectivo y emocional.

Esta tesis doctoral se ha desarrollado a partir de una perspectiva metodológica cualitativa. La elección de esta perspectiva se debe a que el análisis cualitativo de la realidad social permite interpretar y comprender procesos complejos y difícilmente cuantificables como es la integración social de los inmigrantes. Por un lado, posibilita analizar la situación en la que se encuentran en los ámbitos y dimensiones de la integración social, ver cómo incide la crisis económica en dicho proceso, o conocer el nivel de eficiencia de los programas de emancipación. Por otro lado, facilita conocer el apoyo que obtienen por parte de los izebas y ver cómo influye dicho apoyo en los ámbitos y dimensiones de la integración social.

Entre las diferentes técnicas de investigación cualitativa existentes, se ha optado, principalmente, por la técnica de la entrevista semiestructurada. Dicha técnica permite un discurso en cierto grado espontáneo, a partir de un guión de entrevista. La investigación se ha centrado en los tres territorios históricos de la

CAPV, y en cada uno de ellos se ha entrevistado a jóvenes ex-MMNAs (16), educadores, técnicos y coordinadores de programas destinados al colectivo (7), así como a personas expertas en la materia (2).

Los resultados de este trabajo se presentan divididos en tres grandes apartados y ocho capítulos. La primera parte del trabajo se refiere a la construcción del objeto de estudio, y está compuesta por los capítulos I y II. En el capítulo I se recogen las principales reflexiones teóricas sobre el concepto de integración social y se definen los ámbitos, dimensiones y variables para su medición. El capítulo se subdivide en cuatro apartados: en el primero se presenta la diversidad terminológica que existe acerca del concepto de *integración*; y a partir del segundo apartado se intenta especificar cómo se interpreta dicho concepto para los fines de esta tesis doctoral, diferenciándolo de la *inserción* (apartado 2), definiéndolo como un proceso dinámico (apartado 3) y entendiéndolo como un concepto multidimensional (apartado 4).

El capítulo II revisa el concepto de red social y el papel que juegan el apoyo social que se obtiene y el capital social que se acumula a partir de dicha red en el proceso de integración de los inmigrantes. El capítulo se subdivide en seis apartados: en el primero se define lo que se entiende por *red social*; en el segundo se realiza un acercamiento conceptual al *capital social*, analizando su origen y las aportaciones de los autores fundadores; en el tercero se trabaja la perspectiva psicosocial del capital social, al que se denomina *apoyo social*; a continuación se estudian los componentes del capital social y del apoyo social (el estructural y el funcional); en el quinto apartado se analiza el beneficio que puede suponer intervenir en las redes sociales para el proceso de integración social; y, finalmente, se examina cómo pueden influir el apoyo social recibido y el capital social acumulado a través de la red social en la integración de los inmigrantes.

La segunda parte de esta tesis se refiere a la localización de la investigación, y está compuesta por los capítulos III, IV y V. En el capítulo III se recoge la perspectiva metodológica diseñada para la investigación. En el primer apartado se presenta la construcción del modelo de análisis y los objetivos e hipótesis de la investigación. En el segundo apartado se justifican la metodología y las técnicas del proceso seguido para la producción de datos y la elección de la entrevista en profundidad semiestructurada como técnica de investigación principal; se

argumentan las decisiones muestrales adoptadas y se expone el método de análisis de los datos obtenidos.

En el capítulo IV se revisa el impacto que ha tenido el fenómeno de la inmigración en España y en la CAPV. Se analizan las épocas, tanto de emigración como de inmigración, que se han vivido en ambos lugares, hasta llegar al contexto de las actuales migraciones internacionales. Justamente es en ese momento cuando los jóvenes migrantes que tiene como sujetos esta tesis doctoral aparecen en el mapa migratorio: los Menores Migrantes No Acompañados (MMNAs). Este fenómeno se trabaja en el capítulo V, que se subdivide en cinco apartados: en el primero se hace un esfuerzo por definir a los MMNAs; en el segundo se presenta la evolución, la dimensión y el perfil sociodemográfico que muestran estos jóvenes; en el tercero se examinan los motivos que les impulsan a emigrar; en el cuarto la protección institucional y jurídica que reciben por el hecho de ser menores de edad; y finalmente, en el capítulo cinco se expone la situación en la que se encuentran al cumplir la mayoría de edad (caracterizada por la desprotección), y se presentan los recursos de emancipación que se han puesto en marcha en cada uno de los territorios históricos de la CAPV con la intención de mejorar la situación adversa en la que se hallan.

La tercera parte remite a los resultados del análisis y a su interpretación, que se presentan ordenados en los capítulos VI, VII y VIII. En el capítulo VI se aborda la situación en la que se encuentran los ex-MMNAs en la CAPV, exponiendo su realidad en los ámbitos y dimensiones de la integración social que se establecen en el capítulo I. En el mismo capítulo se analiza la influencia que ha tenido la crisis económica en el tradicional modelo de integración de estos jóvenes, y se examina la eficiencia que muestran los recursos de emancipación en ese proceso de integración social.

El capítulo VII analiza la acumulación de capital social de los ex-MMNAs que durante su minoría de edad han participado en el proyecto *Izeba*, y una vez alcanzada la mayoría de edad siguen manteniendo relación con la familia *izeba*. Para estudiar el componente funcional del apoyo social y del capital social, se toman en cuenta los diferentes tipos de apoyo social (instrumental, informacional y emocional) que se diferencian en el capítulo II, y la ayuda que reciben por parte de los *izebas* en cada tipo de apoyo social. Después, se expone cómo influyen los

apoyos recibidos en los ámbitos y dimensiones de la integración social de los ex-MMNAs.

Para finalizar, el capítulo VIII recoge las principales conclusiones de la investigación. En primer lugar se procede a la discusión de las hipótesis planteadas para, posteriormente, realizar propuestas de actuación, de cara a mejorar el proceso de integración social de los ex-MMNAs que se encuentran en la CAPV.

INTRODUCTION

This PhD aims to investigate the processes of social integration, policies and difficulties of unaccompanied young foreigners who are in the Basque Country. For some time now, it has appeared on the migration map foreign minors who decided or were forced to emigrate alone to another country searching for a better life: Unaccompanied Migrant Minors (UAMM). The phenomenon has become visible in several European countries, in Germany, Denmark, France, Italy, Belgium, Switzerland, England, Ireland, Portugal and Spain among others; as well as in the United States and some Latin American countries. In the case of Spain, the distribution of these children is unequal, and the Basque Country is among the top recipients.

In recent years, several authors have researched and written about this phenomenon. Violeta Quiroga was the first anthropologist in conducting a PhD thesis on the subject at the state level, performing a translational research, in which the phenomenon was analysed both in Catalonia and in the source countries of minors (Quiroga, 2003). The same author has continued researching on the same issue; shortly after defending her PhD, she and her partners carried out a comparative report on the situation of unaccompanied migrant minors in eight European countries, adopting again the transnational perspective (Quiroga, Armengol and Alonso, 2005). Later on, she made another report that presented the reality of UAMMs statewide, paying attention to emerging groups within the community, and pointing changes on the origins of the minors and a certain feminization (Quiroga, Alonso and Soria, 2010). There has also been performed statistical analysis on the evolution that the phenomenon has had statewide, the most recent published in 2011 (Quiroga, Alonso and Sòria, 2011).

Daniel Senovilla is another author who has worked on the reality of unaccompanied minors nationwide. If Quiroga has addressed the issue from a social perspective, Senovilla has adopted a legal perspective, and incorporated the reality of other European countries (Senovilla, 2007 and 2010). Likewise, other organizations such as UNICEF and the General Council of Spanish Lawyers have

conducted research on the matter; they published a report in 2009 in which, both, the social and legal situation of these young people was analysed.

The situation of unaccompanied migrant minors welcomed in our autonomous community has received a preferred and specific attention from the institution of Ararteko (Ombudsman of the Basque Country). This is reflected in the special report on the reality of UAMMs published in 2005, in the one on vulnerable childhoods published in 2011, in which it was addressed the issue of migrant children without adult accompaniment, and in the annual reports. Since 2010, the Office for Children and Adolescents belonging to that institution has been carrying out a specific annual report in which, among other issues, it is given to know the reality of the UAMMs on the Basque Country (Ararteko, 2015). At the same time, this institution also subsidized research on the analysis of intervention policies on unaccompanied migrant minors (Gonzalo Jimenez and Vozmediano, 2010). As statewide, Quiroga led a study at regional level to know the new emerging groups within UAMMs (Quiroga, Alonso and Sòria, 2009).

However, unless certain reports and general recommendation of Ararteko (2013, 2014 and 2015), there have not been carried out many sociological studies on the situation in which these young migrants are once they reach the age of majority. The system of child protection covers the basic needs of the minors until the age of 18. However, at the moment they reach this age, these young foreigners get automatically full legal capacity and the administrations cease, largely, in its assistance. Thus, their reality changes completely, moving from the situation of full legal and institutional protection, to the situation of social, institutional and legal vulnerability that hinders their integration into the host society. So that, this PhD has as a goal to study the conditions in which the social integration of these subjects occurs, subjects who are in a particularly vulnerable situation.

When investigating their social integration process, the current socioeconomic context is taken into account, which is characterized by a deep economic crisis. One of the main consequences of that crisis has been the loss of jobs, which leads us to believe that the primary tool that allowed the integration of these young migrants until very recently, i.e. employment, has reduced its effectiveness. Given the situation of vulnerability in which they are when they turn 18 (without legal and institutional protection and in an adverse socio-economic

context), the three provinces of the Basque Country have launched emancipation resources. So that, this PhD also wants to know the impact of these resources in the process of social integration of ex-UAMMs.

Being the difficulty of getting a job, it is worth analysing and bet on other devices and activities that have an integrative potential and can fill the gaps of the traditional mechanisms. So that, in this doctoral thesis it is argued that beyond the classic factors, such as labour market or education, social integration of people can also be boosted fostering social relations, since through them social capital is released and stocked. To see this, it is wanted to analyse the social support and social capital that receive the ex-UAMMs who had an opportunity to participate in the project *Izeba* of Gipuzkoa (which aims to establish relationships between native families and UAMMs) while they were minors; and to know the influence of such support in the process of social integration of young foreigners.

The main object of study of this PhD is to know the situation of social integration of ex-UAMMs in the Basque Country, and to analyse how the relationships maintained with local families influences in this process of social integration. So that, the first objective of this research is to identify in which situation are the ex-UAMMs in the different areas and dimensions of social integration. The hypothesis that arises is, firstly, that due to the current economic crisis the traditional model of social integration of ex-MMNAs, which was boosted through obtaining a job, it has become increasingly inefficient (hypothesis 1). And, secondly, that the resources of emancipation which are already limited, have not been suited to the current socioeconomic context, which added more difficulty to the social integration of ex-UAMMs (hypothesis 2). Therefore, when analysing the situation of social integration of these young foreigners, it will be studied the influence that the economic crisis has had on their process of social integration, as well as the influence of the emancipation resources in that process.

Given the deficiency of traditional integration mechanisms, this research have focused in new projects and programs implemented in recent years. Among them it stands out the project *Izeba*. Thus, the second objective is to know the social capital acquired by young migrants who have participated in the mentioned project, and to understand how this capital has affected in the process of their social integration. As a hypothesis, it is proposed that the ex-MMNAs that have

participated in the project *Izeba* will present a better situation of social integration, since they will receive social support from native families, which will facilitate to progress in the different areas and dimensions of social integration. Certainly, the social support that comes from social networks and the social capital that it is accumulated can be beneficial to advance on the process of social integration. In the case of immigrants, given its peculiar family situation, it will gain special importance the relationships maintained with autochthonous people, in order that they know the functioning of the new society and can offer assistance in pragmatic aspects, as well as provide affective and emotional support.

This PhD has been developed from a qualitative methodological perspective. The qualitative analysis of social reality it allows to interpret and understand complex processes that are difficult to quantify, such as the social integration of immigrants. On the one hand, it enables to analyse the situation that they present in the areas and dimensions of social integration, to see how the economic crisis impacts in that process, or to know the level of efficiency of programs of emancipation. On the other hand, it facilitates to know the support they get from the *izebas* and see how this support affects in the areas and dimensions of social integration.

Among the different techniques of qualitative research, it has been chosen the technique of semi-structured interview. This technique allows for spontaneous speech by using an interview script. The research has been focused on the three provinces of the Basque Country, and in each of them ex-UAMMs (16), social educators and coordinators of different programs (7), as well as field experts (2) were interviewed.

The results of this research are presented in three main sections and eight chapters. The first part of the work refers to the construction of the object of study, and it consists of chapters I and II. In chapter I there are collected the main theoretical reflections on the concept of *social integration*, and there are defined areas, dimensions and variables to its measurement. The chapter is subdivided into four sub-sections: in the first one it is presented the terminological diversity that exists about the concept of integration; and from the second sub-section onwards it is tried to specify how the concept is interpreted for the purposes of the current research, differentiating it from the *social inclusion* (sub-section 2),

defining it as a dynamic process (sub-section 3) and understanding it as a multidimensional concept (sub-section 4).

Chapter II reviews the concept of social network and the role of social support obtained and the social capital accumulated from this network in the process of social integration of the immigrants. The chapter is divided into six sub-sections: the first one defines what is meant by *social network*; the second one presents a conceptual approach to *social capital* and analyses its origin, as well as the contributions of the founding authors; the third sub-section focuses on the psychosocial perspective of social capital, which is called *social support*; then, there are studied the components of social capital and social support (structural and functional); the fifth sub-section analyses the benefits that may involve intervening in the social networks on the process of social integration; and finally, it is examined how social support received and social capital accumulated from the social network can influence in the social integration of immigrants.

The second part of this PhD refers to the location of research, and it is composed of chapters III, IV and V. In chapter III it is described the methodological approach designed for this research. In the first section, it is presented the construction of the analysis model and the objectives and hypothesis of this investigation. In the second section it is justified the methodology and techniques of the process used for the data production and the choice of depth semi-structured interview as the main research technique; there are argued the sampling decisions, and it is exposed the method of analysis of the data.

In chapter IV it is reviewed the impact that the phenomenon of immigration has had in Spain and in the Basque Country. There are analysed the emigration and immigration periods that have lived in both places, until the context of current international migrations. It is precisely at this time when young migrants who are the subjects of this thesis appeared on the migration map: the Unaccompanied Migrant Minors (UAMMs). This phenomenon is presented in the chapter V, which is subdivided into five sections: in the first one, it is made an effort to define the UAMMs; in the second one, it is presented the evolution, size and demographic profile that have shown these young migrants since their appearance; in the third one, there are examined the reasons that drive them to emigrate; in the fourth sub-section, it is analysed the institutional and legal protection that they receive for

being minors; and finally, in chapter five, it is exposed the situation in which they find themselves when reaching the age of majority (characterized by vulnerability), and resources of emancipation that have been launched in each of the provinces of the Basque Country with the aim of improving the adverse situation in which these young migrants are.

The third part refers to the analysis of the results and their interpretation, which are presented sorted in chapters VI, VII and VIII. In chapter VI it is addressed the situation in which the ex-UAMMs are, exposing their reality in the areas and dimensions of social integration set out in chapter I. In the same chapter it is analysed the influence that the economic crisis has had in the traditional model of integration of these young foreigners, and it is examined the efficiency shown by the emancipation resources in the process of social integration.

Chapter VII analyses the accumulation of social capital on the ex-UAMMs that during their minority age had an opportunity to participate in the project *Izeba*, and after reaching the age of majority still maintain the relationship with the *izeba* family. To study the functional component of social support and social capital, there are taken into account the different types of social support (instrumental, informational and emotional) that are described in chapter II, and the aid received in each type of social support from the *izebas*. Then, it is shown how the support received from them influences in the areas and dimensions of social integration of ex-UAMMs.

Finally, the concluding chapter (chapter VIII) presents the main conclusions of the investigation. First of all, it is proceed to discuss the proposed hypotheses, to then make proposals for action in order to improve the process of social integration of ex-UAMMs who are in the Basque Country.

LEHENDABIZIKO ATALA: IKERKETA
OBJEKTUAREN ERAKETA

I. KAPITULUA: ETORKINEN GIZARTERATZEA

Aniztasuna, kulturaniztasuna, identitate kulturala, kulturarteko hezkuntza, hiritartasun multikulturala etab. azken urteetako egoera soziopolitikoan indarrez sartu diren diren kontzeptuak dira (Blanco, 2005). Hori dela eta, badirudi fenomeno berri baten aurrean gaudela, baina aniztasun kulturala gizakiaren historiaren hasieratik presente egon den errealitate da. Klan, tribu, herri, nazio edota estatuen baitan bilduta, gizakiek euren testuinguruari eta euren buruari aurre egin diote modu ezberdinetan, kultura eta mundu-ikuskeraz ezberdinei bidea emanaz. Baina gizateriaren historia ez da soilik aniztasunen historia, baita horien arteko adostasun eta desadostasunen, baneratzeko eta baztertzeko, zein mestizaje eta isolamenduaren ere.

Horrenbestez, berrikuntza ez da aniztasun kulturala, bere gizarte nabaritasuna, manifestazio historikoa eta bizikidetzaren multikulturala antolatzearen beharra baizik. Atzeritarren etorrera aniztasun kulturalaren eragile nagusia da gaur egun, gizarte berean etnia, kultura edota erlijio ezberdinen agerpena eragiten duena. Aldaketak nabariak izan dira eta denbora tarteak laburra, hori dela eta, fenomenoak onartu, aztertu eta eztabaidatzeko denbora murrizta izan da, baita bizikidetzaren ezberdin batetarako prestatzeko ere.

Baina prozesu horiek ez die soilik etorkinen hartzaile diren gizarteak eragiten, harrera gizarteak errealitate horretara egokitu behar badu, etorkinak ere gizarte berri eta arrotz batetara moldatu beharrean aurkitzen dira. Emigrazio prozesu baten ondorioz euren jaioterria utzi eta berria zaien gizarte batetan aurkitzen diren subjektuak bertako bizimodura egokitu behar dute. Emigrazio prozesuan leku batetakoak izateari uztearen ideia dago presente, leku batetatik alde egitearena, jatorrizko erroak apurtzearena. Neurri handiagoan edo txikiagoan, jatorrizko herrialdetik deserrotzeak herrialde berrian errotzea eskatzen du, prozesu horretan babesgabetasuna eta laguntzaren beharra ere agertzen delarik. López eta Castro-k bere lorategitik atera eta beste leku batetan ezartzen den landarearen adibidea aipatzen dute etorkinen gizarteratze prozesuaren konplexutasuna azaltzeko:

Metaforicamente, y a modo de ejemplo, si pudiéramos pensar en una preciosa planta a la que se arranca de su jardín, nos daríamos cuenta de la dificultad para que <<agarre>> en otro lugar y los cuidados que requiere para lograr este fin. Nadie pensaría que, por el solo hecho de plantarla, sin alguien que la abone, la riegue y proteja de la intemperie, podría salir adelante! (López eta Castro, 2007: 259).

Etorकिनak, landareak bezalaxe, harrera gizartean errotzea behar du pertsona gisa garatzeko eta leku berrikoa ere badela sentitu ahal izateko. Euren jatorrizko gizartea eta harrera gizartea antzekoagoak edo ezberdinagoak izan daitezke, kultura, erlijio, hizkuntza, balio edota sinesmenen nolakotasunaren arabera. Baina edonola ere, leku geografikoa eta eguneroko funtzionamendua puntu batetaraino ezberdinak izango dira beti. Hori dela eta, aurretik dakartena eta aurkitzen dutenaren arteko egokitzapen bat egin beharrean aurkituko dira. Prozesu horri egingo lioke hain zuzen erreferentzia *gizarteratze* edo *gizarte integrazio* terminoak, harrera gizartearen eta etorkinen arteko egokitzapenari.

Autore desberdinengandik modu ezberdinean ulertua eta landua izan den kontzeptua dugu, hori dela eta, lehendabiziko kapitulu honetan, lanketa ezberdinak aurkeztuko dira eta doktoradutza tesi honetan nola ulertuko den argitzeko ahalegina egingo da:

1.1. Aniztasun terminologikoa

1980. hamarkadan, immigrazioa Espainian zein Europa mailan hazkunde nabarmena jasaten ari zen fenomeno zela ikusirik, zenbait autore etorkinen txertatze prozesuak ikertzen hasi ziren, gizarte integrazio edo gizarteratze gisa izendatzen zuten prozesua. Atzitik, kontzeptuaren formulazio eta garapen teorikoan ez da gehiegi aurreratu (Díaz López, 2003) eta nahaste terminologikoak ezaugarritzen du (Observatorio permanente de la inmigración, 2014). Prozesu horren baitan, termino eta kontzeptu ugari agertu izan dira, autore ezberdinek modu ezberdinean ulertu eta erabili izan dituztenak (Blanco, 1993; Hammar eta Lithman, 1989). Testuinguru horretan ondorengoa aipatzen du Cristina Blanco-k:

Existe en la literatura especializada un panorama notablemente confuso en relación a los términos utilizados para explicar los procesos de inserción de inmigrantes en una sociedad dada. Además de la confusión terminológica, se percibe una gran controversia en torno a cómo debe abordarse esta problemática y a qué formas de

¹ Tesi zehar agertuko diren beste autoreen zitak hizkuntza originalean mantentzeko hautua egin da, esaldien esanahia ez aldatzeko asmotan. Horrela bada, zitaren aurretik edota ondoren bere esanahia azalduko da euskaraz, baina zita bera hizkuntza originalean aurkeztuko da beti.

ajuste intercultural (inmigrantes-nativos) son más deseables o más respetuosas con los derechos de los pueblos y las culturas [...]. A esta divergencia de pareceres se une la utilización indiscriminada de conceptos y términos no siempre bien definidos y que, por lo tanto, son susceptibles de interpretaciones diferentes. El resultado de todo ello es un complejo panorama de enfoques, procesos y conceptos, altamente confusos, sobre el modo en que los inmigrantes acceden a la sociedad receptora y conviven con la población autóctona (Blanco, 1993: 157).

1920. hamarkadan Chicagoko Eskola lehendabiziko lanak burutzen hasi zenetik 80. hamarkada arte, etorkinen txertatzearen inguruan burututako literatura anglosaxoiaren baitan, asimilazio, akulturazio, *melting pot*, gizarteratze, multikulturalismo, edota pluralismo kultural bezalako kontzeptuak aurki zitezkeen (Blanco, 1993 eta 2005). Aldiz, autore ezberdinen ahotan, termino berberak prozesu ezberdinei erreferentzia egin ziezaiokeen; termino ezberdinak prozesu berari erreferentzia egiteko erabili zitezkeen; autore batek erabiltzen zuen terminoa hirugarren batek modu ezberdinean interpreta zezakeen; kontzeptu batek beste batzuk barne hartu zitzakeen azpi-prozesu modura; autore berdinak terminoen erabilera alda zezakeen prozesu berari erreferentzia egiteko etab. Blanco-k aipatzen duenez, nahaste terminologiko horren baitan integrazio kontzeptua da nahaspilatsuen:

De entre toda esta complejidad es, quizá, el concepto de integración el que más se presta a confusión, ya que ha sido utilizado en forma de “comodín” sin ser debidamente clarificado, constituyendo un verdadero “cajón de sastre” en el que todo tiene cabida (Blanco, 1993: 159).

Cachón-ek (2008) ere etorkinen gizarteratzearen kontzeptualizazioak suposatzen duen konplexutasuna azpimarratzen du, eta aurre egin beharreko ezbai teoriko-praktiko ugari planteatzen dituela:

Si la “integración” es una cuestión individual y/o colectiva (de grupos sociales); si estudia o incide sobre los actores y/o sobre las estructuras; si se plantea un análisis o incidencia sobre lo objetivo (sean estructuras o condiciones materiales de vida) y/o sobre lo subjetivo (percepciones, identidades o pertenencias); si se entiende como un proceso y/o como un resultado final; si se aborda como proceso/resultado de carácter general y/o lo hace sólo como si afectara a los inmigrantes; si se trata de la integración de los inmigrantes y/o con los inmigrantes (unidireccional o bidireccional); si se queda sólo en el campo analítico o se adentra en el terreno de lo normativo. De la misma manera, se debe abordar también el papel del concepto en el campo de los derechos civiles, sociales, económicos y políticos. (Cachón, 2008: 210).

Iglesias de Ussel-ek (2010) ere antzeko zerbait aipatzen du, gizarteratze kontzeptua ongi zehaztu gabe eta modu nahaspilatsuan ageri dela literatura espezializatuan:

En la literatura especializada se plantea a menudo el concepto sin especificar su contenido, o bien, se presenta un panorama enrevesado en el cual no es fácil distinguir entre definición de integración, en general, y tipos y modelos, en particular. Muchas veces no está claro si el autor se refiere a unos u otros, o simplemente mezcla todos ellos (Iglesias de Ussel, 2010: 127).

1.2. Gizarteratzea vs. txertatzea

Konplexutasun hori ikusita, zenbait autorek kontzeptuak antolatu eta argitzeko lana burutu dute 1980. hamarkadatik gaur egunera bitartean. Horien artean Cristina Blanco-ren (1993) lana aurkitzen dugu. Bere aburuz, gizarteratze kontzeptua argitzeko lehenik eta behin txertatze terminoarengandik bereizi behar dugu, erdarazko *incorporación* litzatekeena. Etorkinen gizarteratzeak, gizarte berri batetan txertatze hutsa baino haratago doan prozesuari egiten dio erreferentzia. Etorkinak aurrez eraturako gizarte hartzailera iristen direnean, bertan txertatzen edo finkatzen direla esan daiteke, aldiz txertatze horrek forma ezberdinak har ditzake. Autore honen arabera, gizarte berri batetan txertatzeak ez du derrigorrez gizarteratze forma hartzen; gizarte baten baitan aurkitzen diren pertsona guztiek gizarte hori osatzen dute, gizarte horren parte dira, baina batzuek integratzea lortu duten bitartean, beste batzuei ezinezkoa izan zaie, eta gizartearen marjinetan aurkitzen dira.

Beste zenbait autorek ez dute modu berean ulertzen, eta gizarteratzea txertatzearen sinonimotzat hartzen dute (Díaz López, 2003; Gómez, Barbosa, López-Caniego eta Martínez, 2005). Erdarazko *integrar* kontzeptuaren definiziotik abiatuta osotasun baten parte izatea gisa ulertzen dute integrazioa edo gizarteratzea; hori dela eta, etorkinak gizarte berri batetan dauden momentutik bertako parte izatera pasatzen direla deritzote eta horrenbestez integratuta daudela. Euren ustez kontua ez da etorkinak integratuta dauden ala ez, baizik eta nola integratzen diren, zein forma hartzen duen prozesu horrek.

Ahcène Zehraoui-ri (1994) jarraikiz, soziologiaren baitan etorkinei dagokien gizarteratze kontzeptua ulertzeko modua kritikatzeko azken ildo hori hobesten dutenek. Autore horrek *esklusio-inklusio* logika alde batetara uztea proposatzen du, logika horiek gizarteratzea txertatze eta asimilazioarekin soilik identifikatzen dutelelako, eta bere ustez segregazioa ere gizarteratze forma bat izango litzatekeelako. Gizarte bazterkeria egoera gizartean integratuta egoteko modu gisa kontsideratzen du, gizarte bizitzan eta ekonomian parte-hartzerik ezak,

edota gizarte ondasunetara sarbiderik ez izateak definituko lukeelarik. Horrenbestez, gizarteratzea etorkinak gizarte batetara sartze hutsarekin parekatzen du, eta gizarteratze horrek forma ezberdinak hartu ahal ditzakeela azpimarratu, hala nola, asimilazioa, *melting pot*-a, pluralismo kulturala, segregazioa, marginalizazioa etab.

Blanco-ren (1993) ustez aldiz, segregazioa edo bereizketa ezin dira integrazio modutzat hartu, izan ere, prozesu horrek taldeen arteko gutxieneko batasun bat eskatzen du, banaketan ematen ez dena. Bere doktoregotza tesian ondorengo moduan definitzen du gizarteratzea, beranduagoko lanetan (2005, 2006) oraindik baliozkotzat jotzen duena:

En sociedades occidentales de modos de producción capitalista, entenderemos por integración la incorporación de los inmigrantes a una sociedad que tenga como resultado una estratificación social no basada en el origen, raza, etnia o religión de las poblaciones integrantes, culminando el proceso con un sentimiento de pertenencia a la comunidad de que se trate. Es decir, se hablará de integración cuando los grupos inmigrantes se incorporen a la estructura de la sociedad de acogida de forma igualitaria a la población autóctona, y ambos desarrollen sentimientos de solidaridad suficientes como para reconocerse y ser reconocidos como miembros de la sociedad en la que conviven (Blanco, 1993: 251).

Garreta-k (2003) ere antzeko moduan definitzen du gizarteratze kontzeptua, dibertsitatearen bat-egite gisa, bere lokarria kulturen, gizarte egituren eta identitatearen duena:

(Entiendo) el concepto de <<integración social>> como un fenómeno multidimensional que comportaría igualdad de oportunidades en el proceso de incorporación a la sociedad [...]. Para que este proceso finalizara sería necesario eliminar diferentes obstáculos: económicos, jurídicos, culturales, lingüísticos... (lo que hemos definido como integración en la estructura social e integración cultural) que permitan a las minorías sentirse parte del conjunto de la sociedad (integración de identidades) (Garreta, 2003: 345).

Etorkinak egitura sozio-ekonomikora biztanleria autoktonoaren modu igualitarioan txertatzen direnean, inolako diskriminaziorik eman gabe, eta biztanleria osoaren kohesioa ahalbidetuko duen identitate kolektibo bat existitzen denean emango da gizarteratzea Blanco (1993 eta 2005) eta Garreta-ren (2003) arabera. Apur bat nahasgarria suerta daiteke batik bat Blanco-ren definizioa, etorkinek harrera gizarteko egitura sozio-ekonomikora bertako herritarren modu beretsuan egokitu behar dutela dioenean; izan ere, gizarte hartzaileak normalki ez dira homogeneoak izan ohi, posizio sozioekonomiko eta botererako sarbide ezberdina duten taldeak barne hartzen ditu. Hori horrela izanik, aurrez eraturako

gizartean ere egon daiteke biztanleriaren zati bat gizarteratuta ez dagoena, eta ondorioz modu igualitarioan txertatzea zenbaitetan bazterkeriaren sinonimo izan zitekeela pentsa daiteke. Hori da, hain zuzen, zenbait autorek gizarteratze kontzeptua definitzerakoan *eskubide berdintasun* kontzeptua erabiltzen dutenei egiten dieten kritika (Gómez et al., 2005).

Blanco (1993) bera ere ohartzen da konplexutasun horretaz, eta integrazio kontzeptua azaldu ostean argi aipatzen du etorkinak beste gizarte batetan integratzeak ez duela derrigorrez gizarte hori aurrez sozialki integratua egotea eskatzen, teoria soziologiko funtzionalistak azpimarratzen duen moduan. Gaur egungo gizarteetan guztizko homogeneizatzeko maila bat aurkitzea ia ezinezkoa dela dio.

Puntu honetan erabilgarria zaigu Portes-en (1989 eta 2000) asimilazio segmentatuaren teoria. Etorकिनen kolektiboen gizarteratze prozesuei auresuposatzen zaien linealtasuna apurtzen saiatzen da autorea. Pertsona etorkinak harrera gizarteko gizarte klase ertainetan integratze direla ziurtzat hartu beharrean, edo herrialdeko gizarte egitura gizarteratzearen katalizatzaile diren ondo integratutako arau eta instituzio multzo gisa deskribatu beharrean, Portesek, harrera gizartea baliabide eta aukerei dagokionez segmentutan banatuta dagoela ulertzen du, gizarte maila ezberdinetako norbanakoek horietara sarbide ezberdina dutelarik. Horrela bada, pertsona etorkinen egoera oso desberdina izango da segun eta harrera gizarteko zein segmentutan asimilatzen diren.

Edonola ere, Blanco-ren (1993) arabera, etorkinak gizarte egituren biztanleria autoktonoaren modu berean antolatzea da integrazioak helburu duena, biztanleria berriaren txertatzearen emaitzak estratifikazio etniko edo dualik ez ekartzea, baizik eta autoktono zein etorkinak estratifikazio dinamika bereberri jarraikiz antolatzen diren gizarte egitura. Etorकिनekiko diskriminazio negatiborik ez ematea, horiek biztanleria autoktonoak bezalako gizarte berdintasun/desberdintasuna pairatu dezatela, ezaugarri etniko, kultural edo erlijiosoengandik aske.

Eta gizarteratze prozesua bermatzeko, azpiegitura sozioekonomikoko batasun horrek komunitatearekiko kide izatearen sentimendua eragin behar du (Blanco, 1993; Garreta, 2003). Gutxieneko gizarte kohesioa bermatu behar da, elkarbizitzen ari diren pertsona, talde edo kolektibo guztiak bizi direneko

gizartearen kide senti daitezen, gutxieneko elementu amankomun batzuetan parte hartuz eta partekatuz. Gizarte bizitzako beste esparru batzuetan homogeneotasuna eman daiteke ala ez, baina gizarte egituraketan eta partaidetza sentimenduan gutxieneko maila bat behar da.

Sentimendu hori, gizarteratzea txertatzearengandik bereizten duen beste elementu bat litzateke: txertatuta egoteak fisikoki herrialde horretan egoteari soilik egiten dio erreferentzia; gizarteratzeak berriz sentimendu bat eskatzen du, etorkina harrera gizarteko kide sentitzearena. Blanco-ren (1993) arabera txertatze kontzeptuaren antza izan dezake gizarteratzeak, baina lehendabizikoak sartze fisiko hutsari egiten dio erreferentzia; integrazioak berriz, banatze edo zatikatzearekin batera, sartze horren emaitzari.

1.2.1. Txertatze ereduak


Gizarteratze kontzeptuarekin batera, gizarteratze ereduak agertzen zaizkigu. Historian zehar, anitzak izan dira etnikoki ezberdinak diren gizarteak antolatzeke botere publiko eta elite menderatzaileek zein menpeko taldeek eurek erabili dituzten moduak (Díaz López, 2003). Sinesmen eta sinboloen aniztasunak, eta kultura menderatzaile zein kultura menderatuen existentziak bidegabekeria sentimenduak eragiten ditu, eta eginkizun kolektiboekiko axolagabekeria. Horrek, aldi berean, hiritar izatea eta horrek eragin beharko lukeen elkartasun lotura ekidin ditu. Horrela bada, talde kultural ezberdinek eratutako gizartearen antolaketaren kudeaketa kezka sortu duen gaia izan da. Horren arrazoia, talde dominatzailearekiko ezberdintasunak direla eta ukatuak sentitzen diren, eta bizitza duin bat lortzeko dituzten aukeretan autoktonoekiko desabantaila egoeran sentitzen diren pertsona taldeek izan ditzaketen gizarte eta kultur eragin kezkagarriak dira.

Gizarte eraketa berean etnia, arraza, hizkuntza zein erlijio ezaugarri ezberdinak dituzten kategoria edo taldeak egoteak gizarte bizitza eta antolakuntzari dagozkion auziak eragiten ditu. Besteak beste, dibertsitatea interpretatzeko moduen ingurukoak; etorkizuneko gizartea nola bideratu erabakitzeari dagozkionak; etnikoki eta kulturalki ezberdinak diren taldeei zein estatus eman deliberatzeari dagozkionak etab. Hori dela eta, balorazio eta

kontzeptu ezberdinak formulatu izan dira, baita errealitate hori kudeatzeko bide edo ereduak proposatu ere.

Gizarteratze kontzeptua definitzerakoan bi ildo nagusitzen direla ikusi da, batek integrazioa txertatzearekin parekatzen du eta bere baitan integrazio eredu ezberdinak bereizten ditu, bazterkeria ere gizarteratze modutzat ulertuz (Díaz López, 2003; Gómez et al., 2005; Zehraoui, 1994). Besteak berriz, txertatzeak ez dakarrela beti integrazioa ulertzen du, beraz lehendabizi txertatze eredu ezberdinak bereizten ditu, hala nola, integrazioa eta banaketa edo gizarte bazterkeria; eta gero integrazioaren baitan mota ezberdinak ezartzen ditu: asimilazioa, *melting pot* eta pluralismo kulturala hain zuzen (Blanco, 1993, 2001, 2005 eta 2006; López Sala, 2005). 1.1. Irudiak isladatuko luke bigarren ildo hori:

1.1. Irudia: Etorकिनен txertatze eredu orokorrak



Iturria: Blanco (2005: 14; 2006: 53).

Doktoradutza tesi honetan bigarren ildo hau hobetsiko da, gizarteratze eta bazterkeria ereduak bereizi egiten dituen. Jarraian txertatze moduak eta bakoitzaren baitako ereduak azalduko dira:

Gizarteratzea

Etorkinak harrera gizartearen baitan onartu egiten dira eta autoktonoen modu berean txertatzen dira gizarte berrian, edo hori da gutxienik helburua. Bere baitan 3 motatako gizarteratze prozesuak aurki daitezke: asimilazioa, *melting-pot* eta pluralitate kulturala (Blanco, 1993, 2001, 2005 eta 2006; López Sala, 2005). Blanco-k letren erabilera burutzen du eredu ezberdinak hobetu ulertu ahal izateko.

Asimilazioa (A+B=A)

Asimilazio eredia Estatu Batuetan garatu zen kolonialismo garaitik aurrera (Gordon, 1964), eta Frantzian ere nagusi izan da. Eredu honen arabera, gizarteratzea etorkinak kulturalki txertatu diren gizarteko kideen antzekoak bihurtzeko prozesuari egiten dio erreferentzia (Díaz López, 2003). Etorkinek jatorrizko identitate eta kultura galdu eta berria, harrera gizartekoa, bereganatzen dute. Harrera gizarteko kideen (A) eta etorkinen (B) arteko elkarrekintzaren emaitza harrera gizarteko kultura (A) izango da (Blanco, 1993). Berdintze kulturalako proposamena burutzen du beraz asimilazioak, talde eta gutxiengo etnikoak kultura nagusiko hizkuntza, balioak, arauak eta identitate zeinuak bereganatuz, eta aldi berean, kultura propioa alde batetara utziz joango direla uste da. Autoktonoekin gizarte interakzio estua mantentzea eskatzen du, hala nola, exogamia edota mestizajea.

Blanco-ri (1990) jarraikiz, ondorengo ezaugarriak izango lituzke asimilazio prozesuak:

1. Homogeneotasuna abiapuntu gisa. Harrera gizartea etorkinekin kontaktua mantendu aurretik kulturalki homogeneoa dela uste da.
2. Homogeneotasuna helburu gisa. Autoktono eta etorkinen arteko elkarrekinatzaren emaitza ere gizarte homogeneoa izango dela hobesten da. Etorkinak harrera gizarteko hizkuntza eta ohiturak bereganatuz joango dira, horrek denbora luzeago edo motzagoa har dezakeelarik, baina edonola ere emaitza gizarte homogeneo bat izango da.
3. Aldebakarreko aldaketa prozesua. Aldaketa sozial eta kulturalak gutxiengo etnikoei soilik eragiten die. Horiek bertan behera utzi behar dute euren kultura gizarte hartzailekoa osoki bereganatzeko.

4. Gizarteratze kulturala gizarteratze oso baten sinonimo. Pauta kulturalak bereganatze hutsak etorkinen taldeak eskubide osoko hiritar bilakatzen dituela uste da, hau da, integrazio kulturalak integrazio soziala dakarrela.
5. Aurreiritzi eta diskriminazioen desagerpena asimilazioaren ostean. Etorkinak harrera gizarteko kulturara asimilatzean desberdintasunak eragin ditzakeen aurreiritziak ezabatu egingo direla eta ondorioz diskriminaziorik ez dela emango uste da.
6. Asimilazio prozesuaren naturaltasun eta halabeharrezkotasuna. Asimilazioa naturala eta sahiestezina den prozesutzat ikusten da, eta ez sozial eta historikotzat.

Askotan kritikatu izan den eredu dugu asimilazioarena, ezberdintasunak ez dituelako aintzat hartzen eta kultura eta bizitza modu batzuk besteen gainetik balioesten dituelako, desberdintasunak² eraginez eta gizarte hausturarako arriskuak gehituz. Askotan aurreiritzi eta diskriminazioaren desagerpenik ere ez da gertatu, norbanako edo talde batek talde nagusiaren hizkuntza, ohitura, janzkera, erlizioa edo elikadura bereganatu ditzake eta bere kultura propioa alde batetara utzi, eta hala eta guztiz diskriminazioa pairatzen jarraitu bere azal kolore, jatorri edo hitz egiterakoan erakusten duen azentua dela eta (Díaz López, 2003: 36).

Zenbait ikerketen arabera eredu hau praktikan gertatzeko zaila litzateke, izan ere pertsona etorkinak zenbait aspektutan asimilatu ahal izango dira, baina hala eta guztiz ezberdinak eta menpekoak gisa kontsideratuak izaten jarraitzen dute (Observatorio permanente de la inmigración, 2014: 21). Egin izan zaion beste kritika bat gizarte hartzailea estatiko eta homogeen gisa definitzea izan da, errealtatearekin bat ez datorrena (Joppke eta Morawska, 2003).

Hori dela eta, tesi asimilazionista indarra galduz joan zen XX. mendeko bigarren erditik aurrera, *melting-pot* edo pluralitate kulturalari dagozkion ereduak garapen teoriko handiagoa eskuratuz joan ziren bitartean.

² Kasu honetan desberdintasun hitzarekin erdarazko *desigualdad* terminoari egin nahi zaio erreferentzia, zentzu negatiboa izango luke, eskubide berdinek ez izateari bait dagokio.

Melting-pot (A+B=C)

Melting-pot proposamena eredu asimilazionista kritika gogorrek jasaten ari zen garaian etorri zen, bere alternatiba gisa. Estatu Batuetan ezezik, Canada edo Australian ere garatu den eredu da, Europatik burututako emigrazioen testuinguruan. Herrialde edo entitate jakin baten kultura nazionala edo identitate kulturala bertan aurkitzen diren sektore eta segmentu guztien ekarpenetatik abitatuta eratu behar deneko ideian du bere muina eredu honek. Hori dela eta, etorkinek ez dute euren identitatea eta kultura guztiz alde batetara uzten, jatorrizko (A) eta gizarte berriko (B) kulturen arteko fusioa ematen da, kultura berri bat sortuz (C), kasu honetan ere homogeneoa. Taldeen arteko kontaktuak etorkinengan ezezik autoktonoengan ere eragina du ordea, eta gertatzeko aurreko eredu baina errazagoa da.

Gordon-en (1964) tipologian fusio kulturala berezko izaera duen formula gisa agertzen bada ere, zenbait autorerentzat asimilazioaren aldaera bat besterik ez litzateke. Gimenez-ek (1996) asimilazio eta fusioaren arteko konparaketa egiterakoan bien arteko bi puntu amankomun azpimarratzen ditu:

1. Harrera gizartean txertatzen diren taldeek jatorrizko kultura galtzen edo sakon eraldatzen dute.
2. Azken emaitza gizarte homogeneoa da. Asimilazioa eta fusioa heterogeneitatetik homogeneitatera doazen aldaketa soziokulturaleko prozesuak lirateke, lortzen den emaitza homogeneo hori aurretik existitzen zena (A) edo zerbait berria izan daitekeelarik (C).

Baina autore berak (Gimenez, 1996) bi ereduaren arteko ezberdintasunak ere bereizten ditu:

1. Fusio prozesuak inplikaturik dauden segmentu soziokultural guztiei eragiten die, horiek talde nagusi edo gutxiengo etnikoak izan daitezkeelarik. Horrela bada, gizarteratze erantzukizuna ez da soilik iritsi berriengan agertzen, baita gizarte eta estatu hartzaileengan ere. Aldebiko aldaketa prozesua litzateke.
2. Biztanleria parte-hartzaile guztien ekarpenak aintzatesten dira, kultura edo gizarte berria kontribuzio guztien emaitza baita.

Gaur egun, ia inork ez du melting-pot gizarte filosofia, ideologia edo barne dibertsitate kulturalaren kudeaketa edo antolakuntza politika bezala proposatzen

(Díaz López, 2003). Eredu izan nahi zuen mitoak porrot egin zuen (Blanco, 1990). Alde batetik, Estatu Batuetan ez da jatorri europarreko populazioen artean aurreikusitako nahasketarik eman. Bestetik, Estatu Batuetan finkatutako beste etorkinen komunitate etnikoak (asiarrak, hegoamerikarrak eta arabeak) ez dira desegin edo ez dute kolektibo europarren modu eta intentsitate berarekin egin (Calvo, 1995).

Kasu honetan ere gizarte interakzio estua ezartzen da autoktonoekin, hala nola, exogamia edota mestizajea. Asimilazioari bezalaxe, *melting-pot* ereduari ere norbere kultura utzi edo galdu beharra kritikatu izan zaio. Ideologia horri jarraikiz, identitate nazional indartsu bat sortzeko badirudi beharrezkoa dela bereiztasun eta espezifikotasunak sakrifikatzea.

Pluralitate kulturala ($A+B=A+B+C$)

Pluralitate kulturalaren eredua edo ideologia nagusiki Europa eta Estatu Batuetan sortu zen. Batik bat asimilazio eta *melting-pot* ereduaren porrotak eta iraupen etnikoaren kontzientziak sorrarazi zuen ideologia hau. Eredu honen arabera posible da gizarte berean etnikoki, kulturalki, erlijioz edo hizkuntzaz ezberdinak diren talde eta komunitateak modu armoniatsuan elkarrekin bizitzea.

Gizarte eta kultur dibertsitatea tratatzeko aurrez ikusitako ereduaren baitan (asimilazioa edo *melting-pot*) jatorrizko kulturaren galera aurre baldintza gisa agertzen da. Aitzitik, pluralitate kulturalak positiboki baloratzen du dibertsitate soziokulturala, eta abiapuntu gisa taldeek ez dutela zertan euren kultura edo identitate propioa galdu beharrik aldarrikatzen du; ez dute zertan kultura dominatzailea bereganatu eta jatorrizkoa alde batetara utzi beharzagatik (eredu asimilazionista); eta ezta aurrez existitzen ziren bi kulturen artean kultura integratzaile bat sortu eta aurrekoak galdu beharrik ere (fusiozko eredua edo *melting-pot*). Kottak-ek (1994) dioen modura, asimilazioa ekidin daiteke, eta armonia etnikoa egon daiteke asimilaziorik gabe.

Eredu honen baitan pluralitate kulturala eta ez uniformitatea, bat ez etortzea eta ez guztien adostasuna, aldaketa eta ez mugikortasunik eza, gauza positiboak direla kontsideratzen da (Sartori, 2001). Dibertsitate kulturala zerbait desiragarri eta errespetagarri gisa ikusten da. Tradizio etniko eta kulturalen praktika bultzatzen da, jendea elkar ulertu dadin eta elkar eragin dezan bideak

bilatzen dira, talde etnikoen interakzioa eta horiek harrera gizartean ekarpenak egitea lortu nahi da, azken finean, talde bakoitzak eskaintzeko eta besteengandik ikasteko zerbait duela onartzen da.

Identitate kolektibo orokor bat partekatzen da, nahiz eta bere baitan identitate propioak egon (Blanco, 1993). Taldeak ez dira desagertzen, naiz eta berdefinizioak egon daitezkeen. Taldeen mantentzeak ez du instituzio zein organizazio formaletan parte-hartzea ekiditen, ezta beste taldeekin harremanak izatea ere. Horrela bada, pluralismo kulturalaren kasuan A eta B-k interakzio taldeen bizitza kultural eta sozialeko elementu partzialei egingo diote erreferentzia, eta C-k kide guztiek partekatzen dituzten elementu amankomunei, gizarte unitate bat eratu dezaten, eta ez elkarrengandik isolatuta dauden kultura multzo bat.

Gizarteko dibertsitatea kudeatzeko bi mota ezberdin bereizten dira: *kultur aniztasuna* (multikulturalismoa) eta *kulturartekotasuna* (interkulturalismoa) (Blanco, 1993, 2001, 2005 eta 2006; Díaz López, 2003; Observatorio permanente de la inmigración, 2014). Lehendabizikoak Estatu Batuetan eta Ingalaterran izan du ezarpen handiena, bigarrenak berriz Europa mendebaldeko zenbait herrialdetan. Hitzetariko bakoitzaren etimologiari begiratzen badiogu, lehendabiziko ezberdinketa bat egin daiteke: kultur aniztasun terminoak espazio berean kultura ezberdinen existentziari egiten dio erreferentzia, baina ez da haratago joaten (Aguado, 1997); hori dela eta, kulturen artean harremanik ez dela existitzen dirudi. Kulturartekotasunak, *artekotasun* atzizkiak agerian uzten duen moduan, harremanari eta hartu-emanari egiten dio erreferentzia, eta ondorioz kultura ezberdinen arteko elkarrekiko bizikidetzari, aberastasunari, errespetuari edota diskriminazio ezari (Rodríguez Rojo, 2006).

Zenbait autoreren lanei jarraikiz (Quintana, 1992; Jordan, 1996; Del Arco, 1998) kultur aniztasun terminoak espazio fisiko berean existitzen diren kultura ezberdinen alboratzeari soilik egingo lioke erreferentzia, horrek kulturen arteko hartu-eman eta aberastasunik eragiten ez duelarik. Aitzitik kulturartekotasun terminoak espazio berean elkarrekin bizi diren kultura ezberdinen arteko komunikazio ulerkorra eskatzen du, horren bidez elkarrekiko aberastasuna lortuko delarik, eta ondorioz, kultura bakoitzaren aintzatespen eta balioztatzea (Buendía, 1996; Quintana, 1992; Jordan, 1996; Del Arco, 1998).

Kultur aniztasuna kultura bakoitzean erdiratzen bada, kulturarteko planteamendua haratago doa eta kultura horien arteko harremana lantzea du helburu (Giménez, 2003). Lehendabizikoak norberaren identitatea azpimarratzen du, norberaren onarpena aldarrikatzeko beharrezkoa dena, eta horrek desberdintasuna aitortzen du. Bigarrena pauso bat haratago doa eta bateratasun eta elkarguneak bilatzen ditu lotura eta puntu amankomunak ezartzeko. Kultur aniztasuna baterako existentziarekin konformatzen da, eta gizarte elkarbizitza errespetuan eta bestearen onarpenean oinarritzea espero du; kulturartekotasunak berriz gatazka interetnikoei aurre egin nahi die eta horiek pazifikoki erregulatzeko bideak ezarri. Kultur aniztasunak dibertsitatea lantzen du, kulturartekotasunak aldiz dibertsitatearen baitan batasuna nola eraiki daitekeen aztertu nahi du. Funtsean, biek, berdintasun eta diferentzia printzipioak partekatzen dituzte, baina kulturartekotasunak hirugarren bat gehitzen du, interakzio positiboarena. Kulturartekotasuna kultur aniztasunaren gabeziari aurre egiteko sortutako ordezkotako eredu litzateke, eta gaur egun gehien hobesten dena (Díaz López, 2003).

Gizarte bazterkeria

Gizarteratzea definitzerako orduan berriagoa den beste kontzeptu bat ere kontutan izan behar da, *gizarte bazterkeria* hain zuzen. Biek harreman estua gordetzen dute, izan ere, Robert Castel-ek (1992 eta 1995) dioen modura, prozesu berberaren muturreko adierazpenak lirateke. Blanco-k (1993, 2005 eta 2006) gizarte banaketa terminoaren erabilera egiten du, baina azken finean errealitate berari buruz ari da: *“caracterizada por la no aceptación del “otro” como parte del “nosotros” bajo ninguna de las modalidades anteriores”* (Blanco, 1993: 282).

Gizarte bazterkeria terminoa 60. hamarkada amaieran eta 70.-aren hasiera bitartean sortu zen Frantzian, naiz eta bere erabilera 80. hamarkadara arte ez zen orokortu. Lehendabiziko autore europarrentzat *baztertuak* gizarteak bizi zuen garapen orokorretik at geratu ziren biztanleriaren portzentaje txiki bat ziren, egoera hori batik bat langabezia eta gizarte harremanen ezegonkortasunari lotuta zegoelarik (Subirats, 2004). Etorkinen kasuan erdiratzen bagara, *bestea* ez da gure taldearen baitan onartzen, gizarte estratifikazioa ematen da, etorkinak ez dira autoktonoen modu igualitarioan txertatzen (Blanco, 1993).

Garrantzitsua da kontutan izatea ez dela soilik etorkinei eragiten dien prozesua, edozein pertsona, etorkin ala natibo, aurkitu daiteke momentu jakin batetan bazterkeria egoeran. Alabaina, lan honetan etorkinetaz ari garenez, gizarteratzea eta bazterkeria, etorkinek gizarte berrira egokitzerakoan igaro ditzaketen egoera gisa ulertuko dira, kontziente izanik gizarte berean bizi diren pertsona autoktonoek ere jasan ditzaketen egoerak direla.

Blanco-k (1993) banaketaren baitan bi eredu bereizten ditu, hala nola, *marjinazioa* eta *alboratzea*. Lehendabizikoak egitura sozioekonomiko dualari egiten dio erreferentzia, talde minoritarioek autoktonoekiko posizio ezberdinak betetzen dituzte eta mekanismo ezberdinek eragiten diete. Jatorri, etnizitate, arraza, kultura eta erlijioagatiko diskriminazioa jasaten dute, askotan *ghetto*-ak sortzen direlarik. Gizarte desberdintasuna ematen da. Etorकिनak akultura daitezke, baina hala ere, egitura sozioekonomikoan ez dira berdintasunez txertatuko. Segregazio sozial eta fisikoa, urruntze sozial eta fisikoa, pertsonen banaketa ematen da, eta kontaktuak ekidin.

Alboratzearen kasuan, gizarte orokorraren baitan berarengandik banandua dagoen azpi-gizarte bat agertzen da. Etorकिनen taldeak esanguratsua izan beharko du hau gertatu ahal izateko. Gizarte egitura paralelo bat sortzen da, pluralitatea ematen da baina kontakturik ez, jatorrizko kulturak mantentzen dira.

Horrela bada, etorkinak aurrez eraturako harrera gizartera txertatzen direnean prozesu horrek forma desberdinak hartu ahal izango ditu, eta soilik batzuk izango dira gizarteratzeari dagozkionak, beste zenbaitetan baliteke etorkinek gizarte bazterkeria pairatzea. Doktoradutza tesi honen subjektuak diren IKEDAM ohiei dagokionez garrantzitsua izango da gizarte berrira egokitzerakoan gizarteratze ereduari jarraitzea, eta horren baitan kulturartekotasuna ulertzen da eredu egokiena bezala, ezberdintasunak onartu egiten dituelako, baina aldi berean bizikidetzaren amankomun baterako puntuak bilatzen dituelako.

Hala eta guztiz, kontutan izan behar da ikusi ditugun ereduak gutxi gorabeherako kategoriak liratekeela, eta errealitatean dena askoz konplexuagoa suerta daitekeela. Edonola ere, joera orokorrak ikuskatzeko bidea ematen digute.

1.3. Gizarteratzea: prozesu dinamikoa

Aurrez aipatu den moduan, etorkinak harrera gizartera txertatzen direnean ez dituzte beti gizarteratze ereduak garatzen, eta zenbaitetan bazterkeria egoeran aurkitu daitezke. Gizarte bazterkeria egoera kontutan hartzea beharrezkoa da gizarteratzea, edo gizarte bazterkeria bera prozesu gisa ulertu ahal izateko. Ez dira mugiezinak, prozesu berberaren muturreko adierak baizik (Castel, 1992 eta 1995), eta ondorioz momentu jakin batetan gizarteratuta egoteak ez du esan nahi etorkizunean baztertuta egon ezin denik; eta alderantziz, bazterkeria egoeran egoteak ere ez du esan nahi egoera hori kronifikatua izango denik, nahiz eta zenbaitetan horretarako arriskuak egon.


Lehendabiziko prozesua kezagarria da, izan ere, une jakin batetan pertsona batengan faktore desberdinek eragin eta gizarteratze egoera egonkor batetik bazterkeria pairatzera igaro daiteke. Alderantzizko prozesua berriz esperantzagarria litzateke, baztertuta dagoen pertsonak integraziorako bidea egin dezakeela agerian uzten baitu. Etorkinak harrera gizartera iristean gizarte bazterkeriatik gertu egon badaitezke ere (berriak direlako eta egokitzapen prozesu bat aurretik dutelako), denborarekin gizarteratzerantzgo bidea egin dezakete; edo alderantziz, hasiera batetan gizarteratze bideari jarraiki diotenak, denbora zein faktore ezberdinen eraginez gizarte bazterkeria egoeran aurkitu. Hori dela eta, garrantzitsua izango da baztertuta geratu diren edo bazterkeria arriskuan dauden etorkinen kasuan integrazioa helburu duten ekintzak lantzea, norabide horretan aurrera egin dezaten; eta baita gizarteratze prozesuan aurrera egin dutenek bazterkeriarantzgo norabidea hartzea ekiditea helburu duten ekintzak lantzea ere.

Robert Castel-ek (1992 eta 1995) gizarte kohesioari dagozkion hiru eremu bereizten ditu, gizarteratzea eta bazterkeria prozesu gisa ikusteko aukera ematen dutenak: gizarteratze eremu bat, kalteberatasunezko beste bat, eta bazterkeriari dagokion hirugarren bat. Ereduak bereizterako orduan bi ardatzetan oinarritzen da: lan munduan integratuta egotea edo ez egotea; eta inguru sozio-familiarrean zein harremanen sisteman integratuta egotea edo ez egotea. Horrela bada, gizarteratze eremua lan egonkor batek eta harreman sare sendo batek ezaugarrituko du. Kalteberatasun eremua gune ezegonkorra litzateke, prekarietate laboralak eta langabeziak, zein harreman sare ahul batek xedatuko luketena.

Azkenik, gizarte bazterkeria eremua enplegurik ezak eta isolamendu sozialak bereiziko luke.

Lan honetan bi ardatz horiez gain, gizarteratze prozesuan eragiten duten beste hainbat esparru eta dimentsio leudeke (datorren 1.4. azpi-atalean ikusiko direnak). Edonola ere, autore honen ekarpenek gizarteratze zein gizarte bazterkeria prozesuak ikuskatzeko bidea ematen digute. Aldeko faktoreek eragiten dieten pertsonak (biztanleriaren gehiengoa) gizartearen erdigunean kokatuko lirateke eta gizarteratuta leudeke (1.2. Irudia). Kontrakoagoak diren faktoreek eragiten dietenak periferian aurkituko lirateke, bazterkeria egoeran. Eta azkenik, beste zenbaitzuk bi egoeren artean leudeke, kalteberatasun egoeran.

1.2. Irudia: Gizarte jakin batetan bazterkeriatik gizarteratzera doazen guneak



Iturria: Elaborazio propioa Castel-en (1992 eta 1995) ekarpenetan oinarrituta.

Prozesu horiek argiago ikusteko 1.2. irudia aurkezten bada ere, kontutan izan behar da errealitatean dena askoz korapilatsuagoa dela eta askotan zonaldeak nahasita agertu ahal direla. Edonola ere, garrantzitsua izango da biztanleriaren gehiengoarekin batera etorkinak ere (kasu honetan IKEDAM ohiak) erdigunean aurkitzea, gizarteratuta; hori dela eta, esparru eta dimentsio ezberdinetatik norabide hori landu beharko da.

1.4. Gizarteratzea: dimentsio anitzeko prozesua

Blanco-ren arabera (1990) gizarteratzea gizarte bizitzako alderdi ugari biltzen dituen prozesu konplexua da. Hori dela eta, prozesu hori dimentsio desberdinetan bereiztea beharrezkoa dela aipatzen du, hori ez baita bizitzako aspektu guztietan aldi eta modu berean geratzen (Blanco, 1993). Bosswick eta Heckmann-ek (2006) ere gizarteratzea sistema baten alderdi ezberdinen arteko harremanen egonkortasun egoera bezala ulertzen dute.

Chicago-ko Eskolak E. Park buru zuelarik burututako etorkinen txertaketaren inguruko lehendabiziko teoria asimilazionistek dimentsio kulturala soilik hartzen bazuten kontutan; geroagoko zenbait autorek, Gordon (1964) kasu, kritikatu egin zuten dimentsiobakartasun hori, integrazio prozesua dimentsio ezberdinetatik igarotzen zela agerian jarritz.

Testuinguru horretan, garaikideagoak diren zenbait autorek sailkapen edo proposamen ezberdinak burutu dituzte, gizarteratze prozesu oso bat lortzea ahalbidetzen duten dimentsio ezberdinak aipatuz (Blanco, 1990 eta 1993; Castel, 1992 eta 1995; Garreta, 2003; Giménez, 1993; Tezanos, 2001). Gizarteratze kontzeptua definitzerakoan Garreta-k (2003: 345) dimentsio anitzeko prozesu gisa definitzen zuela ikusi da, gizarte egiturari dagokion dimentsioa, kulturari dagokiona eta identitarioa aipatzen zituelarik. Gizarteratzea prozesu gisa lantzerakoan ikusitako Castel-en (1992 eta 1995) ekarpenetan ere agertzen da dimentsio ezberdinak kontutan hartu behar diren ideia, gizarteratze egoera bi esparruren baitan ezartzen duelarik: enplegua eta gizarte harremanak.

Zenbait autorek dimentsio horien inguruko sailkapen zehatzak burutu dituzte. Giménez-en (1993) arabera, esaterako, ondorengo esparruak bereizi litezke etorkinak herrialde batetan zein puntutaraino dauden gizarteratuta ikusteko bidea ematen dutenak:

1. *Juridikoa edo legala*. Egoera juridiko irregularrean aurkitzeak harrera gizartean autoktonoen baldintza eta aukera berdinen arabera txertatzea oztopatuko du.
2. *Enpleguari dagokiona*. Lanpostu bat izatea edo ez izatea, eta izatekotan horren nolakotasuna: soldata, lanpostu mota, kualifikazio maila, lan orduak etab.

3. *Etxebizitza*. Bizitzeko leku bat izatea edo ez izatea, eta izatekotan horren ezaugarriak: baldintza egokiak betetzen dituen edota baldintza txarretan dagoen etxebizitza zein *ghetto* baten baitan kokatuta dagoena, gizarte etxebizitza bat eskuratzeko aukerak etab.
4. *Hezkuntza*. Etorkinek (haur, gazte zein helduak) hezkuntza sistemara duten sarbidea.
5. *Osasuna*. Medikuntza sistemara duten sarbidea.
6. *Gizarte harremanak*. Autoktonoekin harreman egonkor eta normalizatuak ezartzeko aukera izatea edo ez izatea.
7. *Kulturala*. Subjektuak eguneroko bizitzan harrera gizartearekiko ezberdintasunak kudeatzeko moduari egingo lioke erreferentzia. Gizarteratze ereduak ikusterakoan azaldu den moduan, emaitzak askotarikoak izan daitezke. Etorkina boluntarioki akulturazio prozesu batetan murgildu daiteke, modu horretan gizarte hartzailearengandik hobeto onartua izango dela uste duelako. Jatorrizko ohitura eta tradizioak mantentzeko jarrera sutsua ere hartu dezake, bere identitatea mantentze aldera. Edota erdiko jarrera bereganatu dezake, jatorrizko tradizio kulturalak harrera gizartekoekin uztartuz, harrera gizartean bizitzeko erabilgarriagoak izan daitezkeela iruditzen zaizkionak.

Tezanos-ek (2001) bere aldetik, bost dimentsio ezartzen ditu bazterkeria-gizarteratze orekaren aldagai gisa:

1. *Enpleguari dagokiona*. Lanpostu bat izateari edo ez izateari egingo lioke erreferentzia.
2. *Ekonomikoa*. Diru-sarreraren nahikoa izateari edo ez izateari legokio.
3. *Kulturala*. Dimentsio honen baitan etorkin izatea eta hizkuntza zein kultur oztupoak izatea bazterkeria faktore gisa azpimarratzen dira.
4. *Pertsonala*. Norbanakoen sexu, adin edota osasunari legokio.
5. *Gizarte harremanei dagokiona*. Familia harremanen gabezia eta laguntasunezko gizarte sareen gabezia bazterkeria faktore gisa definitzen dira.

Vicente-k (2004) hiru integrazio ereduren arteko bereizketa egin beharra azpimarratzen du:

1. *Gizarteratze soziala, ekonomikoa eta laborala.* Etorkinak lan merkatuan txertatzeari dagokio, euren oinarrizko beharren asebetetze mailari (etxebizitza, osasuna, hezkuntza, hizkuntzaren ezagutza etab.) eta familia egoerari.
2. *Gizarteratze kulturala.* Etorkina harrera gizarteko sinesmen, balio eta bizimodura asimilatzeko asmoei dagokie.
3. *Gizarteratze juridikoa.* Etorkinaren egoera juridikoari dagokio, egoera erregularrean egotea integrazio oso batetarako beharrezkotzat jotzen delarik.

Bakoitzak bere estilo propioa eta sailkapenak garatzeko era erakusten badu ere, denengan antzeko dimentsioak agertzen direla ohartzen gara. Hala eta guztiz, ez da lan honen helburua autore desberdinek gizarteratze dimentsioen inguruan burututako sailkapen guztiak aztertzea, hori dela eta, jarraian doktoradutza tesi honen oinarri izango diren sailkapenak aurkeztuko dira:

Blanco-k (2001: 227) gizarteratzeari dagozkion 4 azpi-prozesu nagusi bereizten ditu: 1) egitura sozioekonomikoan txertatzea, 2) gizarte sareak eratzea, 3) integrazio kulturala, eta 4) harrera gizartearekiko identifikazioa³. Bosswick eta Heckmann-ek (2006: 9) ere arreta jarri beharreko lau esparru azpimarratzen dituzte biztanleria etorkinaren gizarteratzeari dagokionean: 1) egituran gizarteratzea, 2) gizarteratze kulturala, 3) gizarte integrazioa edo gizarteratze elkarreragilea, eta 4) gizarteratze identitarioa. Blanco-k (2001) aipatzen dituen aspektuak eta Bosswick eta Heckmann-enak (2006) bat datozela esan daiteke. Lehendabizi gizarte egiturari dagokion dimentsioa aipatzen dute, eta gero gizarte, kultura eta identitateari dagozkionak. Abiapuntu gisa bi sailkapen horiek hartuko dira kontutan tesi doktoral honetan, aldaketaren bat eta beste zenbait autoreren ekarpenak gehituko zaizkiolarik.

Solé, Alcalde, Pont, Lurbe eta Parella-k (2002) bi mailatan banatzen dute gizarteratze prozesua: 1) gizarte egituran integratzea eta 2) integrazio soziokulturala. Eta Blanco zein Bosswick eta Heckmann-en sailkapenek nolabait Solé et al.-ek aipaturiko bi gizarteratze maila orokorrago horiek eratuko lituzkete.


³ 1990-eko lanean gizarte sareak gizarte egituraren barnean lantzen ditu, hau da, adiskidetasun harremanak, exogamia eta gizarte parte-hartzea. Aldiz 1993-an burututako doktoradutza tesian eta ondorengo lanetan (Blanco, 2001) gizarte sareak aparteko dimentsio gisa zehazten ditu. Lan honetan bigarren ildo hori hobesten da.

Lehendabiziko esparruaren baitan, integrazio sozioestruturala lizatekeena, Blanco-k (2001) proposatzen duen egitura sozioekonomikoan txertatzeari dagokion dimentsioa legoke, Bosswick eta Heckmann-ek (2006) egituran gizarteratzea deitzen dutena. Bigarren esparruaren baitan berriz, gizarteratze soziokulturalari dagokionean, gainontzeko hiru dimentsioak egongo dira: gizarte dimentsioa (gizarte sare edo harremanak), dimentsio kulturala (pauta kulturalak, tradizioak, ohiturak, hizkuntza), eta dimentsio identitarioa (harrera gizartearekiko aintzatespena, identifikazioa eta pertenezia sentimendua).

Blanco-ren sailkapenean ageriko moduan aipatzen ez den, eta etorkinen gizarteratze prozesuan berebiziko garrantzia duen beste dimentsio bat juridikoa litzateke. Dimentsio horren garrantzia argi geratu da beste zenbait autoreren sailkapenetan, aurrez ikusi diren Giménez (1993) edo Vicente-renetan (2004) besteak beste. Bosswick eta Heckmann-ek (2006) egiturako gizarteratzearen baitan aipatzen dute dimentsio hori, hiritartasun eskubideen eskuraketaren garrantzia aipatzen dutelarik. Aldiz, duen garrantziagatik, lan honetan egokiago ikusi da aparteko moduan lantzea dimentsio hori.

Hori dela eta, Blanco-k (2001) eta Bosswick eta Heckmann-ek (2006) proposaturiko lau dimentsioei bostgarren bat gehituko zaie: juridikoa edo legala. Dimentsio juridiko hori Solé et al.-ek (2002) proposaturiko bi gizarteratze mailetariko lehenabizikoren baitan ulertuko da, integrazio sozioestruturalaren baitan. Hori dela eta, ondorengo eskeman ikus daitekeen moduan definituko dira gizarteratze prozesuaren baitako dimentsio ezberdinak doktoradutza tesi honetan:

1.3. Irudia: Gizarteratze esparru eta dimentsioak



Iturria: Elaborazio propioa Solé et al. (2002), Blanco (2001) eta Bosswick eta Heckmann-en (2006) ekarpenetan oinarrituta.

1.4.1. Esparru sozioestruturala

Dimentsio juridikoa

Dimentsio juridikoa etorkinen gizarteratze prozesua determinatzen duen aspektu garrantzitsuenetarikoa da. Hainbat instituzio eta autorek hiritartasuna eskuratzearen garrantzia azpimarratu dute (Observatorio permanente de la inmigración, 2014: 65), hau da, pertsonak subjektu gisa eskubideak eta betebeharrak eskuratzea. Hala eta guztiz, hiritartasun formala eskuratzeak ez du beti gizarteratze azpi-prozesu guztien bermatzea eragiten.

Hammar-en (1990) tipologiaren arabera etorkinak harrera gizartean *citizens*, *denizens* edota *aliens* izan daitezke. Lehendabiziko kategoriaren baitako etorkinek (*citizens*) hiritartasunari dagozkion eskubide guztiak eskuratuko dituzte, bigarrenengoaren baitakoek (*denizens*) epe luzeko egoiliarak izateagatik zenbait eskubideetara sarbidea izango dute, baina beste zenbait eskubide ezeztatuta izango dituzte, hala nola, parte-hartze politikoa, enplegu publikora sarbidea etab. Azken kategoriaren baitakoak (*aliens*) soilik denbora mugatu batetarako

dokumentazio legala eskuratu dutenak liriateke, hori dela eta hiritartasunari dagozkion eskubide gehienetaz gozatzeko aukerarik ez dutenak. Tipologia honi laugarren bat gehitu beharko zaio, egoera irregularrean aurkitzen diren etorkinena, eta horrenbestez eskubideetarako sarbideetik urrunen arukitzen direnak.

Lortzen duten hiritartasun mailaren arabera izango da beraz etorkinen gizarteratze juridikoa, eta baita beste azpi-prozesu batzuetan agertzen dutena ere, izan ere, aspektu honek beste batzuetarako sarbidea erraztu edo oztopatu dezake. Esaterako, enpleguarekin estuki lotuta dago, etorkina *eskulan* gisa ikusi izan da azken hamarkadetan, eta ondorioz, gizarteratzea lanpostu bat eskuratzearekin parekatu izan da, eta legedian ere horrelaxe arautu da (García Cívico, 2011). Egoera erregularrean egoteko beharrezkoa izango da lanpostu bat edukitzea eta bizitzeko nahikoa bitarteko izatea frogatzea. Aldi berean, lanpostu bat eskuratzeko prozedura askoz errazagoa izango da etorkina egoera erregularrean badago (zehazki lan baimena eskuratu badu), enpresariak izapide horiek egin beharrik ez baitu izango.

Espainiako etorkinen eskubide eta askatasunak eta gizarteratze prozesua arautzen dituen 4/2000 Lege Organikoak, etorkinek betetzen dituzten irizpideen arabera erresidentzia eta lan baimen mota ezberdinak eskuratzeko aukerak ezartzen ditu, eta horiek ezberdintasunak ezarriko dituzte euren gizarteratze prozesuan. Aitzitik, garrantzizkoena egoera erregularrean egotea izango da, gutxieneko eskubide batzuetaz behinepein gozatu dezaten (Giménez 1993, Vicente, 2004). Egoera erregularrean aurkitzea gizarteratze prozesu egoki baten seinale izango da, erregularitasun horrek beste zenbait dimentsiotan gizarteratzeko aukerak zabalduko bait dizkie. Egoera irregularrean egoteak berriz oztopoak eragingo ditu, eskubideen ukapena, eta integrazio prozesu oso bat burutzeko ezinezkotasuna.

Dimentsio sozio-ekonomikoa

Dimentsio hau Carlota Solé-k (1981) gizarteratze okupazionala deitzen duenaren baliokidea izango litzateke. Egitura sozio-ekonomikoan txertatzea batik bat lan esparruak edo lan merkatuak xedatzen du, izan ere, biztanleriaren gehiengoarentzat boterea eta gizarte estatusaren eskuraketa garatzen den ekintza

ekonomikoaren jarduera da, norbanakoari gizarte mugikortasun aukerak ematen dizkiona (Blanco, 1993). Azken mendeetan nagusitu den eredu kapitalista dela eta, gizarteratzea lan-merkatuan txertatzeari oso lotuta agertzen zaigu, enplegua gizarteratze mekanismo nagusi gisa kontsideratua izan delarik (Subirats, 2004).

Aspektu horrek duen garrantzia nabaria da, izan ere, gizabanakoari beharrezkoa zaio bere beharriari aurre egin ahal izateko gutxieneko ekonomia maila bat izatea, normalean enplegu bat izatearen ondoriozko diru-sarrerek ahabildetzen dutena. Lanpostu bat eskuratzeak autonomia ekonomikoa ematen dio pertsonari, eta ondorioz gizarteratze prozesua erraztu. Baina ez hori bakarrik, enplegu bat eskuratzeak lan harremanak gauzatzeko aukera ere ematen dio, jende autoktonoarekin harremantzeko; beraz beste dimentsio batzuetan ere eragin dezake enpleguari dagokion azpi-dimentsio honek. Blanco-k (1993) aipatzen duen modura, dimentsio edo azpi-prozesu honen garrantzia arrunki onartua da, beste gizarteratze aspektu batzuetan agertzen duen funtzio erabakigarria dela eta. Zentzu horretan, lan mundua autoktonoekin kontaktua, komunikazioa zein laguntasun harremanak gauzatzeko abiapuntua litzatekeela aipatu dute zenbait autorek (Brown, 1967; Schierup eta Alund, 1987).

Hori dela eta, dimentsio sozio-ekonomikoaren baitan gizarteratze adierazle gisa kontutan izan ohi den aspektu nagusienetariko bat *enplegua* da. Autore gehienek sailkapenetan ageri zaigu aspektu laborala gizarteratzearen dimentsio gisa (Blanco, 1993 eta 2001; Bosswick eta Heckmann, 2006; Castel, 1992 eta 1995; Giménez, 1993; Observatorio permanente de la inmigración, 2014; Subirats, 2004; Tezanos, 2001, Vicente, 2004). Eta etorkina harrera komunitateko gizarte egituran ondo gizarteratzeko, enplegu bat eskuratzeaz gain ez du lan merkatuan diskriminaziorik jasan beharko, baizik eta biztanleria autoktonoak jarraitzen dituen pautak berberei jarraikiz txertatu beharko du (Blanco, 1990). Jatorri, arraza, etnia edo erlijioagatiko aukera berdintasunik eza segregazio edo banaketaren seinale izango da, gizarteratzerik ezarena.

Espainiako ekonomiaren zabalkunde fasean eta 2008tik aurrera nagusitu zen krisi ekonomikoaren hasieran hainbat ikerketek etorkinen kolektiboari aurkakoak eta prekarioak ziren lan baldintzek eragiten zieten erakutsi zuten; jatorriagatik diskriminazioa jasaten zutela, soldata maila baxuagoak erakusten zituztela edota lan jarduera informalak burutzen zituztela (Colectivo Ioé, 2011;

Observatorio permanente de la inmigración, 2014). Espainiako lan merkatua estratifikazio horizontal eta bertikalak ezaugarritzen zuen zabalkunde ekonomikoko garaian, eta pertsona etorkinei lan merkatu segmentatu eta dualaren tirabirek bereziki eragiten zieten.

Gaur egungo krisi ekonomikoko testuinguruan zaila izango da lan honen subjektu diren IKEDAM ohiek egoera hobea aurkeztea. Edonola ere, enpleguarekin lotura duten eta etorkinak egitura sozio-ekonomikoan txertatzeko modua deskribatzen duten beste aspektu batzuk ere badaude, eta horiek ere aztertu beharko dira gazte hauen egoera sozio-ekonomikoa ezagutzeko. Blanco-k (1990, 1993 eta 2001) hezkuntza eta errenta aipatzen ditu, Bosswick eta Heckmann-ek (2006) berriz ekonomia eta lan merkatua, hezkuntza sistema, etxebizitza, Gizarte Ongizatearen instituzioak azpimarratzen dituzte. Lan honetan hezkuntza, egoera ekonomikoa eta etxebizitza hartuko dira kontutan enpleguarekin batera. Ikerketa honen subjektuak diren IKEDAM ohiak oso gazteak izanik hezkuntza sistemak eragina izango du euren gizarteratze prozesuan, eta bakarrik daudela kontutan hartuta (babesa eta sostengua emango dioten guraso edo seniderik gabe) euren egoera ekonomikoa eta etxebizitza baterako sarbidea ere garrantzitsuak izango dira euren gizarteratze prozesurako.

Hezkuntza aukerek norbanakoei euren gaitasun eta kualifikazio profesionala handitzeko aukera eskaintzen diete, horrek lan merkaturako sarbidea ahalbidetu eta soldata altuagoko lanpostuak eskuratzeko aukera eman diezaiekeelarik, diru-iturri egonkorrak ahalbidetuko dizkiena (Blanco, 1990). Integrazio oso bat lortzeko beharrezkoa izango da hezkuntza segregaziorik ez ematea, hau da, etorkinek autoktonoen formakuntza aukera berberak izan beharko dituzte.

Enpleguari estuki lotuta agertzen zaigun beste aldagai bat errenta litzateke (Blanco, 1990 eta 1993), baina errentaz baino egokiago litzateke *egoera ekonomikoz* hitz egitea. Diru-sarrerara nahikoa izateari edo ez izateari egingo lioke erreferentzia (Tezanos, 2001). Eta pertsona baten egoera ekonomikoa ez da beti lanpostuaren araberakoa izango, hori soldataren araberakoa izan daiteke, beste zenbait ondasunen araberakoa edo aparteko diru-iturriei dagokiona. Lanik ez dutenen kasuan esaterako, diru iturri alternatiboen existentzia (diru laguntzak esaterako) eta horien nolakotasuna kontutan hartu beharko dira.

Azkenik, dimentsio honen baitan etxebizitza egoera ere kontutan izango da, izan ere, bizileku baten eskuraketa hein handi batetan baliabide ekonomikoei lotuta agertuko da. Blanco-k (1993 eta 2001) *etxebizitzari* gizarte dimentsioaren baitan egiten dio erreferentzia, izan ere, etxebizitza horren kokapena hartzen du kontutan, kokapen hori autoktonoen auzoetan burutzen bada gizarteratzearen seinale izango delarik, eta aldiz soilik etorkinek eratzen dituzten auzo isolatuetan kokatzen badira segregazioaren seinale. Aldiz, etxebizitzaren kokapena baino lehen etxebizitza edo bizitzeko leku bat eskuratu izana edo ez izana legoke, hori dela eta, bizitzeko leku bat izatea dimentsio sozioestrukturalaren baitan ere kokatzen dute beste zenbait autorek. Ekonomia mailaren arabera etxebizitza propioa eskuratu, alokatu edo kasurik txarrenetan inolako bizilekurik izateko ahalmenik gabe gera daiteke etorkina. Tezanos (2001), Castels (2004) edo Raya-k (2006 eta 2007) bizigarritasun baldintza egokiak betetzen ez dituen etxebizitza batetan bizitzea edo etxebizitzarik ez izatea bazterkeria faktore gisa definitzen dituzte, etxebizitza propioa izatea berriz gizarteratze faktore gisa. Hori dela eta, bizitzeko leku duin bat izatea ere gizarteratze sozio-estrukturalaren seinale izango da.

1.4.2. Gizarteratze soziokulturala

Gizarte dimentsioa

Pertsonen mantentzen dituzten harreman sareei egiten dio erreferentzia gizarte dimentsioak (Blanco, 1990 eta 1993). Harreman horiek izatea garrantzitsua izango da gizarte berrira hobeto egokitzeke; zenbat eta zabalago eta anitzagoak izan euren gizarte sarea, orduan eta integrazio maila handiagoa aurkeztuko dute etorkinek. Beti ere garrantzitsua izango da aberkideez gain autoktonoekin ere harremantzea, soilik euren jatorrikoekin erlazionatzen badira sare homogeneousak eratuko dituztelako, eta horrek segregazioa eragin dezake, integrazioa oztopatuz.

Gizarte dimentsio hau gizarteratze prozesuaren baitako beste dimentsio batzuk baino askoz gutxiago landu izan den aspektua dugu. Aldiz, pertsona etorkin eta autoktonoen arteko harremanak gizarteratze prozesuen bilakaerarako garrantzia itzela dute. Gure inguruko zenbait herrialdetan, immigrazio olatu esanguratsuak gertatu eta zenbait hamarkada geroago biztanleria etorkin eta

autoktonoaren artean distantzia esanguratsua mantentzen jarraitzen zela ikusi da (Observatorio permanente de la inmigración, 2014). Hala nola, harremangabezia edo horien azaleko izaera; estereotipoen mantentzea eta elkarrekiko mesfidantza; elkarrekiko lokarrien gabezia edo ahultasuna; edota elkar eragiteko beharrezkoa den gaitasun linguistikoen falta ikusi izan dira.

Horrela bada, etorkinen gizarteratze prozesuari begira lehenik eta behin horien gizarte sarea horren jatorria kontutan izan gabe aztertzea garrantzitsua izango da, familia edo gizarte sare bat izate hutsari dagokion aspektua. Izan ere, zenbait autorek aipatu duten moduan gizarte edo familia harremanik ez izatea edo harreman gutxi izatea bazterkeriaren eragile izan daiteke (Castel 1992 eta 1995; Subirats, 2004; Tezanos, 2001). Ondorengo moduan mintzo da Subirats:

Tanto la familia como los vínculos comunitarios ejercen de soportes para hacer frente a las situaciones de riesgo y/o vulnerabilidad. En este sentido, el deterioro o la escasez de redes familiares y sociales puede constituir en sí mismo una forma de exclusión. [...] El entorno familiar es uno de los pilares clave del desarrollo personal, tanto desde el punto de vista cognitivo como, sobre todo, emocional (Subirats, 2004: 29).

Baina horrez gain, etorkinez ari garela kontutan izanik, garrantzitsua izango da gizarte sare horien eraketa jatorriaren arabera aztertzea ere; izan ere, gizarteratze prozesu eraginkor bat lortzeko beharrezkoa izango da bi kolektiboen arteko harremana. Batzuen zein besteen arteko ezberdintasunak zenbat eta nabarmenagoak izan, hala nola, kulturari, gizarte klaseari edota bizitzeko moduei dagozkionak, orduan eta zailagoa izango da harreman hori (Blanco, 1993; Izaola, 2013). Baina garrantzizkoa izango da etorkin zein autoktonoen arteko harremanak garatzea, Blanco-ren (1993 eta 2001) arabera harreman horiek beste gizarteratze azpi-prozesu batzuen baldintzatzaile izango bait dira, hala nola, dimentsio kultural eta identitarioarena. Benetako gerturapenak konfidantza gehitu, estereotipoak suntsitu eta ezezagunarekiko estres eta nahasmena gutxitzen lagunduko du, horrek kulturartekotasuna eta identitate amankomun baten eraketa erraztuko dituelarik. Autoktono eta etorkinen arteko harremanik ematen ez bada berriz estereotipoak indartu eta gatazka sortu ahal izango da. Hori dela eta, gizarte dimentsioa integrazio soziokulturala lortzeko dimentsiorik garrantzitsuenetarikoa dela esan daiteke, dimentsio kulturalan eta identitarioan integratzeko aurre baldintza.

Gizarte sarearen ikerketak gizarte kapital kontzeptura garmatza, gizarte harreman horietatik eskuratzen den kapitalari edo baliabideei erreferentzia egiten dion kontzeptua (tesi honen II. kapituluan sakontasunez definitzen dira gizarte sare, gizarte kapital eta gizarte laguntasun kontzeptuak). Pertsona batek mantentzen dituen harremanak baliagarriak izango dira, beharizan egoeran horiengana jo dezakeelako, bere baitako helburu gisa gozatu edota irabazi edo onura materialak lortzeko erabili. Eta gizarte sarearen nolakotasunaren arabera izango da bertatik eratorriko den gizarte kapitala. Horrela bada, norbanakoaren gizarte sarearen kalitate eta zabaltasunak bere lan aukerak edo beste baliabide batzuetarako sarbidea determinatuko dute. Nolabait gizarte sareak egiturari egingo dio erreferentzia, eta gizarte kapitalak gizarte sare horrek betetzen duen funtzioari.

Zentzu horretan, harrera gizartean *gizarte kapital primarioa* (gertuko senideak edo lagunak) izatea bertara egokitze bitarteko garrantzitsu bat izango dela aipatzen dute Aparicio eta Tornos-ek (2005). Horrek hasierako momentuan laguntza jasotzea ahalbidetzen die, baina aldi berean gizarte sarearen homogeneotasuna ere eragiten du, gizarte hartzailearekin gizarteratze prozesu egoki bat gauzatzea oztopatzen duena. Hori dela eta, hasierako une horren ostean garrantzitsua izango da gizarte sarea zabaltzen joatea, heterogeneoago bihurtuz, horrela gizarte kapital aukerak ere gehitu egingo direlarik.

Antzeko zerbait aipatzen dute Bosswick eta Heckmann-ek (2006) ere, hasierako momentuan etorkina bere sare etnikoak emandako laguntasunaren onuradun izango dela, baina denborak aurrera egin ahala, sare horiekiko gehiegizko loturak harrera gizartearekin harremanak eratzea eta harrera gizarteko instituzio nagusietan lehiatzeko kapital kultural eta sozioalaren eskuraketa oztopatu dezakeela.

Dimentsio honen garrantzia gehitu egiten da gaur egungoa bezalako krisi garaian, aurkako gertakizunen aurrean lehendabiziko babes maila eskainiko duelako, eta zenbaitetan pertsonen babes eragile bakarra izango da (Observatorio permanente de la inmigración, 2014). Baita IKEDAM ohien errealitatea kontutan hartzen badugu ere, bakarrik emigratzen duten subjektuak bait dira, eta ondorioz harrera gizartean euren gizarteratze prozesuan laguntza eskainiko dion gizarte

sare bat izatea garrantzitsua izango da, gizarte bazterkeria eta isolamendurik jasan ez dezaten.

Hori dela eta, doktoradutza tesi honetan gizarteratze dimentsio honi eman nahi zaio garrantzia, izan ere, gizarte sare zabal eta heterogeneo batetik gizarteratze prozesuari dagozkion dimentsioetan laguntasuna eskainiko dien gizarte kapital aberatsa lortuko dela uste da. Horrela bada, datorren atalean sakontasunez landuko da aspektu hau.

Dimentsio kulturala

Kulturak komunitateko bizitzari zentzua eta berezitasuna ematen dizkion aspektu ugari biltzen ditu: tradizioak, hizkuntzak, balioak etab. besteak beste (Blanco, 1993). Berger-en (1971) arabera kulturak hizkuntza aspektuak, gastronomiari dagozkionak, musikalak, kirolari dagozkionak, folkloreaki dagozkionak, arteari dagozkionak barne hartu ditzake, eta eremu geografikoekin eta bertako biztanleriarekin harremandu ohi da. Askotan, ezberdintasun kulturala, Stolcke-k (1993) *fundamentalismo kulturala* deitzen duena, *gu* eta *besteen* arteko distantziak nabarmentzeko tresna bilakatzen da, bere bitartez gizarte bazterkeria eta desberdintasuna justifikatzen delarik, etorkina bere marjinazio egoeraren erantzule bilakatuz (Agrela, 2002).

Sartori-k (2002) dioenez, biztanleria autoktonoak homogeneotasun kulturala defendatzeko helburuz kulturalki integragarri ez denaren figura sortzen du, beste mota batetako ezberdintasunak justifikatzeko. Zentzu horretan Goffman-ek (1963) *estigmatz* hitz egiten digu, zenbait pertsonen izan dezaketen eta mota askotarikoa izan daitekeen (fisikoa, soziala zein tribala) ezaugarri negatiboa litzatekeena, eramailearen izatea zikintzen, gutxien edo baliogabetzen duena eta ondorioz normaltasun sozialetik at dagoen pertsona bihurtzen duena. Etorkinen kasuan talde jakin bateko partaide izateagatik, eta kultura, ohitura zein erlijio ezberdinak praktikatzegatik eurekiko ebaluazio negatiboa egiteari dagokio.

Homogeneotasun kulturala ordea mito bat da gaur egungo gizarteetan. Kultura ez da entitate estatikoa, etengabeko eraikitze prozesuan dagoen zerbait baizik (Blanco, 1993; Canclini, 2001; MacClancy, 1996). Eta gizartearen eta kulturen dinamikotasun eta eraldaketan kolektibo etorkinen aportazioa dibertsitate kulturalerako bidea besterik ez da, esparru kulturalaren zabaltzea, ohitura

kulturalen arteko erlazioa eta berdefinizioa. Desberdintasuna onartzeak kultura ezberdinen integrazioa eta aberastea ahalbidetzen du; desberdintasun hori onartzen ez bada berriz ukapena, bazterkeria eta estigmatizazioa sortuko dira (Lamo de Espinosa, 1995; Maalouf, 1999).

Bere hastapenetan, alde bakarreko prozesu gisa ulertzen zen gizarteratzea, etorkinen aldetik etorri beharrekoa; horiek kultura berria guztiz bereganatu beharko zuten eta horrela gizarte hartzailea desintegrazio mehatxutik at egongo zen. Denborarekin ordea, pluralitatearen aldeko ikuspegiak nagusitu dira, eta alde biko prozesua dela ulertu da. Blanco-k (1993) dioenez etorkinen gizarteratzeak ez du nahi eta nahi ez jatorrizko kulturaren suntsidura eskatzen, ez etorkinen aldetik, ezta autoktonoen aldeik ere. Edozein kulturaren baitan *nukleo gogor* bat eta *periferia* aurkituko ditugula diosku autoreak. Hori horrela izanik, etorkina gizarte berrira egokitu ahal izango da bere kulturako nukleo gogorra mantendu eta elementu periferikoak aldatuta, harrera gizarteko balio periferikoak bereganatuz.

Aldi berean, gizarte hartzaileak ere bere jatorrizko kulturaren bereizgarri periferikoak aldatu ahal izango ditu, nukelo gogorra mantenduz eta berariazko gizarte izaten jarraikiz. Autoktono zein etorkinek puntu amankomunak aurkitu beharko dituzte modu harmoniatsuan bizitzeko, kulturartekotasuneko bideari jarraikiz. Modu honetan gizarteratze prozesuaren alde bikoitasuna gauzatuko litzateke. Bosswick eta Heckmann-ek (2006) ere antzeko zerbait azpimarratzen dute, etorkinek gizarte berriko oinarrizko gaitasunak eskuratzen dituztenean soilik lortu ahal izango dituzte eskubideak, baina aldi berean, harrera gizarteak hiritartasun berriaren behar eta eskakizunei erantzuteko gai agertu beharko du.

Dimentsio kulturean integratzeak ez dakar nahi eta nahi ez akulturazioa (jatorrizko kultura alde batetara utzi eta harrerakoa bereganatzea), kapital kulturalen gehikuntza baizik (Delgado, 1998; Bosswick eta Heckmann, 2006). Kulturen arteko hartu-emanak eta harrera gizartean elkarrekin bizi diren kultura eta ohituren ezagutzak kulturartekotasuna ahalbidetzen dute, norbanako guztien gizarteratzea eta gizarte kohesioa erraztuz.

Elkarrekiko errespetutik abiatzen den alde biko lana izango da beraz, harrera gizarteko zein jatorrizko gizarteko baliorik egokienak hautatu eta denak batera armoniatsu bizitzeko modua sortzea (Maalouf, 1999). Hasieratik errespetua

izango da gakoa, etorkinak eta euren kulturak errespetatzen ez badira, eta mespretxatuak direla sentitzen badute, horrek ezberdintasuna handitzea ekarriko du, erasoaren aurrean etorkinek euren ezberdintasuna azpimarratu eta aldarrikatuko dutelarik. Horren aurrean, harrera gizartea banatuta geratuko da, bi talde ezberdin aurkituko dira, elkarrekin aurkatuta daudenak, eta ondorioz eguneroko bizitza tentsioak ezaugarrituko du.

Aldiz errespetatu eta onartzen badira, harrera gizarteak egin diezazkiekeen kritikak modu ezberdinean ikusiko dituzte, eurak ere kritikak modu onean egitera animatuko dira, eta elkarrekiko errespetu eta kritikatik denentzat egokiak diren gutxieneko bizitzeko pautak batzuk ezarriz joango dira. Elkarren arteko ezberdintasunak onartu eta desberdintasun horrekin bizitzeko gutxieneko puntu amankomunak aurkitu beharko dira. Horretarako funtsezkoa izango da autoktonoekin interakzio bat ematea, harremanak ezartzea, elkar ezagutzea eta errespetatzea, eta hortik abiatuta proiektu amankomun bat eraikitzea.

Dimentsio kulturalaren baitan etorkin eta autoktonoen artean *kulturartekotasunaren* ereduari jarrikiz gizarteratzea izango da beraz helburua. Eredu hori garatzea errazagoa izango da bi kolektiboen artean antzekotasun kulturalak ematen direnean, Izaolak bere doktoradutza tesian erakutsi duen modura (2013). Zentzu horretan IKEDAM ohien kasuak zailtasunak aurkeztu ditzake, kulturalki harrera gizartearengandik zeharo ezberdinak direlako: erlijio ezberdina dute, hizkuntza ere bai, ohiturak, itsura etab.

Blanco-ri (1990, 1993 eta 2001) jarraikiz, integrazio kulturala neurtzeko eta kulturartekotasuna bermatzeko elementuen baitan garrantzitsuenetariko bat *hizkuntza* litzateke. Harrera gizarteko hizkuntzaren ezagutzak norbanakoari gizarte berria ezagutzea ahalbidetzen dion kapital kulturala ematen dio. Horrek norbanakoari beste pertsona batzuekin interakzioa izateko aukera, eta ondorioz komunitate hartzailea ezaugarritzen duten balio eta jomugak eskuratzekoa ahalbidetzen dio. Eta ez hori bakarrik, hizkuntzaren ezagutzak euren jatorrizko kulturaren ezaugarri eta ohiturak harrera gizarteari azaltzeko aukera ere emango die, hori zurrumurru eta estereotipoei aurre egiteko eraginkorra izan daitekeelarik.

Harrerako hizkuntza ikasteak garrantzi berezia izango du beraz, gizarte hartzaileko jendareekin erlazionatzea ahalbidetuko dielako, isolamendu etnikoa

eta talde bereizketa ekiditea, eta izaera ezberdineko ekintzetan parte hartzea, horrela gizarte kapitala eta gizartekotasuna handituz. Izan ere, hizkuntzak, batu egin dezakeen bezalaxe, banatu edo isolatu ere egin dezake (Izaola, 2013). Kasu batzuetan ikaskuntza hori ez da zaila izango, hegoamerikarren kasuan harrera gizarteko hizkuntza ofizialetariko bat dute ama hizkuntza; beste zenbaitek, hala nola errumaniarrek, ama hizkuntza ezbedina dute baina gaztelaniaren jatorri berberekoa; egoera konplexuagoa da distantzia linguistiko handiagoa existitzen den herrialdeetatik datozenen kasuan, besteak beste Afrika edo Txinatik. Doktoradutza tesi honen subjektuak diren IKEDAM ohiak normalki Afrikatik datozela kontutan izanik (IV. kapituluaren agertzen dira euren perfilak) zentzu honetan zailtasunak izan ditzaketela pentsa daiteke.

Horrek ez du esan nahi jatorrizko hizkuntza utzi beharko dutenik, biak erabili ditzakete (Blanco, 1993). Hain zuzen elebitasuna, hau da, jatorrizko eta harrerako hizkuntzak hitz egitea, pluralitate kulturalaren seinale izango da; jatorrizko hizkuntza mantentzen ez bada berriz akulturazioarena. Ioé kolektiboak (1992) dioten modura, harrera gizarteko hizkuntzaren ezagutza etorkinarentzako tresna eta eskubidea da⁴, baina baita ama hizkuntza mantendu eta erabiltzea ere. Lekuko hizkuntza ikasi eta erabiltzeak ez du jatorrizko hizkuntza galtzea eskatzen, baizik eta hizkuntza kapitalaren gehikuntza, eta harrera gizarteko eragileekin harremantzea ahalbidetzen diona. Hizkuntza identitatearen parte ere bada (Barquín, 2004), hori dela eta, garrantzitsua izango da ama hizkuntza erabiltzen jarraitzea, baina aldi berean beste hizkuntza bat edo batzuk ikasi ahal izango dira, ikaskuntza horrek jatorrizko identitatea moldatuko duelarik edo norbanakoaren identitate anitza eragin (Maalouf, 1999).

EAEko kasua berezia da, elebitasun ofizialak ezaugarritzen baitu; Gaztelania eta Euskera biak dira hizkuntza ofizialak. Etorकिन eta autoktonoek amankomunean izan ohi duten hizkuntza normalean gaztelania da (Blanco, 1993), kontutan izan behar da normalki etorkinek beharrik gabe ikasten dutela harrerako hizkuntza, eta nekez planteatuko dute bi hizkuntzak ikasteko aukera (Barquín, 2004), nahiz eta harrera gizartearentzako horrek balio sinboliko eta instrumentala izan. Dimentsio

⁴ UNESCOren (Hezkuntza, zientzia eta kulturarako Nazio Batuen erakundea) Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsaleko 13. Artikuluak diotenari jarraikiz gizaki orok eskubidea dauka bizi den lurraldeko hizkuntza propioa ikasteko.

kulturalaren baitan *hizkuntza kapital*⁵ zabala izateak gizarte interakzio zabalagoa ahalbidetzen du, horrek gainontzeko gizarteratze dimentsioetara sarbidea erraztu dezakeelarik (Solé eta Alarcón, 2001). Horrek, besteak beste identitate kolektiboa ahalbidetzen duela dio Blanco-k (1990).

Gaztelania jakitea integraziorako mekanismo egokia izan daiteke, hedapen gehien duen hizkuntza delako; euskeraren ezagutza berriz euren sustapenerako tresna izan daiteke, elebitasunak ezaugarritzen dituen gizarteetan lekuko hizkuntza erabiltzeari garrantzi handia ematen baitzaio (Alarcón, 2004). Lekuko hizkuntza ikastea beraz gizarteratze adierazle egokia izango da, eta etorkinen aldetik integratzeko borondate handiagoa erakutsiko du, biztanleria autoktonoak bereziki apreziatuko duena. Aldi berean kapital kulturalen metaketa handiagoa izango dute lekuko kulturak ezagutu ahal izateko. Lekuko hizkuntza ez ezagutzea berriz bazterkeria faktore izan daiteke (Zapata-Barrero, 2006), eta autoktonoekiko aukera berberak ez izatea eragin dezake (Ruiz Bikandi, 2006; Duplá eta Fagoaga, 2007). Gaztelania hobesteko jarrerak autoktonoen ukapena ere eragin dezake, etorkinen kolektiboaren sentsibilizazio eta sozializazioarekiko jarrera ezkorra garatzea.

Hizkuntza bat ikasteko modurik errazena eguneroko interakzioa dela dio Barquín-ek (2004), bizilagunekin, lankideekin etab. hitz egitea. Funtsean autoktonoekin mantentzen diren gizarte harremanen bitartez ikasiko da beraz harrera gizarteko hizkuntza. Lagun autoktonoak izateak etorkinek harrera gizarteko hizkuntzarekiko duten konpetentzian eragin handia izango du (Maruny eta Molina, 2001).

Dimentsio identitaria

Giza komunitate batekin identifikatze prozesuari eta bertako kide izatearen sentimenduari dagokio (Blanco, 1990; Bosswick eta Heckmann, 2006; Garreta, 2003). Etorkinak harrera gizartean guztiz integratu direla ondorioztatzeko, komunitate horrekiko identifikazio sentimendu bat egotea beharrezkoa izango da, bertakoak izatearen sentsazioa edukitzea. Gizarteratzea osoa izango da natibo zein etorkinak historia amankomun baten eraketan parte hartu dutela sentitzen

⁵ Norbanako bakoitzak ezagutzen dituen hizkuntza kopuruari egiten dio erreferentzia *hizkuntza kapital* terminoak (Bourdieu eta Wacquant, 1994).

dutenean; identitate kolektibo amankomun batek existitu beharko du. Blanco-k dioen *moduan* etorkinak komunitateko kide gisa errekonozitzen direnean eta errekonozituak direnean utziko diote arrotz izateari: “*Sólo cuando estos últimos se reconocen y son reconocidos como miembros de la comunidad, dejarán de ser <<extraños>> para pasar a formar parte de la historia de pueblo que les acoge*” (Blanco, 1990: 99).

Dimentsio identitarioa gizarteratze prozesuaren dimentsiorik subjektiboena izango litzakete. Blanco-ren (1990) arabera, gizarteratzearen baldintzatzaile subjektiboek⁶ azpi-prozesu honetan gainontzekoetan baino eragin gehiago dute. Harrera gizarteko kide izatearen identitatea eratzeko aurretiazko baldintza etorkinek komunitateko kide izateko desioa agertzean datza, baita biztanleria autoktonoen aldetiko onarpenean ere. Autoktonoengandik jarrera ezkorrak hautematen badituzte, etorkinek ez dute integratzeko desiorik garatuko eta hori gizarteratze prozesurako oztopo izango da (Blanco, 1993; Maalouf, 1999).

Horrela bada, dimentsio identitarioaren osagai nagusia *sentsibilizazioa* izango da. Horrek gizarte hartzailearengandik dibertsitatea ezagutzeko borondatea eskatzen du. Gizarte dimentsioaren baitan aipatu den moduan talde heterogeneoekin kontaktuan egotea beharrezkoa izango da dimentsio kulturala eta identitarioa bermatzeko. kontaktu horrek bestearen errekonozimendua, estereotipoak ezabatzea, eta kulturarteko harremana ahalbidetuko du, eta horrek elkarrekiko sentsibilizazioa eragin. Dimentsio kulturalari estuki lotuta agertzen zaigu dimentsio identitarioa beraz, beharrezkoa izango da lehendabizi kulturen arteko kontaktu eta errespetua, elkarrenganako sentsibilizazioa. Behin hori lortu denean kide horiek identitate kolektibo bakar baten baitan errekonozitzeko aurre-baldintzak beteta egongo dira.

Berriro ere, sentsibilizazio hori ematea errazagoa izango da jatorri ezberdineko pertsonen arteko ohitura, balio, hizkuntza, etab. antzekoagoak direnean (Blanco, 2001). Aldiz ohitura, balio zein hizkuntza oso ezberdinak direnean gatazka sor daiteke. López eta Castro-k (2007) diotenez, pertenenziak identitatea dakar, baina pertenenzia edo nongotasuna zehaztea ez da erraza nahi eta nahi ez balore oso ezberdineko bi munduren artean mugitzen den nerabe

⁶ Gizarteratze prozesuan zuzenki eragiten duten autoktono zein etorkinen pentsamoldean aurkitzen diren bereizgarriak lirateke baldintzatzaile subjektiboak. Natibo zein etorkinen jarrerak integrazio prozesua ahalbidetzen edo oztopatzen duten faktore nagusizat kontsideratu izan dira (Blanco, 1990: 79).

baten kasuan. Arrazoi berbera dela eta ez da erraza ezta ere identitate bat eratzea, izan ere leialtasun eta fideltasun gatazkak ebatzi beharko ditu etorkinak, ordura arte erakutsi zitzaiona eta orain aurkitzen ari denaren artean. Egoera horretan aurki daitezke ikerketa honen subjektu diren IKEDAM ohiak, 5. kapituluan ikusiko den moduan gehiengoa marokoarrak izanik ohitura, erlijio eta bizimodu oso ezberdinetatik datozen mutikoak bait dira.

Zentzu horretan, Maalouf-ek (1999) kritika egiten dion gaur egungo identitatearen ulerkera sinplistik ere asko zaildu dezake elkarrekiko onarpen eta sentsibilizazioa garatu eta identitate amankomun baten baitan isladatzea. Autore horrek dionenez, identitatea pertenezia bakarrera mugatzen da, bere izaera konposatuaz ohartu beharrean. Gizabanako guztiok identitate konposatua dugu, eta hori da hain zuzen bakoitzaren identitatea ezaugarritzen duena: konplexua, berdingabea, aldaezina eta beste inorekin nahasi ezinekoa. Hori onartzen bada, etorkina bere identitatea alde batetan edo bestean finkatu beharretik aske sentituko da. Aldiz, garai ezberdinetan, beste guztien gainetik gailentzen den pertenezia nagusi bakar bat dagoela, eta ondorioz pertenezia hori *identitate* gisa definitu zitekeela sinetsiarazi zaigu. Batzuentzat erlijioa zen pertenezia hori, beste batzuentzat nazioa, edo klase soziala.

Alde batetan edo bestean kokatu beharrak gatazka eta kontrakotasuna sortzen du *gu* eta *haien* artean, eta ezinezko bilakatzen du autoktono zein etorkinak islatzen diren identitate amankomun bat eratzea. Maalouf-ek dioen modura:

Si a nuestros contemporaneos no se los incita a que asuman sus múltiples pertenencias, si no pueden conciliar su necesidad de tener una identidad con una actitud abierta, con franqueza y sin complejos, ante las demás culturas, si se sienten obligados a elegir entre negarse a sí mismos y negar a los otros, estaremos formando legiones de locos sanguinarios, legiones de seres extraviados (Maalouf, 1999: 49).

Gure aldean amankomunean gauza gutxi ditudan pertsonak ere badaudela, eta alderantziz *haien* aldean gauza gehiago partekatzen ditudan pertsonak ere badaudela ohartu beharraren garrantzia aipatzen du Maalouf-ek (1999). Horrela, identitate finko baten baitan errekonozitu beharrean bi kulturetako aspektuak modu armoniatsuan txertatzeko aukera izango dute bai etorkinek, euren baitan gatazka gutxiago, eta autoktonoekin batera identitate kolektibo bat garatzeko erraztasuna.

Horrez gain, kanpotik ere onartu beharko da prozesu hori, harrera gizartekoek etorkinaren kultura onartu beharko dute, etorkinak pertenezia eta identitatea eratzeko prozesuak modu harmoniatsuan burutzeko. Kolektiboen artean zuzeneko kontakturik egon ez denean kanpo estereotipoetan soilik oinarrituta egin ohi den ebaluazioa negatiboa izan ohi da. Askotan, ezberdina dena estigmatizatu egin ohi da (Goffman, 1963), eta horrek taldeen arteko banaketa dakar, etorkinen gutxiatea. Hori dela eta, garrantzitsua izango da autoktono eta etorkinen arteko kontaktu zuzena. Elkarrekiko ebaluazioa positiboa denean komunitatearekiko atxikimendua eta pertenezia sentimendua gauzatzen dira. Hori jatorri ezberdineko taldeen sensibilizazioa, kulturartekotasuna eta baterako parte-hartzearen ondorioz lortuko da. Beste jatorri batetako pertsonekin harremantzea sensibilizazioaren adierazle izango da, eta identitate kolektiboa ahalbidetuko du, bestearen errekonozimendua eta dibertsitatearekiko errespetua sustatuz.

Horrela bada, doktoradutza tesi honetan *gizarteratzea* txertatze fisiko hutsetik bereizten den kontzeptutzat ulertzen da, eta bere baitako eredurik eraginkorrena kulturartekotasunarena dela uste da, etorkin zein autoktonoei jatorrizko ezaugarri kulturalak mantentzen uzteaz haratago bizikidetzaren harmoniatsu bat lortzeko helburuz puntu amankomunak bilatzea ere helburu duelako. Egoera estatiko bat izatetik haratago prozesu dinamiko bat dela ulertzen da, denboran zehar eta faktore desberdinen eraginez aldatuz joan daitekeena norbanakoak gizarteratze edo bazterkeria egoeratik gertuago edo urrunago aurkitu daitezkeelarik. Zentzu horretan garrantzitsua izango da etorkinek gizarteratzerantzgo norabidea jarraitzea eta horretarako erraztasunak ematea. Eta bizitzako esparru eta dimentsio ezberdinetan gertatzen den prozesua izango da, guztietan egokitzapen bat lortzea beharrezkoa izango delarik gizarteratze egoera integralago bat lortze aldera.

Ikerketa honen helburu eta hipotesiei erantzuteko asmoz (III. kapituluaren zehazten dira) gizarteratzea eratzen duten esparru eta dimentsio horiek erabilgarri izango dira. EAEko IKEDAM ohien gizarteratze egoera aztertzerakoan sailkapen horri jarraituko zaio, esparru sozio-estrukturalaren baitan dimentsio juridiko eta sozio-ekonomikoan (enplegu egoera, hezkuntza, egoera ekonomikoa

eta etxebizitza) agertzen duten errealitatea ikertuko da; eta soziokulturalean dimentsio sozial (gizarte sareen eraketa eta funtzioa), kultural (kulturartekotasun maila eta hizkuntza) eta identitarioan (elkarrekiko sentsibilizazioa eta identitate amankomun baten agerpena) aurkezten duten egoera.

II. GIZARTE SAREA ETA BERTATIK ERATORRITAKO GIZARTE KAPITALA ETA GIZARTE LAGUNTASUNAREN ERAGINA ETORKINEN GIZARTERATZE PROZESUAN

Gizarteratze prozesu oso bat lortzeko esparru eta dimentsio ezberdinetan egokitzapena lortzea beharrezkoa izango dela azaldu da aurreko atalean. Tradizionalki, etorkinen gizarteratzea bermatzerako orduan batik bat integrazio sozioestrukturalari dagozkion dimentsioetan eragin izan da, batik bat enpleguari dagokionean. Lan merkatuan txertatzea helburu duten politika eta ekintzak gehiago sustatu izan dira beste edozein motatakoak baino. Subirats-ek aipatzen duen moduan, enplegua gizarteratzea lortzeko tresna nagusia izan da:

Las políticas de respuesta de que disponemos [...] políticas de protección y asistencia basadas, o con claros vínculos, en el mercado de trabajo, considerado hasta hace poco el principal o casi único mecanismo de integración social (Subirats, 2004: 6).

Aurreko atalean aipatu den moduan, ezin da ukatu edozein pertsonarentzat enplegua izateak duen garrantzia, bizitzan aurrera egin ahal izateko diru-iturria delako, eta horrenbestez gizabanakoentzat bizibidea. Horrez gain, gizarte harremanak ahalbidetzen dituen mekanismoa ere bada, langilea beste pertsona batzuekin harremanduko baita lanera doanean. Baina EDE Fundazioak aipatzen duen moduan, krisi testuinguruan enpleguaren eraginkortasuna kolokan geratzen da: *“si el trabajo representa el vector sobre el que se sustenta principalmente la integración, en tiempos de crisis su vulnerabilidad se acrecienta”* (2012: 14).

Gaur egun, enplegua, gizarteratze prozesua ahalbidetzeko tresna ezegonkorra bilakatu da. Pertsonak izan ohi dituzten harremanak eta horietatik eratortzen den gizarte kapitala berriz, jarduera politikoaren baitan gutxi landu den esparrua izanik ere, gaur egungo krisi testuinguruan eraginkorragoa suertatu daiteke esparru desberdinetan pairatu daitezkeen zailtasunen aurrean babesa emango duelako (Observatorio permanente de la inmigración, 2014), eta denboran zehar askoz iraunkorragoa izan daitekeelako (Pérez de Armiño, 2000).

Horrela bada, tesi honetan gizarteratze prozesua lantzeko bigarren ildo hori hobetsi nahi da, gizarte harremanak suspertzea abiapuntu duena. Orain artean enplegu bat ahal bezain laster eskuratzeko ekintzei lehentasuna eman bazaie, lan

honetan gizarteratze prozesu oso bat pertsonen gizarte harremanetan eraginda ere lortu daitekeela uste da, harreman horiek ahalbidetzen duten gizarte kapitalaren mentaketaren bidez.

Atal honetan estuki harremanduta dauden hiru kontzeptu bereizi eta azalduko dira: gizarte sarea, gizarte kapitala eta gizarte laguntasuna. Eta horiek norbanakoen gizarteratze prozesua ahalbidetzeko izan dezaketen garrantzia agerian jarriko da.

2.1. Gizarte sarea

*Gizarte sareak*⁷, elkarren artean harremanak diren norbanako edo taldeek eratzen dituzten multzoak lirateke. Ondorengo moduan definitzen du kontzeptu hori Lozares-ek:

Las Redes Sociales pueden definirse como un conjunto bien delimitado de actores - individuos, grupos, organizaciones, comunidades, sociedades globales, etc.- vinculados unos a otros a través de una relación o un conjunto de relaciones sociales (Lozares, 1996: 108).

Gizarte sarea edo gizarte ingurunea egokitze mekanismo indartsua izan da gizakiarentzat (Kingsley Davis, 1965). Gizarte harremanen garapena eboluzioaren pausu garrantzitsuenetariko bat izan zen, bakarrik eta modu isolatuan eraginkorki aurre egin ezin zitzaizen arazoei irtenbideak eta erantzunak aurkitzeko bidea eman baitzuen. Lehendabiziko ehiztari taldeek, esaterako, harrapakin handien jazarpena ahalbidetu zuten; aldi berean gizarte lankidetzan, parte-hartzean eta antolaketan dinamismo eta sakontasun handiagoa eragin zuena. Gizarte antolaketa hori modu zuzenean biziraupenarekin lotzen da (Tezanos, 1991).

Hori dela eta, ez da arraroa giza espezieak bere bilakaeran zehar gizarte harremanak sortu eta mantentzeko joera erakutsi izana. Horrek, kulturaren eta bere igorpenerako mekanismoen agerpena ahalbidetu du, eta gizabanako bakoitzari dagokion bizi mota xedatu. Zenbait autorek azpimarratu duten modura gizarte dimentsioa gizakiari bizitzeko behar-beharrezkoa zaion baldintza bihurtu da: *“Lo social se ha convertido no ya en un recurso adaptativo importante sino en la*

⁷ Azkenaldian gizakien arteko harremanak gauzatzeko internetek esakaintzen dizkigun zerbitzuak izendatzeko erabiltzen da *gizarte sare* edo *sare sozial* terminoa, hala nola Facebook edo Twitter bezalako web lekuei erreferentzia egiteko. Aitzitik, lan honetan, bere zentzu tradizionalan ulertuko da terminoa, eta norbanakoak mantentzen dituen harremanei egingo dio erreferentzia.

conditio sine qua non *de la existencia del ser humano*" (Gracia, Herrero eta Musitu, 1995: 12).

Jada Aristotelek gizakia izaki soziala zela baieztatzen zuen, gizabanakoak taldearekiko zuen menpekotasunari erreferentzia eginez, bere aburuz taldekideen batuketa baino askoz gehiago zena. Ideia hori ez da ahaztu, eta gizarte dimentsioaren eta gizarte harremanen garrantzia aski onartua izan da. Historian zehar, pentsalari eta poeta ugarirengan aurki dezakegu bere garrantzia, baita erlijio liburuetan ere, hala nola Bhágavad-gita (testu sakratu hindua) edo Biblian (judaismo eta kristautasun liburu kanonikoen bilduma) (Gracia, Herrero eta Musitu, 1995). Argi dago kultura eta garai ezberdinetan errepikatzen den ideia dela, hori dela eta, ezin da inola ere gaur egungo ideiei original gisa kontsideratu.

Hala eta guztiz, ondare garaikidetzat gizarte faktoreek norbanakoaren ongizatean duten eraginaren inguruko ikerketa zientifiko eta sistematikoak jo ditzazkegu. XIX. mende amaiera eta XX.aren hasieran gizarte faktoreek buru osasunean duten eragina ikertzeko interes zientifikoa sortzen da. Diziplina soziologikoaren baitan, 1897an Emile Durkheim soziologo frantsesak, aski ezaguna den suizidioaren gizarte determinatzaileen inguruko lana kaleratzen du, gertuko gizarte harreman gutxiago zituzten pertsonen maizago egiten zutela bere buruaz beste ondorioztatuz (Durkheim, 1989). Gizarte industrial berrietako desintegrazioa edo gizarteratzearen galera ikertu zuen autoreak, garapen industrialak indibidualismoari garrantzia gehiago esleitzean, ordura arteko komunitate eta ahidetsun harremanen ereduaren eraldaketa eskatzen zuela argudiatuz. Jendea, nekazal guneetatik soldatapeko langile gisa aritzeko hiri ingurura jeisten zenean, norbanakoekin, familiarekin, elizarekin zein komunitatearekin zituen harremanak disolbatu egiten zirela, eta horrek laguntasunaren murriztea eta gizarte arauen galtzea eragiten zuela uste izan zuen. Bere aburuz, gizarteratzearen galera edo *anomia*, ongizate psikologikoarekin bateraezina zen.

Jada XX. mendean, Simmel-en lanei jarraikiz, Poloniako nekazariak Estatu Batuetako hiriguneetara burututako emigrazioaren eraginak ikertu zituzten Thomas eta Znaniecki-k (2004). Lan klasiko horretan, kohesiozko gune ruralak abandonatu eta giro inpersonalak ezaugarritzen zituen ipamerikako hiri

industrialetara emigratzeak etorkinengan jokabide arazoak eta gizarte antolakuntzarik eza eragiten zuela ikusi zen.

Hamarkada berean, Chicago-ko Unibertsitatearen baitan, gizarte sareen hausturak kezkatzen zituen ikerketa talde bat sortzen da, geroago *Chicago-ko eskola* gisa ezagutuko zena. Fundatzaileen artean Robert Park, Ernest Burgess eta Roderick McKenzie aurkitzen dira. Autore hauek ere antzeko ondorioetara iritsi ziren, sozialki kohesiozkoak ziren komunitateak utzi eta gunee industrialetan kokatzeak, trantsizio guneeetan jokabide eta gizarte arazoak eragiten zituen (Gracia et al., 1995).

Argi geratzen da beraz gizarte sarean edo sareetan murgilduta egoteak norbanako zein taldeentzat duen garrantzia. Eta hain zuzen hortik eratorriko lirateke gizarte kapitala eta gizarte laguntasuna. Gizarte sarea gizarte kapitala metatzeko eta gizarte laguntasun baliabideak jasotzeko aurre baldintza izango da, hala eta guztiz, gizarte sarea izateak ez dakar derrigorrez gizarte kapitala edo gizarte laguntasuna berarekin (Gracia et al., 1995; Musitu, Buelga, Lila eta Cava, 2001). Gizarte sarerik ez duen pertsona batek, esaterako herrian berria delako, ez duelako inor ezagutzen eta ez duelako familiakiderik, ezta gertuko lagunik ere, nekez izango du gizarte laguntasunik; baina aldi berean, gizarte sarea izateak ez du auresuposatzen gizarte kapitala izango duenik eta gizarte laguntasuna eskuratuko duenik. Hori, sarearen ezaugarrien araberakoa izango da, eta horrek betetzen dituen funtzioen baitakoa.

Zentzu horretan, zenbait autorek *gizarte sare* eta *gizarte laguntasun sare* kontzeptuak bereizten dituzte (Gracia et al., 1995; Musitu et al., 2001). Gizarte sareak pertsona baten gizarte harreman multzoari egiten dio erreferentzia, harreman horiek gertukoak zein urrunagokoak izan daitezkeelarik, zenbaitetan pertsonaren izena soilik jakin daitekeelarik edo soilik bistaz ezagutu. Gizarte laguntasun sarea berriz, aipaturiko gizarte sarearen azpimultzo bat litzateke, zeinetan norbanakoari gizarte laguntasuna ematen dietenak soilik barne hartuko liratekeen, gizarte kapitala metatzea ahalbidetzen dutenak hain zuzen. Lehendabizikoak gizarte harremanen egiturazko ezaugarriei egiten die erreferentzia, bigarrenak berriz harreman horiek betetzen duten funtzioari, norbanakoaren ongizatearen mantentze edo hobekuntzan eragin dezakeelarik (Díaz-Veiga, 1987).

2.2. Gizarte kapitala: gerturapen kontzeptuala

Orain dela bi hamarkada arte, *gizarte kapitala* gizarte zientzien baitan gutxi ikerturiko gaia zen. XX. mendeko 90. hamarkadaren erditik aurrera ordea, diziplina ezberdinetako ikertzaileen interesa pizten hasi zen, soziologo, ekonomista, politologo edo antropologoen besteak beste. Diziplina ezberdinetatik lantzean, gaur egun oraindik ez da existitzen ikertzaile guztien adostasuna biltzen duen definizio bateratzailerik (Bernat et al., 2010; Portela eta Neira, 2003). Denentzat egokia den definizio bat eratzeko diziplina arteko gerturapen bat beharrezkoa izango litzateke, ekonomia, soziologia eta politikaren hizkuntza propioa konbinatuz, garapenaren ikuskeran eta hori lortzeko estrategietan egondako aldaketak kontutan hartuz (Bernat et al., 2010). Aldiz, diziplina arteko ikuspegiak ez bereganatu izanak gizarte kapitalaren inguruko definizio sorta zabala egotea eragin du.

2.2.1. Kontzeptuaren jatorria

Gizarte kapitalaren inguruko literaturak Bourdieu, Coleman eta Putnam azpimarratzen ditu terminoaren sortzaile gisa (Bernat et al., 2010; Lin, 1999; Lozares, López, Verd, Martí eta Molina, 2011; Portela eta Neira, 2003; Ramírez, 2005; Torres, 2004; Vargas, 2002; Wall et al., 1998). Aitzitik, kontzeptuaren jatorria, ez terminoarena, soziologiako edo ekonomiako autore klasikoetan aurki daiteke (Torres, 2004). Modu esplizituan ez bada ere, gizarte kapital kontzeptuaren inguruko lehendabiziko erreferentziak Aristotele, Montesquieu edo Adam Smith bezalako autore esanguratsuetan aurki ditzakegu (Castaño, 2005; Moyano, 2005; Woolcock, 1998). Horiek jadanik agerian jartzen dute adeitasuna, zintotasuna edo elkarrekikotasuna bezalako bertute etikoek edo zenbait balio moralek, baita arau eta instituzioek jokatzeko duten papera merkataritza harremanen funtzionamenduan.

Portes-en (1998) arabera, gizarte kapital kontzeptuaren baitan presente dagoen taldeetako kide eta parte-hartzaile izatea, eta horrek norbanako zein komunitatearentzat dituen ondorio positiboak ez dira berriak. Soziologiaren hasieratan aurkitzen dugun nozioa dugu, Durkheim-entzat esaterako talde bizitza anomia eta norbere suntsiketa ekiditeko funtsezko mekanismoa zen. Marx-engan

ere agertzen zaigu gizarte kapitalaren ideia, honek bere baitan atomizatutako klasea eta berareztat mobilizatutako eta eraginkorra den klasea bereizten ditu.

Beste zenbaitek, Max Weber-engan aurkitzen dute gizarte kapitalak sare pertsonaletan gizarteratzeari ematen dion garrantzia, horren faltan eskuratu ezinak izango liratekeen helburuak lortzeko (Trigilia, 2001). Hain zuzen, *The Protestant Sects and the Spirit of Capitalism* (1904-05) delako obran, Weber-ek gizarte sarea enpresa ekintzak eratzeko eta ondorioz garapen ekonomikoa errazteko tresna garrantzitsutzat ikusi zuen.

Robert Putnam (1993) bere aldetik (terminoa gehien ezagutarazi duen autorea), Alexis Tocqueville politologo frantsesean oinarritzen da gizarte kapitalaren jatorria bilatzerakoan. Autore horrek, bere lanik garrantzitsuenean, *Democracy in America* (1835), XIX. mende amaierako Estatu Batuetan, elkarteetan biltzea eta demokrazia zein parte-hartze hiritarreko formak, populazioaren zerbitzura zeuden gizarte kapital baliabide eta modu nagusitzat deskribatu zituen.

Aurrez aipatu den moduan, kontzeptua lantzen den diziplina bakoitzaren baitan jatorri historiko eta filosofiko ezberdina aurkitzen da. Bere planteamendu nagusiei dagokionez kontzeptuaren jatorria aipaturiko autore klasikoetan aurkitzen bada (Durkheim, Marx, Weber, Tocqueville), terminoa zenbaitetan kontraesankorrak diren korrante ideologiko ezberdinetatik sortzen da, Bourdieuren gatazka teorietatik hasi eta arrazionaltasun teorietaraino (rational choice) doazenak, eta baita diziplina konkretuetatik ere, hala nola, soziologia, ekonomia edo zientzia politikaren baitan. 1990. hamarkadan, Robert Putnam-ek *Making Democracy Work* (1993) lana kaleratzen dueneanetik aurrera hasiko da terminoa elementu egituratu gisa agertzen ondorengo ikerketa ekonomiko zein soziologikoetan.

Autore gehienek arabera ordea, Lyda Judson Hanifan (1916) izan zen lehendabizikoa *gizarte kapital* terminoa erabiltzen (Bernat et al., 2010; Castaño, 2005; Portela eta Neira, 2003; Putnam, 2003; Torres, 2004; Vargas, 2002; Woolcock eta Narayan, 1998). Hanifan Virginia Mendebaldeko landaguneetako eskola berritzaile amerikarra izan zen, eta eskolen funtzionamendu arrakastatsurako parte-hartze komunitarioak zuen garrantzia azpimarratu zuen. Ondorengo moduan deskribatu zuen gizarte kapitala:

...these tangible substances count for most in the daily lives of a people, namely, goodwill, fellowship, mutual sympathy and social intercourse among a group of individuals and families who make up a social unit [...] The individual is helpless socially, if left entirely to himself [...] If he may come into contact with his neighbor, and they with other neighbors, there will be an accumulation of social capital, which may immediately satisfy his social needs and which may bear a social potentiality sufficient to the substantial improvement of living conditions in the whole community (Hanifan, 1916: 130).

Pertsona isolatuta daoenean sozialki babesgabea izango da, aldiz bizilagun edo inguruko jendearekin kontaktua mantentzen badu gizarte kapitalaren pilaketa sortuko da, norbere gizarte beharrei aurre egiteko bidea emango duena eta komunitate osoaren baldintzak hobetzeko aukerak sortzea ahalbidetuko duena.

Hasierako definizio horren ostean, gizarte kapital kontzeptua literaturatik at geratu zen hainbat hamarkadetan zehar. Putnam-ek (2003) dioen modura, Hanifan-ek gizarte kapitalari egindako erreferentziak etorkizuneko interpretazioak egiteko funtsezko elementuak aurreratu zituen, baina bere asmakizun kontzeptualak ez zuen ohiartzun handirik izan eta zantzurik hutzi gabe desagertu zen.

60. hamarkadan, hirigintzako akademikoa zen Jane Jacobs-ek (1961) erabili zuen terminoa *The Death and Life of Great American Cities* obra klasikoan. Honek, bizilagunen artean eratutako sareak hiriaren gizarte kapitala zirela azpimarratzen zuen, edozein arrazoigatik kapital hori galtzen bazen berriro itzuiliko ez zena, ez bazen kapital berria pixkanaka metatzea lortzen:

If self-government is to work, underlying any float of population must be a continuity of people who have forged neighbourhood networks. These networks are a city's irreplaceable social capital. Whenever the capital is lost, from whatever cause, the income from it disappears, never to return until and unless new capital is slowly and chancily accumulated (Jacobs, 1961: 138).

Gizarte kapitalari erreferentzia egiten bazion ere, autorea hirien bizitasun edo bizkortasunaren problematikan erdiratzen zen, eta ez horrenbeste gizarte kapital kontzeptuaren garapenean, gizarte sareekin identifikatzen zuena. Aipaturiko autoreek (Hanifan, 1916; Jacobs, 1961) beraz, terminoa gainetik azaldu zuten, bere definizioan sakondu gabe eta kontzeptuaren inguruko interesik piztu gabe.

70. hamarkadan, Glenn Loury (1977) ekonomizistak bereganatu zuen, gizarte kapitalaren fundatzaile nagusitzat hartu izan den James Coleman-en planteamendu teorikoetan eragin gehiena izango zuen autorea. Arrazarengatik

diru-sarrera ezberdintasunak azaltzeko arrazoiak giza-kapitalean eta norbanakoari dagozkion gaitasunetan oinarritzen zituzten teoria neoklasikoei kritika egiten zion autore honek. Norbanakoaren gizarte jatorriak, bere garapenerako eskuragarri dituen baliabide kopuruan eragin argia duela argudiatzen zuen. Hori dela eta, gizarte kapital terminoa erabilgarria zitzaion, giza kapital estandarraren ezaugarriak eskuratzerakoan gizarte kokapenak eragiten zituen ondorioak irudikatzeko. Bere ustetan, gizarte baldintzatzaileak (gizarte kapitalaren parekatzen zuena) gaitasun pertsonalak baino indartusagoak edo determinatzaileagoak izatera iristen ziren, hori dela eta, aukera berdintasuna lortu ezineko ideal gisa ikusten zuen.

Beranduagoko lan batetan azpimarratzen zuenez, gizarte kapitalak modu naturalean gertatzen diren pertsonen arteko harremani egingo lioke erreferentzia, zeintzuek merkatuan baloratuak diren gaitasunak eskuratzea errazten duten, baina denek ez dituztenez harreman kopuru berberak eta ondorioz gaitasun berdinetara sarbidea, horrek gizarte desberdintasunak bermatuko lituzke:

...(social capital refers to) naturally occurring social relationships among persons which promote or assist the acquisition of skills and traits valued in the marketplace [...] (it is) an asset which may be as significant as financial bequests in accounting for the maintenance of inequality in our society (Loury, 1992: 100).

Autore honek ere ez zuen ordea gizarte kapital kontzeptua xehetasunez aztertu. Gutxiengo etnikoek gizarte lotura gutxiago izateagatik dituzten aukera ezberdintasunak azpimarratzeko balio izan bazion ere, ez zion beste kapital eredu batzuekin harremantzen zuen inongo tratamendu sistematikorik eman (Portes, 1998). Woolcock eta Narayan-ek diotenez (1998), orain artean aipaturiko autoreek (Hanifan, Jacobs, Loury etab.) ez zuten gaiaren inguruko aurreko lanik aipatu, denek kontzeptu berbera erabili zuten, modu laburrean lotura komunitarioen bizitasun eta garrantzia aditzera eramateko asmoz.

2.2.2. Autore fundatzaileak: Bourdieu, Coleman eta Putnam

Gizarte kapitalaren ikuskera modernoa 1990. hamarkadatik aurrera sortzen da batik bat. Data horretatik aurrera hainbat izan dira gaiaren inguruan esparru zientifiko ezberdinetatik burutu diren enuntziatuak. Gizarte kapitala definitu eta kontzeptualizatzeko lehendabiziko esfortzuak hiru autore nagusiren eskutik

etorriko lirateke ordea, hala nola, Bourdieu, Coleman eta Putnam (Bernat et al., 2010; Lin, 1999; Lozares et al., 2011; Portela eta Neira, 2003; Ramírez, 2005; Torres, 2004; Vargas, 2002; Wall, Ferrazzi eta Schryer, 1998).

Autore hauen ekarpenak modu kronologikoan aztertzen badira, lehendabiziko ekarpenak Bourdieu-engan agertuko lirateke, gizarte kapital terminoa kontzeptualki aurrenekoz 1980ko testu batetan lantzen duelarik. Bigarrenik James Coleman-en ekarpenak egongo lirateke, 1988an gizarte kapitala modu teoriko eta enpirikoan lantzen ditu autore honek. Eta azkenik Putnam, terminoa behin betiko ezagutarazi zuena, 1993an kaleratutako Italiako eskualde gobernuen inguruko ikerketaren bitartez.

Pierre Bourdieu-k 70. hamarkadan txertatzen du gizarte kapitala bere aparatu teorikoan (Ramírez, 2005; Vargas, 2002). Hasierako lanak frantsezez zeudenez, ez zuten zabalkunde handirik izan (Portes, 1998). Baina bere lanik esanguratsuena *The Forms of Capital* izenekoa litzateke, 1986an kaleratu zuena. Autore honentzat, kapitalak hiru forma izan zitezakeen: ekonomikoa, kulturala zein soziala. Gizarte kapitala norbanakoaren jabetza edo ondasun gisa ikusten zuen, eta gizarte harremanak zituen pertsonak, harreman horiek abantaila ekonomiko edo kapital bilakatu zitezakeela uste zuen. Ondorengo moduan definitzen zuen gizarte kapitala:

Social capital is the aggregate of the actual or potential resources which are linked to possession of a durable network of more or less institutionalized relationships of mutual acquaintance and recognition – or in other words, to membership in a group – which provides each of its members with the backing of the collectivity-owned capital, a ‘credential’ which entitles them to credit, in the various senses of the word. [...] The volume of the social capital possessed by a given agent thus depends on the size of the network of connections he can effectively mobilize and on the volume of the capital (economic, cultural or symbolic) possessed in his own right by each of those to whom he is connected (Bourdieu, 1986: 249).

Bourdieu-rentzat (1986) harreman sareak epe motz edo luzean baliatu ahal izango diren harremanak sortzea helburu duten inbertsio estrategiak dira, horiek indibidualak zein kolektiboak, eta kontzienteak zein inkontzienteak izan daitezkeelarik. Auzoko harremanak, lanekoak edo senidetasunezkoak izan daitezke, elkarrekiko aintzatespena sortzen duten hartu-emanen bitartez subjektiboki sentitutako betebeharrak iraunkorrak eragiten dituztenak (aintzatespen, errespetu, adiskidetasun sentimenduak etab.).

Gizarte kapitala modu horretan definitzean, kontzeptu hori eskusiboki zentzu ekonomikoa izatetik askatzen du Bourdieu-k (1986), eta metagarria den edozein ondasun motatara zabaltzen du, zeinaren inguruan ekoizpen, banaketa eta kontsumo prozesu bat eratu daitekeen. Kontzeptua konnotazio ekonomikotik askatzean marxismoarekin haustura burutzen du, baina aldi berean Marx-ek analisi ekonomikoa burutzeko erabiltzen duen logika bereganatzen du, eta edozein gizarte praktikataraz zabaltzen du. Ekonomia eta gizarte zientziaren arteko banaketa gainditzen ahalegintzen da, eta praktiken ekonomiaren zientzia orokorra eratzen du. Bertan kapitala bere forma guztietan barneratzen du, ez soilik teoria ekonomikoak aitortzen duen eran. Gizarteko praktikak ez daude soilik kapital ekonomikoa eskuratzera bideratuta, edozein kapital mota eskuratzera baizik.

Autore horren ikasketen ostean, James Coleman soziologo iparramerikarra hasten da gizarte kapital kontzeptuaz arduratzen. Bourdieu-k egindako saiakera esanguratsua izanik ere, ohikoa da ideien sortzaile nagusi gisa Coleman azpimarratzea (Bernat et al., 2010; Castaño, 2005; Ramírez, 2005; Portes, 1998; Torres, 2004; Woolcock eta Narayan, 1998). Nagusiki bere bi obratan garatzen ditu gizarte kapitalari buruzko ideiak: *Social Capital in the Creation of Human Capital* (1988) artikuluan, eta bere obrarik esaguratsuen kontsideratu daitekeen *Foundations of Social Theory* (1990) delakoan.

Bere kezka nagusia ekonomia neoliberalari dagokion kostu/onura-ren kalkulu arrazionalaren nozio indibidualista, eta gizarte ekintza sozialki determinatuta ulertzen duten soziologia markoen arteko hutsune teorikoari aurre egitea zen. Ekonomia neoliberalak gizarte ekintza merkatuko banakako aukeraketari egozten diote, eta porrot egiten dute norbanakoak eta euren erabakiak gizarte egitura zabalagoetan sustraituta ez aitortzean. Beste ikuspegi soziologiko batzuk berriz norbanakoen ekintza indibidualak ukatzen dituzte, gizarte egiturak determinatzen eta mugatzen dituela ulertzen dutelarik. Coleman-ek gizarteak gehiegi determinatzen duen pertsonaren ikuskera gainditu nahi du, zeinaren arabera norbanakoak bere ekintza propioak aukeratzeko gaitasunik izango ez lukeen; baina baita gizarteak gutxiegi baldintzatzen duen pertsonaren ikuskera ere, gizarte ekintzan gizarte egituraren garrantzia ezeztatzen duena.

Autorearen arabera (Coleman, 1988), gizartean errotutako aktoreek euren erabaki arrazionalak hartzen dituzte, gizarte egiturak eta gizarte harremanak

baliabide gisa hartuz. Horrela bada, gizarte kapitala estrategia teoriko orokor baten parte gisa erabiltzen da, abiapuntu gisa ekintza arrazionala onartzen duena, baina horri lotutako muturreko indibidualismoa ukatzen duena.

Gizarte kapitala betetzen dituen funtzioen arabera definitzen du Coleman-ek (1988 eta 1990). Ez dela entitate simple bat dio, baizik eta gizarte egituren dimentsioren bat duten eta egitura horretako aktoreen zenbait ekintza ahalbidetzen dituzten entitate ezberdinen aldaera:

Social capital is defined by its function. It is not a single entity but a variety of different entities, with two elements in common: they all consist of some aspect of social structures, and they facilitate certain actions of actors – whether person or corporate actors – within the structure (Coleman, 1988: 98; 1990: 302).

Coleman-ek (1988 eta 1990) gizarte kapitalaren modu ezberdinak identifikatzen ditu, hala nola: mesede edo faboreak trukatzeko eragiten dituen betebeharrak eta itxaropenak; lagun eta ezagunak informazio iturri gisa erabiltzea; arauak eta zigor eraginkorrak; autoritate harremanak eta gizarte elkarteak. Gizarte kapital terminoa maila indibidual zein kolektiboan agertzen da bere lanetan. Maila indibidualak norbanakoaren gizarteratzeari egiten dio erreferentzia, hau da, bere gizarte sareari; eta norbanakoaren parte-hartze maila zenbat eta handiagoa izan, maila pribatu edo indibidualean gizarte kapitalaren eraginkortasuna hobetu egingo da (elkarrekikotasun itxaropen handiago, konfidantza gehiago, informazioa igorriko dioten pertsona sare zabalago etab.). Baina bestalde, ondasun publikoa ere badela azpimarratzen du Coleman-ek, eta ondorioz bere onuretz ez dutela soilik gizarte harreman batetan murgilduta dauden aktoreek gozatzen. Esaterako, euren seme-alabak doazen ikastetxeko guraso elkartean parte hartzen ez duten gurasoek elkarte horrek izandako lorpenen onuretz gozatuko dute. Edo auzokide bat bere auzoko komunitate elkarte batetan parte hartzeko axolagabe agertu daiteke, baina elkarte horrek izandako onuretz gozatu.

Bourdieu zein Coleman-ek beste kapital eredu batzuekin alderatuz gizarte kapitalak agertzen duen izaera ukiezina nabarmentzen dute, izan ere, azken kapital hori giza harremanen egituren txertatuta agertzen da (Portes, 1998). Gizarte kapitala izateko, norbanakoak beste batzuekin harreman beharko du, eta beste horiek izango dira gizarte kapitalak eragiten dituen abantailen iturri potentzialak.

Horrela bada, gizarte kapitala modu estruktural eta funtzionalean definitzen du. Gizarte egituraren errotuta dagoen kontzeptua litzateke, eta ez norbanakoen ezaugarriei dagokiona, eta zentzu horretan estrukturala dela ulertuko litzateke. Baina bestalde funtzionala litzateke, gizarte kapitalak helburu bat lortu ahal izateko ekintza kolektiborako mekanismoak ahalbidetzen dituzten gizarte hareremanak erraztuko lituzkeelako. Ez litzateke beraz banakako jokabidea, gizarte sareetan agertzen duen parte-hartze mailaren arabera norbanakoarentzat eskuragarri dagoen baliabide bat baizik.

Zenbaitek Coleman-en definizioa zabalegia izateagatik eta egituretan enfasi gehiegi jarri izanagatik kritikatu egin badute ere (Inkeless, 2000), gizarte kapitalaren teoria gehien garatu duen autoreetariko bat dugu.

Baina gizarte kapitalak azken urteetan hartu duen garrantzia batik bat Robert Putnam politologo iparramerikarrari zor zaio (Bernat et al., 2010; Torres, 2004; Vargas, 2002). Gizarte kapitalari buruzko teoria garatzen duen bere aurreneko lana *Making Democracy Work* (1993) izenekoak litzateke. Jatorrian Coleman-en lanetan oinarritu zen, baina gero bere obrak norabide oso ezberdina hartzen du. Coleman-entzat gizarte kapitala gizarte sareen ezaugarri edo baliabide bat litzateke, nagusiki norbanakoa mesedetuko lukeena; Putnam-entzat berriz norbanakoen onura lortzeko baino komunitate eta nazioen mesederako baliabidea litzateke. Azken horrek ondorengo moduan definitzen du gizarte kapitala: *“Social capital here refers to features of social organization, such as trust, norms, and networks, that can improve the efficiency of society by facilitating coordinated actions”* (Putnam, 1993: 167).

Putnam-ek (1993 eta 1995b) bere interesa *civic engagement* edo konpromiso hiritarrean erdiratzen du, hau da, elkarrekin ezberdinek erakusten duten parte-hartze mailan, hala nola, klubak, futbol taldeak, auzokideen taldeak, guraso elkarteak, elizak, literatura elkarteak etab. Horiek gobernamentu egokia eta garapen edo aurrerabide ekonomikoa ahalbidetzen dutela azpimarratzen du, elkarrekikotasun arauak sortuz, beste norbanako batzuen erreputazioaren inguruko informazioa zabalduz, koordinazioa eta komunikazioa erraztuz eta norbanakoei elkarlanean aritzeko moduak irakatsiz.

Autore honen argumentuak Italiako eskualde gobernuen jardueren inguruko ikerketa batetan oinarritzen dira (1993). Bertan, egokien funtzionatzen

duten gobernuak komunitate elkarte aktiboak dituzten eskualdeetan aurkitzen direla ikusten du, zeintzuetan hiritarrak gai publikoetan interesatuta agertzen diren, konfidantzazko harremanak existitzen diren, legea errespetatzen den, lider zintzoak dauden eta egitura bertikala beharrean horizontala aurkezten duten gizarte sare eta politikak dauden. Funtzionamendu desegokiena agertzen duten eskualdeak berriz horietako ezaugarriak erakusten ez dutenak dira, edo gutxien garatuta daudenak. Putnam-en arabera konpromiso hiritarra erakusten duten arau eta sareek eratzen duten gizarte kapitala garapen ekonomikorako eta gobernu eraginkorrerako aurretiazko baldintza izango da, bere iritziz gizalegeak garrantzia handia izango du.

Geroagoko lan batetan, *Bowling Alone: The collapse and revival of American Community* (2000), gizarte kapitalaren teoria bere jaioterrian, Estatu Batuetan, aplikatzeko ahalegina egin zuen. Liburu horren aurretik *Bowling Alone: America's Declining Social Capital* (1995a) izeneko artikulua kaleratu zuen, eta hortik eratorri zen aipaturiko liburua. Bertan gizarte eta politika parte-hartze mailak jaisten ari zirela ikusten zuen eta ondorioz *bowling alone* metafora erabili zuen, bolerara joatea iparamerikarrentzat ohikoa eta talde burutzen zen ekintza izatetik bakarrik burutzen zen ekintza izatera pasatzea Estatu Batuetako gizarteko joera aditzera eramateko adibide gisa erabili zuen. Autoreak taldeko ekintzen beherakada agerian jartzen du, eta horrek gizarte kohesioaren euskarri eta mantenuaren gainbehera eragingo duela azpimarratzen du, hazkunde ekonomikoa oztopatuko duena.

Putnam zenbaitetan kritikatu izan da komunitateko bizitza modu idealista edo erromantikoegian aurkezteagatik; baita gizarte zein kultur elkarte txikietan parte hartzeak gobernu hobea, demokrazia gehiago edo jarduera ekonomiko eraginkorragoak eragiten dituen mekanismoak modu sinpleegian azaltzeagatik ere (Levi, 1996). Gizarte kapitala operazionalizatzeko erabiltzen duen modua ere kritikatu izan da, Bourdieu eta Coleman-en ideiekin alderatuz era murriz eta sinplifikatuan burutzen duelako eginkizun hori (Edwards eta Foley, 1998). Baina hala eta guztiz, kontzeptuaren inguruko eztabaida garaikidea aberastu du, diziplina ezberdinetako adituek gizarte kapitalaren inguruko argibideak ematea ahalbidetu duelarik.


2.3. Gizarte kapitalaren ikuspegi psikosoziala: gizarte laguntasuna

Gizarte kapital kontzeptuaren paraleloan *gizarte laguntasun* kontzeptua aurkitzen dugu. Gizarte kapitala ekonomia, soziologia edo zientzia politikoen baitan landu den kontzeptua izan bada, gizarte laguntasuna psikologia edo psikosoziozian erabili da, baina errealitatean bata bestearengandik oso gertu aurkitzen dira. Zentzu horretan, zenbait autorek, bi kontzeptuen arteko bateragarritasunaren aldeko apostua egin dute (Bernat et al., 2010; Fuertes, Agost, Fuertes eta Soto, 2013).

Bi kontzeptuak gizarte sare kontzeptuari estuki lotuta daude, naiz eta horrengandik bereizi. Autoreen artean desadostasun teorikoak agertzen badira ere, gizarte kapitalaren berezko ezaugarria da bere harremanezko izaera (Forni et al., 2004); izan ere, gizarte kapitala norbanakoen arteko harremanetan sortzen eta metatzen da. Ikuspegi soziologiko zein psikosozialetik, gizarte sareak gizarte harremanen egitura ezaugarri gisa ulertzen dira. Eta sare horiek gizarte laguntasunezko hartu-emanak gertatu eta gizarte kapitala pilatzeko eremuak izango dira. Gizarte kapitala *stock* aldagaia litzateke (metatutakoa, gizarte sareen potentzialtasuna edo ahalmena), gizarte laguntasuna berriz *fluxu* aldagaiez irudikatuko litzateke, sare batetako kideen artean burutzen diren laguntasun transakzioak lirateke (Fuertes et al., 2013: 159). Gizarte sarea egitura litzateke, zeinaren baitan *fluxu* aldagaiak (gizarte laguntasuna) bideratzen diren, *stock* aldagaia, hau da, gizarte kapitala handitu edo txikitzea eragiten dutenak⁸.

⁸ *Fluxu* aldagaiak denboran zehar modu jarraituan sortzen direnak dira, *stock* aldagaiak berriz, denboran zehar une zehatz batekin harremantzen dira. Bien artean existitzen den harremana ondorengoa da: *fluxuek stockak* elikatzen dituzte, baina azken horiek fluxuak gertatzeko bidea ematen dute. *Fluxuek stocken* denborazko bariazio edo aldaketak irudikatzen dituzte beraz, horien gehikuntza edo murriztapenak (Fuertes et al., 2013).

2.1. Irudia: Gizarte laguntasun eta gizarte kapitalaren arteko bateragarritasuna



Iturria: Elaborazio propioa Fuertes et al.-en (2013) ekarpenetan oinarrituta.

Gizarte laguntasunak osasunean eta egokitze psikologiko zein sozialean duen eraginak askotariko profesionalen interesa piztu du. Cohen eta Syme-k (1985) dioten moduan, gutxitan agertu da ados gizarte zein osasun zientzietako askotariko adituek osaturiko talde bat, faktore batek gizakiaren osasun eta ongizatearen sustapenean duen garrantzia azpimarratzerakoan. Hala eta guztiz, gizarte laguntasun kontzeptuaren definizioaren inguruko adostasuna aurkitzea ez da erraza, gizarte kapitalarekin gertatzen den moduan. Beste definizio batzuetako elementu amankomunak eta gehien aipatutako aspektu teorikoak bilduz, gizarte laguntasunaren inguruko definizio bat proposatzeko ahalegin zorrotzena Lin, Dean eta Ensel-ek (1986) buruturikoa litzateke. Autore horiek ondorengo moduan definitzen dute gizarte laguntasuna: *"the perceived or actual instrumental and/or expressive provisions supplied by the community, social networks, and confiding partners"* (Lin, Dean eta Ensel, 1986: 18).

Hau da, komunitateak, gizarte sareek edo konfidantzazko pertsonen emandako hornidura adierazkor zein instrumentalen multzoa litzateke, horiek hautemandakoak edo benetan jasotakoak izan daitezkeelarik. Geroagoko beste lan batetan, baliabideen mobilizazio hori egoera arrunt zein krisi egoeretan eman daitekeela gehitzen dute (Lin eta Ensel, 1989).

2.4. Gizarte kapital eta gizarte laguntasunaren osagaiak

Gizarte kapitala zein gizarte laguntasuna landu duten autoreek bere baitako osagai, kategoria edo ikuspegi ezberdinak bereizten dituzte. Gizarte kapitala landu dutenen artean zenbaitek aipatu dutenez, bere ekarpenak ulertzeko interesgarria

litzateke gizarte kapitalaren baitan bi kategoria bereiztea: estrukturala edo egiturari dagokiona, eta kognitiboa (Arellano, 2008; Grootaert eta van Bastelaer, 2002; Herreros, 2002; Herreros eta de Francisco, 2001; Uphoff, 2000; Uphoff eta Wijarayatna, 2000). Osagai estrukturalak gizarte kapitalaren egiturari egiten dio erreferentzia, funtsean gizarte sareari, izan ere, horren ezaugarri eta potentzialtasunaren arabera izango da norbanako edo taldeek euren gizarte saretik baliatuko duten gizarte kapitala. Gizarte kapital kognitiboak berriz, partekatutako arauak eta balioak barne hartzen ditu, pertsonak onura amankomunaren bila modu kolektiboan jardutera bultzatzen dituzten jokabide eta sinesmenak. Aldagai horiek jatorrian pertsonalak dira, baina normalki kultura baten baitan partekatuak diren sinbolo edo kontzeptu zabalagoak isladatzen dituzte (Grootaert eta van Bastelaer, 2002).

Beste zenbaitek osagai estrukturala eta funtzionala nabarmendu dituzte. Coleman-ek (1988 eta 1990), esaterako, gizarte kapitala modu estruktural eta funtzionalean definitzen zuela ikusi da, gizarte egituraren errotuta dagoena eta onura pertsonal zein kolektiboak lortzeko mekanismoak ahalbidetzen dituena. Gizarte laguntasunaren ikerketan ere bi ikuspegi horiek hartu izan dira kontutan. Gizarte laguntasunaren ikuspegi estrukturalak laguntasun prozesua inguratzen duten baldintza objektiboetan erdiratzen du bere interesa. Ikuspegi funtzionalak aldiz, ezaugarri horiek subjektuarentzat betetzen duten funtzioa ikertzen dute (Gracia et al., 1995). Estrukturalak gizarte sarearen nolakotasunari egingo lioke erreferentzia, funtzionalak berriz gizarte sareak betetzen duen funtzioari eta bertatik lortzen diren baliabideei.

Gizarte kapitalaren baitan aipatu den osagai kognitiboa nolabait gizarte kapitalak betetzen dituen funtzioen baitan ulertu daiteke. Aurrerago ikusiko den moduan funtzio horietariko bat kognitiboa litzateke, informazioa igortzea helburu duena. Informaziozko laguntasunetik gizaratean modu egokian funtzionatzeko arau eta balioen ezagutza jasoko dute norbanako edo taldeek.

Jarraian osagai bakoitza aztertuko da:

2.4.1. Osagai estrukturala

Gizarte kapitalaren osagai estrukturala Bourdieu, Coleman eta Putnam-en definizio tradizionaletatik eratorritako litzateke, zeintzuentzat gizarte kapitala gizarte

sareetan parte hartzen duten pertsonen eskuragarri dituzten baliabide multzoak eratuko lukeen. Bourdieu-rentzat (1985 eta 2001) gizarte kapitala gehiago edo gutxiago instituzionalizatutako elkarrenganako onarpena duen harreman sare iraunkor batetako kide izatearen ondorioz eskuragarri dauden baliabide erreal eta potentzialen multzoa litzateke. Coleman-entzat (1990) gizarte egituraren aspektu bat litzateke, eta egituraren barnean dauden kideei zenbait ekintza ahalbidetuko lizkieke. Gizarte sareetan parte hartzearen ondorioz norbanakoari hainbat baliabide eskuragarri geratuko litzaizkioke.

Putnam-en kasuan ez dago argi zein kategoriatan kokatuko litzatekeen. Zenbait autorek kategoria kognitiboaren baitan kokatu badute (Herrerros, 2002; Torres, 2004), beste batzuek kategoria estrukturalaren barnean ulertu dute (Arellano, 2008). *Making Democracy Work* (1993) izendatu zuen lanean, bertute hiritarra (civic virtue) gizarte kapital forma gisa kontsideratu zuen Putnam-ek. Zentzu horretan ulertu dute zenbait autorek kategoria kognitiboaren baitan, aitzitik, Putnam-ek kategoria estrukturalaren ezaugarriak ere partekatzen ditu, batik bat bere obraren lehendabiziko zatian, gizarte sareak elementu erabakigarriak edo gizarte kapitalaren forma direla kontsideratzen duelarik.

Osagai estrukturalak gizarte sareari egingo dio erreferentzia beraz, norbanakoari beharrezkoa izango zaio gizarte sare moduren batetan parte hartzea (Herrerros eta de Francisco, 2001; Foley eta Edwards, 1999), izan ere, harreman sareekiko pertenezkiak determinatuko du norbanakoak duen gizarte kapitalaren gordekin potentziala (Sandefur eta Laumann, 1998) eta hortik eratorriko diren laguntasun baliabideak.

Hori dela eta, eskuragarri dagoen gizarte kapitala eta laguntasun baliabideak neurtzerakoan gizarte sareen dimentsio objektiboak ikertu ohi dira. Ikuspuntu deskriptibo batetik abiatuta, populazio talde ezberdinen gizarte harreman sareen ezaugarriak aztertzen dira, hala nola, sarearen tamaina, eraketa, dentsitatea, homogeneotasuna, sakabanaketa, maiztasuna, iraupena, elkarrekotasuna edota ugaritasuna (Gracia et al., 1995; House, Umberson eta Landis, 1988; López eta Chacón, 1997).

Zenbait aldagai bereziki garrantzitsuak izango dira, batik bat, gizarte kapitalak etorkinen gizarteratze prozesuan izan dezakeen eragina aztertu nahi denean, hori tesi honek aztergai duen helburuetariko bat delarik. Gizarte sareek

dituzten ezaugarrien arabera, metatuko den gizarte kapitala eta bertatik eratortzen diren baliabideak ezberdinak izango dira.

Tamaina

Gizarte sareen tamainari garrantzia eman zaio, izan ere, gizarte sarea eratzen duten kide kopuruak subjektuak sare horretatik jaso ahal izango dituen baliabide kantitate eta aniztasunari buruzko ideia eskaintzen dute (Cutrona, 1986). Hori dela eta, ikuspegi honek gizarteratzea edo gizarte parte-hartzea bezalako kontzeptuetara gerturatzeko aukera ematen du. Nahiz eta gizarte sare zabala izateak ez duen esan nahi pertsona gizartean integratuta dagoela, sektore ezberdinekin harremantzea ahalbidetzen du, hala nola, pertsona, instituzio edo beste zenbait esparrurekin, horrek gizarte sarean integratuago egotea errazten duelarik. Gainera, harreman gehiago izateak gizarte parte-hartze ekintza ezberdinetan jarduteko eta laguntasuna jasotzeko aukerak gehituko ditu.

Aurreko kapituluan etorkinen gizarte sarea zenbat eta zabalago eta anitzagoa izan orduan eta integrazio maila handiagoa aurkeztuko dutela aipatu da (Blanco, 1990 eta 1993).

Homogeneotasuna

Gizarte sareko kideen arteko antzekotasun edo bat-etortze mailari egiten dio erreferentzia, ezaugarri demografikoak, esperientziak, balioak, jarrerak, kultura maila etab. kontutan hartuz. Hau nolabait hurrengo ezaugarriarekin lotuta legoke, normalki sareak homogeneoak direnean dentsitateak izan ohi dira, loturak gertuagokoak izan ohi baitira (Putnam, 2002). Heterogeneoak direnean berriz normalki dentsitate gutxiagokoak izan ohi dira, urrunagokoak. Homogeneotasunak ulermena eskaini badezake, heterogeneotasunak informazio aukerak gehituko ditu (Burt, 2000) eta gizarte kapitalari dagozkion baliabideak ekoizteko faboregarriagoak izango dira (Torres, 2004).

Etorkinei dagokionean gizarte sarearen heterogeneotasuna autoktonoen agerpenak eragingo du. Blanco-ren (1990 eta 1993) ekarpenei jarraikiz aberkideez gain autoktonoekin ere harremantzea ere garrantzitsua izango dela aipatu da I. kapituluan gizarteratzearen gizarte dimentsioa lantzerakoan, soilik euren

jatorrikoekin erlazionatzen badira sare homogeenak eratuko dituztelako, eta horrek segregazioa eragin dezakeelako, integrazioa oztopatuz.

Dentsitatea

Gizarte sareak edo harremanak dentsitate handikoak edo gutxikoak izan daitezke. Sarearen dentsitatea bere baitan existitzen diren harreman edo lotura kopuruaren arabera izango da (Requena, 1989). Horrela bada, kide guztiak elkarrekin harremanduta agertzen diren sareak gehieneko dentsitatea izango du. Aldiz kideak zenbait pertsonekin harremanduta baina beste zeinbaitekin harremanik gabe agertzen diren sareak dentsitate gutxiagokoak izango dira.


Normalki sarearen tamaina txikia denean, kide homogeneoz osatuta egoten dira, eta dentsitate handikoak izan ohi dira. Sarea handiagoa den neurrian berriz, heterogeneoagoa izan ohi da, eta dentsitate gutxiagokoa, urrunagoko harremanak ere mantentzen direlako. Eta zenbait autoreek lehendabizikoak hobetsi badituzte, beste hainbatek bigarrenengo eraginkortasuna azpimarratu dute. Edonola ere, lortu nahi den helburu edo laguntasun motaren arabera batzuk edo besteak izango dira eraginkorragoak.

Zentzu horretan, James Coleman-ek (1988) gizarte sare *itxiaren* eraginkortasuna hobesten du. Autore honen arabera, arau eta zigor eraginkorrak mantendu eta eragin negatiboak mugatzeko gizarte harremanen ezaugarri garrantzitsu bat sarearen itxiera, berak *closure* deitzen duena, izango da. Egitura irekia duen gizarte sare batetan (2.2. Irudiko 1. kasua), A norbanakoak, harremana duen B edo C edo biengan eragin negatiboak izan ditzakeen ekintzak burutu ditzake. B eta C beste batzuekin harremanetan dira (D eta E), baina euren artean erlaziorik ez dutenez, ezin dituzte euren indarrak batu A zigortzeko eta bere ekintza negatiboak mugatzeko. B edo C bakarka A-ren aurrean nahikoa indartsu agertzen ez badira, A-ren ekintzek aurrera jarrai dezakete, B eta C gero eta gehiago kaltetuz.

Egitura itxia duen sare batetan berriz (2. kasua), B eta C harremanetan daude, eta horrenbestez batu egin daitezke A-ri zigor eraginkor bat jartzeko, edo bietariko edozeinek bestea saritu dezake A zigortzeagatik. Soilik harreman estuek egiten dute posible arau eta zigor sistema baten agepena, zeinak konfidantza eta

elkarrekikotasunean oinarritutako harremanen garapena eta jarraipenean positiboki eragingo duen. Sareen dentsitate eta egitura itxiak jokabide oportunistak posibleak kontrolatzeko funtzioa betetzen dute, eta zentzu horretan taldearen gizarte kapitala gehitzen dute. Hori dela eta, gizarte kapital balibideak sortzerakoan gizarte sare itxi bat irekia baino eraginkorragoa izango dela argudiatzen du Coleman-ek.

2.2. Irudia: Itxiturarik gabeko (1. kasua) eta itxituradun (2. kasua) gizarte sareak



Iturria: Coleman, 1988: 106.

Mark Granovetter soziologoak kontrako argumentua garatu zuen. 1973an *The strength of weak ties* izeneko artikulua kaleratu zuen, eta bertan harreman ahulek (hurbileko familiarik, gertuko lagunengandik edo norbere komunitatetik kanpoko harremanak) lanpostu bat bilatu eta eskuratzeko orduan duten indarra azpimarratzen zuen. Bere proposamenaren arabera, pertsonak bere inguruan harremanen nukelo indartsu bat dute (Cooley-k talde primario izendatzen zituen⁹), zenbait arazori aurre egiteko beharrezkoa zaien informazioa, baliabideak eta oinarri emozionala ematen dietena, baina horiek mugatuak dira. Aipaturiko nukleoa pertsona kopuru murriztatuz osatuta egon ohi da,


⁹ Charles H. Cooley (1909) soziologo amerikarrak *primary groups* edo talde primarioak eta *secondary groups* edo talde sekundarioak bereizi zituen. Familiak, lagunak edo auzokideek eratutako nukleoa talde primario hori, eta talde primario bat egoteak sekundario edo bigarren talde bat egotea ere inplikatu zuen. Azken horiek zabalagoak, anonimoagoak, formalagoak eta inpersonagoak izango ziren.

zeintzuekin eguneroko harremana mantentzen den, hala nola, familia edo gertuko lagunak. Nukleo sendo horren inguruan beste kontaktu batzuk egon ohi dira, zeintzuekin harremana ahulagoa eta espezializatuagoa izan ohi den. Pertsona ezagunak lirateke, nukleo sendoaren parte ez direnak, baina bai sare pertsonaleko kideak.

Granovetter-en (1973) arabera, intentsitate eta sarritasun handiagoz ematen diren harreman sendoak ez dira nahikoak onurak sortzeko, eta beharrezkoa izango da harreman ahulak sortzen ere esfortzua egitea. Harreman ahul horiek intentsitate eta maiztasun gutxiagokoak izan ohi badira ere, zenbait kasutan urrutiko inguruneetarako sarbidea eta informazio zein ezagutzak partekatzea ahalbidetzen dute, beste modu batetan norbanako zein taldeei eskuragarri edo irisgarri izango ez litzaizkieenak, eta horiek nahitaezkoak eta erabakigarriak dira aukera indibiduala lortzeko eta komunitatean gizarteratzeko.

Lortu nahi diren helburuen arabera harreman sendoak edo ahulak egokiagoak izango dira. Mobilizazioa edo gizarte segurtasuna lortzeko esaterako harreman sendoak eraginkorrago izango dira, aitzitik enplegua bilatzeko, gizarte kohesioa bermatzeko edo elkarrekikotasun arauak sortzeko harreman ahulak hobeagoak izango dira.

2.3. Irudia: Harreman sendoak eta harreman ahulak gizarte sarean




Iturria: Elaborazio propioa Granovetter-en (1973) ekarpenetatik abiatuta.

Ronald Burt-ek (1992) Granovetter-en formulazioak bereganatzen ditu, eta *structural holes* (egitura zuloak) delako teoriaren bitartez zubiek ezaugarritzen dituzten eta zubirik gabeko gizarte sareak bereizi zituen, hau da, gizarte sare arin

edo jariakor eta dentsuak. Pertsona batek, gizarte sarearen baitan harreman talde ezberdinetako kide izanik, horien artean zubi gisa jokatu dezakeela ulertzen du autoreak, horrela talde ezberdinak konektatuta egongo liratekeelarik eta ondorioz gizarte kapital onura gehiago lortuko litzatekeelarik.

Funtsean, Granovetter-en (1973) lotura sendo eta ahulen ideari jarraitzen dio beraz. Burt-en (1992) arabera, lotura ahulek ezaugarritzen duten gizarte sarea egitura zuloena litzateke, eta lotura sendoek eratzen dutena gizarte sare dentsua. Sare dentsuok komunikazioa eta koordinazioa erraztuko lukete; lotura gutxik eta egitura zuloek ezaugarritzen dituzten sareak berriz eraginkorrak izango dira saretik at aurkitzen diren baliabide gehigarrietara sarbidea ahalbidetuko luketelako. Horrela bada, egitura zuloen baitan sortutako gizarte kapitalak baliabide ezberdinen arteko harremana, informazioa etab. ahalbidetuko du; gizarte sare itxietatik eratorritako gizarte kapitalak berriz, taldearen barne funtzionamendua indartuko luke.

2.4. Irudia: Egitura zuloak gizarte sarean



Iturria: Elaborazio propioa Burt-en (1992) ekarpenetatik abiatuta.

Burt-ek bat egiten du Coleman-ekin zenbait gizarte egitura norbanako edota taldeei interes propioak lortzeko onurak eragiteko gai direla azpimarratzen duenean, eta hobekien lotuta dauden norbanakoak direla onura gehien lortzen dituztenak argudiatzen duenean. Aitzitik, desadostasuna *hobekien lotuta* egotea zer den definitzerakoan sortzen da (Burt, 2000). Burt-en arabera, harremanak egitura zuloak gaindituz eratzen dituen norbanakoak gizarte kapital maila handiagoa izango du. Izan ere, harreman talde ezberdinekin mantentzen duen loturak informazio gehiago, horretara sarbide errazago eta horrekiko kontrol gehiago esleitzen diete, guzti horrek ekintzarako aukera gehiago ematen dizkielarik. Autorearen arabera, egitura zuloen bidez banatuta dauden informazio iturri heterogeneoak lotzea ahalbidetzen duten harreman motak dira gizarte kapitalari dagokionez emaitza hoberenak sortzen dituztenak, eta ez antzekoak diren eragileen arteko kohesiozko harremanak, izan ere, azken horiek informazio erredundantea soilik hornitu dezakete.

Putnam-ek (2002) ere lotura edo harreman sendo edo ahulen arteko bereizketa egiten du. Lotura sendoek sareko kideen artean solidaritate handiagoa sortzen dutela azpimarratzen du, baina lotura ahulek harreman multzo zabal eta heterogeneoagoetara sarbidea ahalbidetuko lukete. Harreman mota horiek *bonding* eta *bridging* izendatzen ditu, *bonding* harremanak sare sendoetan ematen diren gertuko harremanak lirateke, eta *bridging* erakoak berriz harreman ahulak lirateke. *Bonding* harremanak (loturazko gizarte kapitala) norbanako homogeneoen artean mantentzen direnak lirateke, senide eta lagun gertukoekin, komunitate berekoak izan ohi direnak. *Bridging* harremanek (zubi gisako gizarte kapitala) berriz ezagun zein urruneko lagun eta elkarteekin mantentzen diren harremanei egiten diete erreferentzia; norbanako heterogeneoen edo ezberdinen eta komunitate ezberdinetakoak direnen arteko harremanak lirateke.

Munduko Bankuak (2000), Putnam-en sailkapenari hirugarren harreman mota bat gehitzen dio (*linking*), eta ondorengo moduan definitzen ditu harreman mota ezberdinak, zeintzuetatik gizarte kapitala metatzen den:


- *Bonding* gizarte harremanak. Gertuko senide, lagun, bizilagun edo lankideekin mantentzen diren harreman sendoei egingo lioke erreferentzia. Mota honetako loturek ezaugarri demografiko antzekoetako

kideak harremantzen dituzte, hau da, kide homogeenak edo komunitate berekoak.

- *Bridging* gizarte harremanak. Jatorri etniko eta okupazional ezberdinetako norbanakoak batzen dituen lotura ahulak lirateke. Lotura horizontalak eragingo lituzke, orokorrean estatus ekonomiko eta indar politiko antzekoa duten pertsonen artekoak. Heterogeenak diren kideen arteko eta komunitate ezberdinetakoak direnen arteko harremanak lirateke. Ezagun, urrutiko lagun, elkarte edota komunitate ezberdinetako kideekin mantentzen diren harremanei egingo lieke erreferentzia.
- *Linking* gizarte harremanak. Jende xume eta erakunde formaletan eragina duten norbanakoen arteko harreman bertikalak lirateke. Fox (1996) eta Heller-ek (1996) azpimarratu duten moduan, gizarte kapitalak dimentsio bertikala ere badu, linkages deitu daitezkeenak (Woolcock, 2001). Komunitateaz gaindiko instituzio formaletatik baliabideak, ideiak zein informazioa eskuratzeko gaitasuna linking gizarte kapitalaren funtzio giltzarria litzateke.

Horrela bada, ondorengo itxura izan dezake norbanakoaren gizarte sareak, beti ere hiru motatako harremanak garatzen baditu:

2.5. Irudia: Gizarte sarea eratzen duten harreman motak



Iturria: Lin (2001)-etik egokituta.

Dimentsio anitzeko ikuspegi honek agerian jartzen du *bonding*, *bridging* eta *linking* gizarte kapitalen arteko konbinaketek eragiten dituztela literaturan aurkitzen ditugun emaitza ezberdinak, eta osagai dinamikoa txertatzeko bidea ematen du, konbinaketa hoberenak denboran zehar aldatu egiten direla ohartarazten duena (Woolcock, 2001). Dimentsio hauek eta euren arteko konbinazioak ez dira beti berdin eta modu konstantean mantentzen, posible da batzuetan zein besteetan intentsitate maila altu edo baxuagoak identifikatzea denboran zehar konparaketak egiterakoan edota talde eta komunitate ezberdinen arteko konparaketak egiterakoan. Komunitate edo taldeentzat, edota norbanakoentzat, ongizate maila handiagoa eragiteko aukerak dimentsio horien intentsitatearekin eta kolektibo horiek dimentsio horiekiko egin dezaketen kudeaketarekin harreman zuzena izango du. Hau da, momentu jakin batetan hobe izango da *bonding* gizarte kapitala pribilegiatzea, baina gero beharrezkoa izango da baita ere *bridging* edo *linking* gizarte kapitala indartzea.

IKEDAM ohien gizarte sarearen egitura aztertzerakoan Munduko Bankuak proposaturiko diemntzio horiek hartuko dira kontutan, sare hori zein motatako harremanek (bonding, bridging edo linking) eratzen duten aztertuko delarik.

Gizarte kapitala gizarte sareetatik eratortzen bada ere, literaturaren baitan ez dago argi sare horietan parte-hartze soila gizarte kapitala den ala ez. Zenbaitetan parte-hartzea gizarte kapitala dela kontsideratu bada, hainbat autorek gizarte sareak ez direla gizarte kapitalaren formak azpimarratu dute, gizarte kapitalaren iturri potentzialak baizik (Herrerros, 2002). Maila teorikoan, norbanakoek gizarte sareetan parte hartzea gizarte kapitalaren agerpenarekin eta gizarte bizitzako hobekuntzarekin harremanetan da, hala nola, osasun, hezkuntza, enplegu edo maila ekonomikoko lorpenekin (Bernat et al., 2010). Zentzu horretan, gizarte sareak gizarte kapitala mugitzen, igarotzen edo hedatzen den bideak lirateke. Baina gizarte kapitala, gizarte sareetan parte hartzearen ondorioz eratortzen diren baliabideak eratzen dutela kontsideratuko litzateke, hala nola, gizarte sare berberean dauden edo parte hartzen duten kideek maneiatzen duten informazio pribatua, edo konfidantzazko harreman batetik eratorritako elkarrekikotasun betebeharrak (Herrerros, 2002). Hori dela eta, ikuspegi honetatik, gizarte sare batetan parte hartzea gizarte kapitalaren iturri potentziala izango da, baina ez bere baitan gizarte kapitala. Horrek gizarte kapitalaren osagai funtzionalera garamatza, egiturak betetzen duen funtzioaren arabera materializatuko baita gizarte kapitala.

2.4.2. Osagai funtzionala

Gizarte sarearen egitura ezaugarrien arabera, norbanako edo taldeek eskuragarri duten gizarte kapitala ezberdina izango da. Eta gizarte kapital horren arabera, lortuko dituzten gizarte laguntasun baliabideak ere ezberdinak izango dira. Ikuspegi funtzionala gizarte harremanetan elkartrukatzen diren baliabideen analisisian, horiek betetzen dituzten funtzioetan, eta gizabanakoak jasotako zein hautemandako gizarte laguntasunaren inguruan egiten duen balorazioan erdiratzen da. Gizarte kapitalaren edo laguntasunaren funtzio horiek askotarikoak izan daitezke, eta horiek antolatzeke ahaleginean hainbat sailkapen sortu dira.

Lin, Dean eta Ensel-ek (1986) gizarte laguntasunari egotzi zaizkion funtzio ezberdinen inguruan burututako errebisioan, funtzio horiek bi kategoria nagusitan multzokatuak izan daitezkeela aipatzen du: 1) funtzio instrumentalak eta 2) funtzio adierazkorrak. Funtzio instrumentala ekintza instrumentaletatik eratorriko litzateke, hau da, pertsona batek helburu edo jomuga bat lortzeko martxan jartzen dituen ekintzak lirateke. Funtzio adierazkorra berriz, ekintza adierazkorretatik dator, pertsona batek burutzen dituen ekintzei dagokio honek ere, baina kasu honetan lortu nahi den xedea ekintza bera da. Laguntasun mota hau jomuga edo lorpen bat da, laguntasun instrumentalak aldiz ez dakar lorpenik, helburu bat lortzeko tresna da. Enplegu bila aritzea edo heziketa bat izatea ekintza instrumentalak lirateke, azken helburua enplegu bat lortzea litzatekeelarik; arazo emozionalak partekatzea, bizi esperientziak kontatzea edo gustuko dugun norbaitekin afaltzera joatea aldiz, ekintza adierazkorrak, beti ere, ekintza horiek parte-hartzaileen helburua betetzea suposatzen badute.

Autore gehienek funtzio instrumental eta adierazkorren arteko ezberdintasuna onartu badute, horiek funtzio zehatzagoetan xehatuak izan dira. Zentzu horretan, gizarte laguntasunaren funtzioak identifikatzeko adostasun handia jaso duen beste modu bat laguntasuna gertatzen den esparrua aztertzea izan da (Gracia et al., 1995). Eredu horri jarraikiz, gizarte laguntasuna 1) maila afektiboan, 2) kognitiboan edo 3) jokamoldeari dagokion mailan agertu daiteke. Maila afektiboak Lin-ek proposaturiko funtzio adierazkoarra bereganatuko luke; maila kognitiboak zenbait autorek informaziozko laguntasuna deitu dutena, aholkua edo gidaritza bereganatuko luke; eta azkenik, jokabideari dagokion esparruak, jokabide laguntasuna, laguntasun materiala edo zerbitzuak ahalbidetuko lituzke. Informaziozko laguntasuna eta materiala funtzio instrumentalen baitan leudeke, pertsona bati helburu bat lortzen laguntzen dieten ekintzak direlako.

Maila afektiboa: emoziozko laguntasuna

Emoziozko laguntasunak norbere pentsamendu, beldur eta ilusioak kontatu eta entzuna izatean datza, eta ongizate sentimenduak ahalbidetzen dituzten jarrerak barne hartzen ditu; subjektua maitatua eta errespetatua sentiarazi, eta maitasuna eta segurtasuna eman diezaioketen pertsonak dituela adierazten diotenak (Barrón,

1996). Funtsean maitasun, afektu, begikotasun, enpatia, estimazio eta/edo taldeetarako pertenezari dagozkion adierazpenak lirateke. Baldintza gabeko onarpena erakustean datza, ondorengo jarrerak barne hartuko liratekeelarik: entzumen arretatsua, bestearen baieztapenak isladatzea, enpatia, esperientzia pertsonalak partekatzea, kritikak edo kontseju ohartarazleak ekiditea etab. (Gracia et al., 1995).

Arazoak norbaitekin partekatzeko aukera izateak konfidantzazko harreman iraunkorrak eskuragarri izatea esan nahi du, eta normalki pertsonak arazo larrienak gertuen dituztenei kontatzen dizkiete, hala nola, bikoteari, senide bati edo lagun on bati, denbora luzerako konfidantzazko harremana bermatzen diona. Laguntasun mota honek osasun eta ongizatearen sustapen eta mantenuan paper garrantzitsua betetzen duela kontsideratzen da (Barrón, Lozano eta Chacón, 1988; Wills, 1985).

Maila kognitiboa: Informaziozko laguntasuna

Informaziozko laguntasunak norbanakoak inguruko pertsonengandik jaso dezakeen aholku eta informazio baliagarriari egiten dio erreferentzia. Gure inguruan ditugun pertsonak arazo jakinen izaeraren inguruko informazioa eman dakigukete; bere interpretazio, balorazio eta egokitze kognitiboaren inguruko pistak eman; arazoari aurre egiteko garrantzitsuak izan daitezkeen baliabide adierazi; ekintza bide posibleak aholkatu; emozionalki eta burubidez arazoari aurre egiteko estrategia ereduak proposatu; profesional egokiengana bideratu; laguntza bilatzera animatu; arazoei konponbidea bilatzeko teknikak irakatsi, etab. (Wills, 1985).

Emoziozko laguntasuna maila afektiboan kokatzen bada, informaziozkoa maila kognitiboan kokatzen da. Idei, iritzi eta ezagutzak trukatzean datza bigarrenak, nahiz eta zenbaitetan emoziozko laguntasunari gainjartzen zaion, izan ere, norbanakoak halako informazioa ematen dion pertsonak estimatu egiten duela ulertu dezake; kontseju bat jasotzea berarekiko maitasun edo ardura adierazpen gisa interpretatu dezake subjektuak. Horien arteko bereizketa egitea teorikoki erraza izan badaiteke, praktikan banaketa zailagoa suerta daiteke (Sarason, Sarason, Shearin eta Pierce, 1987).

Jokamoldeari dagokion maila: laguntasun instrumentala edo materiala

Laguntza material zuzenaren edo zerbitzuen prestazio gisa definitu da laguntasun materiala (Schaefer, Coyne eta Lazarus, 1981; Barrón et al., 1988). Batzuek laguntasun material deitu dute, beste batzuek laguntasun instrumentala, baina edozein kasutan laguntza hautemangarriei edo ukigarriei egiten die erreferentzia, eta jokabideei dagokie. Beste pertsona batzuek hornitutako ekintza edo materialak lirateke, arazo praktikoak konpontzea eta/edo eguneroko eginkizunak burutzea errazten dutenak; hala nola, etxeko eginkizunetan laguntzea, haurrak zaindu, dirua prestatu, liburu bat utzi, etab. (Barrón, 1996; Musitu et al., 2001).

Zenbait autorek (Weiss, 1975; House, 1981; Wills, 1985; Cohen eta McKay, 1984), adierazkor-instrumental binomioaren baitan laguntasun funtzio gehiago aipatzen dituzte, hala nola, estatusari dagokion laguntasuna, gizarte konpainia, ebaluazio laguntasuna edota laguntasuna emateko gaitasuna. Baina lan honetan aurreko sailkapena hobetsiko da, IKEDAM ohiek euren gizarte saretik zein motatako laguntasuna (emoziozkoa, informaziozkoa edota instrumentala) jasotzen duten aztertuko delarik.

Edonola ere, gizarte laguntasunaren inguruko ikerketa gehienek gizarte harremanek betetzen dituzten funtzio positiboak eta osasunean zein ongizatean duten eragin onuragarria azpimarratu badute, garrantzitsua da batzuetan funtzio negatiboak ere izan ditzaketela kontutan izatea. Zentzu horretan, House, Umberson eta Landis-ek (1988) gizarte harremanek hiru funtzio nagusi bereizten dituztela adierazten dute: 1) gizarte laguntasuna, 2) harreman eskakizun eta gatatzak, eta 3) gizarte kontrol eta arauketa. Autore hauen arabera, gizarte harremanek laguntza eta baliabideen hornikuntzarekin batera, funtzio negatiboak ere burutu ditzakete, gatatzak eta kezak eraginez, edo gizarte kontrolari dagozkion funtzioak burutuz, norbanakoaren jokabidea arautuz. Gizarte laguntasunaren ikerketan uste izan denaren kontra, norbanakoak bere gizarte sarean mantentzen dituen harreman guztietatik ez duela eragin positiboa jasotzen agerian jartzen du ekarpen honek. Hori dela eta, gizarte laguntasunak zenbaitetan gizarte kapitala metatzen lagunduko badu, beste batzuetan hori murriztu ere egingo du.

Norekiko funtzioa?

Funtzioari lotuta agertzen zaigun beste aspektu bat norekiko funtzioa betetzen duen gakoari dagokiona litzateke. Hau da, gizarte kapitalak norentzako betetzen du onura funtzioa, norbanakoarentzat edo norbanakoa kide den taldearentzat? Horren arabera, gizarte kapitala baliabide indibiduala edo kolektiboa izan daiteke.

Autore guztiak bat datoz gizarte kapitala gizarte harremanetatik sortzen den baliabide bat dela azpimarratzerakoan, aldiz desadostasunak sortzen dira baliabide horietaz nor baliatzen den zehazterakoan. Loury, Granovetter edo Bourdieu-k esaterako pertsonak modu indibidualean jabetzen direla baliabide horietaz azpimarratzen dute. Coleman eta batik bat Putman-en arabera berriz, taldea, egitura edo komunitateak euren osotasunean lirateke gizarte kapitalean egindako inbertsioaren emaitzetaz gozatzen dutenak.

Errealitatean, gizarte kapitala baliabide indibiduala zein kolektiboa litzatekeela idote beste zenbaitek (Forni et al., 2004). Hainbatetan norbanakoek maila pertsonalean mantentzen dituzten harremanen bidez zenbait baliabideetarako sarbidea, eta ez da okerrekoa horiek gizarte kapitala eratzen dutela suposatzea. Bestalde, zenbait gizarte taldek onurak lortzen dituzte talde hori osatzetik, eta harreman horiek ere badute gizarte kapitala. Modu desberdinetan agertzen den eta kasu partikular bakoitzean emaitza desberdinak eragiten dituen kontzeptu baten aurrean geundeke.

2.5. Gizarte sareetan esku-hartzea: gizarte kapitala eragin eta gizarteratzea ahalbidetzeko estrategia

Gizarte kapitala norbanakoak mantentzen dituen gizarte harremanetatik eratortzen dela azaldu da. Durston-en (2003) arabera, pertsona orok du gizarte kapitala, eta norbere beharrian ekonomiko, sozial eta emozionalei aurre egiteko erabiltzen dute. Aitzitik, gizarte kapitala, gainontzeko kapital formen moduan, ez dago gizartean berdintasunezko moduan banatuta (Atria, 2003). Hori dela eta, gizarte talde guztiek, eta horiek eratzen dituzten pertsonak, ez dute gizarte kapital kopuru berbera eskuragarri, eta ondorioz ez dute horrek eragin ditzakeen onuretara sarbide berdinek.

Howe-ek (1997) azpimarratzen duen moduan, gainontzeko gizakiekin harremanetan haztea oinarritzkoa da pertsonen garapenerako eta hori gertatzen ez denean norbanakoak sozialki ezgaiak bilakatzen dira. Aldiz, arrazoiak edozein direla eta isolatuta eta gizarte harremanak etenda aurkitzen diren pertsonak kalteberatsun edo bulnerabilitate egoeran aurkituko dira: alde batetik, hobekuntza aukerei buruzko informaziorik ez dute izango; eta bestetik, gizarte kapital oparoko sareetara gerturatuko dituzten harremanik ere ez dute edukiko (Rubio-Guzman, 2012).

Norbanakoek eskuragarri duten gizarte kapitala murrizta denean, garrantzitsua izango da kapital horren sorkuntzan eragitea. Zentzu horretan, gizarte laguntasun sarean eragitea helburu duten esku-hartzeek gizarte kapitala sortzea erraztuko dute, izan ere, jadanik aipatu den moduan gizarte laguntasunezko hartu-emanek gizarte kapitala *stock* gisa metatzeko beharrezkoak diren *fluxuak* eragiten dituzte, metaketa horrek, aldi berean, gizarte laguntasunezko hartu-emanak burutzen jarraitzea ahalbidetzen duelarik. Eta gizarte kapitala sortzeak edo gehitzeak gizarteratzea ahalbidetuko du, bazterkeria egoerari edo arriskuari aurre egitea. Hori dela eta, gizarte laguntasunezko harremanak eragitea helburu duten esku-hartzeak gizarteratze politiken ardatz garrantzitsua eratzen dute (Bernat et al., 2010).

Desabantaila, pobrezia edo bazterkeria egoeran dauden pertsonen bizitza prozesuak berreskuratu eta berriro itxuratzeko, horien harreman pertsonalak zein gizarte harremanak suspertu eta sortzea estrategia garrantzitsua izan da (Rubio-Guzman, 2012). Helburua familia, auzokide edo lagunetik harremanak mantendu, berreskuratu edo birsortzea izan ohi da gehienetan; funtsean, pertsonen gizarte sarean eragitea eta horietatik eratortzen diren baliabideak optimizatzea. Gizarte testuinguruarekin pertsonen beharrak asetzeko gai izango den interakzio prozesu bat eratzea, beharrian horien eta norbanakoak mantentzen dituen harremanetan sortzen diren gizarte eta emoziozko horniduren arteko doikuntza optimizatuz (Gracia et. al., 1995).

Gizarte laguntasun sarean eragitean oinarritutako esku-hartzeek norbanakoaren gizarte testuinguruarekin zuzeneko harremana sortzen dutenez, lortutako eragin positiboak ez dira profesional batekin izandako harreman zuzenaren ondoriozkoak, harreman horren emaitza gisa sortzen diren baliabideek

eragindakoak baizik (Gracia et. al., 1995). Profesionalak betetzen duen funtzioa zeharkakoa izango da beraz, eta helburu nagusia pertsonen gizarte sare naturalean eskuragarri dauden baliabide eta euren beharren arteko doikuntza hobea lortzea da.

Ildo horretatik, Froland, Pancoast, Chapman eta Kimboko-k (1981) 30 laguntasun agentzia formalek komunitateko sare informalekin elkarlanean garatutako programa ezberdinen inguruko ikerketa bat burutu zuten. Autore horiek, bost kolaborazio programa edo estrategia identifikatu zituzten zerbitzu formal eta informalen arteko uztarketan:

1. *Sare pertsonalean esku-hartzea.* Norbanakoak gizarte laguntasun sistema natural zabal eta aberatsa duenean, profesionalak bitartekari lana egin dezake, sistema informal hori indartzeko aholkua eta laguntza emanez. Senide, lagun, bizilagun eta gizarte sare pertsonaleko beste zenbait kidek emandako laguntza sustatuko luke adituak.
2. *Boluntariotzarekin lotura.* Gizarte laguntasun sistema naturala ez nahikoa denean, profesionalaren eginkizuna subjektua komunitateko beste pertsona batzuekin harremantzean izan daiteke. Modu boluntarioan laguntasuna, aholkua eta konpainia ematera eskaintzen diren komunitateko kideekin loturak sor ditzake.
3. *Elkarrekiko laguntza sareak.* Agentzia formalek gehien erabili izan duten estrategia da. Arazo eta interes amankomunak dituzten pertsonen osatutako taldeak sortzean datza, zeintzuetan kideek baliabideak trukatu eta esperientziak partekatu ditzaketen, eta era berean gizarte isolamendua ekidin.
4. *Laguntasun iturriak auzoan.* Kasu honetan profesionalaren eginkizuna auzoan gizarte laguntasun funtzioak betetzen dituzten pertsonak identifikatzea litzateke, eta horiekin aholku harremanak garatzea, komunitateko laguntza ereduak indartzeko eta gizarte laguntasun zerbitzu formaletara jo beharra ekiditeko.
5. *Komunitatea indartzea (empowerment).* Komunitateko lider informalekin harremanak ezartzean datza estrategia honek, existitzen diren beharrianak eta horiei erantzuteko eskuragarri dauden baliabideak

identifikatzeko helburuz, eta komunitateko arazoak konpontzeko beharrezko aldaketak planifikatu ahal izateko.

Gottlieb-ek (1988) bere aldetik, gizarte sareetan eragiteko tipologia bat garatzen du. Honek, gizarte laguntasunean oinarritutako estrategiak bost mailatan sailkatzen ditu, esku-hartzea gertatzen den mailaren arabera. Horrela, banakako esku-hartzeak, didaktikoak, taldekoak, gizartekoak eta komunitatekoak bereizten ditu autore honek. Orokorrean, esku-hartze guztien helburua, talde primarioaren baitan harremantzen diren pertsonen elkar trukatzeko dituzten baliabide psikosozialak indartzea da.

Helburu hori lortzeko esku-hartze estrategia jakin bat edo besteren hautaketa faktore ezberdinen arabera izango da; egoera, egitura edo gizarte harremanetako baliabideen eskakizunak, gizarte ingurunean aldaketak eragitea oztopatzen duten faktoreak, edota esku-hartzeen antolaketa arduradun direnen lehentasunak kontutan izan beharko dira besteak beste. Hala eta guztiz, kontutan izan behar da proposatzen diren estrategiak ez dira baztertzailak, eta funtzio osagarriak bete ditzaketela. Gottlieb-ek (1988) sistemen teoriari jarraitzen dio, eta sistema edo antolakuntza konplexu batetako maila batetan aldaketak eragiteak gainontzeko mailatan aldaketak eragiten dituela uste du, sistema horiek elkarren artean menpekoak baitira.

1. Banakako maila

Banakako esku-hartzeek, subjektuak gizarte laguntasuna jasotzea eta igortzea sustatzen duten ezagutza, gaitasun eta jarrerak garatzea dute helburu. Hori dela eta, maila honen baitan gizarte gaitasunen trebakuntza programak; laguntza bilatzeko orduan jarrera negatiboak agertzen dituztenen jokabideak aldatzeko helburua dutenak; kopuru eta kalitate handiagoko laguntasuna sustatzearen bitartez arazo egoerei aurre egiteko estrategiak hobetzeko helburua dutenak; edo antsietatea gutxitzeko estrategiak sartuko lirarteke, izan ere, estresa, laguntasuna eskaini edo jasotzerako orduan oztopo garrantzitsua bilakatu daiteke, eta hori gutxitzeak eragin positiboak izan ditzake.

2. Maila didaktikoa

Maila didaktikoko esku-hartzeek gizarte laguntasunaren mobilizazioa dute helburu, hori bi modutara lortu daitekeelarik: 1) norbanakoaren gizarte sareko kide baten bitartez, edo 2) norbanakoaren sarearekiko arrotza den pertsona bat bere laguntasun sistema informalean sartuz, normalki boluntario moduan. Lehendabiziko esku-hartze ereduak, subjektuaren gizarte sareko pertsona giltzarrien bitartez, laguntasun mota jakin baten hornikuntza gehitzea edo areagotzea dute helburu, hori epe motz edo luzerako izan daitekeelarik. Bigarren motako esku-hartzeek prozesu konplexuago bati jarraitzen diote, zeintzuetan subjektuak aurrez ezagutzen ez duen pertsona bat bere gizarte sarean txertatzen den, bi aldean artean laguntasun harreman iraunkor bat ezartzen ahaleginduz.

Maila didaktikoaren baitako bi estrategia horien baitan bi esku-hartze moten arteko desberdinketa ere burutzen du Gottlieb-ek (1988): zuzenekoak eta zeharkakoak. 1) Zuzeneko esku-hartzeek jokabideen trebakuntza eta laguntasun ekintza espezifikokoak burutzeko jarraibideak barne hartzen dituzte, eta bizitza egoera estresagarriei aurre egiteko edo osasunerako kaltegarriak diren ohitura eta jarrerak aldatzeko gizarte laguntasun baliabide urriak dituzten pertsonen zuzenduta egon ohi dira. 2) Zeharkako esku-hartzeek berriz gizarte estimulazioa dute helburu, konpainian oinarrituta egon ohi dira, eta euren ezaugarri edo egoera pertsonalak direla eta gizartean isolatuta aurkitzen diren pertsonen bideratuta egon ohi dira. Aurrez egindako bereizketa kontutan hartuta, kasuaren arabera, subjektuaren gizarte sareko kide batek, edo bere gizarte sarean txertatu berri den pertsonak lagundu ahal izango dute bai zuzeneko eta bai zeharkako esku-hartzeen bitartez.

3. Talde maila

Taldeakako esku-hartzeek gizarte laguntasun sistema naturala indartzea dute helburu, harreman sare sendo eta iraunkorrago bat sortuz. Maila honetan ere, norbanakoaren jatorrizko gizarte sareak eskaintzen duen laguntasuna indartzera bideratutako esku-hartzeak eta gizarte harreman berriak eratzera bideratuta daudenak bereizten ditu Gottlieb-ek

(1988). Hala eta guztiz, maila didaktikoan burututako esku-hartzeak banakakoak lirateke, maila honetan berriz taldekoak. Azken horiek taldearen ezaugarriak bere osotasunean aldatzean erdiratzen dira, hala nola, bere osaketa, buruzagitza, egitura, arauak, harremanen maiztasun eta iraupena; izan ere, aldagai horiek laguntasun prozesuak gauzatzea edo laderantziz euren porrota eragin dezakete.

Aurretik existitzen diren gizarte sare naturaletan esku-hartzerakoan (senideek, lagunak, lankideek edo bizilagunek eratutako taldeetan besteak beste), helburua gizarte laguntasuna indartzea izan ohi da. Sarearen tamainan, eraketan edo dentsitatean, edota norbanako batek gainontzeko kideekin mantentzen dituen harremanetan aldaketak eraginez, bertako kideek laguntasun jarrera gehiago izatea lortu nahi da. Esku-hartze eredu hauen artean adibide argienak sareko terapiak eta sareko analisiak lirateke. Lehendabizikoek gizarte sarearen egonkortasuna eta malgutasuna hobetzea edo gizarte sarearen berreraikuntza izan ohi dute helburu. Sare analisiak berriz oraintsu bizitza gertaera estresagarriak jasan dituztenei bideratuta egon ohi dira, eta helburua laguntasun baliabideak indartzea izan ohi da, sarearen baitan ematen diren elkarrekintza konplexuak aztertzearen bidez.

Hala eta guztiz, talde mailan burutzen diren esku-hartzeen artean ohikoenak harreman berriak txertatuz norbanakoaren gizarte sarea indartzean erdiratzen direnak izan ohi dira, normalki elkarri laguntzeko taldeak edo autolaguntza taldeak sortuz. Talde hauek arazo berbera partekatzen duten edo bizitza gertaera estresagarri jakin batetatik pasatzen ari diren pertsonak batuz eratzen dira, profesional batek zuzendu ohi ditu, eta helburua kideen artean elkarri laguntza ematea izan ohi da. Profesionalaren eginkizuna taldeko bilerak gidatzea, eta talde prozesuen inguruan, taldekideak jasaten ari diren estres eragileen inguruan, zein aurre egiteko estrategien egokitasunaren inguruan duen jakintza erabiliz, parte-hartzaileek egindako esperientzia ekarpenak osatzea da. Laguntasun talde hauen artean egongo lirateke senide bat galdu duten pertsonak osatutakoak, dibortzio batetik pasa direnenak, oso gazterik guraso izan direnenak edo egoera estresagarri batetik pasatzen ari direnenak.

4. Gizarte sistema

Maila honetako esku-hartzeek norbanakoaren testuinguru fisiko edo soziokulturalean eragitea dute helburu. Gizarte politika, arau, rol, ingurune fisikoko ezaugarri edo bestelako aldagai makrosozialetan aldaketak eraginez, gizarte sareen egitura eta funtzioak, baita harreman didaktikoen ereduak eraldatzea lortu nahi da. Halako esku-hartzeak burutzerako orduan oztopo ugari aurkitu ohi dira, hala nola, ondorioak hauteman ahal izateko denbora luzeko epeak behar izatea, edo antolaketan aurkitzen diren eragozpen ugariak. Baina hala ere, gizarte sistema mailako esku-hartzeek interes handia aurkezten dute, erakunde edo komunitateko kide guztientzat eskuragarri dauden laguntasun baliabideak gehitzea ahalbidetzen dutelako, lehen mailako prebentzioan funtzio garrantzitsua betetzen dutelarik.

Ikastetxe, hospitale, lantoki, auzo edo beste zenbait testuingurutan burututako zenbait esku-hartzek laguntasun hartu-emanak ahalbidetu ditzakete. Halako estrategien adibide gisa hospitaleetan arau berriak ezartzea aipa daiteke, beti ere arau berri horien helburua pazienteen, familiakoen eta lagunen arteko harremanak erraztea bada. Hala nola, hospitalean dauden haurren gurasoei euren gela berean egoteko aukera ematea, haurdun dagoen emakumearen bikoteari erditzean egoteko aukera ahalbidetzea, edo senitartekoei berez erizainek burutzen dituzten eginkizun batzuetan parte hartzen uztea lirateke aipaturiko arau berrien adibide batzuk.

Gottlieb-ek (1988) aipatzen duen mota honetako beste esku-hartze bat Felner, Ginter eta Primavera-k (1982) burututako eskola trantsizioari buruzkoa da. Ikerketa horretan, irakaslearen jarduera aldatu zuten bigarren hezkuntzara iristen ziren ikasleek lehendabiziko urte erabakigarria modu hobean iragateko eta ikasle eta irakasleen arteko laguntasuna handitzeko. Irakaslearen orientazio eta administrazio eginkizunak gehitu egin ziren, horien artean, ikasleen gurasoekin harremana mantentzeko konpromiso hartu zutelarik. Horrez gain, ikasleen artean harreman egonkorragoak sortu ziren, ohiko prozedurari jarraikiz ikasgai ezberdinetan ikasle ezberdinak biltzen baziren, kasu honetan ikasgai guztietan ikasle talde berbera mantendu zen. Esku-hartzearen diseinatzaileak ikasle horiek gizarte

laguntasun gehiago eragingo zutela eta gizarte sistema berrira hobeto egokituko zirela uste zuten, eta antzeko zerbait erakutsi zuten emaitzek. Esku-hartzean parte hartu zuten ikasleek beste ikastetxe batetako ikasleek baino akademia eta asistentzia emaitza hobeak erakutsi zituzten, norberarenganako ideiei positiboagoak garatu zituzten, eta eskola testuingurua hobekiago baloratu zuten.

5. Komunitate maila

Maila komunitarioko esku-hartzeen helburua laguntasun iturri informalaren baitan konfidantza sustatu eta eguneroko bizitzan laguntasun hartu-emanak suspertzea da. Komunitateko arazoak konpondu ahal izateko bertako baliabideak gehitzera eta eskuragarri dauden baliabideen erabilpen hobeak egitera bideratuta egon ohi dira esku-hartze estrategiak. Mota honetako esku-hartzeen artean, laguntasuna sustatzen duten komunitateko heziketa kanpainak aipatzen ditu Gottlieb-ek (1988), berdinekin gertuko harremanak mantentzeak osasun eta ongizatean duen eragin onuragarriaren inguruko informazioa hedatuz. Maila honetan legokeen beste heziketa kanpaina mota bat jendea elkarri laguntzeko taldeetan parte hartzera animatzeko burutzen direnak lirateke, halako taldeen baitan ematen diren laguntasun prozesuak azalduz.

2.6. Etorkinak eta gizarte sareak

Migrazio internazionalen baitan asko ikertu den elementua da gizarte sareena. 1964an MacDonald eta MacDonald demografo australiarrek barneratu zuten *migrazio kate* kontzeptua, eta orduz geroztik ikerketa ildo oparoa garatu da fluxu migratorioen eraketa, norabidea eta iraunkortasunaren inguruan, erreferente teoriko gisa *migrazio kate* baino, *gizarte sare* kontzeptua erabili duena (Boyd, 1989). MacDonald eta MacDonald-ek ondorengo moduan definitzen zituzten migrazio kateak:

Chain migration can be defined as that movement in which prospective migrants learn of opportunities, are provided with transportation, and have initial accommodation and employment arranged by means of primary social relationship with previous migrants (MacDonald eta MacDonald, 1964: 82).

Subjektu migratzailearen harreman sareak prozesu migratorioa kudeatzeko duen gaitasunari egiten dio erreferentzia kontzeptuak, eta esparru ezberdinetan sare kontzeptuaren erabilera burutzen hasten diren hainbat lanen aurrekari zuzena da (Bott, 1990; Gregorio, 1998).

Orduz geroztik, zenbait autore etorkinen gizarte sareak eta horien funtzioak ikertzeaz arduratu dira. Halako lan gehienak Estatu Batuetan burutu dira. Espainia mailan sare migratorio internazionalen inguruko lan gutxi egin dira, are gutxiago analisi ardatz gisa etorkinen laguntasun sareak dituztenak. Hala eta guztiz, azken urteetan gaiaren inguruko interesa piztu dela dirudi, bere inguruko zenbait txosten (Aparicio eta Tornos, 2005; Díaz López, 2003; Pascual, 2007) eta ikerlan (Hernández, 2003; Hernández, Alonso-Morillejo eta Pozo, 2006; Martín-Hernández, Ochoa, Izquierdo eta Gil-Lacruz, 2007; Martínez, García eta Maya, 2001; Maya, 1999; Maya, Martínez y García, 1999) aurki ditzakegularik.

Migrazio internazionalen aurretik nabarmendu zen migrazio sareekiko interesa, XX. mendeko 50. hamarkadaren erditik 70. hamarkadaren erdira, nekazal guneetatik hirirako exodoa ematearekin batera. Barne migrazioei lotuta agertzen dira beraz sare sozialek migrazio prozesuan izan dezaketengarrantziaren inguruko lehendabiziko lanketak. Baina ordungo zenbait ideiak gaurkoekin bat egiten dutela ikusi bada ere (Barruti, 1990; Comas eta Pujadas, 1991; Martín, 1991; Puig i Valls, 1995; Rosas, 1999), barne migrazioek eta migrazio internazionalak ezaugarri ezberdinak aurkezten dituzte, eta gizarte sareek azken horietan paper garrantzitsuagoa jokatzen dutela defendatzen da, migrazio internazionalen kostuak barnekoenak baino handiagoak direlako migrazio subjektuarentzat (Massey, 1988). Comas eta Pujadas-ek (1991) diotenez, norbanakoen egoerak zenbat eta zailagoak izan, harreman horiek orduan eta garrantzia gehiago bereganatuko dute.

Gizarte sareek migrazio prozesuarengan eragina izan ohi dute, batik batik emigratzeko erabakia hartzerakoan edo norakoa erabakitzerakoan paper garrantzitsua beteko dute horiek. Baina behin migrazio prozesuari ekindakoan, horrek gizarte sarearengan ere ondorioak izango ditu, gehienetan sare hori murriztu egingo delarik eta ondorioz euren gizarte kapitala eta hortik jaso dezaketengarrantziagoa izango delarik.

2.6.1. Gizarte sareen eragina migrazio prozesuan

Gizarte sareek paper garrantzitsua bereganatzen dute etorkinen kolektiboengan. Harreman eta laguntasun sareek jatorrizko herrialdean zein harrera gizartean zeregin garrantzitsua betetzen dute, hala nola, emigratzeko erabakia hartzerakoan, norakoa erabakitzerakoan edota gizarteratze prozesu arrakastatsu bat garatzerako orduan (Portes, 1995; Martínez, Garcia eta Maya, 2001).

Hain zuzen ere, migrazio eta gizarte kapitalaren arteko harremana migrazio prozesu osoaren baitan ikusi daiteke, pertsonak euren jatorrizko gizartetik emigratzea erabakitzen duten momentutik gizarte hartzailera iristen diren arte. Denbora horretan zehar, etorkinek, euren gizarte sareen, familiakoen baliabideen, auzokide eta lagunaren ezagutzak eta aurrez emigratu zuten etorkinek sortutako gizarte egiturak erabiltzen dituzte. Migrazio sare horiek, konfidantzazko harremanen bidez migrazio berrien kostuak murriztea ahalbidetzen duten gizarte kapitala eratzen dute, eta ekintza ekonomikoetarako sarbidea errazten dute, hala nola, etxebizitza eskuratzea, enplegu bat lortzea etab.

Migrazio sareen garrantzia eta eragina ez da beraz harrera gizartera mugatzen, migrazio ibilbidea amaitu osteko unera; subjektua oraindik jatorrizko gizartean aurkitzen denean eta emigratio aukerak planteatzen hasten denean jada garrantzitsuak zaizkio sare horiek zenbait lanek erakutsi duten moduan (Massey, Alarcon, Durand eta Gonzalez, 1987; Pessar, 1982; Portes eta Rumbaut, 1990). Zentzu horretan, Grasmuck eta Pessar-ek ondorengo moduan definitzen dituzte migrazio sareak: *“by social networks we mean the social relations that organize and direct the circulation of labor, capital, goods, services, information, and ideologies between migrant sending and migrant receiving communities”* (Grasmuck eta Pessar, 1991: 13). Etorkinek euren saretik migrazio prozesua burutzeko baliabide ugari lortuko lituzkete autore horien arabera.

Harrera gizartean kontaktuak izateak norakoa erabakitzerakoan eragina dueneko adostasuna argia da. Herrialde berrian lagunak, herrikideak edo senideak izateak gastu ekonomiko eta emozionalak aurrezteko eragiten du, hori erabakiorra izan ohi delarik fluxuen norabidean. Zenbait adituk elur bola efektuaz hitz egiten dute (Boyd, 1989; Portes eta Börözc, 1989; Massey et al., 1993; Gurak eta Caces, 1998). Gurak eta Caces-ek (1998) aipatzen duten modura, sareak migrazio kostuak eta arriskuak gutxitzeko gai direnean, lekualdaketa sinpleago bihurtu ohi da, eta

emigratzeko erabakia hartzeak ausardia galtzen du. Hori dela eta, lehendabiziko etorkinentzat sakon hausnartu eta aztertutako erabakia izan dena, ez da horrenbeste izango euren ondorengoentzat.

Funtsean, migrazio sareek etengabeko pilaketa prozesuan dagoen gizarte kapitala eragiten dute, eta emigratzen duen etorkin bakoitzak horren sustapena ahalbidetzen du, sareko kideei baliabide ezberdinetarako sarbide aukerak irekiz (Bernat et al., 2010). Zentzu honetan, prozesu migratorioen ondoriozko gizarte kapitalaren metaketak fluxu migratorioen garapena eta emigrazioaren iraupena eragiten du.

IKEDAMen gizarte sareen inguruko ikerketa espezifikorik burutu ez bada ere, horien errealitatea landu duten zenbait entitatek sare horiek EAEn dauden IKEDAMengan duten garrantzia nabaria dela azpimarratu dute. Arartekoren arabera, gazte hauen mugikortasunean ahoz ahoko informazioak garrantzia handia bereganatzen du: *“Euskal Autonomia Erkidegora etortzera bultzatzen dituen arrazoi nagusienetako bat da lagunek edo ezagunek hemen paperak egiten dituztela esan dietela, edo adin txikiko atzerritar arduradun gabeen egoera ona dela entzun dutela”* (Ararteko, 2005: 106).

Immigrazioaren benetako erronkak ordea harrera gizartera iritsitakoan sortu ohi dira, egokitze psikologikoko eta sozialeko unea izango da, zeinetan galera mingarriei aurre egin beharko zaien (familia edo lagunak atzerrian utzi izana), eta baldintza berriekiko kontrola lortu beharko den (Díaz López, 2003). Egoera horretan, harremanetatik eratorritako gizarte laguntasuna eta horietatik pilatutako gizarte kapitala ingurune berrian bizitza proiektu arrakastatsua izatea ahalbidetu dezakeen elementu bilakatzen da.

Horrela bada, jarraian, gizarte sareek eta horietatik eratorritako gizarte laguntasun hartu-emanek populazioaren nazioarteko lekualdatzeetan betetzen duten papera aditzera ematen duten lan enpirikoak aztertuko dira. Batetik, migrazio prozesua burutzeak subjektuaren gizarte sarearen egituren eragiten dituen aldaketak azalduko dira. Eta bestetik, horien gizarte sareak euren egokitzapen prozesuan bete ditzaketen funtzioak ikusiko dira.

2.6.2. Migrazio prozesuaren eragina etorkinen gizarte sareetan

Etorkinen gizarte sarearen egitura ezaugarrietan eragina

Lekualdatzeek norbanakoaren gizarte sarearen egitura ezaugarrietan aldaketak eragiten dituztela ikusi da hainbat ikerketetan, horrek aldi berean sare horietatik eratortzen diren gizarte laguntasunezko hartu-eman eta gizarte kapitalaren metaketan ere aldaketak eragin dituelarik. Egitura ezaugarriei dagokionez migrazio prozesuak gizarte sareen tamainan eta eraketan erakusten duten eragina ikertu da batik bat.

Gizarte sarearen tamaina

Migrazio esperientziaren eraginez etorkinen gizarte sareak murriztu egiten direla erakutsi dute ikerketa gehienek, eta ondorioz eskuragarri duten gizarte kapitala eta laguntasun fluxuak ere gutxitu egiten direla. Hainbat autorek esaterako, etorkinen gizarte sarea autoktonoena baino txikiagoa dela ikusi dute. Golding eta Baezconde-Garbanati-k (1990) Ipar Amerikan bizi ziren mexikarren sareak aztertu zituzten, eta lekualdatzea gertatu berri denean gizarte sarea eta bertatik eratorritako laguntasun hartu-emanak gutxitu egiten direla ikusi zuten. Era berean, Schweizer, Schnegg eta Berzbon-ek (1998) Kaliforniako bizitegi-gune batetan bizi ziren anglosaxoi eta hispanoen gizarte sareak ikertu zituzten, eta beste zenbait ezberdintasunen artean, hispanoen sareak (emigrazio subjektuenak hain zuzen) anglosaxoienak baino txikiagoak zirela ikusi zuten. Ingalaterran buruturiko lan batek bere aldetik, Londresen bizi ziren emakume asiarren sareak bertako emakumeenak baino nahikoa txikiagoak zirela erakutsi zuen (Patel, 1992).

Espainia mailan burututako hainbat lanek antzeko zerbaitek erakutsi dute, euren jatorria edozein izanik ere, etorkinek autoktonoek baino gizarte sare txikiagoa dutela eta gizarte laguntasun sistema murriztagoa dutela hain zuzen (Martínez, García, Maya, Rodríguez eta Checa, 1996; Maya, 1999; Maya, Martínez, García, 1999). Martínez et al.-ek (1996) Andaluziako afrikarrek gizarte sare txikiak dituztela ondorioztatu dute. Maya-k (1999), bere doktoradutza tesian Andaluziako etorkin afrikar eta hegoamerikarren gizarte sareak eta laguntasun baliabideak ikertzen ditu, eta lekualdatzea orain dela gutxi bizi izan duten etorkinen kasuan gizarte laguntasun sareen tamaina autoktonoena baino dezente txikiagoa dela

ikusten du, batik bat afrikarren kasuan. Ikerketa gehienek emigrazio prozesuaren ondoriozko sareen murrizketa erakutsi badute ere, beste zenbaitek ezeztatu egin dute idei hori, esaterako Hernandez-ek (2003) Andaluziako marokoarren gizarte sareak nahiko zabalak direla, eta horien tamaina autoktonoenaren antzekoa dela baieztatu du bere doktoradutza tesian.

Horrela bada, beharrezkoa izango da sareen tamainaren azterketan zenbait aldagai kontutan izatea, horien arabera lortutako emaitzak ezberdinak izan baitaitezke. Aldagai horien artean harrera gizartean daramaten denbora, etorkinek harrera testuinguruan harremanak egiteko aurkitzen dituzten aukera ezberdinak, adina edota horien maila sozioekonomikoa aipa litezke. Hainbat ikerketek erakutsi dutenez, urteen poderioz gizarte sarea eta bertatik eratorritako laguntasuna handituz joan ohi dira (Golding eta Baezconde-Garbanati, 1990; Martínez et al., 1996). Baina aldagai hori nekez aztertu ahal izango da IKEDAM ohien kasuan, horien etorrera migrazioen baitako fenomeno berria baita, eta ondorioz harrera gizartean denbora gutxi daramaten gazteak dira. Denborak etorkinen gizarte sarean duen eragina ikusuteko beharrezkoa izango da belaunaldien igarotzea (Blanco, 1999).

Gizarte hartzaileak etorkinekiko agertzen duen jarrerak ere eragina izango du sarearen tamainan, baita etorkinek eurek agertzen duten desioak ere, Blanco-k (1990) gizarteratzearen baldintzatzaile subjektibo gisa definitzen dituenak. Jarrerak aldekoak badira bi kolektiboen arteko harremanak gauzatu eta etorkinen sarea zabalduz ete heterogeneoagoa bihurtuz joango da. Gizarteratze prozesuaren gizarte dimentsioa aztertzerakoan aipatu den moduan garrantzitsua da bi kolektiboen harreman hori ematea, aldiz, zenbait ikerketak erakutsi dutenez askotan hori ez da gertatzen (Observatorio permanente de la inmigración, 2014), gizarte sareak murrizta izanten jarraitzen duelarik.

Diru-sarrera maila bezalako aldagaiek ere eragina izan dezakete etorkinen sarearen tamainan. Ildo horretatik, Golding eta Baezconde-Garbanati-k (1990) iparamerikar eta Estatu Batuetan bizi diren mexikarren gizarte laguntasun sareetan ikusitako ezberdintasunak subjektuen maila sozioekonomikoari egozten dizkiote. Mexikarrek familia sare txikiagoa erakutsten dute, baina horren atzean ezkututzen diren arrazoi gisa ondorengoak aipatzen dituzte: 1) senideekin harremana mantendu ahal izateko telefono zein garraio kostuak ordaintzeko

dituzten aukera murrizagoak, eta 2) etorkinek izan ohi dituzten lanaldi luzeen eraginez harreman horiek mantentzeko denbora gutxiago izatea. Martínez et al.-ek (1996) Andaluziako etorkin afrikarren inguruan burututako ikerketan ere antzeko zerbait ikusten da, gizarte sarearen tamaina etorkinak gizarte egituran betetzen duen lekuaren arabera aldatu egiten da, ikasketa maila altuena duten ezkonduetako gizonak direlarik gizarte sare handiena erakusten duten etorkin afrikarrak.

IKEDAM-en gizarte sare eta gizarte laguntasun prozesuen inguruko ikerketa zehatzik burutu ez bada ere, etorkinen kasu orokorrean bezalaxe, migrazio prozesuaren ondorioz horien sareak murriztuta geratzen direla aurreikusi daiteke. Are gehiago emigrazio proiektuari bakarrik ekiteak ezaugarritzen dituen subjektuak direla kontutan hartzen bada, euren familia eta lagunak jatorrizko herrialdean utzita (IV. kapituluaren lantzen dira euren perfil eta egoerak). Etorkinei harrera gizartean gizarteratze prozesu egoki bat gauzatzea ahalbidetzen dien gizarte kapitalaren metaketa gizarte sarearen baitako laguntasunezko hartu-emanetatik badator, sare txikia izateak laguntasuna jaso eta gizarteratze kapitala metatzeko aukerak gutxituko dizkiela dirudi.

Gizarte sarearen homogeneotasuna

Norbanakoaren gizarte sarea eratzen duten pertsonen jatorria ere asko landu izan den aspektua da, aberkide zein autoktonoekin mantentzen duten harreman maila aztertu delarik. Ikerketa gehienek etorkinen sareak aberkideez osatuta daudela erakutsi dute, pertsona horiek jada jatorrizko herrialdean ezagutzen zituenak, edo harrera gizartean ezagututako euren jatorri bereko pertsonak izan daitezkeelarik. Esaterako, Leslie-k (1992), Estatu Batuetako Amerika Erdialdeko etorkinen gizarte laguntasun sarea batik bat euren jatorri bereko pertsonez eratuta dagoela ikusten du, autoktonoen presentzia oso murrizta delarik.

Espainiako kasuan, Andaluziako etorkin afrikarren gizarte sarearen bi herenak herrikideez osatuta daudela ikusi dute Martínez et al.-ek (1996). Eta antzeko emaitzak ikusi dira autonomia erkidego berean bizi diren Peruko emakumeen kasuan ere, nahiz eta kasu horretan autoktonoen presentzia apur bat altuagoa izan, horren arrazoia harrera gizarteko jendearekin harremandu ahal izateko hizkuntza aldetik duten erraztasuna izan daitekeelarik (Maya, 1999; Maya, Martínez y García, 1999). Almeriako afrikarren kasuan ere, gizarte laguntasun

sistema naturalean autoktonoen presentzia oso txikia dela ikusi da (Hernández, 2003).

Etorkinen sareak eta zehatzago gizarte laguntasun sareak homogeneousak izan ohi direla esan daiteke beraz, batik bat hasieran. Horiek ziurgabetasun gutxien eragiten dieten harremanetan bilatu ohi dute laguntza, euren antzeko esperientzia eta gertaera estresagarriak jasaten dituzten pertsonengan gehienetan (Kim, 1987). Autoktonoek gizarte arau eta balio kultural ezberdinak izan ohi dituzte, eta ondorioz eurekin elkarreragiteak ezbaia eragiten die, batik bat iritsi berriak diren etorkinei. Jatorri berekoak diren pertsonekin ziurrago sentitzen dira, arau eta balio berdinen arabera jokatzeko dutelako eta eurak bezalaxe migrazio esperientzia bizi izan dutelako; eta arrazoi horiek laguntasuna jatorri berekoengan bilatzera daramatza. Hala eta guztiz, etorkina harrera gizarteko arauak eta kultura ezagutzeko doan heinean, eta autoktonoekin modu eraginkorrean harremanak ahal izateko gaitasuna bereganatzen duen heinean (harrera gizarteko hizkuntza ikasiz esaterako), hasiera batetan kulturarteko harremanek eragiten zioten ziurgabetasuna gainditu eta bertako jendearekin elkarreragin gehiago izaten hasiko da normalki. Beharrezkoa izango da ordea horretarako baldintza egokiak ematea.

Zentzu horretan, ikerketa ezberdinek etorkinen gizarte sarearen eraketa denbora pasa ahala aldatuz joaten dela erakutsi dute. Hasierako unean gizarte sarea aberkideez eratuta egon ohi bada, apurka autoktonoak gehitu ohi dira euren gizarte sareetan, jatorrizko herrialdeko pertsonenganako menpekotasuna gutxituz eta harrera gizarteko kideekin gero eta harreman estuagoak sortuz (Aroian, 1992; Hernández, 2003; Jacob, 1992; Kim, 1987; Lynam, 1985; Maya, Martínez y García, 1999). Herrialde hartzailera iritsi eta hasierako unean etorkinek laguntza gehien behar izaten dute eta aldiz eskuratzeko aukera gutxien izaten dituzte euren jatorrizko sarea etenda geratu delako (Aroian, 1992). Hori dela eta, aberkideak ezinbesteko laguntasun iturri bilakatzen dira. Lehendabiziko etapa horren ostean ordea, etorkinen gizarte laguntasun sareak zabalduz joan ohi dira, eta beste nazionalitate batzuetako etorkin eta harrera gizarteko autoktonoen presentzia handituz joan ohi da.

Etapa ezberdinetan gizarte sarearen eraketan ematen diren ezberdintasunak agerian geratu dira hainbat lanetan. Lynam-ek (1985) esaterako Kanadako emakume etorkin batzuen sareak ikertu zituen, eta hasierako unean gertueneko senide eta lagun kutunekin soilik harremantzen zirela ikusi zuen; baina sare hori beharrian guztiei erantzun ahal izateko oso mugatua zenez, bigarren etapa batetan talde etniko edo erlijioso bereko loturak burutzen hasten dira, zeintzuekin balioak konpartitzen dituzten eta ondorioz komunikazioa errazagoa den; eta azken fasean jada emakumeen sareetan autoktonoen presentzia ematen hasten da, euren komunitatetik at konfidantzazko harremanak izatea ahalbidetzen diena, horrela pribatutasuna mantenduz eta segregazio sentimenduak ekidinez.

Antzeko prozesua ikusi zuen Jacob-ek (1992) Montreal-en bizi ziren El Salvadorgo errefuxiatuen kasuan. Hasierako unean, etorkinen gizarte bizitza batik bat familiakoengana mugatzen zen, eta aberkideekin burutzen zituzten zenbait kirol eta aisialdi ekintzetara; izan ere, Montreal-en ez zegoen oraindik euren jatorri berekoek eratutako komunitate zabal eta definiturik. Beranduago, lan munduan txertatzean, lankideak agertzen dira euren gizarte sareetan. Horiekin harremanak eratzeke unean harrerako hizkuntzaren ezagutza eta jarrera politikoa erabakigarriak izango ziren. Frantseza ondo menperatzen zutenek eta politikan parte hartzen zutenek kanadarrekin harreman gehiago eratzen zituzten.

Baina gizarte sarearen tamaina aztertzerakoan aipatu den moduan autoktonoekin harremantzeko aukerak ez daude etorkinen gaitasun eta jarreraren esku soilik, harrera gizarteko zenbait faktorek ere eragiten dute horretan, hala nola, gizarte berriak etorkinei elkarreragin eta parte hartzeko eskaintzen dizkien aukerak, edo autoktonoek etorkinekiko agertzen dituzten jarrerak. Kim-en (1987) arabera, etorkinei beharrezkoa zaie komunikazio gaitasun egokia izatea autoktonoekin modu egokian elkarreragiteko, hau da, gizarte eta kultur testuinguru berriak sortzen dituen eskakizunak ulertu eta modu egokian erantzun ahal izateko. Komunikazio gaitasun hori autoktonoekin harremanak mantenduz lortuko litzateke, hori dela eta, harrera gizarteak kulturarteko harreman horiek gertatzeko eskaintzen dituen aukerak baldintzatuko dute gizarte laguntasun harremanak jatorri bereko pertsonengandik soilik edo autoktonoengandik ere etortzea. Bizilekuaren segregazioa, hau da, autoktonoen zonaldeetatik aldentutako

auzoetan bizitzea, edota gizartean etorkinekiko jarrera arrazistak egoteak, kulturarteko harremana ekidin dezake, eta horrek etorkinen gizarte laguntasun sisteman autoktonoak txertatzea oztopatu.

Etorkinetaz orokorki hitz egiterakoan euren gizarte sarea nagusiki aberkideez eratuta egon ohi dela ikusi bada, gauza bera gertatzen da IKEDAMen kasuan ere, zenbait entitatek gazte horiek autoktonoekin mantentzen dituzten harremanak oso murrizak direla erakutsi dute (Ararteko, 2005, 2011; Bravo, Santos eta Del Valle, 2010; Quiroga et al., 2005; Quiroga et al., 2009). Zenbait ikerketak erakutsi dutenez, jatorrizko familia nuklearrarekin harreman trasnazonala mantendu ohi dute gehienetan, harrerara iristen direnetik familiarekin telefono bidezko aldizkako harremana mantentzen bait dute (Ararteko, 2005; Bravo et al., 2010; Gonzalo et al., 2010; Quiroga et al., 2005). Eta egunerokoan mantentzen dituzten harremanei dagokionez euren egoera beretsua bizi duten beste IKEDAM batzuekin soilik harremantzen direla azpimarratu dute.

EAEko kasuan ere antzeko zerbait ikusi da, adin txikikoak diren bitartean, bizi diren zentruetako hezitzaileez at, autoktonoen presentzia oso txikia dela euren eguneroko harremanetan; kirol taldeetan parte hartzen duten edo lan munduan murgildu diren gutxi batzuk salbuetsita, gainerako IKEDAMek euren adiskideak etorkinak direla azpimarratzen dute, normalki euren nazionalitate berekoak (Arateko 2005 eta 2011). Marokoarren kasuan normalki beste marokoar batzuekin erlazionatzen dira, Sahara hegoaldeko mutikoen kasuan berriz, herrialde berekoen kopurua murriztagoa izan ohi denez, gertuko herrialdeetakoekin harremandu ohi dira, inguru geografiko berekoekin (Quiroga et al., 2009).

Gizarte sarearen dentsitatea eta ugaritasuna

Migrazio prozesuak etorkinen gizarte sarearen dentsitatean ere eragina izan ohi du, horien erlazioak estuak eta sarritasun handikoak izan ohi direla ikusi delarik. Maya, Martínez eta García-k (1999) Sevillan bizi diren emakume perutarren sareak txikiak eta dentsitate handikoak direla ikusi dute, kideen arteko harremanak sarriak izan ohi dira, eta informazioaren joan-etorri handia egon ohi da. Ondorioz gatazka sortzeko aukerak ere handitu egiten dira, eta horrek zenbait harremanen haustura eragin dezake. Aldiz hori ez da beti gertatzen, Kuo eta Tsai-k (1986) ikusi

dutenez, Estatu Batuetako asiarren sareak dentsitate handikoak izateak depresio sintomak gutxitu eta gizarte zein kultur testuinguru berrian egokitzea errazten dute. Puntu honetan gizarte sare dentso eta harreman ahul edo zubidun loturen arteko gatazka agertuko litzateke, eta lortu nahi diren helburuen arabera era bateko zein besteko harreman motak eraginkorragoak izango dira.

Etorkinen sareen tamaina murrizta konpentsatzeko agertu ohi den beste ezaugarri bat ugaritasuna izan ohi da. Horrela, sarea eratzen duten kideek laguntasun mota ezberdinak eskaintzeko gaitasuna izan ohi dute. Martínez et al.-ek (1996) Andaluzian bizi diren etorkin afrikarren gizarte laguntasun sistemaren inguruan burututako lan batek horien harremanak ugaritasunak ezaugarritzen dituela erakutsi du; batik bat lagunen eta bikotearen kasuan, horiek gizarte laguntasun mota ezberdinen iturri gisa agertzen direlarik. Estatu Batuetako amerika erdialdeko etorkinen kasuan ere, horien harreman sareak txikiak, dentsitate handikoak eta ugaritasunezkoak direla ikusi da (Leslie, 1992).

Laburbilduz, etorkinen gizarte sarearen egiturak ondorengo ezaugarriak aurkezten ditu gehienetan: 1) Tamainari dagokionez, migrazio prozesuaren ondorioz etorkinen gizarte sareak murriztu egiten direla ikusi da; 2) Sare oso homogeneousak aurkezten dituzte, gehienetan aberkideekin harremantzen direlarik; 3) Dentsitate maila handikoak izan ohi dira, erlazio estuak eta sarritasun handikoak mantentzen direlarik.

Etorkinen gizarte sareetatik eratorritako funtzioak

Etorkinen sareak osatzen dituzten kideen ezaugarri eta nolakotasunaren arabera, sare horiek bete ditzaketen funtzioak ezberdinak izango dira. Etorkinen gizarte sarearen egitura aztertzerakoan ikusi dugunez, sare horiek homogeneousak izan ohi dira, eta ondorioz laguntasuna batik bat aberkideengandik jasotzen dute. Aroian-i (1992) jarraikiz, hasierako uneetan etorkinek informazioaren, laguntasun materialaren eta emoziozko laguntasunaren beharra izan ohi dute, eta horien aurrean euren gizarte sareek, aberkideek eratzen dituztenak, paper garrantzitsua betetzen dute: harrera gizaratearen funtzionamenduaren inguruko informazioa ematen dute, eta arazoei aurre egiteko moduak azaldu; baliabide materialak ere ahalbidetzen dituzte, hala nola, bizilekua, dirua, arropa, elikagaiak etab., eta baita

hizkuntzarekin zerikusia duen laguntza instrumentala ere; gainera, emigrazioak bakardade eta herrimin sentimenduak eragiten ditu, eta gizarte harremanak sentimendu horiei aurre egiteko gizarte laguntasun emozionalaren iturri nagusi izan ohi dira, afektua, ulermena eta konfidantza emanez.

Baina sare homogeneousk eskaini dezaketen laguntasun hori etorkinen beharrak asetzeko gutxiegiak eta zenbaitetan kaltegarria edo mugatzailea suertatu daitekeela aipatu dute zenbait autorek. Leslie-ren (1992) arabera, homogeneousak, txikiak eta dentsitate handikoak diren sareek laguntasun emozionala eta instrumentala zein informaziozkoa eskaintzen dute nagusiki, aldiz laguntza materiala eskaintzeko zailtasunak izan ohi dituzte, eurak bezalaxe maila sozioekonomiko baxua izan ohi dutelako.

Aroian-en (1992) arabera, egokitze prozesuan aurrera doazen heinean etorkinen beharrak aldatuz joan ohi dira, eta sare homogeneousak horiei erantzuteko motz gelditzen hasten dira. Behin gizartearen funtzionamenduaren inguruko eta migrazio esperientziari lotuta agertzen diren arazoei aurre egiteko moduei buruzko informazioa eskuratu dutenean, subjektuek bilatzen duten informazioa zehatzagoa eta konplexuagoa izan ohi da, ezberdintasun kulturelei edo hizkuntza erabilerari buruzkoa. Informazio hori autoktonoek maneiaturik dute, hori dela eta, etorkinen sareak homogeneousak izaten jarraitzen badu, euren gizarteratze prozesuan bete dezakeen funtzioa ez da euren beharrei erantzuteko eraginkorra izango.

Gizarte laguntasun emozionalaren bila ere jarraitzen dute euren gizarte sarean, talde pertenezkoa zentzua lortzeko eta bakardade sentimenduak ekiditeko (Aroian, 1992). Zentzu horretan jatorrizko herrialdeko familiareko zein lagunekin harremanetan jarraitzeak jatorrizko identitate kulturala mantendu eta erroak berresten laguntzen die, harrera gizartean gero eta egokituago badaude ere jatorrizko komunitatearekiko pertenezkoa sentimendua ez galtzea ahalbidetuz. Hala eta guztiz, kontutan izan behar da jatorrizko komunitatearekiko gehiegi pertenezkoa ere ez dela egokia izango euren gizarteratze prozesurako, gizarteratze prozesua lantzerakoan ikusi den moduan beharrezkoa izango delako harrera gizartekoak direneko sentimendua garatzea ere (Blanco, 2001).

Gizarte kapitalaren osagai funtzionala aztertzerakoan jada aipatu den moduan, zenbait autorek gizarte kapitalak izan ditzakeen hainbait aspektu

negatibo nabarmendu dituzte, eta gizarte harremanek ez dituztela beti laguntasun funtzioak gauzatzen azpimarratu dute, gatazka ere eragin dezaketelarik, subjektuen ongizatean eragin negatiboak izan ditzaketenak (Bates, 1994; Hobfoll eta Stokez, 1988; House, Umberson eta Landis, 1988; Maya, Martínez eta García, 1999; Portes eta Sensenbrenner, 1993; Van Der Gaag eta Snijders, 2003). Besteak beste, komunitate itxiek kontrol jardueren bitartez gaitasun zigortzailea izan dezaketela; komunitatean indarrean dauden arauak askatasun gabezia inposatu dezaketela, proiektu indibidualen arrakasta zailduz; etniarekiko gehiegizko menpekotasunak goranzko mugikortasuna oztopatzen duela; zenbaitetan gizarte sareko kideengan lehiakortasuna sortzen dela; edo komunitateko baliabideak erabiltzeak gerora zama eragin diezaiokeela ikusi da.

Batik bat hasieran, etorkinen sareak txikiak eta dentsitate handikoak direnean, harreman horiek aukeratuak baino gehiago inposatuak senti ditzakete, eta horrek gatazka eragin dezake (Aroian, 1992; Maya, Martínez eta García, 1999). Bestalde, beharrianak gizarte harreman gutxi batzuegan biltzeak gainkarga eragin dezake, batik bat gizarte sareko kideak behar antzekoak pairatzen dituztenean, eta hori ere gatazka eragile izan daiteke (Sluzki, 1992).

Familiartekoak langile gisa edukitzeak edo bezero aberkideetan soilik erdiratzeak enpresa munduan arrakasta izatea oztopatu dezakeela ikusi dute beste hainbat autorek. Zentzu horretan, Bates-ek (1994) Estatu Batuetako asiar etorkinek martxan jarritako negozio txikiak ikertu zituen, eta denboran zehar bizirauten zuten enpresak, unibertsitatean ikasiak ziren jabeak zituztenak, sortzerako unean kapital finantzarioaren inbertsio esanguratsua burutu zutenak, eta bezero asiarrengan soilik erdiratzen ez zirenak zirela ikusi zuen. Aldiz, enpresarik gazteenak eta euren komunitate etnikoko bezeroak soilik zituztenak desagertzeko arrisku gehiago erakusten zituzten. Hori dela eta, zerbitzua komunitate etnikora soilik bideratzeak negozioaren iraupenari dagokionean eragin negatiboak izan ditzake. Gizarte laguntasunezko harremanek orokorrean lan merkatura moldatzea errazten badute, solidaritate etnikoak harrerako komunitatearekin hartu-emana oztopatuko du, eta horrek hobekuntza ekonomikorako aukera indibidualak (Maya, 1999). Kokapen etnikoak etorkinen negozio txikientzako gutxieneko erosle kopurua bermatuko luke, baina aldi berean, horien garapenerako muga izango lirarteke.

Horrela bada, solidaritate etniko eta familiarrak harrera gizartean gogobetetze maila handiagoa izatea ahalbidetzen badie ere, zenbaitetan oztopo bilakatzen dira autoktonoekin harremanak ezartzeko edo egokitzapen ekonomiko pertsonala lortzeko orduan (Maya, 1999). Eragin negatibo hori etorkinaren gizarte sarea homogeneoa denean gertatuko da batik bat. Aldiz, horiek zenbat eta heterogenagoak izan positiboagoak izango direla ulertu izan da, sare horretan sortzen den informazio fluxua aberatsagoa eta askotarikoa izango baita; eta ondorioz, baliabide ezberdinetarako bitartekari gisa gaitasun handiagoa izango du. Hori dela eta, errealitate ezberdinekin harremanduta dauden pertsonak aberastu egingo dira, informazio gehiago izango dutelako eta bizitzarekiko ikuspegi eta pentsakera ugari irekiko zaizkielako (Granovetter, 1982; Burt, 1992 eta 2004; Lin, 2001).

Etorकिनен kasu orokorra aztertzerakoan bezalaxe, IKEDAM ohien gizarte sarea ere aberkideek eratzen dutela ikusi da. Sare horiek betetzen dituzten funtzioak sakonki ikertu ez badira ere, horietatik jasotzen duten laguntasuna mugatua izango dela aurreikusten da. Zentzu horretan, Bravo et al.-ek gazte etorkinen gizarte laguntasun sarea harrera gizarteko kideetara zabaltzea euren gizarteratze prozesurako gakoa izango dela aipatzen dute:

Uno de los principales objetivos de trabajo con estos jóvenes ha de ser fortalecer su red de apoyo social en la comunidad, evitando que esté únicamente configurada por otros jóvenes que hayan experimentado el mismo proceso migratorio. Si bien estas relaciones han de mantenerse y apoyarse como fuente de identidad y referencia, el tener consolidada una red de apoyo con otros jóvenes y adultos de la comunidad será una de las claves en su proceso de integración como adultos (Bravo et al., 2010: 125).

2.6.3. Etorकिनен gizarte sareetan esku-hartzeak: gizarte kapitala gehitzeko estrategia

Gure gizarteko marjinazio eta gizarte bazterkeria kasuen oinarrian gizarte laguntasuna ahalbidetzen duen sare naturalen gabezia agertzen bada, etorkinak egoera horretan aurkitu daitezke; batik bat, migrazio prozesuaren ondorioz jatorrizko herrialdea utzi eta etorkinaren sarea etenda geratzen denean (Franzé, Casellas eta Gregorio, 1999). Zenbait etorkinek familiarekin batera emigratzen badute, beste hainbatek bakarrik ekiten diote prozesu horri (ikerketa honen subjektu diren IKEDAM ohiak kasu), eta familiarengandik banatu izanak arazo

egoeretan laguntasun aukerak murrizten dizkie eta gabezia afektiboak eragin, etorkinaren gizarte bizitzan eragin negatiboa izan dezaketenak.

Harrera gizartera iristean harremanen berreraikuntza prozesu bat burutzen da, eta horrek jatorrizko familia (seniderik gabe emigratu dutenen kasuan) zein lagunak ordezkatu ohi ditu. Baina ikusi dugunez, gizarte sare berri horiek askotan jatorrizko komunitate etnikora mugatuta geratzen dira, antzeko gizarte eta kultur balioak edota hizkuntza partekatzen dituztelako. Jadanik aipatu den moduan, ikerketa gehienek etorkinen gizarte sarea txikitu egiten dela erakutsi dute, eta homogenea eta dentsoa izan ohi dela. Franzé et al.-ek (1999) diotenez, hori gizarteratze prozesuan oztopo izango litzateke, are gehiago, gizarte bazterkeria prozesuen eragile izan liteke, etorkinen ghetizazioa eragin dezakeelarik.

Zenbait autorek aipatzen dutenez, etorkinen kasuan beharrezkoa da gertuko harreman sendoez¹⁰ gain horietatik kanpoko harremanak ere garatzea, hala nola autokonoekin, elkarteekin etab. Horiek baliabide eta errekurtsio hobeagoetarako sarbidea ahalbidetu dezakete, eta gizarteratze prozesua erraztu (Bernat et al., 2010). Etorkinen gizarte sarea eratzen duten harreman motek, zenbaitetan, gizarte kapitala eta laguntasuna sustatu beharrean, desabantailak eragin ditzaketela ikusi da, ez soilik etorkinentzat, baita hartzailea den gizartearentzat ere. Gizarte harremanek komunitateen isolamendua faboratzen dutenean gertatuko da hori, talde interesen arabera soilik jokutzen dutenean edo gizarte hartzaileko ideien aurkakoak diren interesen alde egiten dutenean. Mota honetako sareek gizarte kapitala hondatu dezakete, *ghetto*-en agerpena faboretuz, harrera gizarteko integrazioa zailduz eta gizarte garapena eta kohesioa geldiaraziz.

Eragin negatibo hori ekiditeko, beharrezkoa izango da etorkinen gizarte sarea *bonding* motako harremanez gain *bridging* eta *linking* harremanez ere eratuta egotea. Immigrazioaren kasuan, familia eta auzokideekiko harremanak (*bonding* erakoak) identitatearen, egonkortasun pertsonalaren eta gizarteratzearen iturri dira. Baina horiek modu eraginkorrean gertatzeko beharrezkoa izango da aipaturiko harreman horiek zeharkako harreman kopuru zabal batekin konbinatzea (*bridging* eta *linking*), eta gizarteko bizikidetzaren markoan

¹⁰ Granovetter-en (1973) erabiltzen duen terminoa (*strong ties*), intentsitate eta sarritasun handiaz ematen diren gertuko harremanak, hala nola familia edota gertuko lagunekin.

sortutako arau eta kontratuetan oinarrituta egotea (Bernat et al., 2010). Marko formal hori eta osagarriak diren zeharkako harremanik gabe etorkinen sareek gizarte bazterkeria, ghettoak eta mafiak eragin ditzakete, genero, etnia edo nazionalitatea direla arrazoi.

Bernat et al.-ek (2010), Granovetter eta Burt-en ekarpenei jarraikiz, zeharkako haremanak (norbere taldeaz gaindikoak, *bridging* edo *linking*) taldearen baitakoak (*bonding*) baino ahulagoak izan ohi direla azpimarratzen dute, baina arau formaletan oinarrituta badaude harreman sendoek baino funtzio garrantzitsuagoak bete ditzaketela pertsona etorkinentzat, beste aktore batzuekin negoziatzeko gaitasuna sortu dezaketelarik. Horrela, gizarte eraldaketaren eragileak bihurtu daitezke etorkinak, talde produktiboak bilakatu, baliabide komunitarioetara edo enplegu sareetara sarbidea izan, edo gizarte konpromisoa eta estatuaren boterearekiko gaitasun kritikoa eskuratu.

Hori dela eta, prozesu migratorioaren ikuspegitik harrera gizartean gizarte kapitala metatzea beharrezkoa da garapen indibidual eta gizarte garapenerako, instituzio publikoetatik sustatu beharreko ondasun publikoa bilakatzen delarik (Bernat et al., 2010). Izan ere, horren gabeziak gizarteratze prozesua oztopatu dezake. Horrela bada, zeharkako harremanen edo zubi gisakoen sorkuntzara bideratutako politikak ezartzea etorkinen gizarteratze prozesua eta harrera gizarteko kohesioa ahalbidetzeko beharrezkoak izango dira.

Zentzu horretan, egoera estresagarri edo bizitza esperientzia zail bat igarotzen ari diren, edota bazterkeria egoeran dauden pertsonen kasuan aipatzen genuen bezalaxe, etorkinen kasuan ere euren gizarte sarean eta hortik eratortzen den gizarte laguntasunean eragitea helburu duten esku-hartzeak martxan jartzea eraginkorra izango litzatekeela aipatu dute zenbait autorek (Hernández, 2003; Hernández, Alonso eta Pozo, 2006; Martínez, Calzado eta Martínez 2011). Ildo horretatik, Hernández, Alonso eta Pozo-k (2006) etorkinekin gizarte laguntasun esku-hartzeak burutzeko tipologia sakona garatzen dute, lau esku-hartze maila zehaztuz, bakoitzaren baitan ekintza ezberdinak eta horiek burutuko lituzketen funtzioak aipatuz:

2.1. Taula. Populazio etorkinarekin gizarte laguntasunezko esku-hartzeak burutzeko tipologia

Esku-hartze maila	Gizarte laguntasunaren dimentsioetan aldaketak	
	<i>Egitura</i>	<i>Funtzioak</i>
<i>1. Maila didaktikoa</i>		
a) Gizarte bitartekotza	.Laguntasun iturri berriak txertatzea	.Informazioa eta aholkua .Laguntasun instrumentala
b) Laguntasun boluntarioa	.Laguntasun iturri berriak txertatzea	.Emoziozko laguntasuna .Informazio eta aholkua .Laguntasun instrumentala
<i>2. Gizarte sareetan esku-hartzeak</i> Komunitatean laguntasun iturri giltzarriak	.Gizarte sarearen egituran aldaketarik ez	.Jadanik existitzen diren laguntasun hartu-emanen kalitatea gehitzea .Emoziozko laguntasuna .Informazio eta aholkua .Laguntasun instrumentala .Laguntasun materiala
<i>3. Elkarrekiko laguntza taldeak</i> Laguntasun taldeak Autolaguntza taldeak	.Askotariko laguntasun iturri berriak txertatzea .Kontaktuen sarritasuna gehitzea .Sarearen osaketan aldaketak .Dentsitatea eta sakabanatzea gutxitzea .Elkarrekikotasuna gehitzea	.Jadanik existitzen diren laguntasun hartu-emanen kalitatea gehitzea .Emoziozko laguntasuna .Informazio eta aholkua .Laguntasun instrumentala .Laguntasun materiala
<i>4. Komunitate mailako esku-hartzeak</i> Gizarte ekintza	.Gizarte sareko harremanak indartzea	.Jadanik existitzen diren laguntasun hartu-emanen kalitatea gehitzea .Botere egiturak aldatzeko komunitateko baliabideak mobilizatzea

Iturria: Hernández et al., 2006: 1159.

1. Maila didaktikoa

Esku-hartze didaktikoak laguntza eta baliabideen hartu-emanen sustatzea dute helburu, etorkinen gizarte sareetan laguntasun iturri berriak txertatuz. Eta maila honetako esku-hartzeak gizarte bitartekotza edo laguntasun boluntarioa izan daitezke:

a) Gizarte bitartekotza

Hirugarren pertsona batek bi pertsona edo talderen artean harreman berriak sortzeko aurrera eramaten dituen ekintzak lirateke, horien artean egon daitezkeen gatazkak konpondu ahal izateko. Gizarte bitartekariaren eginkizun nagusia esparru ezberdinetan etorkin eta harrera gizartearen arteko zubi edo lotura giltzarri gisa jardutea da:

- Laguntza juridikoa: gizarte bitartekariak erresidentzia baimena lortu eta mantentzeko baldintza eta prozeduren inguruko informazioa eta laguntza ematen du.
- Hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetara sarbidea: gizarte bitartekariak eskuragarri dauden baliabideen inguruko informazioa, ezberdintasun kulturalen inguruko aholkua eta zerbitzuetarako berdintasuneko sarbidea ahalbidetzeko laguntza (adb.: hizkuntza zailtasunekiko laguntza, akonpainamendua etab.).
- Enplegu laguntza: lan aukerei eta lan baldintzei buruzko informazioa, kontratu edo soldatei buruzkoa besteak beste, eta lanpostu bat eskuratzeko zuzeneko laguntza.
- Etxebizitza laguntza: etxebizitza aurkitzeko zuzeneko laguntza eta eskuragarri dauden alternatiben inguruko informazioa.
- Gizarte eta komunitate parte-hartzea: etorkinen elkarteei, sindikatuei eta komunitateko erakundeei buruzko informazioa eman eta etorkin zein autoktonoen arteko hartu-eman sustatzeko ekintzak.

Hernández, Alonso eta Pozo-k (2006) diotenez, gizarte bitartekariak bertakoak zein etorkinak diren pertsona profesionalak izango dira, esku-hartzearen helburu den kolektiboaren jatorri etniko berekoak edo ezberdinekoak. Hala ere, bere tesian (Hernández, 2003) aipatzen duen modura, zenbait kasutan bitartekaria etorkina edo jatorri etniko berekoa izateak programa eta zerbitzuen erabilera eraginkorragoa ahalbidetzen du, hala nola hizkuntza zailtasunak, aurreiritzi etnikoen pertzepzioa, ezberdintasun kulturalak edo konfidantza falta ekidinez.

Abantaila horiek direla eta, Hernández et al.-ek (2006) gizarte laguntasan sistema informala indartzeko laguntza eta baliabideen hornitzaile gisa etorkin edo gutxiengo etnikoetako gizarte bitartekariak txertatzea proposatzen dute. Mota honetako esku-hartzeek etorkinen gizarte laguntasan sistematan aldaketa estruktural zein funtzionalak eragingo lituzkete. Gizarte bitartekaritzak gizarte sarearen tamaina handituko luke harreman berriak eraginez, hori bereziki egokia litzatekeelarik gizarte sare urriak dituzten etorkinentzat, hala nola, iritsi berrientzat. Estrategia horrek laguntasan funtzioak ere hobetuko lituzke, gizarte bitartekariak eskuragarri jarritako baliabideen izaera espezializatua dela eta; hori egokia litzakete gizarte laguntasan nahikorik ez dutenentzat edo eraginkortasunik gabeko gizarte laguntasuna jasotzen dutenentzat.

b) Laguntasun boluntarioa

Gizarte sarearen tamaina handitzeko eta laguntasan hartu-emanak hobetzeko beste modu bat boluntariotzaren bidez harreman informal berriak eratzea izango litzateke. Boluntarioak laguntasan mota ezberdinak erantzukizunez eta interes pertsonal zein ordainsari ekonomikorik gabe esleitzen dituzten pertsonak lirateke, komunitatearen onura lortzeko asmoz eta aurrez planifikatutako gizarte programen baitan. Boluntarioak ez dira profesionalak, laguntasan eta laguntza hornitzaile informalak baizik, gizarte berdintasun eta ongizate kolektiboarekiko erantzukizuna eta euren laguntasuna jasoko duten pertsonetikiko errespetua erakusten dutenak. Etorkinekin esku-hartzerakoan, boluntarioek gizarte hartzaileari buruzko informazioa eman dezakete, hala nola, enplegu eta etxebizitza aukerak azaldu, autoktonoekin harremantzeko jarraibideak eman, kultur arau eta balioak irakatsi etab.; hainbat eginkizunetan oinarritzko laguntza instrumentala eman dezakete, hizkuntza ikasterakoan, prozedura legeletan eta lanpostu edo etxebizitza bilatzerakoan besteak beste; laguntasan materiala, aldi baterako ostatua, janaria edo arropa; emoziozko laguntasuna edo gizarte parte-hartze aukerak.

Harreman berriak sustatu eta baliabide ezberdinen mobilizazioa bultzatzearen ondorio gisa, mota honetako esku-hartzeek etorkinen gizarte laguntasun sistema informalaren egituraren eta funtzioetan aldaketak eragiten ditu. Hori dela eta, laguntasun boluntarioa bereziki egokia da gizarte sare txikia edo laguntasun gutxiegi jasotzeagatik laguntasun behar handiak dituzten etorkinentzat.

Gipuzkoako IKEDAMEi bideratutako *Izeba* proiektua eta doktoradutza tesi honek aztergai duena hemen kokatuko litzateke, maila didaktikoaren baitako laguntasun boluntarioa eskainiko luke. Izan ere, IKEDAMak familia edo pertsona heldu autoktonoekin harremantzea du helburu (V. kapituluko 5.5.1. azpi-atalean azaltzen da proiektua).

2. Gizarte sareetan esku-hartzeak

Laguntasun hartu-emanak hobetzeko helburuz etorkinen komunitateetan existitzen diren baliabide iturri informalak identifikatzeko eta mobilizatzeko ekintzak burutzea dute helburu gizarte sareetako esku-hartzeek. Maila honetan, gizarte esku-hartze profesionalen eginkizuna komunitatean bertako kideei laguntasun mota ezberdinak eman diezazkiekeen pertsona giltzarriak identifikatzean datza. Profesionalek aholkulari gisa jardungo lukete, pertsonen arteko harremanetan modu naturalean ematen diren laguntasun ekintzen kalitatea handitu, sustatu eta hobetzeko asmoz. Etorrinen komunitateetan laguntasun informalaren iturriak etorkinen elkarteetako kideak eta oinarrizko elkarteak, lider erlijiosoak, dendariak eta kafetegien jabeak, edo harrera gizartean urte asko daramatzaten eta komunitatearekin harreman estua duten etorkinak izan daitezke besteak beste.

Gizarte sareetako gizarte laguntasunean oinarritutako esku-hartzeak bereziki erabilgarriak dira funtsezko zenbait konturen inguruko informazioa hornitzeko; esaterako, lan aukerak, etxebizitzara sarbidea, erresidentzia baimena lortu eta mantentzeko baldintza eta aukera legalak. Laguntasun sistema formalaren inguruko informazioa ere eman dezakete,

organizazio, programa eta zerbitzuen ingurukoa, zerbitzuetako sarbide baldintzei buruzkoa etab.

Existitzen diren laguntasun iturriak sustatzeak etorkinen komunitateetan ematen diren gizarte baliabideen hartu-emanetan hobekuntza funtzionala eragingo luke, baina ez luke gizarte sareen egituran aldaketarik eragingo. Estrategia mota honen helburu nagusia komunitate barnean baliabide informalen hornikuntzaren kalitatea hobetzea litzateke, etorkin taldeetako kide giltzarrietan erdiratutako zeharkako esku-hartzeen bidez. Hori dela eta, mota honetako esku-hartzeak nahikoa harreman dituzten baina horietatik gizarte laguntasun gutxi edo ezeraginkorra eratortzen den etorkinentzat dira egokiak.

3. Elkarrekiko laguntza taldeak

Elkarrekiko laguntza taldeen helburu nagusia komunitateko kideen artean harreman berriak eratzea da, laguntasun hartu-emanak handitu eta hobetzeko asmoz. Tradizionalki hiru elkarrekiko laguntza talde mota bereiztu izan dira: terapia taldeak, laguntasun taldeak, eta autolaguntza taldeak. Terapia taldeek duten izaera klinikoa dela eta, Hernández et al.-ek (2006) baztertu egiten dute euren sailkapenetik, nahiz eta egokiak izan daitezkeen depresioa, trauma ondorengo estresa edo antsietatea bezalako arazo psikologikoak pairatzen dituzten etorkinentzat.

Laguntasun taldeak bizitza gertaera estresagarri berbera edo, lantzen ari garen kasu zehatzean, migrazio esperientziari lotuta bizi duten samintasun sentimendua partekatzen dutenek eratutako taldeak izan ohi dira. Talde horietan adituen informazioa edo formakuntza jasotzen dute, eta elkarrekiko laguntzan parte hartzen dute aurre egiterako orduan eta egokitze prozesuan hobekuntzak sustatzeko. Autolaguntza taldeengandik bereizten dituen ezaugarriak taldekide kopuru mugatua izatea, lider adituak erabiltzea, iraupen zehatz bat izatea eta sustapen ekintzetan parte ez hartzea dira.

Autolaguntza taldeak euren aldetik, talde txiki eta boluntario gisa definituak izan dira, behar, interes eta helburu amankomunak dituzten pertsonen eratutakoak, eta helburu gisa elkarrekiko laguntasuna ematea

eta partekatutako arazoei konponbidea bilatzea izan ohi dute. Aurrez aurreko elkarrekintza, erantzukizun partekatua, baliabide ugariren hartu-emanana (laguntasun emozionala, laguntza materiala, informazioa, sorospen instrumentala) eta elkarrekikotasuna lantzen dira, izan ere bertako kideek laguntasun emaile eta jasotzaile gisako paper bikoitza betetzen dute. Kasu gehienetan, gizarte instituzioek eta zerbitzu formalek euren gizarte beharrak ezin dituztela asetu sentitzen dutenean sortzen dira halako laguntza taldeak.

Immigrazioaren esparruan, autolaguntza taldeak gizarte laguntasunaren elkarrekiko hartu-emanen erdiratzen dira, eta gizarte harreman berrien iturri garrantzitsua dira, gizarte laguntasun sare formal zein informalek baliabide ezberdinen hornikuntzan ager ditzaketen gabeziak konpentsatzatu ditzaketelarik. Hori dela eta, horrelako taldeek etorkinen gizarte laguntasun sisteman aldaketa estruktural zein funtzionalak eragingo dituzte. Antzeko arazo, behar eta kezka dituzten pertsonen arteko harreman berriak sortuz, gizarte sareen tamaina handitu eta kontaktuen maiztasuna gehitu dezakete. Sarearen eraketa ere aldatu dezakete, senitartekoak ez diren pertsonekin harremanak sustatuz; dentsitatea eta sakabanaketa gutxitu dezakete komunitateko kideekin harremanak ahalbidetuz; eta laguntasun hartu-emanetan elkarrekikotasuna gehitu dezakete. Bestalde, autolaguntza taldeek gizarte laguntasun sistemaren ezaugarri funtzionalak ere aldatu ditzakeela uste da, baliabide ezberdinen mobilizazioa sustatuz eta laguntasun hartu-emanen kalitatea eta eraginkortasuna hobetuz.

4. Komunitate mailako esku-hartzeak

Etorkinek dituzten arazoen gehiengoa faktore sozioekonomiko eta politikoen eragindako baliabide banaketa desberdinak eragindakoak izan ohi direla azpimarratzen dute Hernández et al.-ek (2006). Elkarrekintza didaktikoetan, gizarte sareetan, edo autolaguntza taldeetan emandako laguntzak zenbait beharri aurre egiten lagundu badiezaieke ere, hori ez da nahikoa izan ohi etorkinek esparru ezberdinetan pairatzen dituzten arazoei aurre egiteko, hala nola, enplegua, etxebizitza, ezegonkortasun juridikoa,

aurreiritzi etnikoa, hezkuntzara eta osasun zerbitzuetara sarbidea, edo gizarte parte-hartzea. Hori kontutan izanik, komunitate mailako esku-hartzeek etorkinek komunitateko behar kolektiboak identifikatzen, behar horiei aurre egiteko estrategiak garatzen eta hori lortzeko ekintzak inplementatzen parte hartu dezaten bultzatzen dute. Gizarte sareak eta elkarrekiko laguntasuna komunitatea indartzeko eta gizarte ekintza bultzatzeko oinarrizko elementuak dira, gizarte eraldaketa eta botere eta baliabideen banaketa berdinduago bat lortzeko asmoz.

Hiru esku-hartze mota bereizten dira komunitate mailan: 1) zuzeneko gizarte ekintza, 2) gizarte ekintza komunitarioa edo kolektiboa eta 3) gizarte ekintza instituzionalizatua. Zuzeneko gizarte ekintza, bere arazoak konpontzeko talde batek izan dezakeen erantzun gisa definitua izan daiteke, botere egiturak aldatzera edo gizarte baliabideetarako sarbidea handitzera bideratuta egon daitekeena. Horrelako esku-hartzeen adibide bat lan baldintzak hobetu eta esplotazioaren aurka borrokatzeko asmoz, etorkin talde batek antolatu eta garatutako greba bat izan daiteke. Komunitateko gizarte ekintzak berriz, bertako arazoak konpondu ahal izateko ekintza kolektiboak identifikatu, definitu eta martxan jartzeko etorkinen eta komunitate osoaren parte-hartzea sustatzen du. Etorkinen eskubideak defendatzeko edo diskriminazio etnikoaren aurka egiteko kanpainak lirarteke mota honetako esku-hartzeen adibideak. Azkenik, gizarte ekintza instituzionalizatuak arazo kolektiboetara modu eraginkorrago batetan erantzuteko erakunde formalen sorruntza bultzatzen du. Sindikatuak eta etorkinen elkarteak lirarteke horrelako erakunde formalen adibideak.

Maila honetan, gizarte esku-hartzeko profesionalak gizarte eraldaketan kolaboratu eta hori errazten laguntzen du, eta ez du aditu edo aholkulariaren papera betetzen. Kolaboratzaile gisa, parte-hartzaileei buruzko zenbait gauza ikasten dituzte, euren kultura, munduarekiko ikusmolde eta bizitzako borroken bitartez; etorkinekin elkarlanean aritzen dira eurak defendatu beharrean. Ez dira profesionalaren trebetasun, interes edo planak komunitatean inposatzen, baizik eta profesionalak etorkinentzat baliabide bilakatzen dira.

Komunitateko esku-hartzeek etorkinen gizarte laguntasun sisteman aldaketa estruktural eta funtzional garrantzitsuak eraginko lituzteke, laguntasun hartu-emanen kalitatea eta migrazio komunitateek arazo kolektiboak konpontzeko eraginkortasuna haundituz. Hala eta guztiz, komunitate esku-hartzeen helburu bakarra ez da gizarte laguntasuna hobetzea, baita komunitatea indartzea eta gizarte eraldaketa eragitea ere.

Martínez et al.-ek (2011) ere gizarte laguntasunean oinarritutako programen garrantzia agerian jartzen dute. Etorkinengan gizarte sare informalek betetzen duten funtzio garrantzitsua dela eta, horietan eragitea helburu duten esku-hartzeak burutzea funtsezkoa izango dela aipatzen dute. Aurreko sailkapenaren antzeko tipologia garatzen dute, eta proposatzen dituzten esku-hartze horien baitan burutu daitezkeen zenbait ekintza ondorengoak izan daitezkeela aipatzen dute:

1. *Banakako maila*: 1) harrerako komunitate testuingurura kulturalki egokitutako gizarte gaitasunak lantzea laguntasuna eman eta jasotzerako orduan; 2) laguntasun formal eta informala jasotzerakoan erresistentziarik ez egoteko jokabideen eraldaketa lantzea; 3) talka kulturala dela eta pairatu dezaketen estresari aurre egiteko laguntasun informala bilatzeko teknikak lantzea.
2. *Maila didaktikoa*: aurrez trebatua izan den gizarte sarekoa zein kanpokoa (boluntarioa) den pertsona edo talde batek, laguntasun instrumentala, materiala edo emozionala ematen dio subjektu fokalari. Halako esku-hartzeen adibide gisa ondorengoak aipatzen dira: eskolan berria den ikasle etorkina kide autoktono batekin harremandu daiteke, aholkulari gisa jokatuko duena; auzoan familia autoktonoek familia etorkinei laguntzen dieten programak bultzatu litezke etab.
3. *Talde maila*: laguntasun sistema sendo eta iraunkor gisa eratzen diren taldeak dira, berezko sarea optimizatuz, harremanen dimentsio aniztasuna hobetuz (laguntasun mota bat baino gehiago igortzea) edo harreman berriak sortuz. Adibide gisa emakume etorkinen elkarteak edo autolaguntza taldeak aipatzen dira.

4. *Erakunde maila*: Testuinguru ezberdinen eraldaketa bilatzen da, hala nola osasun, hezkuntza edo lan esparruena, laguntasunaren iturri bilakatzeko. Esaterako zentro publikoetan bitartekari interkulturalak txertatzea, akonpainamendu zerbitzuak sortzea, ama etorkinak formazio kurtsoetara joan ahal izateko haurtzaindegiak egitea, prestakuntza materialak hizkuntza ezberdinetan zabaltzea, telefono bidezko itzulpen zerbitzua etab.
5. *Komunitate maila*: Gizarte laguntasun iturri formal zein informalaren eskaintza eta erabilera hobea sustatuz komunitatea indartzea helburu duten esku-hartzeak leudeke maila honetan. Adibideen artean ama etorkin eta euren familientzat laguntasun programak, guraso etorkinen eskolak, komunitateko baliabideen inguruko informazioa igortzeko kanpainak edo prostituzioan aritzen diren emakume etorkinengan ihesa ekiditeko programak aipatzen dira.

Horrelako esku-hartzeen bidez, etorkinen sarea txikia, homogenea eta dentsoa izatetik, zabalagoa, heterogeneoagoa eta lotura ahul edo zubidunek ezaugarritzen dituztenak izatera pasa daitezke. Horrek aldi berean gizarte laguntasuna jasotzeko aukerak handitu eta gizarte kapital handiagoa metatzen lagunduko duelarik. Guzti hori, euren gizarteratze prozesurako eraginkorra izango da.

Argi geratzen da beraz atal honetan etorkinen gizarteratze prozesuan gizarte dimentsioak jokatzeko duen paper garrantzitsua. Garrantzitsua izango da etorkinek gizarte sare egoki bat izatea, zeinaren bidez gizarte laguntasun hartu-emanak gauzatu eta gizarte kapitala pilatuko den. Doktoradutza tesi honetan gizarte kapital eta gizarte laguntasunaren arteko bateragarritasuna hobesten da, lehendabizikoa *stock* aldagai gisa ulertzen delarik, gizarte sareen potentzialtasun gisa; eta bigarrena *fluxu* aldagai gisa, sare batetako kideen artean burutzen diren laguntasun transakzioek irudikatuko luketena.

Gizarte saretik eskuratuko den gizarte kapital edo gizarte laguntasuna sare horren nolakotasunaren arabera izango da, hori dela eta, etorkinek gizarte sarea izateaz haratago, horren ezaugarriek garrantzia bereganatuko dute. Zentzu horretan sarearen egitura eta funtzioa izango dira kontutan. Egiturari dagokionez sarearen tamaina, homogeneotasun maila eta dentsitatea izango dira kontutan,

zeintzuen arabera etorkinen gizarte sarea bonding, bridging edo linking harreman gehiago edo gutxiagoz eratuta agertuko den. Funtzioari dagokionez gizarte saretik eskuratzen duten laguntasun mota, hala nola, emoziozkoa, informaziozkoa zein instrumentala. Egitura ezaugarrien arabera sareek beteko dituzten funtzioak ezberdinak izango dira.

Ikerketa honen helburu eta hipotesiak kontutan izanda (III. kapituluan zehazten dira) EAEko IKEDAM ohien gizarteratze egoera aztertzerakoan gizarte dimentsioaren baitan horien gizarte sarearen egitura eta horrek betetzen dituen funtzioak aztertuko dira. Ondoren *Izeba* proiektuan parte hartzeko aukera izan duten IKEDAM ohien gizarte sarearen egitura eta horrek betetzen dituen funtzioak ikertuko dira, laguntasun mota ezberdinen arabera sailkatuz (emoziozko, informaziozko eta instrumentala), eta horrek euren gizarteratze prozesuan nola eragiten duen aztertuz. Izan ere, atal honetan, etorkinen gizarte sareak zabaltzea, heterogeneoagoak bihurtzea eta dentsitate gutxiagoko harremanak lortzea ahalbidetzen duten esku-hartzeak burutzea euren gizarteratze prozesurako eraginkorrak izan ohi direla ikusi da, eta horrenbestez *Izeba* proiektuan parte hartu duten IKEDAM ohiekin gauza bera gertatuko dela uste da, helburua autoktono helduekin harremanak gauzatzea baita.

BIGARREN ATALA: IKERKETA
METODOLOGIA ETA KOKAPENA

III. KAPITULUA: IKERKETA METODOLOGIA

Kapitulu honek ikerketa honetan diseinatutako ikuspegi metodologikoa jasotzen du. Lehendabiziko atalean analisi ereduaren eraketa aurkezten da, eta ikerketaren helburu eta hipotesiak. Jarraian datuen ekoizpenerako erabilitako metodologia eta teknikak justifikatzen dira, eta elkarrizketa sakon erdi egituratua ikerketaren teknika nagusi gisa hautatu izana. Aukeratutako laginaren inguruko azalpenak ematen dira eta eskuratutako datuen analisirako diseinua aurkezten da.

3.1. Analisi ereduaren eraketa

3.1.1. Ikerketa helburu eta hipotesiak

Jadanik aipatu den moduan, azken hamarkadetan migrazio fenomenoaren baitan subjektu migratorio berezi bat agertu da, emigrazio prozesuari bakarrik ekiten dioten adingabe migratzaileak (lan honetan IKEDAM izendatzen ditugunak) hain zuzen. Aurkezten duten egoera berezia dela eta, alde batetik adin txikikoak direlako eta bestetik bakarrik aurkitzen direlako, adituen aldetik atentzioa jaso duen kolektibo migratorioa izan da, eta asko ikertu da euren bilakaera eta perfila, egoera soziala zein juridikoa, bai estatu mailan (Quiroga et al., 2005; Quiroga et al., 2011; Senovilla, 2007 eta 2010; Unicef eta CGAE, 2009) eta bai EAEn (Ararteko, 2005, 2011 eta 2015; Gonzalo et al., 2010).

Aitzitik, ez du arreta berbera bereganatu behin adin nagusitasunera iritsi eta legearen aurrean pertsona heldu bilakatzen diren etorkin gazteen egoerak (IKEDAM ohiak). Horien egoera are bereziagoa eta larriagoa da, bakarrik egoten eta oso gazteak izaten jarraitzen dutelako, baina guztizko babes legal eta instituzionala izatetik kalteberatasun egoeran egotera pasatzen direlarik, askotan euren ordura arteko gizarteratze prozesua etenda suertatzen delarik.

Berezitasun egoera horixe da hain zuzen doktoradutza tesi hau motibatzen duen aspektua. Horrela bada, *doktoradutza tesi honen ikerketa objektua EAEn dauden IKEDAM ohiek aurkezten duten gizarteratze egoera eta maila ezagutzea da,*

eta zehazki familia autoktonoekin¹¹ mantendutako gizarte harremanek prozesu horretan betetzen duten papera aztertzea. Ikerketa objektu hori lantzeko ondorengo helburu espezifikoak eta hipotesiak zehazten dira, ikerketa hau norabidetuko dutenak:

1. helburua: IKEDAM ohiek gizarteratze esparru eta dimentsioetan aurkezten duten egoera zein den ezagutzea.

Hipotesiak:

- **1. hipotesia:** Krisi ekonomikoak IKEDAM ohien gizarteratze eredu tradizionala kolokan geratzea eragingo du, lanpostu bat eskuratzearen bidez lortzen zena.

Tradizionalki, etorkinen gizarteratzea bermatzerako orduan batik bat integrazio sozioestruturalari dagozkion dimentsioetan eragin izan dela ikusi da, enpleguari dagokionean gehien bat (Observatorio permanente de la inmigración, 2014; Subirats, 2004). Lan merkatuan txertatzea helburu duten politika eta ekintzak gehiago sustatu izan dira beste edozein motatakoak baino. Baina enplegua gizarteratzea oinarritzen den bektore nagusia izan bada ere, gaur egungoa bezalako krisi ekonomikoko garaian bere kalteberatasuna hazi egiten da (EDE Fundazioa, 2012). Hori dela eta, orain arte gazte hauek jarraitzen zuten gizarteratze eredu kolokan geratuko da, IKEDAM ohiek lanpostu bat aurkitzeko eragozpen handiekin aurkitzen direla uste baita. Enplegurik gabe, gizarteratze prozesuko gainontzeko dimentsioak gauzatu ezinik aurkituko dira.

- **2. hipotesia:** Berez mugatuak diren emantzipazio baliabideak ez dira gaur egungo testuinguru sozioekonomikora egokitu, horrek IKEDAM ohien gizarteratzea lortzea zaildu egingo duelarik.

¹¹ Harreman horiek *Izeba* proiektuaren bidez gauzaturakoak izango dira, eta gehienetan familiak izan ohi badira, pertsona bakar bat ere izan daiteke izeba. (*Izeba* proiektuko koordinatzaileak ahalbidetutako informazioa).

Jada adin nagusiko izanik, ordura arte jasotzen zuten babes instituzionaletik at geratzen dira, eta horrek erabat zailduko die gizarteratze prozesua. Nahiz eta emantzipazio errekurtsioak existitzen direneko ezagutza dugun, horietara sarbidea mugatua da, baldintza zorrotzak ezartzen baitira (V. kapituluko 5.5.1. azpi-atalean azaltzen dira baliabide horiek). Eta horrez gain, gaur egungo tesutinguru sozioekonomikora ez direla egokitzen uste da, gizarteratze prozesuaren esparru sozioestruturalean soilik oinarrituta egoten jarraitzen dutela. Horrek, baliabide horiek IKDEAM ohien gizarteratze prozesurako ezeraginkorrak izatea eragingo du. Neurri paliatiboak izango dira, momentuko egoera hobetzeko balio dutenak, baina ez epe luzerakoak.

2. helburua: *Izeba* proiektuan parte hartu duten IKEDAM ohiek pilatzen duten gizarte kapitala ezagutzea, eta horrek gizarteratze prozesuko esparru eta dimentsio bakoitzean nola eragiten duen ulertzea.

Hipotesiak:

- **3. hipotesia:** *Izeba* proiektuan parte hartu duten gazte etorkinek gainontzekoek baino gizarteratze egoera hobea aurkeztuko dute, horiengandik gizarte laguntasuna jasoko dutelako, gizarteratze esparru eta dimentsioetan aurrera egiten lagunduko diena.

Gizarteratze prozesua enplegu bat eskuratzearen bitartez landu izan bada gehienetan, helburu hori lortzeko beste dimentsio batzuetan ere eragin daiteke, izan ere prozesu hori esparru eta dimentsio ezberdinetan oinarritzen da (Blanco, 1990 eta 1993; Castel, 1992 eta 1995; Giménez, 1993; Gordon, 1964; Solé et al., 2002; Tezanos, 2001). Ildo horretatik, zenbait autorek gizarte harremanen dimentsioa duen garrantzia azpimarratu dute (Castel, 1992 eta 1995; Subirats, 2004; EDE Fundazioa, 2011 eta 2012). Harreman horietatik gizarte laguntasuna (Gracia et al., 1995) jasoko da eta gizarte kapitala (Bourdieu, 1985; Coleman, 1988 eta 1990; Putnam 1993 eta 1995) metatuko da, etorkinen gizarteratze prozesuan funtsezko laguntza izan daitekeena (Bernat et al., 2010; Forni, Siles eta Barreiro, 2004; Fuertes et al., 2013).

Zentzu horretan, iritzi kontrajarriak badaude ere, zenbait autoreren arabera, harreman ahulak (Granovetter, 1973) edo estruktura zuloak dituztenak (Burt, 1992) izateak, hau da, gertuko familia zein lagunengandik haratagokoak, gizarte laguntasun eta gizarte kapital aukerak gehituko ditu. Etorकिनen gizarteratzea lantzen ari garenez, batik bat autoktonoekin mantentzen dituzten harremanek bereganatuko dute garrantzia. Blanco-ren (1990, 1993 eta 2001) arabera, harreman horiek zenbat eta zabalago eta anitzagoak izan integrazio maila handiago baten adierazle izango da. Beti ere garrantzitsua izango da etorkinez gain autoktonoekin ere harremantzea, soilik euren jatorrikoekin erlazionatzen badira sare homogeneousak eta dentsoak eratuko dituztelako, eta horrek segregazioa eragin dezake, integrazioa oztopatuz. Zentzu berean mintzo dira beste zenbait autore ere, aberkideek hasierako unean oinarritzko laguntasuna eskainiko badute, eta solidaritate etnikoak harrera gizartean gogobetetze maila handiagoa izatea ahalbidetzen badie ere, zenbaitetan oztopo bilakatzen dira autoktonoekin harremanak ezartzeko edo egokitzapen ekonomiko pertsonala lortzeko orduan (Aroian, 1992; Bates, 1994; Maya, 1999; Maya, Martínez eta García, 1999; Sluzki, 1992).

Autoktonoekin gizarte harremanak izatea IKEDAM ohien gizarteratze prozesu egoki bat ahalbidetzeko faboregarria izan daitekeela uste da, potentzialtasun altua izan dezaketelako gizarteratze prozesuaren esparru eta dimentsio guztietan. Blanco-k (1990, 1993 eta 2001) gizarteratzearen esparru soziokulturala ahalbidetzeko herra mintza gisa definitzen ditu, kulturarteko kontaktua eta elkarrekiko sentsibilizazioa eragiten laguntzen dutenak, izan ere, benetako gerturapen batek familiarrekotasuna gehitu, estereotipoak suntsitu eta ezezaguna denarekiko estresa eta nahasmena murrizten ditu. Horrez gain, Hernandez, Alonso eta Pozo-k (2006) eta Martínez, Calzado eta Martínez-ek (2011) etorkinen gizarte sareetan eragin eta autoktonoen presentzia eragiteak era askotariko laguntza lortzea ahalbidetzen duela azpimarratzen dute (informaziozkoa, emoziozkoa zein materiala), laguntasun horrek gizarteratzearen esparru eta dimentsio ezberdinak garatzen lagundu dezakeelarik.

Gipuzkoako *Izeba* proiektua autore horiek proposatzen dituzten esku-hartze ezberdinen artean maila didaktikoaren baitako laguntasun

boluntarioari dagokion esku-hartze ereduarekin bat etorriko litzateke, izan ere, proiektuaren helburua familia autoktono boluntarioak IKEDAMekin harremantzea da. Horrela bada, izeba familiek IKEDAM ohiei era askotariko gizarte laguntasuna eman ahalko dietela uste da, euren gizarteratze prozesua erraztu eta ahalbidetuko duena.

3.1. Taula: Ikerketaren helburu eta hipotesiak

HELBURUAK	HIPOTESIAK
1. IKEDAM ohien gizarteratze egoera zein den ezagutzea.	1. Krisi ekonomikoak IKEDAM ohien gizarteratze eredu tradizionala kolokan geratzea eragingo du, lanpostu bat eskuratzearen bidez lortzen zena.
	2. Berez mugatuak diren emantzipazio baliabideak ez dira gaur egungo testuinguru sozioekonomikora egokitu, horrek IKEDAM ohien gizarteratzea lortzea zaildu egingo duelarik.
2. <i>Izeba</i> proiektuan parte hartu duten IKEDAM ohiek pilatzen duten gizarte kapitala ezagutzea, eta horrek gizarteratze prozesuan nola eragiten duen ikustea.	3. <i>Izeba</i> proiektuan parte hartu duten gazte etorkinek gizarteratze egoera hobea aurkeztuko dute, horiengandik gizarte laguntasuna jasoko dutelako, gizarteratze esparru eta dimentsioetan aurrera egiten lagunduko diena.

Iturria: Elaborazio propioa.

3.1.2. Analisi ereduak

Analisi ereduak helburu eta hipotesietan planteatutako kontzeptu, aldagai eta dimentsioak sistematizatu eta operazionalizatzen ditu, landa lana eta bere ondorengo analisia bideratuko duten adierazle modura. 1. helburua betetzeko asmoz, IKEDAM ohiak gizarteratze prozesuari dagozkion esparru eta dimentsio bakoitzean (I. kapituluaren zehaztu direnak) zein egoeratan aurkitzen diren aztertuko da. Ondorengo taulan agertzen diren esparru, dimentsio eta adierazleak izango dira kontutan horretarako:

3.2. Taula: Gizarteratze maila neurtzeko esparru, dimentsio eta adierazleak

	ESPARRUAK	DIMENTSIOAK	ADIERAZLEAK
GIZARTERATZEA	Integrazio sozioestruturala	Dimentsio juridikoa	- Egoera juridiko erregularra edo irregularra; - Erresidentzia baimena soilik edo erresidentzia eta lan baimena
		Dimentsio sozio-ekonomikoa	- Formakuntza (bai edo ez; nolakoa) - Egoera laborala (enplegua edo langabezian; lan baldintzen nolakotasuna) - Egoera ekonomikoa (diru sarrerak bai edo ez; horien nahikotasuna) - Bizilekua (bai edo ez; baldintzen nolakotasuna)
	Integrazio soziokulturala	Gizarte dimentsioa	- Gizarte sarearen egitura (tamaina, homogeneotasuna, dentsitatea) - Gizarte saretik eratorritako laguntasuna
		Dimentsio kulturala	- Kulturartekotasuna (antzekotasun/desberdintasun kulturalak) - Hizkuntza (jatorrizko hizkuntza mantendu eta sustatzea; harrera gizarteko hizkuntza ikasteko jarrera)
		Dimentsio identitarioa	- Autoktono zein etorkinen elkarrekiko jarrerak - Autoktono zein etorkinen arteko identitate kolektibo amankomun baten agerpena

Iturria: Elaborazio propioa.

Elkarrizketatuen diskurtsoetan gizarteratze prozesu horretan krisi ekonomikoak izan duen eragina kontutan hartuko da (1. hipotesia). Era berean, emantzipazio baliabideek zein esparrutan eragiten duten aztertuko da, eta IKEDAM ohiek zein hezitzaileek baliabide horietaz duten iritzia kontutan izango da baliabide horien nahikotasuna eta eraginkortasuna neurtu ahal izateko (2. hipotesia).

2. helburua betetzeko asmoz, *Izeba* proiektuan parte hartuta IKEDAM ohiek eskuratzen duten gizarte laguntasuna aztertuko da. Horretarako, II. kapituluaren gizarte kapitalaren osagai funtzionalaren baitan definitutako laguntasan desberdinak hartuko dira kontutan (Gracia et al., 1995). Eta laguntasan horrek

IKEDAM ohien gizarteratze prozesuan nola eragiten duen ezagutzeko asmoz, laguntasun mota bakoitzaren baitan jasotzen duten laguntza gizarteratze esparruen arabera sailkatuko da. Ondorengo taulan laburbiltzen da jarraituko den eredu:

3.3. Taula: IKEDAM ohiek izebengandik jasotzen duten gizarte laguntasuna eta horrek gizarteratze prozesuan nola eragiten duen neurtzeko eredu analitikoa

GIZARTE KAPITALA GIZARTE LAGUNTASUNA	Laguntasun instrumentala (helburu bat lortzeko laguntza praktikoa)	. Esparru sozio-estruturalean . Esparru soziokulturalean
	Informaziozko laguntasuna (helburu bat lortzeko informazioa)	. Esparru sozio-estruturalean . Esparru soziokulturalean
	Emoziozko laguntasuna (sentimendu positiboak)	. Esparru sozio-estruturalean . Esparru soziokulturalean

Iturria: Elaborazio propioa.

3.2. Metodologia eta ikerketa teknikak

3.2.1. Enfoke metodologiko kualitatiboa

Ikerketa bat aurrera ematerako orduan bi metodologia nagusiren aurrean aurkitzen gara, hala nola, kuantitatiboa eta kualitatiboa. Horietariko bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu (Patton, 1990). Metodologia kuantitatiboa subjektu kopuru handi baten iritzi, jarrera eta esperientzien inguruko informazio estandarizatua hornitzeagatik ezaugarritzen da, datuen analisi estatistikoa ahalbidetzen duena eta emaitzen orokortzea posible egiten duena. Halako ikerketa teknikak erabiltzeko nahiko errazak izan ohi dira, datuen fidagarritasuna garantizatzen duten eta bizatanleria zein testuinguru ezberdinetan lortutako emaitzen konparaketa errazten duten prozedura formaletan oinarritzen direlako. Normalean, zehaztasunak, laburtasunak, matematikoki formalizatua izateko aukerak edota sistematikotasunak bereizten du horrelako tekniken bidez lortutako informazioa.

Metodologia kualitatiboa berriz, gertaera, egoera edo kasu kopuru murriz baten ikasketa sakonean erdiratzen da, horien inguruko deskribapen zehatza

eskuratzea ahalbidetzen duena. Lagin txikien erabilerak emaitzak orokortzeko aukera mugatzen badu ere, emaitza horiek ikertzaileak ezarritako kategorien araberrako murrizketarik gabe sortu izanak, biztanleria talde desberdinek errealitatea nola hautematen duten ezagutzeko aukera ematen du, inplikaturako norbanakoen esperientzia subjektiboetarako sarbidea posible eginez. Metodologia kualitatiboaren baitako tekniken erabilera konplexuagoa izan ohi da, kualifikazio teoriko-kontzeptual handiagoa eskatzen du, eta emaitzen konparaketak zenbait zailtasun aurkezten ditu. Baina aldi berean, ahalbidetzen duten analisi sakonak ñabardura eta xehetasun ugari antzematea posible egiten du, ikertutako fenomenoek ulermena erraztuz. Zentzu horretan, izaera kualitatiboko informazioa zehatza, sakona, zabala, askotariko edukiduna eta xehetasunezkoa izan ohi da, ikertzaileak aurreikusi gabeko aspektuak aurkitzeko bidea ematen duena.

Bi ildo metodologiko nagusi existitzeak ez du esan nahi ordea bateraezinak direnik, hau da, ez dago derrigorrez bata edo bestearerako hautua egin beharrik. Ildo horretatik, zenbait autorek metodologia kualitatibo zein kuantitatiboaren arteko osagarritasunaren aldeko aukera egiten dute. Alonso-k (1998) eta Conde-k (2010), Miguel Beltrán-i jarraikiz *pluralismo metodologiko*az hitz egiten dute, hau da, ikuspegi kualitatibo eta kuantitatiboa, biak kontutan hartu beharraz. Alonso-k aipatzen duenez:

El análisis en profundidad de los procesos sociales –entendidos como multidimensionales, inabarcables e inagotables– tiende a reclamar de la investigación sociológica un enfoque totalizador fundado en la complementariedad de un enfoque estadístico o distributivo que implica un proceso de información que produce datos, y un enfoque cualitativo que aspira a definir significaciones, puesto que, de hecho, ambos enfoques tienen espacios de cobertura de la realidad social absolutamente distintos (Alonso, 1998: 43).

Baina bestalde, bi ikuspegi horiek kontutan hartzea beharrezkoa izango bada ere, ez da beti beharrezkoa izango bien arteko osagarritasuna (Conde, 2010; Patton, 1990). Kasu bakoitzean garrantzitsua izango da ikerketaren helburuen arabera erabakitzea metodologia baten zein bestearen erabilera:

Es muy importante abordar las investigaciones sociales desde una postura que defiende la necesidad del “pluralismo metodológico” y la utilización más adecuada de una u otra metodología de investigación y de análisis e interpretación de sus resultados, en función de los objetivos concretos de la investigación que se esté realizando en cada momento (Conde, 2010: 16).

Esku artean dugun ikerketa honetan ikuspegi metodologiko kualitatiboaren erabilera egingo da. Hautaketa hau aurrez aurkezturiko ikerketa helburuak eta gaiaren ezaugarriak direla eta burutu da, IKEDAM ohien gizarteratze egoera ikertzeko eta autoktonoekin mantendutako gizarte harremanetatik jasotzen duten gizarte laguntasunak prozesu horretan nola eragiten duen ezagutzeko metodologia egokiena dela uste baita. Zenbait autorek (Blanco, 1990; Shannon eta Shannon, 1967), harrera gizarteetan etorkinen integrazioa aztertzeke metodologia kualitatiboaren erabilera hobesten dute. Blanco-ren (1990) arabera bi lirategi hau hori egiteko arrazoi nagusiak: alde batetik, etorkinek harrera gizarteetan jarraitzen duten txertaketa edo gizarteratze prozesua aztergai izatea, eta ez kuantitatiboki landu daitezkeen migrazioen beste alderdiren bat. Errolda edo inkesta itxiek ezin dute etorkinek harrera gizarteetan izandako esperientzien inguruko informazio sakonik eskaini. Mota honetako ikerketetan, aztertu nahi den kolektiboa gertutik behatzea garrantzitsua da, euren egoerari dagozkion diskurtso eta esperientziak ulertzea ahalbidetzen duen zuzeneko gerturapena burutzea.

Bestetik, beste mugimendu migratorio batzuen inguruko esperientzia ezin da aplikatu besterik gabe lantzen gabiltzan kasuan, izan ere, fenomeno beraren baitan izanik ere migrazio mugimenduak ezberdinak eta ezaugarri berezidunak izan daitezke. Blanco-k dionez:

Quando un fenómeno posee peculiaridades diferentes a las de otros ocurridos, se hace necesaria la aproximación cualitativa y en profundidad para no cometer errores interpretativos de la nueva realidad (Blanco, 1990: 104).

IKEDAMek (eta ondorioz IKEDAM ohiek) migrazio tipologia berezia osatzen dute (ikusi V. kapitulua), zenbait autorek aktore migratorio berri gisa definitzen dutelarik (Jimenez, 2005; Quiroga et al., 2010; Suarez, 2006). Horrez gain, ikerketa honen subjektuak IKEDAM ohiak izateak (orain arte gutxi landu den kolektiboa), eta gizarte integrazioarako familia autoktonoekin harremanak mantentzearen potentziala landu nahiak, ikerketa objektua esparru akademikorako berritzaile bilakatzen du, horrek ikerketa diseinu berezia eskatzen duelarik, malgutasunezkoa.

Funtsean, ikerketa honek, krisi ekonomikoko testuinguruan IKEDAM ohiek harrera gizarteetan jarraitzen duten integrazio prozesua ulertu eta interpretatzea du helburu, eta prozesu horretan autoktono helduekin harremantzeak eragin onuragarririk izan ote dezakeen aztertzea. Etorkinen kontzientziara eta euren

egoerarekiko burutzen duten definiziora gerturatzea nahi da, aipaturiko helburua euren esperientziatik abiatuta soilik lortu daitekeela uste delako. Eta aktore protagonisten zentzu subjektiboa ezagutzeko beharrezkoa da gizarte errealitatearen analisirako teknika kualitatiboen erabilera egitea (Blanco 1990). Teknika horiek era aske eta naturalean sortutako diskurtsoen ulermenera zuzenduda bait daude.

Horrek ez du esan nahi datu objektiboen erabilera egitea eraginkorra ez denik, metodologia kuantitatiboak ahalbidetu ditzakeenak (Blanco, 1990). Metodo kuantitatiboak gizarte hartzaileetan dinamika migratorioen inguruko aspektu objektiboak ahalbidetu ditzake, lurraldeen aniztasun soziodemografikoaren inguruko informazioa, jatorri ezberdineko kolektiboen tamainari buruzko datuak etab. Hori dela eta, III eta IV. ataletan, immigrazio fenomeno orokorrak eta IKEDAMenak Espainian eta EAEn izan duen bilakaera aberatsgarri ikusi da ikerketa objektua hobeto ezagutzen laguntzen duten informazio estatistikoko iturrien erabilera egitea. Orokorrean etorkinek eta bereziki IKEDAMek estatu zein EAE mailan agertzen duten presentzia ezagutzeko, baita euren perfilak nolakoak diren jakiteko, hala nola, sexua, jatorria etab., erabilgarri izan dira Espainiari dagokionez NEIk (Nazioarteko Estatistika Institutua) eta beste zenbait entitate edo autorek (Quiroga et al., 2011) eskainitako datu kuantitatiboak. EAE mailan berriz oso baliagarri izan dira Ikuspegi, Eustat edo Arartekoa bezalako organismoek eta zenbait autorek (Gonzalo et al., 2010; Quiroga et al., 2009) ahalbidetutako datuak.

Datu horien bidez ikusi ahal izan da EAEn aurkitzen diren IKEDAMen (eta beraz IKEDAM ohien) kopurua, oso esanguratsua izanik ere, ez dela handiegia. Are gutxiago dira *Izeba* proiektuan parte hartu dutenak, Gipuzkoan soilik funtzionatzen duen programa baita. Hori dela eta, tesi honen kasuan ez luke zentzurik izango metodologia kuantitatiboaren erabilerak, hori batik bat lagin handi batengana hurbiltzeko erabiltzen baita, eta kasu honetan errealitatea bestelakoa da. Nahiago izan da kasu zehatzen berri jasotzea, informazioa mugatuagoa izanik ere sakonagoa izango delako.

3.2.2. Elkarrizketa sakona teknika gisa

Ikerketa kualitatiboa burutzeko eskura ditugun teknika ezberdinen artean elkarrizketa erdi-egituratua (Focused Interview) erabiltzeko hautua egin da lan honetan. Behaketa zuzeneko teknika da hori, kontrolatutako baldintzetan elkarrizketatzaile eta elkarrizketatuaren arteko interakzio pertsonala ahalbidetzen duena (Blanco, 1990). Ruíz Olabuénagak ondorengo moduan definitzen du teknika hori:

En la entrevista, el investigador busca encontrar lo que es importante y significativo en la mente de los informantes, sus significados, perspectivas e interpretaciones, el modo en que ellos ven, clasifican y experimentan su propio mundo. La entrevista en profundidad, en definitiva, es una técnica para obtener que un individuo transmita oralmente al entrevistador su definición personal de la situación (Ruíz Olabuénaga, 1996: 166; Ruíz e Ispizua, 1989: 126).

Elkarrizketa izendapenaren baitan mota ezberdinetakoak aurkitzen ditugu. Ezberdintasun horiek batik bat hiru faktoreren baitan ematen dira (Ruíz Olabuénaga, 1996):

- Pertsona bakarrari edo pertsona talde bati egindakoak izan daitezke.
- Gai ezberdin ugari jorratzen dituztenak edo gai berberaren baitan erdiratzen direnak izan daitezke.
- Egituratuak edo irekiak (ez egituratuak) izan daitezke, lehendabizikoan elkarrizketatzaileak berbaldiaren gidaritza daramalarik, eta bigarrengoan aldiz eskema orokor eta malgu bati soilik jarraitzen diolarik.

Tesi honetan burutu diren elkarrizketak indibidualak izan dira, gai berberaren ingurukoak, izan ere, lan honen helburua zehatza da; IKEDAM ohiak harrera gizartean erakusten duten gizarteratze egoera ezagutu eta prozesu horretan familia autoktonoekin harremantzeak duen eragina aztertzea. Eta egituraketari dagokionez nahiko irekiak izan dira, erdi-egituratu gisa izendatu ohi direnak, galdera zabalekin baina orden zehatz bat jarraikiz burutu dira.

Elkarrizketa gidoia¹²

Elkarrizketetatik material erabilgarria eskuratzeko asmoz elkarrizketa gidoi bat eratu da, planteatutako helburu eta hipotesiei erantzuna eman ahal izateko informazioa lortzeko. Bertan, landu nahi ziren puntu ezberdinak ezarri dira, izan

¹² Doktoradutza tesi honetan erabiltzako elkarrizketa gida 1. eranskinean aurkezten da.

ere, Ruíz de Olabuenagak dioenez, gidoirik gabeko elkarrizketak ez digu informazio esanguratsurik ahalbidetuko: *“Una entrevista sin guión es un camino muerto, con frecuencia no conduce a ninguna parte y pierde las mejores oportunidades de captar el significado que se busca”* (Ruíz de Olabuenaga, 1996: 168).

Gidoiak atal eta azpi-atal desberdinak ditu, eta bakoitzaren ondoan parentesi artean ezartzen da zein helburu eta hipotesiri erantzuteko erabili den. Orokorrean elkarrizketatu guztientzako gidoi berbera erabili bada ere, atal guztiak ez dira denekin erabili, horrela bada, bakoitzaren ondoan parentesi artean eta kursibaz idatzi da zein pertsonekin erabiliko zen.

Funtsean bi zati nagusi izan ditu elkarrizketak, bata ibilbide migratorioari dagokiona (hori soilik IKEDAM ohiekin erabili da, kasu bakoitzari testuinguru bat emateko), eta harrera gizarteko esperientziari dagokiona. Batik bat bigarren zati hori izan da garrantzitsua ikerketaren helburu eta hipotesiei erantzun ahal izateko. Nolabait hiru atal ditu: lehendabizikoak IKEDAM ohien gizarteratze egoerari egiten dio erreferentzia (1. helburua; 1. hipotesia), eta IKEDAM ohi, aditu, profesional eta izebei gizarteratze prozesuaren esparru eta dimentsio ezberdinen inguruan galdetzea bilatzen du. Bigarrenak emantzipazio baliabideen inguruko iritzia bilatzen du (1. helburua; 2. hipotesia), IKEDAM ohi, aditu, profesional eta izebei horien inguruan galdetuz. Eta hirugarrenak izebek eskaintzen duten gizarte laguntasuna ezagutzea eta horrek IKEDAM ohien gizarteratze prozesuan nola eragiten duen jakitea bilatzen du (2 helburua; 3 hipotesia), kasu honetan beraz *Izeba* proiektuaren erabiltzaile izandako IKEDAM ohiak, izebak eurak, eta proiektuko koordinatzailea izango dira elkarrizketatuak.

Azken finean elkarrizketen bidez ondorengo ezagutza lortu nahi izan da:

- IKEDAM ohien esperientzia migratorioa eta harrera gizarteko integrazio prozesua ezagutzea aurrez proposatutako gizarteratze dimentsio eta esparruetan.
- Emantzipazio baliabideek nola funtzionatzen duten eta gizarteratze prozesu horretan zein eragin duten ezagutzea.
- Familia autoktonoekin harremanak izatearen ondorioz IKEDAM ohiek eskuratzen duten gizarte kapitala ezagutu eta horrek euren gizarteratze prozesuan duen eragina ezagutzea.

Kontutan izan behar da elkarrizketen izaera erdi-egituratuak informatzaile bakoitzari gai ezberdinen inguruan informazio gehiago edo gutxiago ahalbidetzeko aukera eman diola. Elkarrizketetatik ateratako zita testualak emaitza esanguratsuenak nabarmentzeko erabiliko dira.

Lagina

Lurraldeko taulan dagokionez, ikerketa EAEn erdiratu da, elkarrizketak hiru lurralde historikoetan burutu direlarik. Jadanik agerian geratu den moduan, IKEDAM ohiak eurak elkarrizketatzeaz gain, euren baldintza edo posizioa dela eta IKEDAM ohien errealitatearen inguruko ezagutza duten beste zenbait informatzaile kontaktatzea ere garrantzitsua iruditu da. Pertsona kualifikatuei buruturiko elkarrizketatuen artean kolektiboari bideratutako programa ezberdinetako hezitzaile, tekniko zein koordinatzaileak aurkitzen dira, baita gaien aditu diren zenbait pertsona eta gazte hauekin harremana duten familia edo pertsona autoktonoak ere.

Landa lana zazpi hilabetetan zehar burutu da, 2013ko irailean elkarteekin harremanetan jarri eta elkarrizketak urte bereko urriak 16tik 2014ko martxoak 20ra bitartean burutu dira. Guztira 25 elkarrizketa gauzatu dira, horien artean 16 IKEDAM ohiak izan direlarik, eta gainontzekoak (9) pertsona kualifikatuak edo gaiaren inguruan ezagutza dutenak. Lurralde historiko bakoitzean elkarrizketatutako pertsonen kopurua ezberdina izan da, gazte hauen presentzia ere ezberdina delako horietako bakoitzean. 1. taulan ikus daitekeen modura, Araban hiru pertsona elkarrizketatu dira (bi IKEDAM ohi eta hezitzaile bat), Bizkaian bederatzi (zazpi IKEDAM ohi eta bi hezitzaile), eta Gipuzkoan hamabi (zazpi IKEDAM ohi (zeintzuetatik hiru *Izeba* proiektuko erabiltzaile ohiak ziren), bi izeba, koordinatzaile bat, tekniko bat eta aditu bat). Arartekoko Haur eta Nerabeentzako Bulegoko zuzendaria ere elkarrizketatu da, erkidego osoko egoeraren gaineko ikuspegi zabalago bat duena.

Jarraian aurkezten den taulan burututako elkarrizketa guztiak ikus daitezke, bakoitza kontaktatua izan den errekurtsuaren izena eta dagokien lurralde historikoa. IKEDAM ohien kasuan euren adina eta jatorrizko herrialdearen lehendabiziko letra ezarri da parentesi artean, "M" letrak Maroko-ri egiten diolarik

erreferentzia, “K” letrak Kenia-ri eta “G” letrak Ghana-ri. IKEDAM ohiei buruzko informazio zehatzagoa 3. eranskinean aurkezten da.

3.4. Taula: Elkarrizketatutako pertsonak lurralde historiko, programa eta kategoriaren arabera

Lurralde historikoa	Programa/entitatea	Kategoria	Elkarrizketatuak
BIZKAIA	<i>Hemen</i> programa (Bizkaiko elkarte ezberdinak)	IKEDAM ohiak	. E2 (20; Tiskhist, M) . E3 (18; Tenghir, M) . E4 (21, M) . E5 (19, M)
		Hezitzailea	E6
	<i>Mundutik Mundura</i> proiektua (Bizkaiko Foru Aldundiak erakunde ezberdinekin hitzarmena sinatuta, horien artean Goiztiri Elkarteak)	IKEDAM ohiak	. E19 (19; Marraketxetik gertu, M) . E20 (20; Atlas pequeño, M) . E22 (20; Meknes, M)
		Hezitzailea	E23
GIPUZKOA	<i>Izeba</i> proiektua (Baketik Fundazioa eta Gipuzkoako Foru Aldundia)	Izeba-k	. E12 . E21
		IKEDAM ohiak	. E13 (19; Tanger, M) . E24 (21; Asilah, M) . E25 (21; Tanger, M)
		Koordinatzailea	E18
	<i>Lortuz</i> programa (Gipuzkoako Foru Aldundiak erakunde ezberdinekin hitzarmena sinatuta, horien artean Kolore Guztiak Elkarteak)	IKEDAM ohiak	. E10 (21; Nador, M) . E11(26, M) . E15 (24; Fez, M) . E16 (19; Tetuan, M)
		Teknikoa	E17
Immigrazio tekniko eta gizarte hezitzailea	Aditua	E14	
ARABA	<i>Aukera</i> proiektua (Itaka Fundazioa)	IKEDAM ohiak	. E7 (19, K) . E8 (19, G)
		Hezitzailea	E9
	Ararteko, Haur eta Nerabeentzako Bulegoa	Zuzendaria	E1

Iturria: Elaborazio propioa.

Lagina aukeratzeko jarraitu diren irizpideak ez dira izan estatistikoak, baizik eta heterogeneotasunari eta sarbide erraztasunei dagozkionak, hau da, ikerketa objektuaren inguruan ekarpenak egin ditzaketen informatzaileak bilatu dira. IKEDAM ohien nazionalitateak ez dira alde aurretik prestatu, programa ezberdinetako hezitzaile, tekniko eta koordinatzaileek erabaki dute zein

gazterekin elkartuko nintzen elkarrizketak burutzeko. Hori horrela izanik, Bizkaia eta Gipuzkoan mutiko guztiak jatorri marokoarreko izan dira, Araban berriz Afrika erdialdeagokoak. Gazte hauen aukeraketa egiterakoan kontutan izan den kriterio nagusietariko bat *Izeba* proiektuko erabiltzaile izatea edo ez izatea izan da. Modu horretan, familia autoktonoekin harremantzeko aukera izan dutenek eskuratutako gizarte kapitala ezagutu ahal izango zelako eta horrek euren gizarteratze prozesuan nola eragiten duen ikustea ahalbidetuko lukeelako, tesi honen bigarren helburua betetzea posible eginez.

Programa ezberdinetako erabiltzaileak izatea ere bilatu da, horien artean eman daitezkeen ezberdintasunak ikusi ahal izateko, eta baita horien eraginkortasuna orokorki ezagutu ahal izateko. Bestalde, adina eta harrera gizartean daramaten denborari ere garrantzia eman zaio, tesi honek aztertzea helburu duen gizarteratze prozesua denboran zehar burutzen delako. Baina ikerketa IKEDAM ohietara mugatuta dagoenez, eta hori EAE mailan duela gutxi agertu den fenomenoaren denez, ezinezkoa izan da adin desberdintasun handiegirik lortzea, gehienak 18-21 urte bitartean kokatzen direlarik. Sexua ere kontutan izan da eta neskatilaren bat elkarrizketatzeko ahalegina egin da, mutil eta nesken arteko ezberdintasunak ezagutzeko asmoz, baina horien presentzia murrizta dela eta ezinezkoa izan da.

Pertsona kualifikatuei dagokionean, IKEDAM ohiak erabiltzaile diren edo izan diren programa bakoitzetik hezitzaile, tekniko edo koordinatzaile bat elkarrizketatzeko hautua egin da, horiek programa bakoitzetik pasa diren gazte guztien kasuistikak ikusteko aukera izan dutelako eta beraz errealitatearen inguruko ezagutza zabalago bat isladatzeko gaitasuna. IKEDAM ohi bakoitzak norbere kasu pertsonala azaldu eta informazio sakona ahalbidetu duen bitartean, profesionalen diskurtsoek informazio orokorrago bat lortzeko aukera eman dute.

Laginaren errepresentazio mugetaz oharturik ere teknika kualitatiboa erabiltzea erabaki da funtsean bi arrazoigatik: alde batetik, askoz errepresentatiboagoa den lagin batekin lan egiteak ikerketa honetan eskuragarri ez dauden errekurtsio ekonomiko eta giza errekurtsioak eskatzen dituelako; eta bestetik, ikerketaren helburua kualitatiboa delako, IKEDAM ohien gizarteratze prozesuari dagozkion dinamikak eta horretan familia autoktonoekin harremantzeak izan dezakeen eragina ezagutu nahi diren heinean.

Prozedura edo sarbide estrategiak

EAEko IKEDAM ohien kolektiboarekin harremanetan jartzeko estrategia nagusia IKEDAMen fenomeno edo errealitatea lantzen duten entitateekin kontaktuan jartzea izan da. Horretarako, lehendabizi Artekorekin (EAEko Herriaren Defendatzailea) kontaktatu zen eta Haur eta Nerabeentzako Bulegoko zuzendaria den Elena Ayarzarekin harremanetan jarri. Beraren bitartez kolektiboarekin lan egiten duten elkarten inguruko ezagutza lortu zen eta zenbait harreman burututa geratu ziren: Bizkaiako kasuan *Hemen* programako hezitzaileekin harremana burutu ahal izan zen, baita diputazioaren *Mundutik Mundura* programaren berri izan ere; Gipuzkoan *Karitas*-eko arduradunaren kontaktuan jartzea lortu zen; Arabako kasuan berriz ezinezkoa izan zen harremanik gauzatzea, azken urteetan martxan egon zen Gasteizko Inoren Kargura Ez Dauden Gazte Migratzaileen Laguntzarako Plataformarekin harremantzeko ahalegina egin bazen ere erantzunik ez zen jaso eta bazirudien jadanik ez zeudela aktibo. Hasierako une hartan ondorengo harremanak burutu ziren Arartekoren bitartez:

BIZKAIA	<i>Hemen</i> programa	Harremana burututa, elkarrizketak burutzeko onarpena
	<i>Mundutik Mundura</i> programa	Harremanik ez
GIPUZKOA	<i>Karitas</i> konfederazioa	Harremana burututa, eurekin aurrez aurreko harremana izateko zita ezarrita
ARABA	Gasteizko Inoren Kargura Ez Dauden Gazte Migratzaileen Laguntzarako Plataforma	Harremanik ez

Lehendabiziko harremanak burutu ostean, ondorengo harreman ugari *elur bola* delako teknikaren bitartez burutu ziren. Lehendabiziko elkarrizketak *Hemen* programako gazte eta hezitzaileekin burutu ziren, eta haien bitartez Gasteizko Itaka Fundazioko *Aukera* proiektuaren berri jakin eta kontaktua burututa geratu zen, elkarrizketak egiteko onespenearekin. Gipuzkoan berriz, *Karitas*-ekoekin bildu ostean, IKEDAM ohietaz arduratzen den Gipuzkoako elkarte *Kolore Guztiak* zela jakin zen, eta ondorioz haiekin ere kontaktua burutu zen eta elkarrizketak adostu. Horrela bada jadanik lurralde historiko bakoitzean hiru entitaterekin harremanak gauzatuta zeuden:

BIZKAIA	<i>Hemen</i> programa	Harremana burututa, elkarrizketak burutzeko onarpena
GIPUZKOA	<i>Kolore Guztiak</i> elkarte	Harremana burututa, elkarrizketak burutzeko onarpena
ARABA	<i>Aukera</i> proiektua	Harremana burututa, elkarrizketak burutzeko onarpena

Bizkaiko Foru Aldundiak martxan jarritako *Mundutik Mundura* proiektuaren berri izanik, programa aurrera eramateko arduraz zuten elkarteetarikoa batekin harremanetan jartzea lortu zen, *Goiztiri* elkartearekin hain zuzen. Gipuzkoari dagokionez, familia autoktonoak IKEDAM-ekin harremanetan helburu zuen *Izeba* proiektuaren ezagutza izanik bertako arduradunarekin ere harremanetan jartzea lortu zen. Apurka kontaktuak eta elkarrizketa aukerak zabalagoak ziren:

BIZKAIA	<i>Hemen</i> programa	Harremana burututa, elkarrizketak burutzeko onarpena
	<i>Mundutik Mundura</i> programa, <i>Goiztiri</i> elkarte	Harremana burututa, elkarrizketak burutzeko onarpena
GIPUZKOA	<i>Kolore Guztiak</i> elkarte	Harremana burututa, elkarrizketak burutzeko onarpena
	<i>Izeba</i> proiektua	Harremana burututa, elkarrizketak burutzeko onarpena
ARABA	<i>Aukera</i> proiektua	Harremana burututa, elkarrizketak burutzeko onarpena

Horrela, jadanik kontaktu gehienak burututa eta elkarrizketen gehiengoa martxan zeuden. Azkenik, adituen baten bertsioa jakiteko asmotan hainbat urtez kolektiboarekin lan egindako teniko bat kontaktatzeko aukera izan zen lehenagotik ezagutzen zen *Jatorkin* Etorकिन Aldeko Elkartearen bidez. Horrela kontaktu guztiak eginda eta elkarrizketak bideratuta geratu ziren.

Gauzatzea

Behin kontaktuak egin ostean elkarrizketak burutzeko joan ziren, ordubete eta ordu eta erdiren bueltan ibili zirenak. Elkarrizketa hauek esanahi, zergati, ikuspuntu,

iritzi, balorazio eta emozioak ezagutzeko aukera ahalbidetu zuten. Elkarrizketa aurretik elkarrizketatuei ikerketaren helburu orkorrak azaldu zitzaizkion, erantzunak baldintzatzea ekidinez eta naturaltasuna bultzatuz. Jasotako informazioa anonimo eta konfidentziala izango zela ere azaldu zitzaien, nahiz eta IKEDAM ohiengan euren errealitatea agertzeko gogo nabari zen.

Elkarrizketak burutzerakoan erantzunaren inguruko seinale edo oharrak eman zitzaizkion iradokizun eta baloraziorik ez egiten ahalegindu da, elkarrizketatuari egoki zeritzon informazioa emateko erabakimena ahalbidetuz. Aldi berean, zenbait joera ere ekidin dira, hala nola, elkarrizketatuen erantzun eta aurreiritzi estereotipatuak. Hau da, gizarte ikuspegitik zuzenak edo ongi ikusiak diren erantzunetan ez erortzea bilatu da.

Kasu gehienetan elkarrizketak elkartearen eraikinean burutu dira. Hala eta guztiz, egon dira salbuespenak, *Izeba* proiektuaren baitan elkarrizketaturiko pertsonen eta Gipuzkoako adituaren kasuan. *Izeba* proiektuko koordinatzaileari bere etxean burutu zitzaion elkarrizketa, zenbait izeba eta euren hilobak (IKEDAM ohiak) ere euren etxeetan elkarrizketatu ziren, beste hainbatekin taberna edo kafetegi lasairen batetan. Gipuzkoako adituari Donostiko hotel batetako kafetegian burutu zitzaion. Lortutako diskurtsoak ez direla aurrez prestatuak ulertzen da, elkarrizketatzaile eta elkarrizketatuaren arteko harremanean sortzen direnak baizik, beti ere elkarrizketa batetan burutzen den hartu-eman *artifiziala* kontutan izanik.

Elkarrizketek elkarrizketatuen diskurtso osoa dute euren edukian, eta soinu grabatzaile digital batez grabatuak izan ziren. Denak dagozkien fitxetan gordeak izan dira, subjektu bakoitzaren datu pertsonalekin; eta banan bana traskribituak eta ondoren MAXQDA programaren bitartez analizatuak izan dira.

3.3. Datuen analisirako diseinua

Behin elkarrizketen traskripzioa eginda, horien azterketa kualitatiboa burutu da. Hainbat autoreren arabera, analisi hori hiru faseko prozesua litzateke (Miles eta Huberman, 1994; Rordíguez, Gil eta García, 1996): 1) datuen laburtzea; 2) datuen aurkezpena; eta 3) ondorioak atera eta egiaztatzea.

3.3.1. Datuen laburtzea

Analisi prozesua datuen laburtzearekin hasten da, traskripzioetan agertzen diren datuak hautatu, sinplifikatu, laburtu eta eraldatzeari dagokiona (Miles eta Huberman, 1994). Ikerketaren helburuen arabera informazio esanguratsuena hautatu eta zentzua emateko ahalegina egingo da. Eskuarlean daukagun ikerketaren helburua EAEko IKEDAM ohiak zein gizarteratze egoeratan aurkitzen diren ezagutzea da, eta *Izeba* proiektuan parte hartu izanak ematen dien gizarte laguntasuna aztertzea, horrek gizarteratze prozesuan duen eragina ikusi ahal izateko. Horrela bada, helburu horiek betetzea ahalbidetzen digun informazioa bereizeteko ahalegina egin da.

Datuen laburtze edo bereizte hori egiteko testuaren zatikatzea edo kodifikazioa burutu da, hau da, informazioa unitate ezberdinetan banatu da. Horretarako Rodríguez et al.-ek (1996) proposatzen duten prozedurari jarraitu zaio:

1. Eduki unitateen banaketa
2. Elementuen identifikazioa eta sailkapena
3. Laburpena eta multzokatzea

Rodríguez et al.-en (1996) arabera, banaketa hori kriterio ezberdinen arabera egin daiteke, hala nola, espazio, denbora, gaia, gramatika, konbertsazioa edota gizarte irizpideen arabera. Kasu honetan gaia (edo azpi-gaia) erabili da irizpide gisa, hau da, testu zatiak gai ezberdinen arabera banatu dira. Behin analisi unitateak banandu direnean beharrezkoa da horiek identifikatu eta etiketatzea, funtsean, kategorizatu eta kodifikatzea.

Kategoriak sortzeko prozesua mota ezberdinetakoa izan daiteke, hala nola, *induktiboa*, *deduktiboa* edota *mistoa* (Rodríguez et al., 1996). Metodo *induktiboak* ez ditu kontutan hartzen hasierako kategoriak, eta bildutako materiala irakurri eta aztertu ostean ezartzen dira datuen analisirako erabiliko diren kategoriak. Zenbait autorek zeregin hori *kodifikazio ireki* gisa izendatu dute (Strauss, 1987), datuak bilduko dituzten kontzeptuen bilaketatik abiatzen den prozesua litzatekeena.

Bigarren modua *deduktiboa* litzateke, zeinetan kategoriak aldeztu aurretik ezarrita egon ohi diren, eta ikertzailearen lana unitate bakoitza existitzen den kategoria baten baitan ezartzea delarik. Azkenik prozesu *mistoa* izango genuke, zeinaren bidez ikertzaileak hasierako kategoriak erabiliko dituen, baina beste

zenbait gehitu edo aldatu ahal izango ditu hasierakoak nahikoak ez direla edo ezeraginkorrak direla ikusiko balu.

Ikerketa honetan metodo mistoa erabili dela esan daiteke (deduktibotik gertuago egon dena), izan ere, gutxi gorabeherako kategoriak hasieratik ezarrita egon dira, baina elkarrizketak burutu ostean jasotako informazioaren arabera egokitzapenak egin dira.

Elementuen identifikazioa eta sailkapena laburtze eta multzokatzearekin estuki lotuta leudeke (Rodríguez et al., 1996). Hain zuzen, kategoriak sortzen ditugunean datu unitate ezberdinak kontzeptu berberaren baitan ezartzen ditugu, eta eginkizun hori bere baitan laburtze ekintza bat litzateke, unitate kopuru jakin bat ordezkatzeko dituen kontzeptu bakar baten baitan murriztea ahalbidetzen baitu.

Lan honetan MAXQDA programaren bidez burutu da jasotako informazioaren kategorizazioa. Egindako elkarrizketa guztien traskripzio dokumentuak sartu dira bertan, eta gai ezberdinen arabeko kodigoen zerrenda bat zehaztu da (2. eranskina). Modu horretan, elkarrizketa bakoitza irakurtzerako unean kategoria bakoitzari zegokion informazioa sailkatuz joan da, elkarrizketa guztiak aztertzea amaitu ostean informazio guztia kategoria ezberdinetan sailkatuta geratu delarik. Prozedura honen helburua ez da datuen edukiaren analisirako kategorien sistema zurrun bat eratzea, baizik eta elkarrizketetan zehar jasotako informazio kopuru handia murriztu eta sinplifikatzea, datu originalen aberastasuna galdu gabe.

3.3.2. Datuen aurkezpena

Analisi prozesuaren bigarren fasea datuen aurkezpena litzateke, ondorio eta ekintzen elaborazioa ahalbidetzen duen antolatutako informazioa eskuragarri izatea helburu duena. Datu horiek elkarrizketetatik eratorritako testu zatien hautaketa eginez aurkeztu daitezke, edo grafika, diagrama, taula zein matrizeen bitartez (Miles eta Huberman, 1994).

Lan honetan, ikerketa helburu eta hipotesiei erantzuteko asmoz elkarrizketetatik eratorritako testu zatien hautaketa eta aurkezpena burutu da¹³,

¹³ Beste autoreen zitak bezala, elkarrizketatuen hitzak ere jatorrizko hizkuntzan mantentzeko erabakia hartu da doktoradutza tesi honetan, itzulpenak egiten hasi ezker berezko adierazpenak galtzeko arriskua

eta informazio hori modu labur eta errazean irudikatu ahal izateko taula edo eskemak ere burutu dira. 1. helburuari dagokion 1. hipotesia kontrastatzeko asmoz, IKEDAM ohiak gizarteratze prozesuari dagozkion esparru eta dimentsio bakoitzean zein egoeratan aurkitzen diren aztertuko dela aipatu da analisi ereduak aurkezterakoan, eta horretarako esparru, dimentsio eta adierazleak ere ezarri dira. Esparru eta dimentsio bakoitzean zein egoeratan aurkitzen diren azaltzeko gazte etorkinen zein hezitzaileen zitarik esanguratsuenak erabili dira, nolabait kolektiboaren egoera orokorraren berri ematen dutenak. Horren ostean informazio esanguratsuenak laburbiltzen duen taula bat aurkezten da.

Emantzipazio baliabideen eraginkortasuna neurtzeko ere (2. hipotesia) elkarrizketatuen iritziak izan dira kontutan. Jarraian informazioa hobeto ikuskatzeko bidea ematen duten eskemak aurkeztu dira. Eta 3. hipotesiari erantzuteko asmoz izebek IKEDAM ohiei eskainitako gizarte laguntasun ezberdinen berri ematen duten zitak erabili dira, proiektuko koordinatzailearengandik, izebengandik edo proiektuan parte hartu duten gazte etorkinengandik etorri direnak. Kasu honetan ere informazioa laburbiltzeko eta hobeto ikusteko aukera ematen duten taula eta eskemak burutu dira.

3.3.3. Ondorioak atera eta egiaztatzea

Azken faseak ondorioak atera eta hipotesiak egiaztatze edo kontrastatzeari dagokio, hau da, datuei esanahia emateari eta horiek ikerketen helburuekiko erakusten duten inplikazioa aztertzeari. Hori dela eta, ondorioei dagokion VIII. kapituluan hipotesi bakoitzaren baliozkotzea burutu da. Jarraian ikerketa honek teoria soziologikoari egiten dizkion ekarpenak aipatu dira, eta amaitzeko jardura proposamenak azpimarratzen dira, IKEDAM ohien gizarteratze prozesuak hobeto bermatze aldera.

IV. KAPITULUA: IMMIGRAZIO FENOMENOA ESPAINIAN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

IKEDAMen etorrera azken urteetan Espainiak eta Euskadik jaso dituzten migrazio internazionalen baitan agertzen da. Ikerketa hobeto kokatzeko asmotan espainiar estatuak zein EAEk historian zehar migrazio mugimenduen baitan bete duten papera ezagutzea garrantzitsutzat jotzen da eta horixe egindo da eskuartean dugun kapitulu honetan.

4.1. Espainiako migrazioak

Immigrazio fenomenoari dagokionean Espainiako kasua aldakorra izan da, historian zehar emigrazio eta immigrazio garaiak ezagutu dira, arrazoiak anitzak izan direlarik. Azken mendeetako historian Espainiak paper aktiboa izan du migrazio internazionaletan (Colectivo Ioé, 2008), eta tradizionalki emigrazio herrialde izan bada azken urteetan migrazioen jasotzaile izatera pasa da (Accem, 2008; Blanco, 2000).

4.1.1. Espainia herrialde igorle gisa

Pertsona errefuxiatu eta etorkinekin lan egiten duen gobernu kanpoko erakundearen Asociación Comisión Católica Española de Migraciones (ACCEM) (2008) erakundearen arabera, hiru etapa bereiz daitezke Espainia migratzaileen igorle izan zen garaian:

1. 1830-1945. Hego Amerikara migrazioak.

Esku-lanaren zirkulazio askeak ezaugarritu zuen garai hau eta 50 milioi europarrek emigratu zuten beste kontinente batzuetara. Hasiera batetan Europa iparraldeko herrialdeak izan ziren beste kontinente baterako emigrazioari ekin ziotenak, hala nola, Norvegia, Ingalaterra, Irlanda eta Suedia, eta norako nagusia Estatu Batuak izan ziren. Beranduxeago Europa ekialdeko eta hegoaldeko herrialdeetako emigrazioa hasi zen. Horien artean asko espainolak ziren eta

nagusiki Hego Amerikako herrialdeetan kokatu ziren, besteak beste Argentinan, Brasilen, Kuban eta Uruguayn.

Lehendabiziko etapa honetan 5 milioi espainiarrek emigratu zutela kalkulatu da. Faktore ezberdinak aipa daitezke emigrazio masiboaren eragiletzat: jabetza txikiaren nagusitasuna, berdintasunik gabeko oinordetza sistema, analfabetismo tasa altuak, soldata maila baxuak, hiri eta industria garapen urria etab. Baina funtsezko eragiletzat momentu haietan Espainian gertatzen ari zen nekazaritza eta abeltzaintzako krisia aipatu behar da. Baserritar ugari landa eremua utzi eta hirirako exodoari ekin behar izan zioten, industrializazio prozesuan zeuden hiriek ordea ezin izan zuten horrenbeste jende euren baitan hartu, horrenbestez irtenbide bakarra emigrazioarena izan zen.

Etapa honen baitan aipamen berezia merezi dute 1936 eta 1939 urteen bitartean gertatu zen Gerra Zibilatik emigratzera behartuta aurkitu ziren pertsonak (milioi erdia pasa izan zirela estimatzen da). Horiek, besteak beste Frantzia, Errusia, Mexiko, Argentina eta beste herrialde hegoamerikar batzuetara jo zuten (Accem, 2008; Colectivo Ioé, 2008). Gerra hark, historian zehar ezagututako espainiarren derrigorrezko emigrazioerik garrantzitsuena suposatu zuen.

2. 1945-1973. Europako beste herrialde batzuetara migrazioak.

II Mundu Gerratik (1939-1945) aurrera Europa barneko migrazio mugimenduen etapa hasten da (Accem, 2008; Colectivo Ioé, 2008). Europa iparraldeko herrialdeak berreskuratze edo suspertze ekonomikoan aurkitzen ziren gerra ostean, baina ez zeukaten sektore laboral guztiak betetzeko populazio aktibo nahikorik; kualifikazio profesional gutxien eskatzen zuten eta lan baldintza eskasak eskaintzen zituzten postuak betetzeko jendea behar zen. Hori dela eta, atzerritarrak kontratatzen hasi ziren denboraldi batetarako esku-lan gisa. Iparraldeko herrietako esku-lanaren gabeziak erakarpen faktore gisa jokatzen zuen, etorkinen jatorrizko herrialdeetako egoerak aldiz kanporatze faktore gisa, garapen ekonomiko baxuko herriak zirelako eta langile soberakinak eragiten zituztelako.

Espainia bigarren herrialde horien kasuan aurkitzen zen. Batik bat Andaluzia eta Levante-ko jendeak emigratu zuen, toki horietan langabezia tasak

altuak zirelako, eta nagusiki Alemania, Frantzia, Ingalaterra, Holanda eta Suitzara jo zuten. Herrialde hartzaileetatik jatorrizko familiako ekonomietan laguntzen zuten, eta denboraldi bat pasa ondoren berriro Espainiari itzultzen ziren.

1970. urtean milioi bat espainol baino gehiago kanpoan zeudela estimatzen da (Accem, 2008). Espainiak populazio hazkunde handia izan zuen ordura arte, 1960tik 1970era bitartean biztanleria 30 milioitik 34 milioitara igo zen hain zuzen. Hori dela eta, esku-lan gehiegi zegoen eta langabezia handitzeko arriskua. Emigrazioak horri aurre egiteko bidea eman zuen eta baita Espainiar ekonomia finantzatzeko aukera ere, kanpoan aurkitzen ziren espainolek dirua bidaltzen zutelako euren familietara, espainiar industria garatzeko beharrezkoak ziren ondasunen zati handi bat lortzeko balio izan zuena (Accem, 2008; Colectivo Ioé, 2008).

3. 1973-1985. Petrolioaren krisia eta Europa barneko mugimendu migratorioen murrizketa.

1973ko petrolioaren krisiak ezegonkortasun ekonomikoa ekarri zuen eta horrek migrazio fluxuetan aldaketa eragin zituen (Accem, 2008). Tradizionalki etorkinen hartzaile izan ziren herrialdeetan langabezia arazoak sortzen hasi ziren. Hori dela eta, jadanik ez zutela kanpoko langilerik behar ohartu eta horien etorrera mugatzen hasi ziren. Jende berriari frontierak itsi eta euren herrietan aurkitzen ziren atzerritarrak jatorrizko herrialdeetara itzultzeko ekintzak sustatu ziren.

Ondorengo urteetan, mugatze politikek indarrean jarraitu zuten, baina pixkanaka immigrazio haziz joaten da. Lehendabiziko aldiz, Europa hegoaldeko zenbait herrialde immigrazio jasotzaile bihurtzen dira, horien artean Espainia. Estatuko etorkin legalen kopurua gehitzen hasten da 80. hamarkadan. Espainiak demokrazia finkatu eta Europan sartzeko prozesua hasi zuen garaia zen, egoera ekonomiko, politiko eta soziala egonkortzen hasi zen unea. Guzti horrek hainbat eraldaketa eragin zituen, alde batetik Europa iparraldera emigratu zuten espainiarrak euren familiengana itzultzen dira lana estatu barruan aurkitzeko asmoz, eta bestetik Espainiak frontierak irekitzen dizkie gainontzeko herriei. Batik bat Afrika eta Hego Amerikako jendeak hartzen du Espainia norako gisa, lan bat aurkitu eta euren jatorrizko herrialdeetan baino bizi maila hobetua lortuko

dutelakoan. Horrela, apurka, Espainia etorkinen herrialde hartzaile bilakatzen hasten da.

4.1.2. Espainia herrialde hartzaile gisa

Lorenzo Cachón-ek (2003) hiru etapa bereizten ditu Espainia herrialde hartzaile denetik: 1985 artekoa, 1986tik 1999ra doana, eta 2000tik aurrerakoa. Autoreak dioenez hiru etapak zeharo desberdinak dira etorkin kopuruari dagokionez, baina egiturazko izaera duten aldaketa kualitatiboak dira etapa batetik besterako igarobidea markatu eta Espainiako immigrazioaren gizarte historia eraikitzen dutenak, eta ez soilik fluxuen zenbatekoa. Espainiako immigrazioaren baitan bi momentu aipatzen ditu aldaketa esanguratsuen eragile gisa: lehendabizikoa 80. hamarkadaren erdi aldean, bigarrena 90. hamarkadaren amaieran.

Cachón-en sailkapenari laugarren etapa bat gehituko zaio, azken urteetako krisi ekonomikoak ezaugarritzen duena. Izan ere, errealitate horrek hainbat urtetan gorakada itzela izan zuen inmigratio fenomenoaren beherakada nabarmena eragin du (Cea D'Ancona eta Valles, 2014).

1. 1985 arte. Immigrazio fenomenoaren hasiera.

Aurreko atalean ikusi dugun modura 60. eta 80. hamarkaden artean emigrazioa askoz esanguratsuagoa bazen ere, aldi berean immigrazio fenomenoaren hasiera bat ematen hasi zen. Hazkundera esanguratsua izan bazen ere, etorkinen kopurua ez zen oraindik handia, 1980an biztanleria osoaren %0,5a soilik osatzen zutelarik (Accem, 2008). Bi jatorri nagusi nabarmentzen ziren: alde batetik ekonomikoki Espainia baino garatuago zeuden Europako herrietatik zetozen pertsonak, horien artean batzuk erretiratuak ziren eta penintsulako kostan finkatzen hasi ziren, beste batzuk aldiz jatorrizko herrialdeko enpresek bidalita lanera zetozen; bestetik Hego Ameriketako diktadura militarretatik ihesi zetozen errefuxiatu politikoak nabarmentzen ziren, Argentina, Uruguay edo Chilekoak besteak beste. Bakan batzuk Ipar Amerika, Afrika eta Asiatik ere etorri ziren, baina gutxi. Orokorrean gure lurretan aurkitzen ziren etorkinak, *gure kultura europarrekoak edo Hegoamerikako gure kultura eta hizkuntzakoak ziren (Cachón, 2003).*

Garai honetan Espainiako immigrazioa batik bat irteera faktoreek ezaugarritzen zuten, etorkinek euren herrialdeko egoerak eskatzen zitelako emigratzen zuten, eta ez horrenbeste Espainiak dei efektua eragiten zuelako (Cachón, 2003). Etapa honetan oraindik immigrazioa ez da *gizarte gertaera* kontsideratzen, nahiz eta 1985ean garatu zen estatu mailako lehendabiziko atzerritartasun legea.

2. 1986-1999. Emigrazio herrialdetik immigrazio herrialderako igarobidea.

80. hamarkadaren erditik aurrera Espainia emigrazio herrialde izatetik immigrazio herrialde izatera pasatzen da (Cachón, 2003). Baina horrez gain, immigrazioa gizarte gertaera bilakatu zuen aldaketa eman zen estatu mailan momentu horretan. Immigrazio berri bat agertu zen, aurrekoarekin alderatuz ezberdintasun nabariak agertzen zituena:

- Aurrez zeuden etorkinei jatorri berrietako pertsonak gehitzen zaizkie, batik bat afrikarrak, eta horien artean Marokotik zetozenak. Jada 90. hamarkadan Europa Ekialdeko eta Asiako jendea ere nabarmentzen da.
- Etorkin berri hauek ezaugarri soziokultural ezberdinetakoak ziren, beraz erlijio eta kultura berriak agertzen dira espainiar gizartearen baitan (erlijio musulmana, kultura arabiarra...).
- Hazpegi ezberdinak bereizi zitezkeen, besteak beste, arabiarrek, beltzak, asiarrak etab.
- Etorkinen artean motibazio ekonomikoa nabaritzen da, Espainiako lan merkatuak dei efektua eragiten du.
- Izaera indibidualeko immigrazioa ematen hasten da, hau da, jendea bakarka emigratzen hasten da. Geroago, bakarrik etorri ziren etorkinengan familia berriz elkartzeko eskaerak nabarmentzen hasten dira.

Etorkinen presentzia asko handitu zen urte hauetan, eta horrenbestez lehendabiziko araupetze prozesuak ematen hasi ziren. Gizartearen egitura immigranteen gehikuntzaren ondoriozko eraginak nabarmendu ziren, eta espainiarren jarreran ere eraginak hauteman ziren, fenomeno berria deskubritzen hasi baitziren.

Etorkin batzuk arrazoi politikokoengatik emigratzen jarraitzen bazuten ere (asilo eskaerak esanguratsuak ziren) bigarren etapa honetan arrazoi nagusiak ekonomikoak ziren (Cachón, 2003). Garai hartan lan merkatu espainolaren berregituraketa eragingo zuten zenbait gertakari eman ziren: 1986an Espainia Europako Komunitate Ekonomikora sartu zen, 1986 eta 1992 urteen bitartean hazkunde ekonomiko esanguratsua nabarmendu zen, Ongizatezko Estatua ere urte haietan garatu zen, biztanleriaren hezkuntza maila hazi egin zen, sare familiarrak mantendu eta gizarte itxaropena handitu.

Guzti horrek langile autoktonoek lanbideekiko exigentzia maila handiagoa agertzea eragin zuen, gutxieneko baldintza duin batzuk bermatzen zizkieten enpleguak eskatzen zituzten, eta ez lan merkatu sekundarioak kontsideratzen zituztenak. Hori dela eta, atzerritarrentzat geratzen ziren baldintza eskasagoak eskaintzen zituzten postuak, autoktonoentzat onartezinak zirenak. Immigrazio berriaren eragile nagusia *erakarpen faktorea* zen beraz, langile berriengan *dei efektua* eragiten zuena. Erakarpen faktoreen artean merkatu sekundarioaz gain kontutan hartu beharrekoa da ezkutuko ekonomia indartsu baten presentzia ere (Cachón, 2003).

Prozesu horretan murgilduta, bigarren etapa honetan Espainia munduko mapa migratorioan agertzen hasten da, eta zenbait herrialdetako emigranteen imaginarioan norako herrialde gisa. Hala eta guztiz ere, etapa honen amaieran etorkinen kopurua ez zen milioira iristen, biztanleria osoaren %2,5a suposatzen zuelarik (Arango, 2012). Immigrazioaren eraginak oraindik mugatuak ziren.

Hurrengo kapituluan ikusiko den modura, IKEDAMen agerpena etapa honen baitan emango litzateke, bere garapena hurrengo etaparen baitan izango duelarik.

3. 2000-2008. Immigrazioaren etapa gorena.

Aurreko etapako joerek areagotuz jarraitu zuten, esku-lana burutzeko jendearen beharrak jarraitzen zuenez gero eta etorkin gehiago etorri ziren postu horiek betetzera (Accem, 2008). Urte hauetan Espainiako immigrazio fenomenoari dagokionez herrialde igorle nagusiak Maroko, Errumania, Ekuador, Kolonbia eta Erresuma Batua ziren. Etorkin gehien jasotzen dituzten komunitate autonomoak berriz Katalunia, Madril, Valentziar Komunitatea eta Andaluzia. Arangok aipatzen

duenez, inork ezin izan zuen aurreikusitako hartan ordutik aurrera etorriko zen migrazio fluxuen ezohiko azelerazio indartsu zein jarraitua (2012: 25).


Baina 2000. urtetik aurrerakoa etapa berriztat jotzearen arrazoia ez da soilik etorkinen kopurua modu esanguratsuan hazi izana, baizik eta immigrazioa gertaera edo arazo sozial gisa instituzionalizatzea Espainian (Cachón, 2003). Immigrazio fenomenoaren formulazio publiko bat ematen da, komunikabide eta eztabaida publikoetan agertu eta instantzia ofizialek aintzatetsi egiten dute, eta azkenik insituzionalizatu egiten da.

Espainiako lehendabiziko atzerriartasun legea, 7/1985 Lege Organikoa, atzerriarren Eskubide eta Betebeharrei buruzkoa, 1986ko apirilak 1ean sartu bazen indarrean ere oso neurri kritikatuak izan zen, eta gaur egun oraindik indarrean dirauen 4/2000 Lege Organikoa 2000. urtean sortu zen. Etorkinak Gizarteratzeko lehendabiziko Plana ere apur bat lehenago sortu zen, 1994an, aldiz mende aldaketarekin komunitate autonomo eta udaletan integrazio planak, hezkuntza eta osasun proiektuak edo genero eta kulturarteko bitartekotza politikak biderkatu egiten dira (López, 2007). Etorkinen foroak ere gero eta ohikoagoak bilakatuz joan dira, 1994an Etorkinen Gizarte Integraziorako Foroa sortu zen administrazioa aldizka etorkinen egoeraz informatzeko asmoz eta beharrezkoa izatekotan konponbideak jartzeko (Aparicio eta Tornos, 2010). Ordutik aurrera beste asko sortuz joan dira.

4. 2008 - gaur egun. Krisi ekonomikoaren eraginez migrazio fluxuen beherakada.

Azken urteotan aldiz migrazio fluxuen joera aldatuz joan da. 4.1. Grafikoan ikusi daitekeen moduan, 2001. urtetik 2008ra arte etorkin kopuruaren igoera handia eta konstantea izan bazen, 2007tik 2008rako igoera handiena izan zelarik (749.208 etorkin gehiago erregistratu ziren); urte horretatik aurrera igoerak askoz txikiagoak izan ziren. 2010tik 2011rako igoera ia hutsala izan zen (3.753 etorkin gehiago soilik erregistu ziren), eta 2011tik 2012ra jada lehendabizikoz jaitsiera bat ematen da, orduz geroztik joera hori mantendu egiten delarik, urtetik urtera jaitsierak gero eta nabarmenagoa izanik (2013tik 2014ra bitartean 522.751 etorkin gutxiago erregistratu dira). Espainia mailan immigrazio fenomenoaren hasieratik beherakada bat ematen den lehendabiziko aldia da.

4.1. Grafikoa: Biztanleria atzerritarraren bilakaera Espainian. 1998-2014 (datu absolutuak)



Iturria: Estatistika Institutu Nazionala (EIN).

2007az geroztik nabarmendutako krisi ekonomikoa dela eta, etorkinentzako gero eta lan aukera gutxiago daude, eta horrek etorkin gutxiago etortzea edota lehendik zeudenek alde egitea eragin du. 2008tik aurrera etorkinen hazkundea oso txikia dela erakusten digu taulak, eta 2011tik aurrera jada beherakada nabarmentzen hasten da.

Etorkinen jaitsiera hori ez da soilik Espainian nabarmendu den joera izan, Europako herrialde gehienetan gauza bera gertatu da, baina Espainian 2001etik 2012ra bitartean emandako aldaketa itzela izan da. 10 urte lehenago migrazio netoaren tasa brutoaren balioak positiboak baziren eta Irlandarekin batera etorkin gehien jasotzen zuen herrialdeen artean bazegoen, gaur egun, bai Espainia eta bai Irlanda balio negatibo altuenak partekatzen dituzten herrialdeak dira (Cea D'Ancona eta Valles, 2014).

4.2. Euskal Autonomia Erkidegoko migrazioak

EAEko historia hurbilean eman diren migrazio mugimenduak aztertzen baditugu, Estatu mailan bezalaxe emigrazio eta immigrazio aldiak eman direla ikusiko dugu, nahiz eta bietako errealitatea apur bat ezberdina izan den. Euskal Herriko kasua bereizgarri egiten duena bertako autoktonoek emigratzen zuten bitartean penintsulako beste leku batzuetatik zetozen immigranteak jaso izana da, hau da, bi

fenomenoak aldi berean gertatzea (Medina, 1997). Hala ere, fase batzuetan esanguratsuagoak izan dira emigrazioak, beste zenbaitetan berriz immigrazioak.

4.2.1. Euskal Autonomia Erkidegoa herrialde igorle gisa

XIX. mendera arte, EAE emigrazio herrialde izan zela esan daiteke (Ruiz eta Blanco, 1994). Euskaldunek Ameriketara emigratu zuten nagusiki, batik bat Estatu Batuetako mendebaldeko kostara eta Argentinara, baina beste norako batzuk ere nabarmendu daitezke: Europako zenbait herrialde, Australia edo Filipinak besteak beste. Atlantikoaren beste alderako euskal emigrazioa 1830 aldera hasi zen, eta fenomenoaren atzean erakarpen zein kanporatze faktoreak nabarmentzen ziren. Garai hartan Hego Amerikako errepublika berriek (batik bat Argentinak) aurkezten zuten esku lanaren eskakizunak erakarpen faktore gisa jokatzen zuten.

EAEN biztanleria nabarmen hazi zen XVIII. mendearen amaieran eta zituzten nekazal eta laborantza errekurtsioak murriztegiak ziren hazkunde demografiko hori mantentzeko, gainera herentzia igortzeko moduak ondasunen banaketa galarazten zuten, pertsona asko ezer gabe gelditzen zirelarik. Horrez gain, XIX. mendeko lehendabiziko erdian emigrazioa ekiditera eta landa eremuak birpopulatzera bideratuta zegoen espainiar Gobernuaren politika ere apurka desagertuz joan zen. Guzti horrek kanporaketa faktore gisa jokatu zuen, emigrazio olatuak eragin zituelarik. Estatu Batuetara 1870 eta 1914 bitartean iritsi zen lehendabiziko euskal belaunaldia, eta XX. mendeko norako nagusia izan zen. Gehienetan artzainak ziren, Ipar Ameriketako mendebalde luze eta zabalean sakabanatzen zirenak.

Lehendabiziko emigrante hauen atzetik, beste hainbat euskaldunek euren adibidea jarraitu zuten eta EAE utzi zuten aukera ekonomiko eta sozial berrien bila. Medinak (1997), Douglass eta Bilbao-ri jarraikiz, Amerikara emigratzea EAeko gune industrializatuetan geratzea baino aukera erakargarriagozat ikus zitekeela aipatzen du, han mugikortasun ekonomiko eta sozialerako aukera gehiago zeudelako. Hala ere, fenomeno migratorioen atzean askotariko zergatiak egon zitezkeen.

XIX. eta XX. mendeetan penintsula Iberikoan bizitako gertaera politikoek, hala nola, inbasio napoleonikoaren eraginak, lehendabiziko eta bigarren gerra karlistak eta batik bat XX. mendeko Gerra Zibil espainolak, zenbait euskaldunek

euren herria utzi beharra eragin zuten. Gerra Zibileko garaipen frankista zela eta, errepublikaren jarraitzaile ziren pertsona ugari erbestera irten beharrean aurkitu ziren, politikoki zein sozialki diktadore berriaren aurka zegoen jendearentzat ere kanporaketa faktore gisa jokatu zuen garaipen horrek. Horrela, aurrez arrazoi ekonomikoengatik eta lanbide bat lortzeko helburuz emigratu zuten euskaldunei emigratu politikoak gehitu zitzaizkien.

4.2.2. Euskal Autonomia Erkidegoa herrialde hartzaile gisa

XIX. mende amaieratik gorakada zein beherakada uneak ezagutu badira ere, orokorrean EAE immigrazio herrialde gisa izendatu daiteke. Bere baitan ematen den berezitasun bat migrazioen nolakotasuna da, Ruiz eta Blanco-k (1994) hiru motatako etorkinak bereizten dituzte EAEn historian:

- Alde batetik *barne migratzaile intrakomunitarioak* deitzen dietenak, komunitate barnekoak, hau da, EAeko lurralde historiko ezberdinen baitan mugitzen ziren pertsonak, euskaldunak izanik ere jaio ziren lurralde historikoan aurkitzen ez zirenak.
- Bestetik *kanpo migratzaile interkomunitarioak*, komunitateen artekoak, estatuko komunitate autonomo ezberdinen artean ematen ziren mugimenduak, EAEn aurkitzen ziren espainolak lirateke hain zuzen.
- Azkenik *kanpo migratzaile interestatalak*, estatuen artekoak, Espainiaz gaindikoak, EAEn aurkitzen ziren beste estatu batzuetako jendea litzateke.

XIX. mende amaieratik XX. mendearen bigarren erdira arte EAEn baitan ematen den immigrazioa barne migrazio gisa katalogatuko genuke, barne migratzaile intrakomunitarioak eta kanpo migratzaile interkomunitarioak nagusitzen ziren garai horretan. Kanpo migratzaile interestatalak askoz beranduago hasten dira nabarmentzen, XX. mende osoan zehar horien kopuruak ia hutsalak zirelarik. Espainian bezala, 90. hamarkadaren amaieran hautematen da etorkin atzerritarren gorakada.

Jarraian lehendabiziko bi migrazio motak estatu barneko migrazio azpiatalaren baitan landuko dira, hirugarrenak berriz estatuz gaindiko migrazio gisa.

Estatutik eratorritako migrazioak (XIX. mende amaieratik 1980 ingurura arte)

XIX. mende amaieran, emigrazioen beherakada eta etorkinen igoera nabarmentzen hasten da, egoera aldaketa hau garai artan EAEn baitan eman zen industrializazio prozesu esanguratsuari lotzen zaiolarik (Ruiz eta Blanco, 1994). Prozesu hau Bizkaian izan zen goiztiarrena eta garrantzitsuena, izan ere, Bigarren Gerra Karlistaren ostean (1876) martxan jarri zen industrializazioak garapen ekonomiko eta soziala ekarri zuen lurralde historikora, immigrazio fluxu esanguratsua eragin zuena. Gipuzkoan ez zen hain nabarmena izan hasieran, eta Araban ia hutsala XX. mendearen erdira arte.

XX. mendearen lehendabiziko erdian joerak bere horretan jarraitu zuen, eta 1900 eta 1950 bitartean EAeko biztanleria ia bikoiztu egin zen 600.000 pertsonatik 1.000.000 pertsonara pasa zelarik (Ruiz eta Blanco, 1994). Urte hauetan saldo migratorio positiboak erregistratu ziren, immigrazio tasak emigrazio tasak baino altuagoak bilakatu ziren, batik bat 1910etik aurrera. Bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan hazkunde ekonomiko eta demografikorik handiena 1920-1930 bitartean gertatu zen. Hurrengo hamarkadan atzerakada eman zen Espainiako Gerra Zibila eta 1929ko krisi ekonomikoak eragindako geldialdi industrialagatik. Garai horretan, hazkunde demografiko nabarmenena Gipuzkoan eman zen, Bizkaikoak oraindik oso esanguratsua izaten jarraitzen bazuen ere. Arabaren kasuan, garapen demografikoaren hasiera bat eman bazen ere saldoak orokorrean negatiboak izaten jarraitzen zuten, atzerapen ekonomikoa zela eta bere biztanleak mugakide ziren lurralde historiko garatuagoetara emigratzera bultzatzen zituen.

1900. urtean EAeko biztanleriaren %21a beste lurralde historiko batetan jaiotakoa bazen 1950erako kopuru hori %26ra igo zen. Garai honetan EAera etorri ziren etorkinen artean estatuko beste lurralde historiko batzuetatik zetozenak nabarmentzen ziren, Espainia barneko migrazio fluxuak ematen ziren beraz. Jatorrien artean EAerekiko mugakideak ziren komunitate autonomoak nagusitzen ziren: Gaztela eta Leon, Nafarroa, Errioxa eta Kantabria. Beraz urte hauetan bertatik gertu aurkitzen zen jendeak emigratu zuen batik bat EAera. Kontutan izan behar dugu garraiobideen azpiegiturak ez zeudela gehiegi garatuta eta komunikabideen eragina oraindik txikia zela.

1950 eta 1960 bitartean ekonomia esparruan garrantzitsuak izan ziren zenbait gertaera politiko eman ziren erregimen frankistaren baitan. 1951eko Gobernu aldaketarekin batera Egonkortze Ekonomikoko Planak jarri ziren martxan 1957 eta 1959 bitartean. Autarkia garaia amaitu eta estatua kanpoko merkatura ireki zen. Zenbait lehengai eta energia hornikuntza hobe eta merkeagoa lortzeko aukerak Espainiako zenbait zonaldeko ekoizpen gaitasunean positiboki eragin zuen, etorkinentzat leku erakargarri bihurtu zirelarik.

EAEk zuen egoera ekonomikoa onuragarria zela eta Egonkortze Planak martxan jarri zirenetik gorakada ekonomiko garrantzitsua izan zuen 1973ko Petrolioaren Krisira arte, etorkinen etorrera masiboa eragin zuelarik. 1950 eta 1970 bitartean EAeko hiru lurralde historikoen euren biztanleria bikoiztu egin zuten. Prozesuak hirurak modu bertsuan eragiten baditu ere Arabako kasua da esanguratsuena edo bereziena, izan ere, Bizkaia eta Gipuzkoan jadanik ezagutu zituzten horrelako hazkundeak, Arabako biztanleria berriz une horretara arte geldik mantendu zen. EAEk ez zuen garai hartara arte halako hazkunde demografikorik ezagutu, Ruiz eta Blanco-k (1994) iraultzailatzat kontsideratzen dute, denbora laburrean eman zelako (20 urtetan) eta bere gizarte egituran eragin sakonak izan zituelako.

1951-1960 garaiari dagokion errolda datuek erakusten dutenez 152.226 pertsonako saldo positiboa erregistratzen zen, hurrengo hamarkadan, 1961-1970 urteei dagokionean, saldoa 255.538raino igotzen da (Ruiz eta Blanco, 1994). Fluxu migratorioen eraginez autoktonoen portzentajea gutxika jaitsiz joan zen, EAeko lurralde historiko bakoitzean bertatik at jaiotako kopurua %14-an igo baitzen aipaturiko 20 urteetan. Ruiz eta Blanco-ri jarraikiz, garai honetan batik bat EAE barneko mugimenduak nabarmentzen ziren, barne migrazio intrakomunitario izendatzen dituztenak, lurralde historiko bakoitzean etorkinen gehiengoa komunitate autonomo bereko beste lurralde historiko batekoek osatzen zuten. Gainontzeko etorkinak, Espainiako beste toki batetan jaio eta EAEn bizi zirenak (kanpo migratzaile interkomunitarioak), batik bat hiru zonalde geografikotakoak iziren: Gaztela eta Leon, Galizia, Andaluzia eta Extremadura. Lau komunitate hauek gehitzen zituzten etorkinen kopuruak kanpo migratzaile interkomunitarioen hiru laurdenak suposatzen zituen. Mende hasierako jatorriekin alderatuz, garai honetan jada desplazamenduen distantziak handitu egin zirela ikusten da.

Fluxu migratorioen gorakada garaiaren ostean ordea atzeraldia etorriko da. Esan daiteke 50. hamarkadan hasitako prozesu migratorioa amaitutzat eman daitekeela 60. hamarkada erdi aldean, batik bat emigrazioak sarrerak baino handiagoak bihurtzen hasten direlako. Fluxu migratorioaren bolumena 1975 aldera arte mantendu egin zen, batez ere 70. hamarkadako Petrolioaren Krisiaren eraginak ez zirelako nabarmendu Espainiako egitura ekonomikoan urte horretara arte. Data horretatik aurrera ordea, immigranteen kopuruaren gain behera etorri zen. Eragin latzenak Bizkaiak pairatu zituen, ondoren Gipuzkoak, Arabak aldiz aurreko hamarkadako etorkin sarrera kopurua mantendu zuen.

Etorkinen beherakada nabarmena izan bazen ere, hori baino gehiago emigrante mota aldatu zela esan beharko litzateke, kanpo etorkinak gutxitu zirelarik eta aldiz barne etorkinak gehitu (Ruiz eta Blanco, 1994). 1970-1981 bitartean hiru lurralde historikoetan barne migratzaileen gorakada eman zen, hala ere 1986ko erroldak joera aldaketa erakusten du, Arabako etorkin intrakomunitarioen kopuruak apur bat behera egiten du, Bizkaian erdira jaisten da, eta soilik Gipuzkoan ematen da gorakada, lurralde historikorik lehiatsuen bihurtzen delarik.

1981etik 1986ra bitartean saldo migratorio negatiboa erregistratzen da, 1911az geroztik lehendabiziko aldia delarik. Saldorik negatiboena Bizkaiak erakusten zuen, etorkin gehien jaso zituen lurralde historikoa izanik ere emigrante kopuru handiena erregistratu zuen, etorkinen bikoitza baino gehiago. Bigarren postuan Gipuzkoa agertu zen, bertan irteerak sarrerak baino 3 aldiz handiagoak izan zirelarik. Egoera egokiena Arabak erakutsi zuen, saldo negatiboa izanik ere sarrera eta irteeren kopuruak nahiko antzekoak izan zirelarik.

Estatuaz gaindiko migrazioak (XX. mende amaieratik gaur egunera arte)


EAEk biztanleria galduz jarraitu zuen XXI. mende hasierara arte, 20 urte inguru beraz. Saldo migratorio negatiboa izateak ordea ez zuen esan nahi immigraziorik existitzen ez zenik. XX. mendearen baitan jaiotza lekuaren arabera euskal biztanleriaren konposizioa asko aldatu zen (Blanco, Alvite eta Gómez, 2000). Lehendabiziko hamarkadetan %80 baino gehiago autoktonoa zen, %18 estatuko beste komunitate autonomo batzuetakoak ziren eta %1 baino zertxo bat gehiago soilik atzerritarra. 70. hamarkadarako autoktonoen kopurua %65era jaitsi zen,

estatuko beste zonalde batzuetatik etorritakoen kopurua aldiz %34ra igo zen, eta atzerritarren kopurua %0,58koa zen, aurrez aipatu den modura barne migrazioak nagusitu ziren garai horretan. 1996an berriro autoktonoen gorakada nabarmendu zen, horiek %77a osatzen zutelarik, estatuko beste komunitate autonomo batetan jaiotakoen kopurua %23ra jaitsi zen, eta kopurua oso baxua izanik ere (%0,61), etorkin atzerritarren gorakada mantso bat nabarmendu zen.

Atzerritik etorritako immigranteen etorrerak hazkunde jarraitua erakutsi zuen 90. hamarkadan, eta batik bat 1997tik aurrera (Blanco et al., 2000). Espainiako gainontzeko komunitate autonomoetatik zetorren immigrazioa pisua galduz joan bazen, etorkin atzerritarren kopurua gero eta handiagoa bihurtuz joan zen. Estatuko kasuan aipatu den moduan, migrazio internazionalen testuinguru honetan kokatuko genuke IKEDAMen etorrera EAEko kasuan ere, naiz eta V. kapituluaren ikusiko den moduan EAE mailan fenomenoaren agerpena apur bat beranduago ematen den.

4.2. Grafikoak migrazio internazionalak 1998tik 2015era bitartean izan duten bilakaera erakusten digu, eta Espainia mailan bezala, batik bat XXI. mendearen hasieratik hazkunde esanguratsua eta jarraitua izan dutela ikusten da. Hala eta guztiz, Espainiako kasuan bezalaxe, EAEko biztanleria atzerritarrak ere behera egin du azken hiru urteetan jarraian. Estatuan 2011tik nabarmentzen da joera hori, gure autonomia erkidegoan berriz 2011tik 2012ra etorkinen kopuruak gora egiten jarraitu zuen (aurreko urtean baino 6.638 atzerritar gehiago erregistratu ziren), baina 2012tik aurrera beherakada ematen hasten da, eta gaur egun arte sendotu egin da duela 3 urte hasitako joera-aldaketa.


4.2. Grafikoa: Biztanleria atzerritarren bilakaera EAEn. 1998-2015 (datu absolutuak)



Iturria: Ikuspegi (2015: 3).

Estatua eta EAEn artean ezberdintasunak nabarmentzen badira ere, antzeko joerak mantendu dituzte 4.3. Grafikoan ikus daitekeen moduan. Autonomia erkidegoan fenomenoaren hasieratik atzerritarren tasa baxuagoak aurkitzen ditugu, eta bietan hazkundea nabarmena izan bada, Espainia mailan esanguratsuagoa izan da. Era berean, biztanleria atzerritarren tasan azken urteetan nabarmendutako gainbehera ere nabarmenagoa izan da estatua.

4.3. Grafikoa: Biztanleria atzerritarren bilakaera EAEn eta Espainian. 1998-2015 (%)



Iturria: Ikuspegi (2015: 3).


EAEko hiru herrialde historikoetan ere bilakaera eta etorkinen pisua ez da bera izan. 4.1. Taulan eta 4.4. Grafikoan oinarritzen bagara, etorkin atzerritar gehienak Bizkaian bizi direla ikusten dugu, eta gutxien Araban. Aldiz portzentajeei erreparatzen badiegu (4.5. Grafikoa) alderantzizko errealitatea aurkitzen dugu, proportzioan Araba da etorkin gehien dituen lurralde historikoa, eta Bizkaia gutxien dituen.

4.1. Taula: EAEn eta lurralde historiko bakoitzean dauden biztanle atzerritarrak. 1998-2015 (datu absolutuak)

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE
1998	2.460	5.300	7.633	15.198
1999	2.802	6.359	7.633	16.794
2000	3.818	7.903	9.419	21.140
2001	5.462	8.856	13.120	27.438
2002	8.031	11.716	18.661	38.408
2003	10.445	14.878	23.908	49.231
2004	12.058	18.232	28.876	59.166
2005	15.141	21.536	36.217	72.894
2006	16.857	25.290	43.395	85.542
2007	19.392	29.040	50.092	98.524
2008	22.840	35.935	58.562	117.337
2009	26.021	40.859	65.985	132.865
2010	28.210	42.449	68.710	139.369
2011	28.821	44.179	72.256	145.256
2012	30.228	46.132	75.534	151.894
2013	28.325	46.684	73.380	148.165
2014	26.693	46.464	68.159	141.316
2015	25.948	46.408	65.041	137.397

Iturria: Ikuspegi.


4.4. Grafikoa: Biztanleria atzerritarren bilakaera EAEko lurralde historikoetan. 1998-2015 (datu absolutuak)



Iturria: Ikuspegi.

Etorkinen portzentajeak kontutan hartzen baditugu, 2015ean proportzionalki Araba dela etorkin gehien jasotzen dituen lurralde historikoa ohartzen gara. Araban biztanleriaren %8 da atzerritarra, Bizkaian eta Gipuzkoan baino bi puntu baino gehiago (%5,7 eta %6,5 hurrenez hurren). 2015 urteko errealitate horrek berretsi egiten du 2001 urteaz geroztik dagoen joera, Araban atzerritarren ehunekoa EAEkoa nahiz Bizkaia eta Gipuzkoakoa baino altuagoa dela. Bizkaiak, EAEko batez bestekoa baino ehuneko baxuagoa du, eta Gipuzkoak batez bestekoaren parekoa (%6,5). Azken urteko tasaren beherakada batik bat Araban nabarmendu da, 2012an 9,4 puntukoa izatetik 2015ean 8 puntukoa izatera jaitsi delarik. Bizkaian ere nabarmendu da jaitsierra bat, baina askoz txikiagoa, 6,5etik 5,7rako hain zuzen. Gipuzkoan berriz mantendu egin da, 2012tik 6,5 puntutan kokatzen delarik biztanleria etorkinaren portzentajea.

4.5. Grafikoa: Biztanleria atzerritarren bilakaera EAEn eta lurralde historiko bakoitzean. 1998-2015 (%)



Iturria: Ikuspegi (2015: 2).

Ikuspegik (2015: 3) immigrazioak EAEn izan duen bilakaeraren inguruan bost etapa bereizi ditzakegula ezartzen du:

1. *Hastapenak (1998-2000)*. Atzerritarren immigrazioa errealitate esanguratsu bihurtzen hasten da. Urtez urte etorkin kopuruaren gehikuntza nabarmena ematen da, 1998ean etorkinak 1.600 inguru izatetik 2000an 6.300 inguru izatera iritsi zirelarik.
2. *Finkatzea (2001-2003)*. Jada fenomeno esanguratsua bihurtzen da eta finkatu egiten da, urteroko gehikuntza errolatutako 10.000 etorkin berriren inguruan ezartzen delarik.
3. *Areagotzea (2004-2008)*. Hazkunde handienak fase honetan ematen dira. Estatu mailan bezala, gehikuntzarik nabarmenena 2007tik 2008ra bitartean ematen da EAEn, 18.813 etorkin berri gehiago errolatzen direlarik.

4. *Krisiaren eragina (2009-2012)*. 2009-tik aurrera etorkin berriek etorriz jarraitzen badute ere kopuruak askoz txikiagoak dira. Estatu mailan bezalaxe, EAEen ere 2007 erdian hasitako krisi ekonomikoak eragin itzela izan du biztanleria osoaren bizi baldintzetan eta bereziki etorkinengan. Hala ere, immigrazioak gora egiten jarraitu zuen 2009-2011 bitartean, eta migrazio-fenomenoaren aldia hasi zeneko maila berera heldu zen; hau da, 5.000 erroldatze berri baino gehiago izatera.
5. *Krisiaren ondorioen finkatzea (2013-2015)*. 15 urte pasa ostean lehendabiziko aldiz etorkinen kopurua jaisten hasi da. 2013an, lehen aldiz, nazionalitate atzerritarreko 3.017 pertsona gutxiago zeuden, hau da, %2ko murrizketa izan zen; jaitsiera hori 2014an beste 7.561 pertsonekin (-%5,1) eta 2015ean beste 3.919rekin areagotu zen, eta guztira %2,8ko murrizketa izan zen.

Azken finean, bi fase handi izan dira, lehenabizikoa ekonomia-hazkundeari lotua, atzerritar biztanleria etengabe eta nabarmen hazi zenekoa; eta bigarrena, krisialdi ekonomikoari lotua, kolektibo horren hazkundera nabarmen geldotu eta 2013. urtetik aurrera kopurua murrizten hasi zenekoa.

Beraz, estatutik autonomia erkidegora desberdintasunak badaude ere, orokorrean emigrazio herrialde izatetik immigrazio jasotzaile izatera pasa direla esan daiteke. Eta EAE barne migrazioen hartzaile ere izan bada, doktoradutza tesi honen subjektuak diren IKEDAM ohien etorrera kanpo migrazio internazionalen baitan kokatuko litzateke.

V. KAPITULUA: SUBJEKTU MIGRATORIO BERRI BATEN AGERPENA: INOREN KARGURA EZ DAUDEN ADINGABE MIGRATZAILEAK

Migrazio internazionalen baitan, bizitza hobeago baten bila beste herrialde batetara bakarrik emigratzeko erabakia hartu duten adingabe atzerritarrak agertu dira mapa migratorioan; aurkezten duten egoerarengatik herrialde hartzaileek Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe Migratzaile (IKEDAM) izendatu dituztenak. Ez da soilik espainiar estatuan agertzen den gertakaria, herrialde txiro eta aberatsen arteko muga agertzen den beste puntu geografiko batzuetan ere gertatu baita (Quiroga et al., 2010). Europako kasuari dagokionean Frantzia, Italia edo Ingalaterra aipa daitezke fenomeno berberaren hartzaile gisa. Europatik at Hego eta Ipar Amerikaren artean ere gertatu da, Mexikotik Estatu Batuetarako frontera pasa dute zenbait gaztek; eta baita Hego Amerikako zenbait herrialdetan ere, hala nola Argentina izan da halako subjektuen jasotzaile. Beste leku batzuetan ere presente dagoen errealitatea izanik, fenomeno global batetaz hitz egiten ariko ginatekeela esan daiteke (Quiroga et al., 2010).

Orokorragoa den migrazio fenomenoaren baitan kokatzen bada ere, zenbaitek besteengandik ezberdintzen den migrazio tipologia berezi gisa definitu dute. Suarez-ek (2006) dioenez IKEDAMek aktore migratorio berri bat eratuko lukete, motibazio eta helburu propioak dituenak. Adin taldeetan oinarritutako solidaritatezko sare trasnazionalen sorkuntzak, lan munduan txertatzeko modu propioak edo zeinu identitarioen araberrako autoerrepresentazioak ezaugarrituko luke.

Hori dela eta, Jimenez-en (2005) arabera adingabe hauek migrazio fenomeno internazionalaren baitako laugarren etapa bat xedatuko lukete. Lehendabizikoa, bakarrik zetozen gizonek eratuko zuten; bigarrena, horien emazte eta haurren berriz elkartzeek; hirugarrena, bakarrik zetozen emakumeek; eta azkenik, laugarrena, euren familiak jatorrian utzita bakarrik emigratu duten adingabeko pertsonak. Quiroga et al.-ek (2010), patroi ezberdinduaren ideia partekatuz, desberdintasun hori definituko lukeen faktore nagusia adin talde

zehatz batekoak izatea litzatekeela diote, hau da, nerabezaro eta/edo gaztaroari dagokion etapan aurkitzea.

Doktoradutza tesi honen subjektuak izanik, jarraian IKEDAM ohiak definitzeko ahalegina egingo da, horiek Espainia zein EAE mailan agertu duten bilakaera, dimentsio eta perfil soziodemografikoak aztertuko dira, emigratzera bultzatzen dituzten arrazoiak aztertuko dira, eta azkenik, adin nagusitasuna betetzean aurkezten duten kalteberatasun egoera eta horien emantzipazio prozesuak errazteko EAeko lurralde historikoetan eskuragarri dauden baliabideak ikertuko dira.

5.1. IKEDAMak definitzeko ahalegina

Testuinguru europarrean *Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen* fenomeno migratorioa bezala ezagutzen dena, 1980 eta 1990 urteen bitartean agertzen da (Quiroga, Alonso eta Armengol, 2005; Quiroga, Alonso eta Sòria, 2009, 2010, 2011; Senovilla, 2007). Adingabeen migrazioak betidanik eman izan dira, bai Europan eta bai mundu osoan, baina 1989ra arte ez da ikuspegi protekzionistarik garatzen. Aipaturiko urtean ordea, Nazio Batuen Batzar Orokorrak Haurren Eskubideen inguruko Hitzarmena onartzen du eta horrenbestez euren eskubideak unibertsalizatzen dira, adin txikiko pertsona guztiak babestea eta horretarako eskumena duten erakundeen zaintzapean jartzea ezinbestekotzat jotzen delarik. Testuinguru horretan hasten da beraz beste herrialde batzuetatik bakarrik datozen adingabeen inguruko kezka.

Haur eta gazte hauek izendatzerako orduan arazoak sortzen dira, ez baitago definizio zehatz eta amankomunik. Erreferente heldurik gabe europarantz emigratzen zuten gazteen kopurua gehitzen ari zela ikusita, Europar Batasuneko Kontseiluak, 1997ko ekainaren 26ko 97/C 221/03 ebazpenean, *Inoren Kargura ez dauden Adingabe* (IKEDA) gisa izendatzen ditu, eta ondorengo moduan definitzen ditu 1.1 artikuluan:

Third-country nationals below the age of eighteen, who arrive on the territory of the Member States unaccompanied by an adult responsible for them whether by law or custom, and for as long as they are not effectively in the care of such a person. [...] (Or) minors who are nationals of third countries and who are left unaccompanied after they have entered the territory of the Member States.

Estatu kideetako lurraldera eurretaz arduratuko den heldurik gabe iristen diren hirugarren herrialdeetako 18 urtetik beherako adingabeak; edota behin estatu kideetako lurraldetan sartu ondoren, bakarrik uzten direnak izango lirateke beraz *Inoren Kargura ez dauden Adingabe* ebazpen horren arabera. Urte berean, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioak (United Nations High Commission for Refugees, UNHCR), ondorengo moduan definitzen ditu:

Jatorrizko herrialdetik kanpo dauden eta bi gurasoekin edota legez edo ohituraz ardurapean dituen pertsonarekin ez dauden 18 urtetik beherako haur eta nerabeak. Adingabe horietako zenbaitzuk bakarrik daude erabat, eta beste batzuk, berriz, senitartekoren batekin bizi dira. Zenbait kasutan, inoren kargura ez dauden adingabeek asiloa eskatu dute, jatorrizko herrialdean jasan lezaketan jazarpenaren, giza eskubideak urratzearen aurrean babesik ezaren, gatazka armatuen edota istilu larrien beldur direlako. Beste zenbait kasutan, horietako zenbaitzuk trafikoaren edo beste esplotazio motaren baten biktimak izan dira, edo pobrezia latzeko egoeretatik ihes eginez joan dira Europara. Adingabe horietako askok esperientzia beldurgarriak jasan dituzte eta berealdiko gogortasuneko egoeretatik bizirik irten dira (Quroga et al., 2009: 31).

Geroago UNHCR eta Save The Children erakundeak kontzeptua berdefinitu beharra zegoela adierazi zuten. Horrela, 1999an Separated Children in Europe izeneko proiektua martxan jarri zen, euskaraz *Adingabe Bananduak European* litzatekeena, eta ohitura onen adierazpena burutu zuten (Save the Children eta UNHCR, 2004). Bertan *Adingabe banandu* izendapena proposatzen zen haur hauek izendatzerako orduan. Aipaturiko erakundeon iritziz, termino berriak hobeto islatzen zuten haur eta nerabe etorkinen egoera, euren gurasoen edo tutore legalen babesik gabe aurkitzen baitira, horiengandik eta baita euren jatorrizko kulturarengandik ere bananduta. Batzuetan haur banandu hauek guztiz bakarrik datoz Europako herrialdeetara, beste zenbaitetan berriz erreferente heldu batekin etor daitezke, baina askotan pertsona horiek ez dira haur edo nerabe horiek zaindu eta babesteko egokienak. Definizio berri honek, Europara emigratzen duten haurren kolektiboaren baitan aurkitzen den heterogeneitatea aditzera eramaten zuten. Hala ere, aipatzekoa da gaztelaniazko itzulpenean *Menores no acompañados* gisa definitzen direla haur eta gazte hauek, eta ez *Menores separados* izendapenaren bitartez.

Europa mailan herrialde ezberdinek izendapen ezberdinak erabiltzen dituzte, biztanleriaren mugimenduak ulertzeko tradizio politiko ezberdinak dituztelako besteak beste. CON RED proiektuan (Quiroga et al., 2005: 27) aipatzen denez, terminoen artean erabiliena *Inoren Kargura ez dauden Adingabeena*

(IKEDA) da, nahiz eta termino horren lege eta gizarte konnotazioak desberdinak diren herrialde bakoitzean. IKEDA terminoa lehendabiziko izendapenen artean agertzen da Suitza, Belgika, Irlanda, Frantzia eta Espainian. Danimarkan berriz, *inoren kargura ez dagoen adingabe errefuxiatu* edota *adingabe banandu* terminoak erabili ohi dituzte; azken hori Portugalen eta Ingalaterran ere indarrean dago (Quiroga et al., 2009). Italian, berriz, *Inoren Kargura ez dagoen Adingabe Atzerritar* eta *Abandonu Egoeran dagoen Adingabe* terminoak bereizten dituzte.

Errealitate berberari erreferentzia egiteko termino ezberdinen erabilera egiten da beraz herrialde ezberdinetan, eta gehienetan baita herrialde beraren baitan ere. Estatu espainolean autore ezberdinek termino eta izendapen ezberdinak erabiltzen dituzte, hala nola, *Inoren Kargura ez dauden Adingabe Atzerritar Agiri gabeak*¹⁴ (Capdevila eta Ferrer, 2003); *Inoren Kargura ez dauden Adingabe Immigranteak*¹⁵ (Bermúdez, 2004); edota gehien erabilia izan den *Inoren Kargura ez dauden Adingabe Atzerritarrak*¹⁶ (Ararteko, 2005; Bravo et al., 2010; Giménez eta Suarez, 2000; Senovilla, 2007; Unicef eta CGAE, 2009).

Kolektibo honekin lan egiten duten zenbait profesionalek nahiago dute ez erabiltzea *no acompañados* edo *inoren kargura ez dauden* terminoa, gazte hauek ez daudelako zentzu zorrotzean inor gabe, nahiz eta gehienetan laguntzen dituzten pertsonak ez diren euren familia sareko kideak (EDE Fundazioa, 2012). Hori dela eta *erreferente familiar heldurik gabeko adingabe migratzaile* izendapena erabiltzeko hautua egin dute, gazte horien errealitatea hobeto isladatzen duela irizten diotelako. Izan ere, harrera gizartean erreferentzia familiarrik ez dute, baina gizarte ekimen solidarioetako beste pertsona heldu batzuen erreferentzia izan dezakete, edo euren moduan etorri diren beste kide batzuen.

Zaila da beraz gazte hauen errealitatea bere osotasunean jasotzen duen termino bat bilatzea, ezinezkoa agian; izan ere, gazte bakoitza ezberdina da, familia ezberdinetik dator, migrazio prozesu propioarekin eta harrera gizartean aurkitu duena ere ezberdina izan daiteke edo ezberdin sentitu dezake. Hala eta guztiz, eta modu batetara izendatzeko asmoz, tesi honetan Quiroga et al.-ek (2005, 2009, 2010 eta 2011) planteatutako eta erabilitako *Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe*

¹⁴ Gaztelera *Menores Extranjeros Indocumentados No Acompañados* (MEINA).

¹⁵ Gaztelera *Menores Inmigrantes No Acompañados* (MINA).

¹⁶ Gaztelera *Menores Extranjeros No Acompañados* (MENA).

Migratzaile (IKEDAM)¹⁷ terminoaren erabilera hobetsiko da haur eta nerabe migratzaileak izendatzerako orduan, kasu bakoitza ezberdina izanik ere orokorrean kolektibo gisa erakusten dituzten ezaugarri orokorrak ongien barne hartzen dituen izendapena dela ulertzen delako.

Inoren kargura ez dauden gazteak direla ulertzen dute, euren kargu egiten diren erreferente heldurik ez dutelako. Hala eta guztiz, termino hau murriztailea izan daitekeela aipatzen dute autoreek, haur hauek kasuistika zabala erakusten dutelako. Errealitate konplexua da, kasuz kasu aztertu beharrekoa, baina orokorrean gazte hauen egoera definitzeko egoki izan daitekeela uste dute autoreek.

Adingabe dira, 18 urtetik beherako haur eta nerabeak direlako, legearen aurrean oraindik pertsona heldu ez direnak eta babes behar dutenak. Eta azkenik *migratzaile*, haur eta gazte hauek migrazio proiektu baten parte direlako. Ekidin egiten da emigrante (jatorritik) edo immigrante (harreratik) bezalako kontzeptuen erabilera, jatorrizko zein harrerako gizartearen arteko harremanak jarraituak direla ulertzen delako eta elkarren menpekoak. Askotan erabili izan diren IKEDA zein Adingabe banandu terminoek ez diete erreferentziarik egiten migrazio prozesuari, nahiz eta gero euren definizioan jatorrizko herrialdeetatik at dauden haurretaz ari direla aipatu. Quiroga et al.-en (2005) arabera garrantzizkoa da terminoan bertan ere migratzaile ezaugarri aditzera eramatea. Banaketa hori egiten ez bada, gazte hauek ez dira harrera gizartearen euren egoera beretsuan, familiarengandik bananduta, abandonatuta eta babesik gabe aurkitzen diren, baina emigratu ez duten adingabeekiko ezberdintzen.

Migrazio prozesuari erreferentzia egiteko terminorik egokiena *migrante* litzatekeela hobesten dute, immigrante, atzerritar edo etorkin baino kutsu neutroagoa duelako.

5.2. IKEDAMen bilakaera, dimentsioa eta perfil soziodemografikoa Espainian eta EAEn

Ez da zeregin erraza IKEDAMen errealitatearen inguruko azterketa zehatz bat burutzea dela Europa, Espainia edota EAE mailan. Nazioarteko migrazioen

¹⁷ Gazteleraz *Menores Migrantes No Acompañados* (MMNA).

fenomenoa bere osotasunean asko ikertu bada, ez da gauza bera gertatu kolektibo konkretu honekin. Biztanleria atzerritarraren inguruko estatistikak burutzen dituzten entitate desberdinek ez dituzte beti gazte etorkin hauei dagozkien datu zehatzak ematen, askotan etorkin gisa kontatzen dira, eta ez IKEDAM modura. Europako kasuan ez dago horiei harrera emateko prozedura amankomunik, herrialde batzuetan etorkin irregular gisa sartzen dira, Espainia edo Italia kasu; beste zenbaitetan berriz asilo eskatzaile gisa, hala nola, Portugal, Frantzia, Belgika, Suitza edo Danimarkan (Quiroga, Alonso eta Armengol, 2005). Guzti horrek zaildu egiten du horien kontaketa zehatza.

Euren bilakaera, dimentsioari eta perfil soziodemografikoari dagokionez datu gabezia nabariagoa da estatu mailan EAEn baino. Estatuan datuak biltzeko zailtasunak daude, organismo edo instituzio bakoitzak irizpide ezberdinak erabiltzen dituelako, askotan bat ez datozenak, horrek datuen erabilera eta konparaketa oztopatzen duelarik (Quiroga, Alonso eta Sòria, 2010; 2011). Quiroga, Alonso eta Sòria-ak (2010) estatu mailan kolektibo honen inguruko datuak lortu eta sistematizatzeko beharraz hitz egiten dute, inplikatura dauden instituzio guztiek erregistro bera partekatu beharko luketelarik, kriterio berdinak jarraituz. Errealitatea ordea gomendio horretatik urrun aurkitzen da.

Azkenik, kontutan izan behar dugu kolektibo honen inguruan bildutako datuek gizarte zerbitzuek detektatu dituztenen isla soila ematen digutela, aldiz baliteke kaleko bizitzan murgilduta dauden eta ondorioz babesik gabe aurkitzen diren zenbait IKEDAM detektatu gabe geratzea. (Quiroga, Alonso eta Sòria, 2010). Beraz argi geratzen da eskura ditugun datuak mugatuak direla eta gutxi gorabeherakotzat hartu behar direla.

EAE mailan IKEDAMen inguruko datuak biltzea zertxo bait errazagoa da, estatu mailan kolektibo honen inguruko datu gehien eskaintzen dituen autonomia erkidegoetariko bat baita. Arartekoren lana oso azpimarragarria da, urtero Eusko Legebiltzarrarentzat burutzen duen txostenean adingabe etorkin hauen errealitateari atal bat eskaini izan dio, eta azken 5 urteetan, 2010etik hasita, haurtzaro eta nerabezaroaren bulegoak aparteko txosten bat kaleratzen du adingabeen egoerak azaltzeko, bertan IKEDAMen errealitatea sakon lantzen delarik. Horrez gain txosten bereziak ere burutzen ditu, 2005ean espreski IKEDAMen kolektiboari zegokiona burutu zuen, 2011an berriz haurtzaro

hauskorrari buruzkoa. Azkenik kolektibo honen inguruko beste zenbait ikerketa ere subentzionatu ditu entitate honek. Hori dela eta, EAeko kasuak IKEDAMen errealitatera gerturapen zehatzago bat egiteko aukera ematen du, hala eta guztiz zailtasunek hor jarraitzen dute.


5.2.1. Espainian

Eskura ditugun datuen arabera, lehendabiziko IKEDAMA 1993an zenbatu zen (5.1. Grafikoa). 1994tik halako IKEDAMen harrerak orokorrean gora egiten duela ikusten da, hala ere gorakada hori ez da uniforme eta konstantea. Grafikoan ikus daitekeen modura 1997an apur bat jaitsi egiten da, berriro gora egiten du ordea 2004 arte. Urte horretan beherakada esanguratsua ematen da¹⁸, baina geroztik kopurua hazi egiten da berriro ere. Abegi emandako adingabe etorkinen hazkunderik handiena 2008an erregistratzen da, 2009an apur bat jaitsi egiten da, baina kopuruak oraindik 2007koa baino handiagoa izaten jarraitzen du¹⁹. Gorabehera batzuk eman diren arren, 15 urte pasa ostean IKEDAMen fenomenoak Espainian mantendu eta finkatu egin dela esan daiteke (Quiroga, Alonso eta Sòria, 2011), nahiz eta baieztapen hori egiteko azken urteetako datuak beharrezkoa liratekeen.

¹⁸ 2004an, IKEDAMEi buruzko datuak biltzeko eskumena Barne Ministeriotik Lan eta Gizarte Gaien Ministeriora pasatu zen, ondorioz bederatzi komunitate autonomok eta bi hiri autonomikok ez zuzten ez urte hartako ezta 2005eko daturik eman (Kanariak, Madril, Ceuta, Melilla, Gaztela Mantxa, Kantrabia, Extremadura, Balearak, Asturias, Errioxa eta Nafarroa) (Quiroga et al., 2011)

¹⁹ Estatu mailan eskura ditugun datuak 2009 artekoak dira, ez dago berriagorik. Violeta Quiroga (Espainia mailan IKEDAMen fenomenoak gehien landu duen antropologoetariko bat) eta bere lankideek 2011an eskatu bazituzten ere Gobernu aldaketarekin ezinezkoa izan zen horiek eskuratzea. (Elkarrizketa pertsonal batetik lortutako informazioa).

5.1. Grafikoa: Espainian abegi emandako IKEDAM kopuruaren bilakaera. 1993-2009 (datu absolutuak)



Iturria: Quiroga, Alonso eta Sòria, 2011: 179.

Perfil soziodemografikoari buruzko datuak ere nahiko zaharkituak geratu dira (5.1. Taula). Jatorriari dagokionez, fenomenoaren hasieratik IKEDAM gehienak Afrika iparraldetik etorri dira, batik bat Magreb-etik eta bereziki Marokotik. 2008 eta 2009an harrera emandako IKEDAM gehienak Marokoarrak ziren, %64a lehendabiziko urtean eta %70a bigarrenengoan. Bigarren jatorri ohikoena Mali zen, %6 eta %10eko balioekin. Hirugarren postuan Errumania aurkitzen zen %5,5 balioarekin 2008rako, baina hurrengo urtean ez da jatorri horretako IKEDAM berririk erregistratzen. 2009an Senegaldarren igoera nabarmentzen da, aurreko urtean jatorri horretakoak %2,7 baino ez baziren, 2009an %9ra igo zen kopurua. Aljeria eta Guinea Konakry bezalako jatorriak ere nabarmentzen dira, kopuruak askoz baxuagoak badira ere, %2-3 bitartekoak hain zuzen. Beste jatorri batzuetako pertsonen kopurua ere esanguratsua da, %11 2008an eta %6 2009an.

5.1. Taula: Espainian dauden IKEDAMen jatorria. 2008 eta 2009 (%)

	2008	2009
Aljeria	2,6	3
Errumania	5,5	
Gambia	1,3	
Ghana	1,9	
Guinea Conakry	3	2
Mali	6,3	10
Maroko	63,6	70
Mauritania	2,1	
Senegal	2,7	9
Besteak	10,9	6

Iturria: Quiroga, Alonso eta Sòria, 2011: 183.

Berez IKEDAMen inguruko datuak biltzeko zailtasunak badaude, sexuari buruzko datuak ere zailagoak dira lortzeko. Espainia mailan hiru autonomia erkidegok soilik ahalbidetu zituzte sexuari buruzko datuak: Kataluniak, Valentziar Komunitateak eta EAEk. IKEDAM berri gehien jaso eta abegi ematen dieten komunitateak dira hain zuzen (Quiroga, Alonso eta Sòria, 2011). Datuak 2006koak dira, izan ere aipaturiko lekuetan ez dago urte guztiei dagokion informazioa, ez delako ahalbidetu edo datuak ez direlako konparagarriak, ondorioz ezin da sexuaren araberrako bilakaerarik egin. 5.2. Taulak erakusten duen moduan, 2006an sexu maskulinoko IKEDAMek gehiengo esanguratsu bat osatzen zuten, batik bat EAEn kasuan (%99). Katalunia eta Valentziar Komunitatean nesken kopurua esanguratsuagoa zen, %8a eta %14a urrenez urren. Hala eta guztiz, ehunekoek argi erakusten dute gehiengo mutilak direla.

5.2. Taula: Espainiako hiru autonomia erkidegotan dauden IKEDAMen sexua. 2006 (%)

	Mutilak	Neskak
Katalunia	91,6	8,4
Valentziar komunitatea	86,2	13,8
EAE	98,8	1,2

Iturria: Quiroga, Alonso eta Sòria, 2011: 185.

Adina zehazterakoan ere zailtasunak aurkitzen dira, baina orokorrean esan daiteke gehiengoa adin nagusitasunetik gertu aurkitzen dela, 16-17 urte bitartekoak izan ohi dira. Hala ere, fenomenoaren hasieratik 2009 ingurura arte adinaren murriztapen bat nabaritu zen, 13 eta 15 urte bitartean iristen zirenen kasuak gehituz joan zirelarik, eta 13 urtetik beherakoren batzuk ere hauteman ziren (Quiroga, Alonso eta Sòria, 2011).

5.2.2. Euskal Autonomia Erkidegoan

IKEDAM gehien jaso dituzten autonomia erkidegoen artean aurkitzen da EAE. Andaluzia izan da harrera herrialde nagusia, 1993 eta 2009 bitartean abegi emandakoen %28a biltzen duelarik (Quiroga, Alonso eta Sòria, 2011). Valentziar komunitateak jarraitzen dio %16ari²⁰ abegi eman diolarik, Kataluniak %11ari, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Kanariak %10ari eta Madrilek %4ari. Eta daturik berrienei erreparatu ezker, 2008an IKEDAM berri gehien jaso zituzten komunitate autonomoak EAE (%19arekin), Valentziar Komunitatea (%16), Kanariak (%16) eta Ceuta (%15) izan ziren. 2009an egoera apur bat aldatzen zen baina etorkin adingabe berri gehien jaso zituzten autonomia erkidegoak berdinak izaten jarraitzen zuten. Urte horretan lehendabiziko postua Valentziar Komunitateak erakusten zuen, IKEDAMen %19arekin, EAEk (%15), Andaluziak (%14), Ceutak (%12) eta Kanariak (%10) jarraitzen ziotelarik.

EAEko egoera berezia da, izan ere ez da Andaluzia edo Kanarien kasuan gertatzen den moduan mugako herrialdea, eta horrenbestez etorkinak ez dira hasieratik bertara iristen; eta ez du Madril edo Bartzelona gisako hiriburu handirik ere, non IKEDAM kopuru handiago bat aurkitzea errazagoa izan daitekeen. Etorri diren etorkin adingabeak espresuki etorri dira. Hain zuzen, azken urte horietan (2008, 2009), EAE haurtzaroaren babesean baldintzarik egokienak izateagatik adingabeengandik errekonozitutako komunitate autonomoa zen (Quiroga, Alonso eta Sòria, 2011). Horrek Espainiako beste leku batzuetan aurkitzen ziren IKEDAMak EAera mugitzea eragiten zuen, baita jatorrizko herrialdetik zuzenean


²⁰ Valentziar Komunitateko datuak ez dira errealak, izan ere, norbaiten kargura dauden adingabe migratzaileak ere kontabilizatu egiten dira IKEDAMekin batera. Gizarte Ongizateko Kontseilaritzak pisurik handiena IKEDAMena dela baieztatzen badu ere, datuak gutxi gorabeherakoak dira eta ez oso konparagarriak (Quiroga, et al., 2011: 180).

gazte etorkin gehiago etortzea ere, adingabe eta helduen migrazio sareetan zabaltzen ziren zurrumurruegatik. Beraz, immigrazio fenomeno orokorrak estatuko mailakoarekin alderatuz inpaktu txikia izan duela ikusi badugu ere, IKEDAMen fenomeno oso esanguratsua izan da EAEn.

Hala eta guztiz, 5.2. Grafikoari erreparatzen badiogu, gure lurraldera heltzen diren adingabe atzerritarren kopurua jaisten ari da 2008. urteaz geroztik (2012an pixka bat gora egin bazuen ere, gorakada hori jada berdinduta dago) eta urte hartan iritsi zirenen ia erdiak heldu dira 2014an. Alabaina, ezberdintasunak daude lurralde historikoen artean. IKEDAMen fenomeno jasotzen lehendabizikoa Bizkaia izan bazen ere (Ararteko, 2005), azken urteetan beherakadarik nabarmenena jaso duen lurralde historikoa litzateke. 1996 urtean erregistratu ziren lehendabiziko adingabe etorkinak lurralde historiko horretan. Ordutik aurrera adingabe atzerritar berrien kopuruak goraka jarraitu zuen, baina 2000. urtera arte kopuruak txikiak ziren. 2001ean eztanda eman zen, 2000ko 52 IKEDAMekin konparatuz 349 erregistratu zirelarik. Orduz geroztik, gora beherak izan baziren ere, joera goranzkoa izan zen, maila gorena 2006an lortu zelarik 471 gazterekin. 2007tik aurrera berriz, joera orokorra beheranzkoa izan da, 2014an 208 erregistratu zirelarik, 2006ko kopuruaren erdia baino gutxiago. Argi dago beraz, migrazio fenomeno orokorrari bezalaxe IKEDAMei ere eragin diela krisi ekonomikoak.

Araba eta Gipuzkoan fenomeno beranduago nabarmendu zen eta kopuruak ere Bizkaiakoak baino txikiagoak izan dira beti. Kopuru baxuenak Araban aurkitzen ditugu, Gipuzkoan altuxeagoak. Bietan abegi emandako IKEDAM berrien kopuru altuenak 2008. urtean erregistratzen dira, 141 eta 225 gazterekin urrenez urren. Hortik aurrera, joera nagusia beheranzkoa izan da, Gipuzkoako kasuan izan ezik, izan ere, azken 3 urteetan hazkuntza txikiak ikusi dira etorreretan, aurreko 3 urtetan (2009, 2010, 2011) gutxituz joan ondoren.

5.2. Grafikoa: Haurtzaroko gizarte zerbitzuek abegi emandako IKEDAM berrien bilakaera. 2004-2015 (datu absolutuak)




Iturria: Ararteko, 2015: 43.

Zifra horiek, babesik gabeko haurrentzako Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuek urte osoan zehar abegi emandako mutiko (eta zenbait neskatu) berrien inguruko informazioa ematen digute, baina ez da zehazten zenbat denbora egoten edo egon diren zerbitzu horien tutoretzapean edo berehalako zaintzapean. Bizkaia eta Gipuzkoan esaterako, lehen harrerako zentroetan edo larrialdietako harrerazentroetan egun bat edo egun gutxi egoten diren adingabeak dezente ugaritu direla ikusi dute azken urteetan, Europako beste herrialde batzuetarako bidean geldialdia egiteko soilik gelditzen direlark (Ararteko, 2015). Adingabeen mugikortasuna hazi egin dela ikusi dute, zentroetan epe laburrerako berriz sartuz eta aldi baterako egonaldiak eginez.

Mugikortasun horri aurre egiteko, urteko une jakin batetan egoitza baliabideetan dauden mutikoen kopurua kontutan hartzen du Arartekoak (2015), hain zuzen ere abenduaren 31an abegi emanda daudenenak (5.3. Grafikoa). Kopuruari dagokionez, alde nabarmena dago urtean zehar iritsi diren adingabeen

eta data horretan egoitzetan hartuta zeudenen artean. Hurrengo grafikoan ikusten denez, egoitza-baliabideetan dauden adingabe atzerritarren kopuruak ere beheranzko joera izan du 2009az geroztik, heren bat gutxitu baita (654tik 226ra) okupaziorik handieneko urtean (2008) hartuta zeuden adingabeekin alderatuz. Jaitsiera horren atzean arrazoi bikoitza aurkitzen dugu: 1) behera egin du sarrerren kopuruak eta, lehen aipatu bezala, egonaldiak aldi baterakoak izan dira; 2) horrez gain, aurreko urteetan sartu ziren batzuek emantzipatzeko aukera izan dute.

5.3. Grafikoa: Haurtzaroko gizarte zerbitzuek abenduaren 31an abegi emandako IKEDAMen bilakaera. 2005-2014 (datu absolutuak)




Iturria: Ararteko, 2015: 44.

IKEDAMen perfila deskribatzerako orduan eskura ditugun datuak zaharragoak dira, 2006 eta 2007 bitartean bildutakoak hain zuzen, baina errealitatearen gutxi gorabeherako ideia bat egiteko balio digute. Erabiltzen dugun iturriaren arabera datuak apur bat aldatu egin daitezke, baina guztiek antzeko errealitatea islatzen dute, eta EAEn aurkitzen diren gazte etorkinek Espainiakoen antzeko perfilak aurkezten dituztela ikusten da. IKEDAMen perfilaren inguruko informazioa ahalbidetzen duten txosten berrienak Gonzalo, Jiménez eta

Vozmediano-k (2010) 2006 eta 2007an bildutako datuak erabiliz eta Quiroga, Alonso eta Sòria-k (2009) 2007ko datuekin burututakoak dira. Jatorriari dagokionez, bietan adin txikiko atzerritarren gehiengoa Marokotik datozela azpimarratzen da, batik bat Bizkaia eta Gipuzkoan, ez horrenbeste Araban (Quiroga, Alonso eta Sòria, 2009; Gonzalo, Jiménez eta Vozmediano, 2010).

5.4. Grafikoa: EAEko lehen harrerako zentroetan abegi emandako IKEDAMen jatorria. 1996-2007



Iturria: Quiroga, Alonso eta Sòria, 2009: 76.

EAEn 1996 eta 2007 bitartean jaso diren IKEDAM guztiak kontutan hartzen baditugu argi ikusten da gehiengo handi bat marokotarrak direla, 5.4. Grafikoan nabarmen ikus daitekeen modura. Daturik berrienak soilik aztertzen baditugu (5.3. Taula) errealitateak antzekoa izaten jarraitzen duela ikusten dugu, gehiengo nagusi bat Marokotikoa zen 2006 eta 2007 denboraldian bildutako datuen arabera (%78), bigarren jatorri ohikoena Errumania zen (%5), horien tasa Marokotikoen alderatuz oso txikia izanik ere.

5.3. Taula: IKEDAMen banaketa lurralde historiko eta nazionalitatearen arabera. 2006-2007

	Gipuzkoa	Bizkaia	Araba	EAE
Aljeriarra	4,5	3,3	4,2	3,6
Brasildarra	1,5			0,3
Kamerundarra	1,5	1,3		1,2
Errumaniarra	9,1	4,2		4,9
Errusiarra	1,5			0,3
Ghanatarra		3,3	12,5	3,3
Guinearra			25	1,8
Italiarra		0,4		0,3
Maltatarra		0,4		0,3
Bolikostarra	1,5		4,2	0,6
Marokoarra	72,7	83,3	41,7	78,1
Moldaviarra		1,3		0,9
Pakistandarra		0,4		0,3
Palestinarra	1,5			0,3
Sahararra	1,5	0,4	12,5	1,5
Senegaldarra	3	0,8		1,2
Ezezaguna	1,5	0,8		0,9

Iturria: Gonzalo, Jiménez eta Vozmediano, 2010: 39.

Lurralde historikoen artean ezberdintasunak agertzen dira. Bizkaia da marokoarren tasarik altuena erakusten duena, horiek lurralde historikoan aurkitzen diren IKEDAM guztien %83a eratzen dutelarik. Errumaniarrek jarraitzen diete, baina EAEko kasuan bezala askoz tasa txikiagoa aurkezten dute azken horiek, %4. Gipuzkoan marokoarren zenbatekoa ez da Bizkaian adinakoa, baina oso esanguratsua izaten jarraitzen du, ia %73koa hain zuzen. Bertan Errumaniarrek proportzio altuxeagoa erakusten dute (%9), eta Argelia eta Senegalekoen tasak ere nabarmenak dira, %4,5 eta %3 urrenez urren. Kasu desberdinena Arabak erakusten du, lurralde historiko horretan jatorriak sakabanatuagoak agertzen zaizkigu. Bertan ere Maroko nagusitzen da lehendabiziko jatorri gisa, baina tasa esanguratsua izanik ere Bizkaia eta Gipuzkoakoa baino askoz baxuagoa da, %42koa hain zuzen. Bigarren jatorri gisa Guinea agertzen zaigu, oso tasa esanguratsuarekin, %25, eta ez Errumania beste bi lurralde historikoetan gertatzen den bezala. Ghana eta Saharak ere %12,5eko tasa erakusten zuten.

Sexuari dagokionez, jada estatuko atalean ikusi dugun modura EAEn aurkitzen diren IKEDAMen gehiengo nagusia mutilak dira eta neskek gutxiengo bat osatzen dute. Erabilitako iturrien arabera ezberdintasunak daude, Quiroga, Alonso eta Sòria-ri (2011) jarraitzen badiegu 2006an mutilek %99a eta neskek %1a eratzen dutela ikusten dugu (5.2. Taula). Gonzalo, Jiménez, Vozmediano-k (2010) eskuragai jartzen dituzten datuen arabera berriz 2006 eta 2007 bitartean mutilen ehunekoa %96koa litzateke, neskena aldiz %4koa. Ezberdintasunak ordea ez dira nabarmenegiak, eta orokorrean mutilak modu nabarian gailentzen direla ikusten dugu. Eredu hori komunitate autonomoan ez-ezik lurralde historiko bakoitzean ere betetzen da 5.4. Taulan ikus dezakegunez.

5.4. Taula: IKEDAMen banaketa lurralde historiko eta sexuaren arabera. 2006-2007 (%)

	Gipuzkoa	Bizkaia	Araba
Mutilak	95,5	96,2	95,8
Neskak	4,5	3,8	4,2

Iturria: Gonzalo, Jiménez eta Vozmediano, 2010: 37.

Azkenik, eta jada estatuko perfilak zehazterakoan aipatu dugun moduan, ez da erraza IKEDAMen adina xedatzea. Existitzen diren zailtasunez jabetuta ere Gonzalo, Jiménez eta Vozmediano-k (2010) 2006-2007 denbora tartean ikertutako gazte etorkinen gehiengoa 12 eta 18 urteren bitartean kokatzen zirela estimatzen dute, eta batzbestekoa 16,1ean kokatzen dute. Quiroga, Alonso eta Sòria-ak (2011) informazio zehatzagoa aurkezten dute, 5.5. Taulan ikus daitekeen moduan. Bertako datuei erreparatuz, 2007an Araba eta Bizkaian IKEDAMen %69a 16 eta 17 urte bitartean kokatzen zen. Gipuzkoan ere gehiengoa adin tarte horretan kokatzen zen, baina portzentaia txikiagoa zen, %51ekoa hain zuzen. Azken lurralde historikoan 12 eta 15 urte bitartean kokatzen zirenen kopurua ere esanguratsua zen, %45a eratzen zutelarik.

5.5. Taula: Araba eta Gipuzkoan 2007an abegi emandako eta Bizkaian 2007ko abenduaren 31an abegi emanda zeuden IKEDAMen adina (datu absolutuak)

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
11 urte			0,7
12 urte		3,8	0,9
13 urte		7,7	3,7
14 urte		11,5	5,7
15 urte	3,1	22,4	19,2
16 urte	18,5	20,5	36
17 urte	50,8	30,1	32,5
Adin nagusikoak	9,2	3,8	1,1
Ezezaguna	18,5		0,2

Fuente: Quiroga, Alonso y Sòria, 2009: 72.

5.3. IKEDAMen emigrazio arrazoiak

Europa mailan IKEDAMen fenomenoak asilo eskaerari lotuta agertzen da orokorrean. Hori erakusten dute Suedia, Alemania edo Ingalaterrak, besteak beste. Aldiz joera horretatik at geratzen dira Italia, Espainia eta neurri txikiagoan Frantzia (Senovilla, 2007). Azken herrialde hauetan faktore ekonomikoa ageri da fenomenoaren azalpen nagusi gisa.

Moreno-k (2012) aipatzen duten modura, azken herrialde horietan *atzeko atetik* burutzen diren fluxu migratorioak gertatzen ariko lirateke. Atzerritartasun legediak horien sarbidean ezartzen dituen zailtasunak direla eta, zenbait kasutan, izaera familiarreko prozesu migratorioak adingabekoaren lekualdatzearen bidez ari dira gauzatzen, familiako buruak emigratu beharrean. Adin txikikoak proiektu hori gauzatzeko erraztasun gehiago izango ditu legediaren aldetik babesa jasoko duela, eta gerora, familia osoaren proiektu migratorioa ahalbidetu ahal izango du.

Zentzu horretan, zenbait ikerketa enpirikok Espainian aurkitzen diren IKEDAMen emigrazio arrazoiak azaleratu dituzte. Ikerketen artean Quiroga, Alonso eta Sòria-k (2010) burututakoa litzateke esanguratsuena. Autoreen arabera, gazte hauek emigratzera bultzatzen dituzten arrazoiak anitzak dira eta askotan adingabe berarengan zergati, motibazio eta egoera pertsonal desberdinen konbinazio bat aurki daitekeela diote. Baina orokorrean, horretara bultzatzen

dituzten 4 arrazoi nagusi aipatzen dituzte, eta horien arabera 4 perfil ezberdin bereizten dituzte:

1. Egoera ekonomikoa hobetzea helburu dutenak

Arrazoi ekonomikoak direla eta ekiten diote emigrazio prozesuari, eta IKEDAMen agerpenetik hau izan da gailendu den perfil nagusia, beraz agerian geratzen da esparru ekonomikoaren garrantzia. Ekonomikoki egoera prekarioan eta zailtasun esanguratsuekin aurkitzen diren familietatik datoz gehientsuenak, maila sozioekonomiko baxuetatik. Hori dela eta, euren emigrazio proiektuaren arrazoi nagusia hobekuntza ekonomikoa izan ohi da, hobekuntza hori pertsonala zein familiarra izan daitekeelarik. Euren jatorrizko herrialdean soldata baxuak eta lanpostu prekarioak izatea, langabezia, langile-klasearen lumpenproletarizazioa hirietan, edo biztanleriaren beharrianak asetzeko nekazaritza lanen zailtasuna izan daitezke emigratzeko erabakia hartzera motibatzen dituzten faktoreak. Egoera horren aurrean Europan jartzen dituzte esperantzak, lanpostu hobeago bat, lan baldintza eta soldata hobeak eskaintzen dizkiena aurkituko dutelakoan.

Fenomenoaren agerpenetik IKEDAMek agertzen duten ikasketa maila hobetu egin bada ere, arrazoi ekonomikoengatik emigratzen dutenek beste perfil batzuetakoek baino ikasketa eta eskolarizazio maila txikiagoak agertzen dituzte. Esperientzia laboralari dagokionez, arrazoi ekonomikoek eraginda etorri direnek jatorrian lan egin dute normalki.

2. Gizarte eta kultur aurreikuspenak hobetzea helburu dutenak

Perfil honen baitan sailkatutako adingabeek emigrazioan gizarte aurreikuspenak hobetzeko aukera ikusten dute, euren jatorrizko gizartean ezinezkoa litzatekeena. Hobekuntza horrek gehientsuenetan maila sozioekonomikoan gora egiteko desioarekin zerikusia izan ohi badu ere, gazte hauek ez dute soilik lana egin eta dirua irabaztea bilatzen. Emigrazioak beste bizi mota bat ezagutzeko aukera emango diela uste dute, ikasteko aukerak eman etab. Emigrazioa geldialdi egoera batekin amaitzeko edo jatorrizko herrialdean aurrekusten duten etorkizunari

aurre egiteko modua izan ohi da, egoera horien aurrean Europa okzidentala oparotasun eta aukera anitzeko lurralde ideal gisa ikusten dutelarik.

Aurreko perfilekoak baino maila sozioekonomiko altuagoko eta egituratuago dauden familietatik etorri ohi dira, eta ikasketa maila apur bat altuagoak izan ohi dituzte. Batik bat ikasketak burutzea izan ohi dute helburu, eta zenabitetan baita kirolek edo artetik bizitzea ere. Perfil honen baitan emigrazio desioaren atzean abentura grina ere presente egon ohi da, aurkitzen diren nerabezaro etapari dagokiona.

3. Arrazoi politikoengatik emigratzen dutenak, errefuxiatuak

Perfil honen baitako mutiko eta neskatok arrazoi politiko, etniko zein erlijiosoengatik alde egin dute jatorrizko herrialdetik, gerra edo gatazka armatuetatik ihesi. Jatorrizko herrialdean egonik bizi duten arriskua dela eta, adingabeek eurek edota euren familiek, babesa bilatzeko asmoz, kanpora joateko erabakia hartzen dute. Batzuk ejerzito edo talde armatuetan aritzea ekiditeko asmoz alde egiten dute; beste batzuk beraien gurasoak talde politikoren baten oposizioko kide izateagatik autoritateengandik errepresaliatuak izan daitezkeelako; beste zenbaitek familia kideak gerran galdu dituzte eta herrialdetik ateratzea nahi dute bizimodua atera eta jatorrizko gizartean ezinezkoa zaion etorkizun aurreikuspenak izateko, heziketa zein lanbide esparruetan (Quiroga et al., 2005 eta 2010).

Espainiako kasuan errefuxiatu gisa etorritako IKEDAM gutxi aurkitzen ditugu, eta etorri direnak nagusiki Sahara hegoaldeko Afrikatik datoz. Hala eta guztiz, Europako beste zenbait lekutan gazte hauen emigrazio arrazoi nagusia da, hala nola Danimarka, Belgika, Alemania edo Ingalaterran. Quiroga et al.-ek (2005 eta 2010) diotenez, Espainiak asilo-eskubidearen aplikazio oso murriztailea burutzen du, hori dela eta, baliteke gatazka armatu edo biolentzia politikoagatik emigratu beharrean aurkitzen diren gazteek beste norako batzuk aukeratzea, asilo-eskubidea lortzea errazagoa dena eta ondorioz babestuago egongo direna. Hori izan liteke beraz Espainian IKEDAM errefuxiatu gutxi aurkitzearen arrazoia.

4. Familia egoera korapilotsutik ihesi emigratzen dutenak

Azken perfil honetako IKEDAMek familia arrazoiengatik emigratzen dute, gatazka egoeran aurkitzen den familiatik ihesi etorri ohi dira. Emigrazioaren detonatzaileak familia edo bikote egoera konplexuek eragiten dieten nekea izan ohi da, etorkizun bat irudikatzeko aukerarik ematen ez dieten testuinguruan aurkitzea. Batzuetan gatazka liskarretatik eratortzen da, horiek ahozkoak zein fisikoak izan ahal direlarik. Beste zenbait kasutan ordea gatazka beste izaera batetakoak izan ohi da, batik bat nesken kasuan: familiak eta gazteak etxean zein esparru publikoan bereganatu behar duen rolaren inguruan dituzten idei kontrajarriak eragin dezake gatazka; edo familiak edo bikoteak pertsona horrengandik espero duena eta norberak espero duena ez datozelako bat. Halako kontraesanek nahigabea eragiten dute eta alde egiteko grina piztu.

Kasu honetan familiak astoraldi bat edo hausturaren bat bizi izan du: guraso bananduak dituzten familiak, bigarren ezkontza edo bikotekide batekin berreraikiak izan direnak edo guraso bakarreko familiak izan ohi dira. Adingabeak bere kabuz hartzen du emigratzeko erabakia, familiarekin kontsultatu gabe.

Beti ere kontutan izan beharko da arrazoi nagusiak eta perfil orokorrak horiek izanik ere, IKEDAMen baitan dibertsitate handia aurkitzen dela, eta askotan gazte berarengan perfil edo arrazoi ezberdinak ager daitezkeela.

5.4. Adin txikiko izateagatiko babes juridiko eta instituzionala

Adin txikiko etorkin hauen egoera berezia da, izan ere, Europara iristean euren etorkizuna determinatuko duen estatus juridiko bikoitzarekin aurkitzen dira: aldi berean adin txikiko pertsonak eta etorkinak dira (Gonzalo et al., 2010). Hala eta guztiz, haurtzarolari zein atzerritartasunari dagokion legediak arreta jartzen dute IKEDAMengan, eta adin txikiko diren bitartean autoritate publikoengandik babes osoa jaso beharko dutela ezartzen dute biek.

5.4.1. Haurtzaro edo adingabekoei dagokien legedia

Haur eta adingabeek jaso beharreko babesa eta eskubideak nazioarte mailako araudietatik hasi eta EAE mailarainokoen bidez arautzen dira. Maila

internazionalen aurkitzen dugun haurren eskubideei buruzko lehendabiziko bitarteko juridikoa *Ginebrako Deklarazio* izenez ezagutzen dena da. 1924an onartzen da eta 5 artikuluz eratua dago, zeintzuen bidez haurrei eskubide espezifikoa errekonozitzen zaizkien. Hala eta guztiz, batik bat helduek eurekiko duten ardura arautzen da: haurraren ongizatea, garapena, laguntza, sorospena edota babesa bermatu beharko direla.

1948an Nazio Batuek *Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala* onesten dute, inplizituki haurren eskubideak ere aintzatesten direlarik. Geroago, haurren eskubideak bereziki adierazita eta babestuta egon behar zutela ohartu, eta Nazio Batuen Batzar Orokorrak *Haurren Eskubideen Deklarazio Unibertsala* onartu zuen 1959ko Azaroaren 20an. Deklarazio honek haurra fisikoki, mentalki, sozialki, moralki edo espiritualki modu askean eta duintasunez garatu daitekeen gizaki gisa errekonozitzen zuen. Haurren babesarekiko aurrera pausua suposatu bazuen ere, 10 printzipio nagusitara mugatuta jarraitzen zuen.

Hain justu 30 beranduago lortzen da Nazio Batuek haurtzaroari dagokion hitzarmen bat onartzea, 1989ko *Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa*²¹. Haurrak gizarte-eragile eta euren eskubideen jabe aktibo gisa errekonozitzen dituen lehendabiziko nazioarteko bitartekoa da. Bere bidez, adin txikikoak babes objektu izatetik eskubideen subjektu izatera pasatzen dira, babesa euren eskubide bilakatzen delarik. Aurrekoek baino garapen maila handiagoa erakusten du, 54 artikuluk osatzen dutelarik, haur guztien eskubide ekonomiko, sozial, kultural, zibil eta politikoak biltzen dituztenak.

Esanguratsuenak aipatzearren 2. artikuluan Estatu Kideek euren jurisdikziopean dauden haur guztiengan konbentzioko eskubideak errespetatu eta euren aplikazioa bermatuko dutela aipatzen da, arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste izaera batetakoak, jatorri nazional, etniko edo soziala, posizio ekonomikoa, eragozpen fisikoak, jaiotza edo haurraren edo bere guraso zein errepresentante legalen beste edozein baldintzagatik ezberdinketarik burutu gabe. Horrela bada, EAEn aurkitzen diren IKEDAM ohiek haur autoktonoen moduko babesa jaso beharko dute, euren jatorria, kolorea edo erlijioa ezberdina

²¹ Historian zehar berrespen maila altuena lortu duen nazioarteko hitzarmena da. Gaur egun, jadanik, munduko herrialde guztiengandik berretsia izan da (193), bi salbuespenekin: Somalia eta Estatu Batuak. 1990ean onartu zuen Espainiar Gobernuak aipaturiko hitzarmena, ondorioz gaur egun funtsezko eskubidea da, eta bere urraketa salagarria.

izanik ere. 3. artikulua ere garrantzia berezia du, bertan haurraren interes gorena defendatzen baita. Gizarte ongizateko instituzio publiko edo pribatuek, tribunalek, autoritate administratiboek edo legegintza organuek haurrekiko hartzen dituzten neurri guztietan haurraren interes gorena kontutan izango dela ezartzen da.

Europa mailako legediari dagokionez 1992an onartutako *Haurraren Eskubideen Europar Gutuna* aipatu daiteke. Haurren eskubideen inguruko nazioarteko arau-testuak biltzen ditu tresna honek alde batetik; eta Ombudsman edo haurren aldeko defendatzaileak, baita gurasoen eta herri botereen betebeharrak eta erantzukizunak ezartzearen aldeko bermea egiten du bestetik.

5 urte beranduago *hirugarren herrialdeetako nazionalak diren lagundu gabeko adingabeei buruzko Europako Kontseiluaren ebazpena (1997)* sinatzen da, IKEDAMei arreta emateko jarraibideak biltzen dituen lehendabiziko araudia. Lehenago ikusi den moduan urte horretarako Espainia eta EAE IKEDAMen fenomenoaren jasotzaile izaten hasiak ziren, baita Europako zenbait herrialde ere²², horien tratamenduak nolakoa izan behar zuen arautzen zuen bitarteko juridiko baten beharra zegoelarik. Ebazpenak IKEDAMak tratatzeko jarraibideak biltzen, ditu haien harrerari, egonaldari eta itzulerari dagokionez, baita asiloa eskatzeko gauzatu beharreko izapideak ere. Funtsean, lege nazionalen arabera herrialdean adingabeei sartzen utzi edo euren jatorrizko herrialdera itzultzea erabaki dezakete Estatu kideek, beti ere euren interes gorena errespetatuz, IKEDAMen ongizaterako egokiena den erabakia hartuz. Itzultzea erabakitzen bada garrantzia guztiak betez egin beharko da, eta harrera ematea erabakitzen bada berriz bitarteko material guztietaz gozatu eta euren oinarrizko beharrianak asetzeko beharrezko zaintza izango dutela ezartzen da, hala nola, elikadura, euren adinera egokitutako ostatua, osasun instalazioak eta arreta medikoa.

Azkenik, aipatzekoa da *Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna (2000)*, izan ere, 24. artikuluan adingabeen eskubideak arautzen ditu gutun honek. Adingabeek euren ongizaterako beharrezkoak diren babes eta zaintzarako eskubidea izango dutela eta euren iritzia modu askean agertu ahal izango dutela ezartzen du. Beti adingabearen interes gorena kontutan izango dela, eta

²² CON RED proiektuan zehazten denaren arabera Europako herrialde gehienetan 1990eko hamarkadan ematen da IKEDAMen agerpena, nahiz eta herrialde ezberdinen artean ezberdintasunak hautematen diren, Danimarka, Frantzia edota Italia jadanik 1980. hamarkadaren amaieran hasten direlarik adingabe etorkinak jasotzen (Quiroga et al., 2005: 38).

gurasoekin harremanetan egoteko eskubidea izango dutela, euren interesen aurka ez badoa behintzat.

Estatu mailan, 1978ko Espainiar Konstituzioko 39.4 artikuluan haurrek nazioarteko akordioetan aurreikusitako babes eta eskubideetaz gozatzeko aukera izango dutela zehazten da. Kode Zibilaren 172. artikulua ere haurren babesari buruzkoa da, eta bertan aipatzen denez, adingabeak babesik gabe aurkitzen direnean entitate publiko eskudunak bere egin beharko du ardura hori, haurra bere tutelapean geldituko delarik. Adingabe atzerritarrak erreferentziazko pertsona heldurik gabe aurkitzen direnean, babesik gabe daudela joko da eta ondorioz erakunde eskudunaren babesa jaso beharko dute, gure kasuan foru aldundiena. Guzti hori Ministerio Fiskalaren ezagutzapean jarri beharko da.

Azkenik, *Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoa* aipatuko genuke Espainia mailako legediari dagokionean, adingabeen eskubideak eta horiek babesteko sistemaren bermeak eta printzipioak araupetzen dituen. Adingabeek Konstituzioak eta Espainiak parte hartzen duen Nazioarteko Tratatuek aitortutako eskubideak izango dituztela ezartzen da, bereziki Nazio Batuen Haurren Eskubideen Konbentzioak eta ordenamendu juridikoan bermatutako gainerako eskubideek aitortutakoak, jaiotza, nazionalitatea, arraza, sexua, ezintasuna edo gaixotasuna, erlijioa, hizkuntza, kultura, iritzia edo familiako, gizarteko edo arlo pertsonaleko edozein gorabeheragatik bereizketarik egin gabe. Lege hau, bere garapen arauak eta adingabeei buruzko gainerako lege xedapenak, Espainiak parte hartzen duen Nazioarteko Tratatuen arabera interpretatuko direla xedatzen da, 1989ko azaroaren 20ko Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren arabera.

Aldi berean, autonomia erkidego ezberdinek ere arautu dute gai hau, Konstituzioaren 148.1 artikulua ezartzen duenaren harira, izan ere, gizarte sorospena autonomia erkidegoen eskumena dela jasotzen da bertan. Euskal Autonomia Erkidegoan *Haurren eta Nerabeen Arretari eta Babesari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen* bidez arautzen da. Bertan jarduera printzipioak eta marko konpetentzial eta instituzionalak definitzen dira; eta izaera autonomiko, estatal zein internazionalako beste instrumentu arauemaileek haur eta nerabeei errekonozitzen dizkieten oinarrizko eskubideak testu bakar batetan biltzea du helburu, eskubide horien burutzea sustatu eta defendatzeko jarduera

administratiboa gidatzeko printzipioak arautzen dituelarik. Legeak helburu hirukoitza du:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoiliar zein ibiltari diren haurrei eta nerabeei Konstituzioak, Nazio Batuen Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioak, Haurraren Eskubideen Europar Gutunak eta oro har ordenamendu juridikoak aintzatesten dizkien eskubideen erabilera bermatzea.
2. Haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko ekintzak burutzeko jarduera esparrua ezartzea, baita haien arreta eta babesera bideratutako esku-hartzeak ere, familia esparruan eta gizartean euren garapena bermatze aldera.
3. Arriskuan edo babesik gabe dauden haurrak eta nerabeak babesteko jarduera printzipioak eta marko kompetentzial eta instituzionala zehaztea, baita adingabe arau-hausleekin esku-hartzeko esparruari dagokiona ere.

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea ere aipatzekoa litzateke.

Lege horrek eskumenen esparrua garatzen du, eta besteak beste babesik gabe aurkitzen diren adin txikikoen ardura Foru Aldundiengan gelditzen dela ezartzen da, horiek egoitza zentruak, informazio zerbitzua eta famili harrera eta adopzioa sustatzeko eta bultzatzeko zerbitzua eskainiko dutelarik. Adin txikiko pertsona nukelo familiarretik banatzea eragiten duten neurriak ere erregulatzen ditu lege honek, hala nola, familia harrera, egoitza harrera eta adopzioa. IKEDAMEi nagusiki eragiten dien neurria egoitza harrerarena da, euren beharrei erantzun integrala emateko helburuz adingabea egoitza batetan zaintzean datza. Egoitzako harrera gauzatu ahal izateko, famili integraziorako erakunde laguntzaileekin lankidetzaz hitzarmenak edo akordioak ezar daitezkeela azpimarratzen da Legean, eta Administrazioak eta Ministerio Fiskalak ikuskapen-lanak egingo dituztela aurreikusten da.

Amaitzeko, *gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitzako harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 dekretua* izendatuko genuke. IKEDAMEi eragiten dien egoitzako harrera dekretu honen bidez sakonago arautua izan da. Zentruak bete beharreko baldintza materialak, funtziozkoak eta pertsonalarenak, eta adingabe zein eurretaz arduratzen diren profesionalen eskubide eta betebeharrak arautzen ditu aipaturiko dekretuak.

Zentruetan programa ezberdinen garapena burutzea ere aurreikusten du, besteak beste, urgentziatzeko harrera, harrera orokorra, emantzipaziorako prestakuntzakoa, emantzipaziokoa²³. Baita zenbait programan espezializatu ere: jokabide arazoak dituzten nerabeen arretarako programak, jokabide arazo larriak dituzten nerabeentzako laguntza intentsiboa. Egoitzako egituren artean, egoitzak, harrera-pisuak, emantzipaziorako prestatzeko zentroak, emantzipazio-pisuak, etab. aurreikusten ditu. Modu sakonean arretaren faseak eta oinarriko elementuak, esku-hartze jarraibideak, antolaketa, bizikidetzarako arauak, hezkuntza-neurri zuzentzaileak eta aplikazio prozedura ezartzen ditu.

5.4.2. Atzeritartasun legedia

Atzeritartasun legediak IKEDAMen detekzioa, identifikazioa edota bere adinaren baiztepena bezalako gaiak arautzen ditu batik bat. Estatu mailako *Atzeritarren eskubide eta betebeharrei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoa berritzen duen 2/2009 Lege Organikoan* jasotzen da hori. Aipaturiko legeak 35. artikuluan arautzen du IKEDAMen egoera. Lehendabiziko neurri gisa, halako adingabeak agertzen direnean euren jatorrizko herrialdeetara itzuliko direla aipatzen da, gazte hauen arreta eta gizarteratzea euren herrialdeetan burutzea ahalbidetzea nahi da. Hala eta guztiz, adin txikikoaren interes gorenari jarraikiz bere itzulketa ez dela gauzagarria ondoriozta daiteke zenbait kasutan, jatorrizko familia edo gizarteak ezin dienean beharrezko arretarik eman aurreikusten denean esaterako. Halako kasuetan adingabeari erresidentzia baimen bat emango zaiola azpimarratzen du legeak.

IKEDAMei dagozkien zenbait eskubide ere aipatzen dira, esaterako 40. artikuluko 1 puntuko i letran esaten da, erresidentzia baimena duten, lan egiteko adinean aurkitzen diren eta adingabeen babesa bermatzeko entitate eskudunaren tutelapean aurkitzen diren IKEDAMen kasuan, lan kontratu bat egiterako orduan ez dela kontutan izango langilearen egoera nazionala, beti ere euren herrialdeetara

²³ Dekretu honetan emantzipazioko programak aipatzen direnean 16 uretik 18 urtera bitarteko nerabeei bideratutakoak direla ulertzen dira. Naiz eta 3. artikuluko 2. auntuak kasu berezietan 18 urtetik gorakoak ere erabiltzaile izan daitezkeela zehazten den: *“Salbuespen gisa, eta zaindutako pertsonak eta Foru Aldundi eskudunak adostu ostean, adin nagusi izan aurretik babes-sareko baliabide batean bizi ziren 18 urtetik gorako gazteak izan daitezke egoitza-harrerako baliabideen erabiltzaileak emantzipazio-programaren esparruan. Gazte horiek gehienez 18 hilabetez egon ahal izango dira babes-zentroen sarean, eta muga horretatik gorako edozein luzapen behar bezala arrazoitu behar izango da pertsona bakoitzaren premia individualak eta egonaldi horrek, hala bada, baliabide berean bizi diren gainerakoengan izan lezakeen eragina hartuta”*.

itzultzeko ezintasuna existitzen denean eta burutuko duten lanak euren gizarteratzea erraztuko duenean. 41. artikuluko 1 puntuko j letran, aurrez deskribatutako adingabeen kasuan, lanbidea burutzeko lan baimena izatea ez dela beharrezkoa izango aipatzen da. 47. artikularen arabera, halako adingabeen babesa bermatzen duten entitate publikoak lan baimenagatikotasak ordaintzeko derrigortasunetik salbuetsita geratuko dira.

Lege Organiko honen erregelamenduak (557/2011 Errege Dekretua) IKEDAMen egoera 189tik 198ra doazen artikuluetan lantzen du. Aldaketa aipagarrien artean adingabe etorkinaren tutela entitate publiko baten esku ezezik gobernuz kanpoko erakunde, elkarte edo fundazioen esku ere egon daitekeela azpimarratzen da.

Adin txikiko diren bitartean beraz, legeak erabateko babesa ematen die IKEDAMei, Foru Aldundiak horiei arreta ematera behartuta daudelarik. Hala eta guztiz, gauza bat da legediak jasotzen duena, eta bestea praktikan ematen den beteze maila. Aurreko ikerketa batetan gai horixe landu zuen doktoradutza tesi honen egileak (Epelde, 2011). Bertan Gipuzkoako kasua lantzen zen, eta IKEDAMen zentruetan lan egiten zuten zenbait hezitzaile elkarriketatu ostean adingabekoei dagokien legedia praktikan nahiko ondo errespetatu eta betetzen zela ikusi zen, nahiz eta baimen legalak lortzeko prozeduretan gehiegizko luzapenak egoten zirela nabarmentzen zen. Horrela bada, adin txikiko diren bitartean babes osoa jasotzen dute eta euren gizarteratze prozesuak modu egokian aurrera egiten duela aurreikusten da. Aldiz euren egoera aldatu egiten da behin adin nagusitasuna betetzen dutenean.

5.5. IKEDAMetatik IKEDAM ohietara

Euren perfilak aztertzerakoan ikusi den moduan, IKEDAM gehienak adin nagusitasunetik gertu iristen dira Espainiara edota EAERA, 16-17 urterekin hain zuzen. Oraindik adin txikiko diren neurrian, administrazio publikoek, EAERen kasuan Foru Aldundiek, gazte horiei babesa ematera eta euren beharrezko erantzutera behartuta daude, baina zer pasatzen da gazte horiekin 18 urte betetzen dituztenean? Adin nagusitasuna betetzen duten unean gazte hauek gaitasun juridiko osoa eskuratzen dute automatikoki, eta administrazioek hein

handi batetan utzi egiten diote baliabideak eskaintzeari. Legediak ez du aurreikusten oraindik oso gazteak izaten jarraitzen duten eta harrera gizartean bakarrik aurkitzen gazte etorkin hauen babesak. Horrela bada, gauetik egunera euren errealitatea erabat aldatzen da, guztizko babes legal eta instituzionala izatetik, bulnerabilitate sozial, instituzional eta legalean egotera pasatzen direlarik, euren gizarteratze prozesua erabat oztopatuta geratuz.

Hainbat instituziok gazte etorkin hauek adin nagusitasuna betetzean aurkeztu duten kalteberatasun egoera azpimarratzen dute, eta emantzipazio garai horretan akonpainamendu bat emateak duen garrantzia. EDE Fundazioak aipatzen duen modura, jadanik gizarte berri batetan errorik gabe aurkitzeak kalteberatasun egoeran kokatzen ditu gazte hauek, eta horri adin nagusitasuna bete izanagik babesik gabe geratzen direla gehitzen bazaio gizarte bazterkeria arriskua modu esanguratsuan hazten da:

Más allá de haber cumplido los 18 años el hecho de encontrarse en un contexto social y cultural nuevo y sin arraigo antes de haber entrado en la etapa adulta hace que el colectivo de “jóvenes” no acompañados o sin referentes familiares adultos deba considerarse también un colectivo en situación de especial vulnerabilidad. Fundamentalmente durante los primeros años, en los que son escasos los dispositivos existentes para atender a quienes cumplida la “mayoría de edad” deben abandonar la tutela y protección que se les proporciona por el hecho de ser menores, el colectivo presenta un alto riesgo de exclusión (EDE Fundazioa, 2012: 6).

Instituzio berberak dioenez (EDE Fundazioa, 2012), gazte etorkin hauen arreta beharra ez da adin nagusitasuna betetzen dutenean amaitzen, aldiz, euren errealitatea aldatu egiten da 18 urte betetzean. Gazte hauen gizarteratze prozesuak garapen egokia izan dezan beharrezkoa izango da adin nagusitasuna betetzen dutenean ere laguntza ematen jarraitzea. Arartekok dioen modura:

Se trata de personas jóvenes que no cuentan con recursos propios suficientes, con apoyos o personas adultas de referencia y requieren de un acompañamiento en el proceso de adquirir la autonomía. Una respuesta adecuada en un momento de enorme vulnerabilidad como es el paso a ser personas adultas va a influir enormemente en las posibilidades de inclusión social y laboral (Ararteko, 2013: 32).

Horrela bada, hain egoera berezian aurkitzen diren gazte etorkin hauen egoera izango du aztergai doktoradutza tesi honek.

5.5.1. IKEDAM ohien emantzipaziorako gizarteratze baliabideak

Aipatzekoa da kolektibo honen errealitatea ziurrenik ez dela hain okerrekoa EA Eren kasuan, estatuko beste zenbait lekutan ez bezala gazte hauen

emantzipaziora bideratutako programak existitzen baitira²⁴, baita horien akonpainamenduan lan egiten duten entitate ezberdinak ere. Fenomenoaren hartzaile nagusi izanik, Bizkaia izan zen halako programak abian jarri zituen aurreneko lurralde historikoa. Geroztik Gipuzkoak eta Arabak ere garatu dituzte halako programak, baina ezberdintasunak daude lurralde historiko batetik bestera.

Jarraian, lurralde historiko bakoitzean IKEDAM ohientzako eskuragarri dauden zerbitzu eta programak aztertuko dira:

Bizkaia

Mundutik Mundura proiektua

Bizkaiko Foru Aldundiak 2004an jarri zuen martxan proiektua, gaur egun funtzionatzen jarraitzen duena²⁵. Gazte migratzeileen emantzipaziora bideratuta dago, eta izaera iragankorreko ekintza desberdinek eratzen dute, pertsona bakoitzeren beharren arabera. Proiektu honek tutoretzapeko 15 etxebizitza ditu, guztira 103 plaza dauzkalarik. Zerbitzuak aurrera eramateko Foru Aldundiak 4 erakunderekin lankidetzeta-hitzermena sinatua du, ondorengoekin hain zuzen: Agiantza Elkarteak, Ongintza-laguntzako Elkarbanatuz elkarteak, Goiztiri Elkarteak eta Lagun Artean elkarteak.

Proiektu honen erabiltzaile izateko ordea, beharrezkoa da zenbait baldintza betetzea, horiek betetzen ez dituzten IKEDAM ohiek ezingo dute proiektuaren erabiltzaile izan:

- 18 eta 23 urte bitarteko gizonezkoak izatea.
- 18 urte bete baino lehen Bizkaiko Foru Aldundiaren adingabeen babeserako zentzuren batetan gutxienez 12 hilabetez egotea, eta bertan jarraitzea eskaera egiterako unean.
- Gutxieneko hizkuntza gaitasunak izateak, mezuen ulermenak eta adierazpenak edo oinarritzko ahozko adierazpenek zehaztutakoak.

²⁴ EAE mailako *gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitzako harrerako baliabideak arautzen dituen uztailearen 8ko 131/2008 dekretuak* emantzipazio programa eta baliabideak aurreikusten ditu eta testuinguru horretan programa eta baliabide ezberdinak garatu dira lurralde historiko bakoitzean.

²⁵ Informazio gehiago Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrian: http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem.Codigo=2237&idioma=EU&dpto_biz=3&codpa.th_biz=3%7C238%7C1518%7C2237

- Buru-osasuneko arazorik ez izatea.
- Ohiturazko delitu-portaerarik edo jokabide antisozialik ez izatea.
- Mendekotasuna eragiten duten gai toxikoen azturazko kontsumitzailea ez izatea.
- Gizarteratze prozesuari buruz jarrera positiboa izatea.

Besteak beste ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu *Mundutik Mundura* proiektuak:

- *Laguntza pertsonala.* Gazteari laguntza pertsonal planifikatua eta koherentea eskaintzean datza. Bere garapen pertsonalerako, bere gaitasunak indartzeko eta bere prozesuan parte hartzeko konpromezua hartzen da, azken helburua autonomia maila handiago bat lortzen laguntzea delarik.
- *Egoitza laguntza.* Emantzipazio prozesuan aurkitzen den gazteari etxebizitza eta bizikidetzaren baldintza duinak eta nahikoak eskuratzen laguntzean datza.
- *Lan txertaketarako laguntza.* Lan merkatuan txertatze eraginkorra lortzeko gaztea jarrera, ezagutza eta jardunbide egokiez hornitzean datza.
- *Laguntza juridikoa.* Erresidentzia eta lan baimenak berritzeko erraztasunak ematea.

Hemen programa

Arrazoi ezberdinengatik zenbait IKEDAM ohi *Mundutik Mundura* parte hartzeko aukerarik geratzen zirela ikusita *Hemen* programa sortzen da 2007²⁶. urtean. Aurrez Harresiak Apurtuz-en (Etorkinei laguntza emateko Euskadiko GKE koordinakundea) adingabeen batzordea eratzen zuten zenbait elkarte partzuergoan batu ziren adin nagusitasuna bete ostean babes zentruetatik atera eta *Mundutik Mundura* proiektuan parte-hartu ezin zezaketen gazteen babesgabetasuna eta gizarte kalteberatasun egoera ikusita. Partzuergoa eratzen duten eta programa aurrera eramateaz arduratzen diren entitateak ondorengoak dira: Bilboko Caritas Diozesiarra, CEAR-Euskadi, ADSIS Fundazioa, Ellacuría

²⁶ *Hemen* programako hezitzaileak ahalbidetutako memoriatik eskuratutako informazioa (argitaragabeko txostena).

Fundazioa, Harribide Fundazioa, Peñascal Kooperatiba, Izangai Elkarte, Erain Elkarte.

Proiektuaren xede nagusia kalteberatasun egoeran aurkitzen diren IKEDAM ohien gizarteratze ibilbideak sortu eta laguntzea da, gizarte bazterkeria ekiditeko asmoz. Ondorengo zerbitzuak eskaintzen dira:

- Egoitza laguntza.
- Laguntza juridikoa.
- Lan munduko txertaketa ahalbidetuko dien formakuntza.

Gizarte Inklusiorako Laguntza Berezia

Aldizkako laguntza ekonomikoa da, eta oinarrizko premiei lotutako gastuak zein gizarte eta/edo lan inklusioko prozesu baten ondoriozko gastuak estaltzea du helburu²⁷. Oinarrizko premiak bizirauteko beharrezkoak direnak lirateke; Gizarte eta/edo lan inklusioko prozesu baten ondoriozko gastuak berriz, besteak beste honako hauek dira: lantokira joateko bidaiak eta prestakuntza-gastuak sar daitezke, kasuan kasuko laguntzeko/esku-hartzeko plan indibidualean jasotako baldintzetan.

Laguntza hau eskuratzeko beharrezkoa izango da eskabidea egiten denean 18 urte baino gehiago izan eta gizarte bazterkeria egoeran aurkitzea eta honako eskakizun hauek betetzea:

- Eskatzen den gutxieneko adina ez izategatik (23 urte) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko eskubiderik ez izatea.
- Gutxienez eskabidea aurkeztu baino 12 hilabete lehenagotik bizikidetzan unitate bat eratuta izatea. Epe hori betetzetik salbu geratuko dira adin-nagusitasunera helduta, Bizkaiko Foru Aldundiko haur eta nerabeak lagundu eta babesteko zerbitzuetan arretarik gabe geratu diren pertsonak (IKEDAM ohien kasua litzateke).
- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrri batean erroldatuta egotea eta hartan benetan bizitzea, gutxienez eskabidea aurkeztu aurreko 30 hilabeteetan. Epe hori betetzetik salbu geratuko dira eskabidea aurkeztu

²⁷ Informazio gehiago Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrian: http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=1537&idioma=CA&dpto_biz=3&codpa_th_biz=3%7C238%7C1525%7C1537

baino gehienez 18 hilabete lehenago, adin-nagusitasuna bete izanagatik Bizkaiko Foru Aldundiko haur eta nerabeak lagundu eta babesteko zerbitzuetan arretarik gabe geratu diren pertsonak, beti ere arreta amaitu aurretik sei hilabetez han egon badira. Kasu horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri batean erroldatuta egoteko eta benetan bizi izandako denbora 6 hilabetekoa izango dira.

- Baliabide nahikorik ez izatea. Pertsona bat egoera horretan dagoela ulertuko da baldintza hauek guztiak betetzen dituenean:
 - Hileko diru-sarrerera edo errendimendu konputagarriak laguntza honen hilerokoaren zenbatekoa baino txikiagoak izatea, bizikidetz-unitateko kideen kopurua eta bizikidetz-unitate mota kontuan izanda egokituko litzatekeena.
 - Ondasun higiezinik ez izatea.
 - Eskatzailearen ondasun higigarrien zenbatekoak (dirua, tituluak, baloreak, ibilgailuak edo Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko III. kapituluko 4. atalean jasotako beste edozein ondasun higigarri) ez gainditzea batere baliabiderik gabe eta bizikidetz-unitateko kideen kopurua eta bizikidetz-unitate mota kontuan izanda egokituko litzatekeen Gizarte Inklusiorako Laguntza Bereziaren sei hilekoren zenbatekoa.
 - Diru-sarrerak edo errendimenduak eta ondarea zehazteko, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko III. kapituluko 1., 2. eta 3. ataletan ezarritakoari jarraituko zaio.
- Laguntza/esku-hartze plan indibidual bat sinatuta edukitzea eta plan horren baldintza guztiak betetzea.
- Ez edukitzea Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta azkenduta edo etenda (guztiz edo zati batez) betebeharrak ez betetzeagatik edo arau-haustek egiteagatik.
- LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea.

Edonola ere, foru dekretu honetan araupetutako laguntzek horretarako ezarritako aurrekontuko zuzkidurak izango dituzte muga; ondorioz, ez da nahikoa izango eskatzaileak kapitulu bakoitzean ezarritako baldintza eta

eskakizunak betetzea, horrez gainera beharrezkoa izango baita eskabideari aurrekontuko zuzkidura kontuan hartuz erantzun ahal izatea.

Prestazioa 12 hilabeteko eperako emango da, edo 12 hilabete baino gutxiago falta badira Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratzeko eskatzen diren erroldatze-aldia eta benetako egoitza betetzeko, epe horretarako. Gizarte Inklusiorako Laguntza Berezia gehienez 30 hilabetera arte berritu ahal izango da, 6 hilabeteko epe jarraitu edo ez jarraituetarako, baldin eta eskatzailea erroldatuta eta benetan bizi den udalerriko udalaren proposamena edo, kasuaren arabera, Gizarte Ekintza Sailean emantzipaziorako egoitza-zerbitzuen ardura duen unitatearena, aldekoak badira; eta betiere pertsona horiek eskatzen diren baldintzez gainera laguntzeko/esku-hartzeko plan indibidualaren esparruan hartutako konpromisoak betetzen badituzte.

Bizikidetzaren unitatea eratzen duten pertsona kopuruaren arabera, hilean jaso ahal izango den gehieneko zenbatekoa ondorengo taulan ageri da zehaztuta:

5.6. Taula: Baldintzak betetzen dituzten Bizkaiko IKEDAM ohiek jasoko duten hileko zenbatekoa

HILEKO ZENBATEKOA	
Elkarbizitza-unitateko kideak	Gehieneko zenbatekoa hilean
1 pertsona	332,95 €
2 pertsona	427,54 €
3 pertsona edo gehiago	472,94 €

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia

Bizikidetzako unitate ekonomiko independente bakoitzari eman ahal zaion hilekoaren zenbatekoa osorik emango zaio, baldin eta unitate ekonomiko horrek ez badauka inolako diru-sarrerarik. Hori horrela ez bada, kopuru horretatik hark dituen hileko baliabideak kenduko dira, Sarrerak Bermatzeko Errentaren arautegian xedatutakoaren arabera.

Gipuzkoa

Lortuz programa

Gipuzkoako Foru Aldundiak *Lortuz* programa abiarazi zuen 2008an gazte etorkin tutelatu ohien emantzipazioari begira²⁸. Prestakuntza eta egokitze etapa balorazio positiboaz gainditu duten eta euren emantzipazioa eta autonomia ekonomikoa lortu arte prestakuntza prozesuan arduratsuki jarraitzera konprometitzen diren gazteei zuzenduta dago. IKEDAM ohiek bizi duten gizarte kalteberatasun egoera dela eta heldutasunerako igarobidean eta gizarteratze prozesuan laguntza eta/edo akonpainamendua behar dutela uste delako sortzen da programa.

Programan sartu ahal izateko ondorengo eskakizunak bete beharko dituzte gazte etorkinek:

- 18 urte baino zaharragoa izatea, eta 23 urte baino gazteagoa.
- 18 urte baino gehiago dituztenean, Adingabeen Zerbitzuak edo udalek bideratu izana programara.
- Hizkuntza gaitasun gutxienekoak izatea; hau da, ulertzea eta oinarritzko mezuak edo azalpenak ahoz esateko gauza izatea.
- Adimen osasuneko arazo larririk ez izatea.
- Ohiko delituzko jarrerarik edota gizartearen aurkako jarrerarik ez izatea.
- Adikziora eraman dezakeen sustantzia toxikorik ez kontsumitzea.
- Emantzipazio eta gizarteratze prozesu bat jarraitzeko aldeko jarrera izatea. Eskaintzen diren laguntzak ondorengoak dira:
 - *Laguntza pertsonaleko jarduerak*. Pertsonari behar bezalako gizarte laguntza ematea da xedea, laguntza planifikatua eta koherentea, garapen pertsonalean lagunduko diona, gaitasunak indartuz; hau da, heldutasun eta autonomia pertsonal handiagoak lor ditzan lagunduz.
 - *Prestakuntza izaerako ekintzak*. Ikasketa programaren jarraipena ahalbideratuz.
 - *Egoitza laguntzako ekintzak*. Etxebizitza eta elkarbizitza duinak izan ditzaten, nahikoak eta, ondorioz, emantzipazio prozesua errazten dutenak, etxeko trebetasunak eta trebetasun sozialak landuz.

²⁸ Kolore Guztiak Elkarteak ahalbidetutako *Lortuz* programaren txostenetik eskuratutako informazioa (argitaragabeko txostena).

- *Lan merkaturatzeko ekintzak.* Gazteek lan munduan sartzeko eta ekonomiaz arduratzeko erabilgarri izan daitezkeen jarrera, jakintza eta trebetasunak garatu eta indartzea lortu nahi da.

Emantzipaziorako diru laguntza

2013ko abuztutik, hilean 633€ko²⁹ diru laguntza izateko aukera ere eskaintzen zaie gazte etorkin tutelatu ohiei, zeinarekin kontratu eta erroldadun gela baten alokairuari aurre egin beharko dioten beste zenbait gasturen artean. Aipaturiko laguntzak jasotzeko alabaina baldintzak ezartzen dira, horien artean entitate kolaboratzaileetariko baten jarraipena izatea 6 hilabetez, eta jarrera egokia agertzea.

Izeba proiektua

Arantzazuko Baketik zentroak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuak 2009an sinatutako eta ordutik urtero berritu izan den hitzarmen baten bidez jarri zen abian *Izeba* Proiektua³⁰. Bere ardatza Gipuzkoan bakarrik dauden adingabeko atzerritarren osaba-izeba izateko prest dauden pertsona edo familia boluntarioen sarea sortzea izan da bere sorreratik. Proiektuaren arrakasta ikusita gaur egun adingabe autoktonoei ere zabaldu zaie.

Helburu nagusia gazte horiek geure inguruan hobeto integratzen laguntzea da. Berriazko helburua adingabeko horiei familiarteko erreferentziak ematea da, hala nola, euskarria, maitasuna, babesa eta gertuko harreman sozialak zabaltzeko aukera eskaintzea. Horrela, bizi diren Harrera Zentroaz gain, adingabeko horiek erreferentziazko familia bat izango dute, proiektuko arduradunek osaba-izeba batzuek iloba bati eskaini diezaieketen hurbileko tratu gisa deskribatzen dutena. Erreferentziazko familiak bete beharreko zereginen artean ondorengoak leudeke: asteen behin etxera bazkaltzera edo txango batera gonbidatzea, aldiro telefonoz deitzea, arazo pertsonalak edo ikasketekin lotura dutenak konpontzen laguntzea, hizkuntza ikasten laguntzea, erosketak egiten laguntzea, adin bereko gazteekin edo kirol, kultur eta aisialdi ekintzekin harremanetan jartzea etab.

²⁹ Laguntza honi buruzko informazioa Kolore Guztiak Kulturarteko Elkarteko teknikoak ahalbidetzen dit. Foru Aldundiko webgunean ez dago halako informaziorik eskuragai.

³⁰ Informazio gehiago *Izeba* proiektuaren web orrian: <http://www.izeba.org/>

Programa honen helburu gehigarria adingabeko horienganako gizartearen begirada humanizatuagoa lantzen laguntzea da. Hala-nola, pertsona horienganako giza sentsibilitatearen indarra garatzea da kontua, geure seme-alabak izan litezkeela barneratuz.

Proiektua Hernandez et al.-ek (2006) proposaturiko esku-hartze maila didaktikoko laguntasun boluntarioarekin bat etorriko litzateke. Izan ere, boluntarioak, kasu honetan izeba familiak, laguntasun mota ezberdinak erantzukizunez eta interes pertsonal zein ordainsari ekonomikorik gabe esleitzen dituzten pertsonak lirateke.

Berez adin txikikoei bideratutako proiektua dugu *Izeba*. Aldiz, harreman horrek behin adin nagusitasuna betetakoan ere jarraitu dezake, emantzipazio garaiarako euskarri garrantzitsua izan daitekeelarik. Gainontzeko lurralde historikoetan ez da izaera honetako proiekturik ezagutzen, nahiz eta proposamena berez hiru lurralde historikoetara egin zen.

Araba

Diputazioaren harrera erresidentzial eta familiarraren ondorengo jarraipen programa Programa honen helburua harrera baliabideetan epe aldagarri batez egon ondoren, bizimodu autonomoari aurre egin behar dioten gazteei (adin nagusikoak edo adin nagusitasunetik gertu daudenak) laguntza eta babes eskaintzea da³¹. Tutoretza laguntza ematean datza, eta zenbait kasutan prestazio ekonomikoak ere izapidetuko dira. Aurretik Adingabeen eta Familiaren Arloko programa ezberdinetan erabilitako baliabide pertsonalak eta eskuratutako trebetasunak praktikan jartzean datza, babes sistematik bermearekin bereizi ahal izateko.

Erabiltzaile izateko ondorengo betekizunak bete beharko dituzte IKEDAM ohiek:

- 18 urte izatea edo adin horretatik gertu egotea.
- Gazteak programan sartzeko eskaria egitea.
- Adingabearen eta Familiaren Arloko kasuko koordinatzaileak

³¹ Informazio gehiago Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen web orrian: http://www.alava.net/cs/Satellite?c=Page&cid=500002131802&language=es_ES&pagename=IFBS%2FPage%2FIFBS_contenidoFinal

proposatutako COVaren (Comisión de Valoración de Menores/ Adingabeen Balorazio Batzordea) balorazio positiboa izatea, aurretik jatorrizko errekurtsoko profesionalen balorazio eta proposamenarekin.

- Tutore-jarraipenak suposatzen dituen baldintzak onartzea.
- Programa aprobetxatuko dela bermatzen duen norbere zaintza, gizarte eta oinarrizko autogestio trebetasunak eskuratuta izatea aurreko errekurtsuetan.
- Gizarteratze eta laneratze prozesua hasita edukitzea.

Nahiz eta betekizunak ezartzen diren, zehaztasun gutxikoak dira, eta ezin da argitasunez jakin zein gaztek izango duten programaren erabiltzaile izateko aukera.

Gasteizko udalaren zerbitzuak

Nahiz eta berez Foru Aldundiari dagokion gazte etorkin tutelatu ohien ardurak, Gasteizko udalak laguntza ekonomikoak eskaintzen ditu, gazte horien gehiengoak hiriburuan aurkitzen direlako. Ondorengoak dira laguntza horiek³²:

- Etxebizitzaren alokairuaren gastuei aurre egiteko laguntza (230€).
- Janariaren gastuei aurre egiteko laguntza (jangelarako bonoak).
- Gastu pertsonalei aurre egiteko laguntza (75€).

Horiek jaso ahal izateko zenbait kriterio betetzea eskatzen da, baina ez dira inon ageriko moduan jastozen.

Fundazio eta elkarteak

Administrazio publikoek eskaintzen dituzten zerbitzu eta programez gain bestelako entitateak ere badaude, aurrekoen uzten dituzten hutsuneak betetzeko beharrezkoak direnak. Horien artean Itaka-Escolapios Fundazioa aurkitzen da, ekintza desberdinen artean *Aukera* proiektua garatzen duena, gazte etorkinen emantzipazio prozesuak laguntzea duelarik helburu.

Aukera proiektua 2008an jarri zen martxan, Peñascal Fundazioarekin sinatutako hitzarmenaren bidez, helburu gisa 18 eta 21 urte bitartean aurkitzen

³² Laguntza hauei buruzko informazioa Itaka Fundazioko hezitzaileak ahalbidetutakoa da, Gasteizko udalaren web orrian ez dago halako informaziorik eskuragai.

diren eta gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden gazte etorkinen emantzipazio prozesua laguntzea duelarik. Ondorengo zerbitzuak eskaintzen dira:

- Aldi baterako alojamendua (4 pisu ditu Bilbo eta Gasteizen banatuta).
- Oinarrizko beharrianak asetzeko arreta.
- Formakuntza zein lan txertaketarako ibilbide batetan parte-hartzea.

Prozesua amaitzean gazte etorkinek lan gaitasun egokia izatea, erresidentzia eta lan baimenak eskuratuta izatea, enpresaren batekin kontratu laboral bat izatea, gazteleraren menperakuntza egokia izatea, eta euren bizimodua modu autonomoan antolatzea ahalbidetzen dien beharrezko ohitura eta gaitasunak eskuratzea espero da.

Emantzipazio baliabide horiek existitzeak IKEDAM ohien egoera hobetuzko izatea ahalbidetuko du. Aitzitik horiek eskuratzeko kriterioak ezartzen dira, beraz gazte etorkin guztiek ez dutela horietara sarbiderik izango aurreikusten da; eta bestalde, baliabide horiek esparru sozio-estruturalean eragitea dute helburu, gizarteratzearen esparru soziokulturala kolokan geratzen dela dirudielarik. Doktoradutza tesi honen 1. helburuaren baitako 2. hipotesiarekin estuki lotuta legoke aspektu hau: *emantzipazio baliabideak mugatuak dira eta ez dira gaur egungo testuinguru sozioekonomikora egokitu, horrek IKEDAM ohien gizarteratzea lortzea zaildu egiten duelarik.*

Datozen kapituluetan gako hauek argitzeko ahalegina egingo da, hain egoera berezian aurkitzen diren IKEDAM ohien errealitatea ezagutzea izango da helburu, zein gizarteratze egoeratan aurkitzen diren jakitea, krisi ekonomikoak prozesu horretan izan duen eragina aztertzea, aipaturiko emantzipazio baliabideen eraginkortasuna neurtzea, familia autoktonoekin harremanetarako aukera izan duten IKEDAM ohien gizarteratze egoera zein den ezagutzea, eta gazte hauen gizarteratze eraginkor bati begira hobekuntza bideak proposatzea.

HIRUGARREN ATALA: ANALISIAREN EMAITZAK ETA ONDORIOAK

VI. KAPITULUA: IKEDAM OHIEN GIZARTERATZE EGOERA EAEn

6.1. IKEDAM ohien gizarteratze egoera

Jarraian, IKEDAM ohiei eta eurekin lan egiten duten edo euren egoerari buruz ezagutza duten pertsonen buruturiko elkarrizketetatik abiatuta, EAEn aurkitzen diren gazte etorkinek zein gizarteratze egoera agertzen duten eta zein zailtasun nabarmentzen dituzten azalduko da (1. helburua). Horretarako I. kapituluan zehaztutako gizarteratze prozesuaren esparru eta dimentsioak izango dira kontutan, eta horietako bakoitzean aurkezten duten errealitatea deskribatuko da elkarrizketetatik eratorritako testu zati esanguratsuenak erabiliz:

6.1.1. Esparru sozioestruturala

Dimentsio juridikoa

IKEDAM ohiekin lan egiten duten edo euren errealitatea ezagutzen duten profesional zein adituen eta IKEDAM ohien euren arabera, azken urteetan irregularizazio juridikorako joera hautematen da gazte etorkinen artean. Profesionalek diotenez, krisiarekin baimenak berritzea gero eta zailagoa bilakatu da. Lan merkatuan murgiltzeko aurkitzen dituzten zailtasunak eta emantzipazioko prestazio ekonomikoen kantitate urriak edo horiek eskuratzeko ezintasunak zuzenean eragin dute gazte hauen egoera juridikoan. Eta horren ondorioz, adin txikiko ziren bitartean jarraitutako gizarteratze prozesu osoa etenda gera daiteke:

En el caso de los que ya tienen documentación, claro, nos encontramos ahora que una cosa es la ley del menor, y otra cosa la ley de extranjería. Cuando tienes dieciocho años dejas de pertenecer a la ley del menor, y entras en la ley de extranjería, y si no tienes trabajo no se te renueva el permiso de residencia, es decir, que has estado cuatro o cinco años en un centro de menores, “protegido” entre comillas, sales a fuera y [...] Si no encuentras trabajo eres ilegal, te pueden expulsar del país, toda tu experiencia aquí no te valió para nada (E14. Aditua).

Mutiko batzuk ez dute inoiz erresidentzia baimenik lortu, adin nagusitasunera euren egoera erregularizatu gabe iritsi direlako. Beste batzuen kasuan, mutikoen zekarten dokumentazioan adin txikiko zirela agertzen bazen ere, adina determinatzeko frogak egin zaizkie eta adin nagusiko direla xedatu, ondorioz

adingabeen zentrutik kalera bidali izan dira. Modu horretan, ez da agertzen Foru Aldundiak tutelatuta egon direnik, eta ez zaie erresidentzia baimenik izapidetzen, etorkin irregular izatera pasatzen direlarik.

Es que lo que pasa con algunos chicos que han entrado en nuestro piso, es que... vinieron, de repente se les hizo las pruebas de la edad a un grupo, no sé si eran diez o veinte chicos, y dieron que eran mayores de edad. Entonces, de repente la Diputación se deshizo de ellos, y tampoco les querían acoger en ningún servicio municipal, entonces, eh... [...] No consta como que han estado bajo tutela de la Diputación, por lo que no les conceden el permiso de residencia (E9. Hezitzailea. Itaka Fundazioa).

Itaka Fundazioko hezitzailearen arabera (E9) Arabara iristen diren IKEDAMen gehiengoarekin gertatzen den errealitatea da adin frogak egin eta diputazioaren ardurapetik at geratzea, dokumentaziorik tramitatu gabe. Horien kasuan, erresidentzia baimena eta lan baimena lortzeko aukera bakarra lan eskaera bat lortzea izango da, beti ere 3 urte baino gehiagoz egon badira EAEn erroldatuta. Baina egoera laborala aztertzerakoan ikusiko denez horretarako zailtasun itzelekin aurkitzen dira IKEDAM ohiak gaur egun.

Bizkaia eta Gipuzkoako hezitzaileen arabera gehiengoak adin txikikoen zentroan dauden bitartean lortu ohi du erresidentzia baimena. Baina behin adin nagusitasunera iritsitakoan, eta gehientsuenak langabezia egoeran aurkitzen direla kontutan izanik, ezin dute bizirauteko gutxieneko bitarteko ekonomikoak dituztela egiaztatu³³, eta ondorioz ezin dute erresidentzia baimena berritu. Zenbaitzuk emantzipaziorako diru laguntza ekonomikoa eskuratu badute ere, hainbat kasutan horiek ez dira atzerritartasun legediak ezartzen duen gutxienekora iristen:

Para poder renovar un permiso de residencia te piden medios de vida de quinientos cuarenta euros al mes, entonces en el mejor de los casos la ayuda que estos chicos consiguen tener es de trescientos treinta y uno, entonces les dicen que no lo pueden renovar (E6. Hezitzailea. Hemen programa).

¿Lo que está pasando ahora? Que cuando van a renovar ese permiso de residencia no se lo están renovando. ¿Por qué? Porque abogan porque no tienen los medios de vida suficientes. Entonces sí, se consiguió el permiso de residencia cuando eran menores, pero ahora no lo pueden renovar, o sea, y se las están viendo muy mal para renovar (E9. Hezitzailea. Itaka Fundazioa).

³³ Atzerritarren eskubide eta betebeharrei eta haien gizarteratzeari buruzko 2/2009 Lege Organikoa onartzen duen 557/2011 Dekretu Errealaren 197.2 artikulua ezartzen duenaren arabera IKEDAM izan denaren erresidentzia baimena berritua izango dagazteak bere mantenurako OAEAParen (Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoa) %100ari dagozkion bitarteko ekonomikoak dituela egiaztatzen duenean. 2015 urtean 532,51€koa litzateke kopuru hori.

O sea, eso es, resumiendo, la manera que ellos tienen de acreditar medios de vida es que estén en un piso o que estén cobrando una ayuda, y lo de la ayuda, cuidado, porque aquí, en Gipuzkoa, te pueden decir “no, esa ayuda no te vale como medios de vida porque no llega al mínimo”, y tu dices “joe, pero si es una ayuda que me dan para sobrevivir, se supone que ya es un mínimo, ¿no?”, “que sí, pero no llega al salario mínimo interprofesional, con lo cual, no sé qué...”. Nosotros solemos hacer certificados de que damos dinero a los chavales, para el transporte por ejemplo, para que ellos digan “vale, pues con la ayuda y con eso sí que os llega”, pero la cosa esta difícil (E17. Teknikoa. Kolore Guztiak).

IKEDAM ohiekin harremanetan lan egiten duten profesionalak kontraesankorra deritzote esaterako emantzipaziorako laguntza ekonomiko horiek ez iristea atzerritartasun legeak baimenak berriro ahal izateko ezartzen duen gutxiengora. Ez da ulertzen diru laguntza hori bizitzeko nahikoa dela uste bada, zergatik eskatzen den hori baino gehiago baimenak berriro ahal izateko; eta alderantziz, baimenak berritzeko beharrezkoa bada kopuru altuago bat, ematen zaien diru laguntza bizitzeko gastuak egiteko ez dela nahikoa agerian geratuko litzateke.

Emantzipazio programaren batetan sartzea lortu dutenen kasuan, entitate baten babesa jasotzen dute, eta baimenak berritzeko erraztasuna izan dezakete. Baina babes hori gehienez adin konkretu batetara arte jaso dezakete (21 Bizkaiako eta Arabako kasuan, 23 Gipuzkoan) eta laguntza garrantzitsua izan badaiteke ere, adin horretarako enplegurik lortzen ez badute, berriro euren egoera erregularizatzeko zailtasunekin aurkituko dira:

En nuestro caso los chicos están protegidos, a nivel de renovaciones de residencia y todo. Diputación nos facilita documentos para poder renovar los permisos de residencia, si no no podrían renovarlos. Diputación nos hace un informe específico poniendo lo que ellos aportan por cada chaval al día, precio plaza y así [...] Pero cuando salen (de los recursos de emancipación) ya pues eso, pues... cincuenta-cincuenta de mantenimiento de permiso de residencia y trabajo, sí, cincuenta-cincuenta tirando por lo alto (E23. Hezitzailea. Goiztiri Elkarte).

Era berean, esparru laboral zein ekonomikoan agertzen duten ezegonkortasuna dela eta, gaur egun lanean eta egoera juridiko erregularrean aurkitzen diren gazteak etorkin ilegal izatera pasa daitezke une batetik bestera, euren gizarteratze prozesua oztopatuta geratzen delarik eta berriro iritsi zireneko puntuan aurkitzen direlarik:

Al ya tener un permiso de residencia y trabajo, la exigencia es de cotizar la mitad del tiempo de tu permiso, o sea, si tú tienes un permiso de un año, tienes que cotizar seis meses, y si no cotizas no renuevas, y entonces si no renuevas digamos que vuelves otra vez al punto de partida en el que no tienes ni permiso ni de residencia ni de

trabajo y que para volver a conseguirlo necesitas otra oferta (E6. Hezitzailea. Hemen programa).

Egoera erregularrean mantentzeko dituzten arazoek gainontzeko gizarteratze esparru eta dimentsioetan eragin zuzena dute. Alde batetik, jadanik aipatu den moduan enplegu bat eskuratzako zailtasun itzela eragiten die egoera irregularrean edo erresidentzia baimenarekin soilik egoteak. Baimenak izapidetzerako orduan soilik erresidentzia baimena ahalbidetzen zaie gazte hauei adin txikiko diren bitartean, lan baimena lortu ahal izateko ezinbestekoa da enpresaburu batek lan eskaintza egitea, izapide ugari egitea eskatzen duena. Zentzu horretan, logikoena hasieratik erresidentzia eta lan baimena, biak ematea izango litzatekeela aipatzen dute zenbait hezitzailek eta IKEDAM ohiek. Horrek enplegu bat bilatzea zeharo erraztuko lieke eta hala gertatzekotan ez lukete diru laguntzetatik bizi beharrik izango. Laguntzetatik bizi behar izateak gizarte hartzailearen ukapena ere eragiten du, jarrera arrazistak garatzea. Hori ekiditeak giro hobea sortuko luke beraz:

Al final se está creando un mal ambiente en la sociedad por eso, porque como no les da permiso de trabajo y residencia pues, ¿de qué viven? Pues de lo que pueden y de las ayudas. Si se les daría permiso de trabajo y de residencia sería todo mucho más fácil. Pero claro, dirán, “efecto llamada y no podemos dar permiso de trabajo y residencia a todo el mundo”... (E9. Hezitzailea. Itaka Fundazioa).

Al final, yo creo que lo más importante sobre todo es el tema legal, porque si tuvieran, en vez de solo permiso de residencia, pues permiso de residencia y trabajo, el que no quiera trabajar y lo único que quiere es estar chupando de la ayuda, bueno pues ya se le vería, porque teniendo un permiso trabajo les sería mucho más fácil encontrar un empleo. Al final, hay muchos chicos que quieren trabajar, pero claro, no pueden, y al final es también condenarles a ellos a estar cobrando la ayuda, porque si no tienen un permiso para trabajar, no pueden trabajar, hasta que tengan una oferta de empleo, y qué empresa va a ir hoy en día sin conocerte casi a presentarte una oferta de empleo, con todos los papeles que tienen que entregar, esperar a que se resuelva, pfffff... (E23. Hezitzailea. Goiztiri Elkarte).

Pero el problema es... ¿para qué te dan papeles pero sin trabajo? ¿Para qué? No sé, yo... dame mi papel para trabajar, para ver si encuentro trabajo y trabajar. Ellos no te dan para trabajar, hacen la cosa difícil. Por ejemplo, a veces, chico sale de centro, no tiene diecisiete años, hace papeles en centro, de un año, luego cumple dieciocho y sale de centro, y para cuando te toca renovar necesitas medios de vida, si no tienes, ¿cómo vives? No puedes renovar (E25. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Bestalde, harremanen esparruan ere eragina du egoera irregularrean aurkitzeak, izan ere, poliziak egoera horretan aurkitu eta jatorrizko herrialdera itzultzeko beldurra dela eta askotan gizarte bizitzatik isolatu egiten dira, horrek

harremanak garatzea ekiditen dielarik. Gai hau aurrerago landuko da, esparru soziokulturalaren baitako gizarte dimentsioan hain zuzen.

Laburbilduz beraz, egoera juridiko irregularrerako joera nabarmentzen da gazte etorkinen artean, enplegu eta diru sarrerarik izan gabe baimenak berritzeko zailtasunekin aurkitzen direlako. Eta egoera erregularrean aurkitzen direnak askotan erresidentzia baimenaren jabe soilik dira, baina ez dute lan baimenik; Hammar-en (1990) tipologiaren arabera *denizens* edo *aliens* lirateke, hiritartasunari dagozkion eskubide guztietaz gozatzeko aukerarik ez dutenak. Dimentsio sozioekonomikoaren baitan ikusiko den moduan, horrek asko zailtzen du euren kontratazioa, enpresariak izapide ugari egin beharra eragiten duelako; eta zeharka baita gizarte berriarekin harremantzea ere, lan harremanetatik at geratzen direlako. Euren egoera juridikoak autoktonoek adinako eskubiderik ez izatea dakar beraz.

Dimentsio sozioekonomikoa

Formakuntza

Gazte hauen gehiengoak ez du hezkuntza sistemara sarbiderik izan jatorrizko herrialdean, eta izatekotan oinarrizko ikasketak soilik burutu dituzte. Ikerketa honetarako elkarrizketatutakoen kasuan soilik mutikoetariko baten kasua bereizten da, Marokon batxilergoko lehendabiziko ikasturtea burutua zuena, baina hezitzaileen arabera ez da arruntena izaten.

Behin Espainiara iritsitakoan gehientsuenek ikastaro edota HKPPren (Hasierako Kualifikazio Profesionaleko Programak) bat ikasi dute: elektrizitatea, soldadura, iturgintza, igeltseritza, sukaldaritza, etab. besteak beste. Batzuek eskola graduatua ere atera dute, edo horretan dabilta.

Normalean adingabeko diren bitartean ikasten dute, soilik, eta adin nagusitasunera iristean utzi egiten dute. Euren helburua ahal bezain laster lan merkatuan txertatzea da, dirua irabazten hasi eta norbere burua ekonomikoki mantendu eta jatorrizko familiari lagundu ahal izateko. Horrela, kasu gehienetan ezin dute iraupen luzeko ikasketak burutzerik onartu, adibidez, erdi mailako edo goi mailako prestakuntza profesionala edo karrera unibertsitario bat. Ondorioz, lan merkatura sarbidea lasterren zabaltzen dieten oinarrizko ikasketak soilik

egiten dituzte. Modu horretan, kualifikazio baxuko prestakuntza eskuratzen dute, eta hauta ditzaketen enpleguak ere kualifikazio baxukoak izan ohi dira. Eta datorren atalean ikusiko den modura, kualifikazio gutxi eskatzen duten lanbideak dira hain zuzen krisiak gehien eragin eta murriztu dituenak.

Hori dela eta, enplegua aurkitzerako orduan zailtasun itzelekin aurkitzen dira gaur egun, eta ondorioz mutiko hauetariko batzuk ikasten jarraitzeko hautua egiten dute, beti ere dituzten gastuei aurre egin ahal izateko laguntza ekonomikoren bat eskuratu duten kasuetan. Baina zenbaiten arabera, hala eta guztiz, formakuntza horrek ez die lanpostu bat lortzeko biderik irekitzen:

Sí, la mayoría PCPIs³⁴, sí, alguno grado medio, ahora como les cuesta más encontrar trabajo, pues hay alguno que... que bueno, pues que tiene la posibilidad de acceder a un grado medio, entonces en vez de estar sin hacer nada buscándose la vida, pues bueno, hace la matrícula y saca un grado medio (E23. Hezitzailea. Goiztiri Elkartea).

Y luego pues entran en el bucle este de hago curso, prácticas, curso, prácticas, curso, prácticas, pues... ves curriculums de ellos y tienen como veinte cursos de un montón de cosas, saben un montón de oficios, y no han accedido al mercado laboral (E17. Teknikoa. Kolore Guztiak).

Beste batzuei ezinezkoa zaie, ikasten jarraituko balute ekonomikoki mantendu ezinik aurkituko liratekeelako. Aurrerago ikusiko den moduan, kasu horietan zenbaitzuk merkatu ilegalera jotzen dute, horrek izan ditzakeen arriskuekin.

Normalki jatorrizko herrialdean ikasketa gutxi burutu dituzten gazteak dira beraz, eta dituzten ikasketak harrera gizartean burutu dituzte. Hala ere, horien ikasketa aukerak kurtso eta HPKK-etara mugatzen dira gehienetan, kualifikazio gehiagoko ikasketetara sarbiderik ez dutelarik. Edonola ere, oinarrizko ikasketak burutzeko aukera badute.

Egoera laborala

Enplegu bat eskuratzeko gero eta zailtasun gehiagorekin aurkitzen dira gazte hauek, horren eragile nagusitzat krisi ekonomikoa aipatzen delarik. Elkarrizketatu diren gazte gehienak langabezia egoeran aurkitzen dira (16tik 11). Gainera egoera horretan aurkitzen direnen gehiengoak Espainiara iritsi zirenetik ez dutela inoiz lan egin diote, soilik gazte batek aipatzen du lan egin izana, baina modu ilegalean.

³⁴ Programas de Cualificación Profesional Inicial

Eta ez da soilik elkarrizketatutako mutikoek agertzen duten egoera konkretua, errealtate askoz globalago bat baizik, euren baldintza bertsuetan etorri ziren lagun gehienak lanik gabe daudela aipatzen bait dute:

Sí, (mis amigos) antes trabajaban, cuando no había crisis. Ahora con la crisis nada (E2. IKEDAM ohia. Hemen programa).

Sí, la mayoría (de mis amigos) no trabajan la verdad, la mayoría no trabajan... Están en paro y así. Sí que lo notas (la crisis), porque igual yo cuando llegué había más trabajo, yo veía a la gente trabajando, saliendo desde trabajo y metiéndose en otro trabajo y tal, ahora ya no ves eso (E15. IKEDAM ohia. Kolore Guztiak).

Krisiak euren egoera laboralean izan duen eragina nabarmena da. Hezitzaile, aditu eta gazte migratzaile eurek diotenez, orain dela urte batzuk, oparoaldi ekonomikoaren garaian, ez zen zaila eraikuntza, ostalaritza edo bestelako sektoreetan lanpostu bat aurkitzea. Gaur egungo testuinguru sozio-ekonomikoak ordea zaildu egiten du enplegu bat eskuratu eta mantentzea. IKEDAM ohien enplegu tasa erabat jaitsi da krisi ekonomikoaren ondorioz. Elkarrizketaturiko tekniko eta hezitzaileen arabera tasa hori krisiaren aurretik %90-95ekoa bazen gaur egun %30 inguruan dabil, eta zenbaitzuk gazte hauen kontratazioa pentsaezina dela ere aipatzen dute:

Los porcentajes de los que logran un empleo han bajado mogollón, sí, sí, totalmente, o sea... en picado. Si antes de los PCPIs salían el noventa y cinco por ciento con trabajo, ahora, un treinta puede ser... o sea, ha bajado mucho, vamos (E23. Hezitzailea. Goiztiri Elkarte).

Sin ir más lejos, en el PCPI, la orientadora laboral, la que les consigue las prácticas, así lo dice, eh... antes, hace cuatro o cinco años, prácticamente el 90% de los chavales que hacían las prácticas, si tenían buen nivel de castellano y tal... incluso se colocaban antes estos chicos que los nacionales, porque los nacionales que al final acababan en el PCPI, queda mal decirlo, pero eran lo mejor de cada casa. Entonces, estos eran los que de verdad se esforzaban, los que trabajaban, los que daban el callo, los que se interesaban por aprender, pues al final eran los que se colocaban y conseguían el trabajo. Pero, vamos, que desde hace cuatro o cinco años, vamos... ahora es casi impensable que les contraten (E9. Hezitzailea. Itaka Fundazioa).

Antes de la crisis las opciones, es decir, cuando hacían practicas había muchos más jóvenes que conseguían regularizarse y mantener sus trabajos... Ahora muy poquitos (E6. Hezitzailea. Hemen programa).

IKEDAM ohiak eurak ere ohartzen dira gaur egun lanpostu bat eskuratzeko dauden zailtasunetaz, aukerak murriztu egin dira eta gainera esperientzia eskatzen zaie:

Pues... el trabajo, estás buscando ahí trabajo, repartiendo curriculums, y... bueno, y nadie te llama... nadie te llama ni nada. Tampoco ahí hablando todo el día, buscando en ordenador, hablando con jefes y tal, y te dicen que no. Además para eso tienes que tener experiencia y... Ya te pierdes la esperanza, ¿sabes? Pero bueno... y aún así sigo buscando... (E22. IKEDAM ohia. Goiztiri Elkarte).

Gainera, gazte hauek lana aurkitzerako orduan dituzten zailtasunak bikoiztu egiten dira. Hasteko, IKEDAM ohiek eskura ditzaketan kualifikazio baxuko enpleguak krisiaren eraginez gehien murriztu direnak direlako:

Jo, además, si la crisis se nota en general en todos los sectores, yo diría que son justamente las profesiones que estos chicos estudian en los PCPIs los que más impacto de la crisis han tenido, y por lo tanto los que más han disminuido (E9. Hezitzailea. Itaka Fundazioa).

Los PCPIs que realizan estos jóvenes son fontanería, albañilería, carpintería, electricidad, mecánica... se salva fibra de vidrio, electrónica, o alguno así... pero, la mayoría fontanería, soldadura, construcción, y claro, ahora con la crisis... son los sectores que más perjudicados han resultado a raíz de la crisis (E23. Hezitzailea. Goiztiri Elkarte).

Bestetik, autoktonoen aldetik estigmatizatuak (Goffman, 1963) edo diskriminatuak izateak ere zailtzen du identitatearen eraikuntza hori. Goffman-ek (1963) aipatzen duenari jarraikiz, gehienetan estigmaren eramaileak bere identitatearen parte gisa barneratzen du, nolabait Bourdieu-k (2000) biolentzia sinboliko gisa definitzen duena litzateke, hau da, norbere burua zapaltzaileak ezarritako kategorien arabera ikustea. Harrera gizartearen baitan ezberdin edo gutxietsita sentitzeak ez du errazten autoktono zein etorkinak errekonozitzen diren identitate kolektiboaren eraketa. Zentzu horretan beharrezkoa izango da kulturen arteko kontaktua ematea eta elkarrekiko sentsibilizazioa garatzea. Elkarrekiko jarrerak positiboak direla ikusita identitate kolektiboaren eraketa berez etorriko da.

EAEn aurkitzen diren IKEDAM ohiek gizarteratze esparru eta dimentsioetan aurkezten duten errealitatea ondorengo taulan laburbiltzen da:

6.1. Taula: Elkarriketatutako IKEDAM ohien egoera gizarteratze prozesuaren esparru eta dimentsioetan

ESPARRU SOZIO- ESTRUKTURALA	Dimentsio juridikoa		<ul style="list-style-type: none"> - Egoera juridiko irregularrerako joera (langabezian eta diru sarrerarik gabe baimenak berritzeko zailtasunak) - Egoera irregularrean egonda: lan kontratu bat lortzeko zailtasunak, gizarte isolamendua (kalera ateratzeko beldurra), etab.
		Formakuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Kualifikazio baxuko ikasketak (krisiak gehien eragin dituen lanbideak)
	Dimentsio sozioekonomikoa	Egoera laborala	<ul style="list-style-type: none"> - Gazteen gehiengoa langabezian - Ezegonkortasun laborala (epe motzeko kontratuak, langabezian geratzeko beldurra)
		Egoera ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Errekurtso ekonomiko gabezia (arriskuak: beltzean lan egitea, lapurretak burutzea, etab.) - Errekurtso ekonomiko mugatuak (aldi batetarako emantzipazio diru laguntzak, irizpide zorrotzak) - Lanean daudenak egoera hobea, baina soldatak gehienetan ez dira altuegiak
		Bizilekua	<ul style="list-style-type: none"> - Klean/aterpetxeetan (arriskuak: baldintza fisiko eta higieniko txarrak, droga kontsumoa, poliziaren jazarpena, etab.) - Emantzipazio pisuetan (denbora mugatua) - Zenbaitzuk euren kontura pisu partekatuan
ESPARRU SOZIOKULTURALA	Gizarte dimentsioa	Eraketa	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Bonding</i> harremanen nagusitasuna. Gizarte sare txikia eta homogeneoa (beste IKEDAM ohi batzuk) - <i>Linking</i> harremanak emantzipazio baliabideetara sarbidea dutenek (hezitzaileak) - <i>Bridging</i> harremanen gabezia (gazte autoktono ezagunak; lan harremanik ez, komunitatearekin harremanik ez)
		Funtzioa	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Bonding</i> (beste IKEDAM ohi batzuk): hasieran informaziozko laguntasuna eta instrumentala, gerora emozionala soilik. - <i>Linking</i> (hezitzaileak): emantzipazio baliabide formalen kudeaketa.

	Dimentsio kulturala		- <i>Bridging</i> (gazte autoktono ezagunak): laguntasunik gabeko harremanak, aisialdikoak.
		Kulturartekotasun maila	- Kultura oso ezberdinak (kontakturako zailtasunak) - Kulturartekotasunik ez (joera asimilazionista edo banaketarakoak; IKEDAM ohien aldetik egokitzeko jarrera faboregarriagoak, autoktonoen aldetik ez)
		Hizkuntzen ezagutza	- Jatorrizko hizkuntzaren mantentzea eta erabilera (aberkideekin harremantzen direlako) - Harrera gizarteko hizkuntza ikasi (soilik gaztelera) baina praktikatu gutxi (lan eta komunitate harremanik ez dute praktikatzeko)
		Sentsibilizazio maila	- Sentsibilizazio gutxi (autoktonoen aldetik jarrera eta jokabide arrazistak, ukapena)
	Dimentsio identitarioa	Identitate amankomuna	- Euren identitatea definitzeko zailtasunak (ez jatorrizko herrialdekoak, ezta harrerakoak ere) - Identitate amankomun bat eratzeko zailtasunak (autoktonoen ukapenak identitate amankomunerako zailtasunak)

Iturria: Elaborazio propioa

6.2. Krisi ekonomikoaren eragina IKEDAM ohien gizarteratze prozesuan

Aurreko atalean ikerketa honen 1. helburua betetzeko ahalegina burutu bada, hala nola, IKEDAM ohiek gizarteratze esparru eta dimentsioetan aurkezten duten egoera zein den ezagutzea; atal honetan 1. hipotesia kontrastatzeko bidea emango duen analisia burutuko da, krisi ekonomikoak gazte etorkinen gizarteratze prozesuan izan duen eragina azaltzeko ahalegina egingo da, aurreko atalean agertu diren testigantzak kontutan hartuz eta ikerketan zehar jasotako informazio gehiago ekarriz.

Elkarrizketatuen arabera krisi ekonomikoak eragin itzela izan du IKEDAM ohien gizarteratze prozesuan. Pairatzen duten gizarteratze egoera aztertzerakoan behin eta berriz errepikatzen den gertaera da krisi ekonomikoarena, zeinaren ondorioz lana gutxitu eta ondorioz IKEDAM ohien enplegu tasa asko jaitsi dela aipatzen den. Tesi honetan elkarrizketatu den adituak argi azaltzen du enplegua

orain dela gutxi arte gazte etorkin hauen gizarteratzea ahalbidetzen zuen tresna nagusia bazen, gaur egun bere eraginkortasuna galdu duela:

Pues antes de la crisis, la herramienta principal a través del cual estos jóvenes se integraban era el empleo. Había suficiente trabajo para ellos, por lo tanto estudiaban primero un CIP y enseguida se colocaban. Claro, era un aspecto clave, ya que el tener un empleo te proporciona recursos económicos, una situación jurídica de regularidad, etc. Y también te proporciona un espacio para poder relacionarte con otros trabajadores, normalmente autóctonos. Eso quiere decir que vas a practicar el idioma, vas a conocer las costumbres de aquí, etc. ¿Qué es lo que está pasando en los últimos años? Que no hay trabajo suficiente y muchos de estos chavales no están accediendo al mercado laboral, y claro, ello quiere decir que no van a tener ingresos, que van a tener dificultades para regularizar su situación, que no se van a relacionar con otros trabajadores, etc. Entonces, parece ser que hoy en día el empleo ya no es una herramienta tan válida de cara a la integración de estos jóvenes (E14. Aditua).

Lanpostu bat izateak, esparru sozioestruturalari dagokion gizarteratzea erraztuko luke alde batetik: diru sarrerak emango lizkieke, zeintzuekin bizitzako oinarrizko gastuei aurre egin ahalko lieketen, hala nola, janaria, arropa, etxebizitzaren alokariua etab.; eta egoera juridiko erregularra eskainiko liekete. Eta era berean, gizarteratze soziokulturala ere ahalbidetuko liekete: egoera juridiko erregularrean egonik ez lukete poliziaren jazarpena dela eta kalera ateratzeko beldurrik izango, eta horrek komunitateko kideekin harremantzea posible egingo lieke; egunero lantoki batetara joateak bertako jendearekin erlazionatzeko aukera ere emango lieke; eta autoktonoekin harremantzeak euren gizarte sarea zabaltzeko eta heterogeneoagoa bihurtzeko aukera eskainiko lieke, horrek gizarte kapital handiagoa metatzea ahalbidetuko liekeelarik: kulturen arteko ezagutza, hizkuntza praktikatzeko aukera eta elkarrekiko sentsibiltate handiagoa.

Hezitzaileetariko batek dioen modura, zenbat eta harreman sare zabalagoa eta heterogeneoagoa izan, horiengandik gizarte laguntasuna jasotzeko aukerak gehitu egingo dira:

Claro, al tener una red social más amplia y que no esté constituida únicamente por otros compatriotas, sino también por gente de aquí, pues puede proporcionarles apoyo de diferente tipo en diferentes ámbitos. Pues no sé, le pueden informar por ejemplo, sobre oportunidades de empleo, o sobre la vivienda... Y sobre todo, pues explicarles el funcionamiento de la nueva sociedad, las costumbres... Ha habido chavales que han comentado que han hecho buenos amigos en el trabajo que les han ayudado mucho (E6. Hezitzailea. Hemen programa).


Autoktono eta etorkinen arteko kontaktu horrek, harrera gizarteak IKEDAM ohiak begi hobez ikustea eragingo luke, euren esperientziak gertuagotik

ezagutzea eta hobeto ulertzea. Aldi berean, gazte etorkinak eurak ere gizarte berrian gustura sentitzea eragingo luke, autoktonoengandik gizarte berrian hobeto moldatzeko balioak eta funtzionamendua ikasiz, eta laguntasuna jaso. Horrek, etorkin zein autoktonoen arteko kulturarteko bizikidetza eta identitate amankomun baten eraketa erraztuko lituzke.

Al final, si en el trabajo coinciden con autóctonos, quieras que no se relacionarán con ellos, y ese contacto también posibilitará que las personas de aquí conozcan más de cerca las experiencias de estos jóvenes, y ello sirve también para sensibilizar a la sociedad, ¿no? Al final, el conocerse más de cerca también hace que se desmientan los estereotipos que se han creado... (E9. Hezitzailea. Itaka Fundazioa).

Beheko irudian (6.2.) ikusi daitekeen moduan, enplegua IKEDAM ohien gizarteratze prozesua ahalbidetzeko tresna eraginkorra izan zitekeen, eta elkarrizketatuen arabera, duela urte batzuk arte halaxe izan zen:

6.2. Irudia: Enplegua IKEDAM ohien gizarteratze prozesuaren eragile




Iturria: Elaborazio propioa

IKEDAM ohien gizarteratze egoera azaltzerakoan argi geratu da ordea gaur egun lanpostu bat lortzerakoan gazte hauek aurkitzen duten zailtasuna bikoitza dela, batetik lan eskaintza asko jaitsi denez aukerak askoz murrizagoak direlako, eta bestetik enpresaburuek IKEDAM ohiak kontratatu ahal izateko jarraitu beharreko izapide prozedura luzea dela eta autoktonoak kontratatzekeo hautua

egiten dutelako. Horrela bada, lanpostu bat lortzen dutenen tasa asko jaitsi da, gehiengo langabezia aurkitzen diralrik. Eta egoera horretan egonik, euren gizarteratze prozesua guztiz kolokan geratzen da, ezin dutelarik esparru sozioestrukturalean eta ezta soziokulturealean ere aurrera egin, beheko 6.3. irudiak³⁶ argi erakusten duen moduan:

6.3. Irudia: Krisiaren eragina IKEDAM ohien enplegu eskuraketan eta gizarteratze prozesuaren galeran



Iturria: Elaborazio propioa

Soldatarik gabe, oinarrizko beharrak asetu ezinik aurkituko dira. Aldi berean, baimenak berritzea tokatzen zaien unean ezingo dute gutxieneko diru-sarrerak dituzela egiaztatu eta ondorioz egoera juridiko irregularrean geratuko dira. Horrek, nolabait gizarte isolamendua eragin diezaieke poliziak harrapatu eta jatorrizko herrialdera bidaltzeko bildurrez etxetik atera gabe geratzen diren kasuetan. Lantokian lankideekin burutzen diren harremanik ere ez dute izango, gizarte isolamendua are sakonagoa izango delarik. Horrek gizarte sare txikia eta homogenea izatea ekarriko die, gizarte kapital mugatua izango dutelarik. Eta

³⁶ Kasu honetan laukiak koloreztatu gabe agertzen dira, izan ere enplegurik gabe gizarteratze sozioestrukturalean zein soziokulturealean aurrera egin ezinik aurkitzen dira IKEDAM ohia.

autoktonoekin kontakturik ez izateak ez du ahalbidetuko etorkin eta autoktonoen arteko identitate amankomun baten eraketa. Gizarteratze prozesu osoa etenda geratuko litzateke beraz.

6.3. Emantzipazio baliabideak IKEDAM ohien gizarteratze prozesuan

Hirugarren atal honetan 2. hipotesia eztabaidatzeko bidea emango duen informazioa aurkeztuko da, IKEDAM ohiek eskuragarri dituzten emantzipazio baliabideen nolakotasuna eta gizarteratze prozesua bermatzeko erakusten duten eraginkortasuna aztertuz.

Existitzen diren baliabideak deskribatzerakoan argi geratu da horiek eskuratu ahal izateko kriterioak ezartzen direla, eta ondorioz 18 urte bete dituzten IKEDAM ohi guztiek ez dutela horietara sarbiderik. Hori argi ikusi da euren egoera ekonomikoa eta etxebizitzari dagokiona aztertzerakoan ere. Emantzipaziorako diru laguntza edo pisu bat lortzeko baldintza zorrotzak bete behar dituzte, eta ondorioz zenbaitzuk inolako diru sarrerarik gabe eta/edo bizilekurik gabe aurkitzen dira.

Hezitzaileek kritika egiten diote errealitate horri, euren arabera ez du zentzurik 18 urte bitartean gazte horiekin egindako esfortzu eta inbertsioaren ostean, kriterioak ez betetzeagatik gazteak baliabideetatik at utzi eta ordurarteko lan guztia pikutara botatzeak:

Me parece que es una pena, porque al final, durante el tiempo que los chicos están en el centro de menores Diputación gasta un dinero, que luego, bueno, sería cuestionable de qué forma lo invierte, pero desde luego que hay un dinero que gasta, y que a mi me parece una pena que a los dieciocho años, después de recursos personales y económicos invertidos, pues que un chaval quede en la calle. Me parece que es como que... es también tirar por la borda recursos, o sea, al no cerrar un proceso, al no acompañar más... (E6. Hezitzailea. Hemen programa).

O sea, el dinero que ha invertido Diputación para que... para su proceso, al final con todas las restricciones que hay después, a la mierda. Es absurdo también, por parte de diputación, porque al final ponen un dinero, pero luego cortan de otros lados, y al final, pues eso, no sirve (E23. Hezitzailea. Goiztiri Elkarte).

Zentzu horretan, Arartekoko Haur eta Nerabeentzako Bulegoko zuzendariak gazte etorkin hauek oraindik babesa behar dutela azpimarratzen du, eta 18 urte betetzen dituen IKEDAM bakoitzari irteera programa indibidualizatua egin behar zaiola, berdin duelarik zenbat denbora egon den zentroan. Aitzitik, gaur egungo emantzipazio aukerak murriztak dira:

Estos jóvenes requieren todavía de protección, como lo requiere mi hija de 19 años, ya que el contexto socioeconómico actual no les permiten desenvolverse realmente como adultos autónomos a la salida de los recursos de servicios sociales para infancia en desprotección. Sin embargo, todavía hoy en día, sus posibilidades de emancipación son deficientes. [...] A cada chaval que cumple la mayoría de edad hay que hacerle un programa individualizado de cara a su emancipación e integración social. Da igual que el joven haya estado tutelado únicamente durante un mes o durante dos años. Cada uno de ellos es diferente y necesita un proyecto individualizado que se adapte a sus necesidades. (E1. Ararteko. Zuzendaria)

Horrez gain, krisiaren eraginez murriztapenak egon dira baliabideetan. Diru laguntzen kopuruak jaitsi egin dira, emantzipazio pisuetan egon ahal izateko adinak edo gehienezko denborak ere bai, laguntzak zein pisuetako plazak lortzeko kriterioak gogortu, etab. Hezitzaileek diotenez, neurri horien atzean, krisi ekonomikoaz haratago, IKEDAMen fenomenoarekin amaitzeko nahia nabarmentzen da:

Sí, antes los chavales llegaban a cobrar no sé si cuatrocientos veinte o cuatrocientos sesenta euros, era lo que podían llegar a cobrar y los criterios no eran tan duros, se han endurecido mucho (E6. Hezitzailea. Itaka Fundazioa).

Lo que vemos últimamente, la tendencia... porque precisamente que ahora, bueno hace cuatro o cinco años, bajen de los veintiuno a los diecinueve años y medio la edad tope en la que pueden estar en los pisos de emancipación, justo cuando ahora lo necesitan más... Se podrían quedar más chicos, porque al final a nosotros lo que nos pagan plaza es lo mismo, podían sostener más a los chicos en los pisos, lo que pasa es que da la sensación de que les interesa tener plazas vacías para coger y recortar, y de dentro de no sé cuánto tiempo decir, pues ya no tenéis chavales, no necesitáis pisos... Yo creo que en vez de que los requisitos de entrada y los requisitos de estancia eh, sean tan estrictos, habría que ampliar un poco eso, para que así todas las plazas estuvieran ocupadas, si ampliarían lo del periodo de entrada de doce meses a seis por ejemplo, y luego les podríamos mantener en vez de hasta diecinueve años y medio hasta los veintiuno, no tendríamos tantas plazas vacías, porque tenemos un montón de plazas vacías, con lo cual pues prevemos que lo que van a hacer la próxima vez es decir "pues la mitad de plazas" (E23. Hezitzailea. Goiztiri Elkarte).

Sí, o sea, cobraban... yo creo que más del salario mínimo interprofesional o por ahí andaba, pero ahora, pues sí, eso, no sé si por la crisis o la política del PP o por qué, pues se han querido ir recortando, pues sí. Porque yo creo que subliminalmente lo que quieren es que no haya... bueno ya ni efecto llamada, que ya los que hay se marchen, o sea... sí. No están poniendo las cosas fáciles (E9. Hezitzailea. Itaka Fundazioa).

Diru laguntzen kopuruari dagokionez, dimentsio juridikoa aztertzerakoan aipatu den moduan kontraesankorra litzateke baita ere emantzipaziorako laguntza ekonomiko horiek ez iristea atzerritartasun legeak baimenak berritu ahal izateko ezartzen duen gutxiengora. Arartekoko Arartekoeko Haur eta Nerabeentzako

Bulegoko zuzendariak ere kritika egiten dio errealitate horri. Diru laguntzek merkatuko prezioekin bat etorri behar dutela uste du, eta ez duela zentzurik erresidentzia baimena berritzea ahalbidetzeko behar duten diru kopurua baino gutxiago esleitzea:

Desde el Ararteko entendemos que las ayudas económicas que se les proporciona a estos jóvenes deben adecuarse a los precios del mercado, y creemos que por ejemplo 300€ no son suficientes. A la hora de establecer una cantidad económica adecuada se podría tomar como referencia, la Renta de Garantía de Ingresos, que ronda entorno a 640€. Es muy importante tener en cuenta que si no disponen de un mínimo de ingresos económicos no pueden renovar el permiso de residencia, con todo lo que eso conlleva (E1. Ararteko. Zuzendaria).

Edonola ere, kriterioak betetzen dituztenak soilik sartzen dira emantzipazio errekurtsu ofizialetan. Gainerakoak beste zenbait entitatereen esku gelditzen dira, beti ere lekua izatekotan, baliabide horiek ere mugatuak baitira:

Hombre, yo te hablo desde Hemen, ¿no? O sea, desde el espacio Hemen, desde donde acompañamos a los chicos, eh... cuando los chicos salen del centro y vienen aquí para apuntarse, desgraciadamente hay una lista de espera, que a medida que el tiempo ha ido pasando, esa lista de espera cada vez es más larga, pues porque los itinerarios de los chicos cuestan más cerrarse, entonces al no salir chicos del programa, no pueden entrar otros, y... por que al final los recursos económicos son más limitados, entonces la lista de espera se va agrandando (E6. Hezitzailea. Hemen programa).

Baliabiderik eskuratzeko aukerarik izan ez dutenak 18 urte betetzean babesgabezia egoeran geratzen dira. Ordura arte arreta eta babes osoa jasotzetik erabateko hauskortasun egoerara.

Sí, yo creo que hasta los dieciocho años están hasta demasiado diría, hasta demasiado, demasiado, tantos recursos, aquí por lo menos, demasiado, propinas, o sea, y una paga de veinte euros, no sé qué, luego les llevaban al cine, esto, aquello, les compraban toda la ropa, todo, o sea, es que les daban todo. Y luego llegan los dieciocho años y ya ahí empiezan... las grandes dificultades, ¿no? Y ahí es donde... [...] desde los dieciocho años hay un vacío importante. Muchos se quedan en la calle, no les han enseñado a ser autónomos, y de estar súper protegidos a la nada, pues... (E12. Izebak).

Eh... están creando islas de seguridad dentro de un mar de inseguridad, es decir, están viviendo en un clima ficticio que va a acabar en cuanto tengan dieciocho años. Entonces, se puede crear una especie de falsa confianza en ellos diciendo "esto me va a durar toda la vida", pero no, le va a durar hasta los dieciocho años. Entonces, ha estado súper protegido en cierta manera esos periodos y luego va a ser abandonado a la jungla (E14. Aditua).

Beste zenbaitek zorte hobea izan dute eta nolabaiteko baliabideren bat jaso dute. Baina baliabide horiek gehienez 21 urtetara arte jaso ditzakete, eta zenbaiten kasuan, horietara sarbidea izanda ere, 21 urte betzean berriro ere 18 urterekin

aurkitzen zireneko puntuak aurkitu dira. Hezitzaileek diotenez, bere garaian emantzipazio baliabideak askoz eraginkorragoak ziren, eta helburuen betetze maila altua izan ohi zen, azken helburua lanpostu bat eskuratzea zelarik. Gaur egun ordea, testuinguru sozioekonomikoa asko aldatu da krisi ekonomikoa dela eta, baina baliabideek berdinak izaten jarraitzen dute, eta ondorioz helburuen betetze maila asko jaitsi da:

Imagínate, trescientas personas que salían del programa (Mundutik Mundura) al año, pues doscientas cincuenta salían con trabajo, con trabajo, una vivienda digna, eh... con su permiso de residencia y trabajo, con un trabajo para poder hacer una vida autónoma digamos, entonces claro, eso... en su día el cumplimiento de objetivos, el porcentaje de cumplimiento de objetivos era súper alto, y de... pues eso, pues de cuatro años aquí ese porcentaje, pues ha bajado, pues de un noventa y cinco por ciento a un treinta y cinco o treinta por ciento. Claro, el contexto socioeconómico ha cambiado mucho... (E23. Hezitzailea. Goiztiri Elkarte).

Gaur egun, emantzipazio baliabideak erabiltzeko aukera izan duten IKEDAM ohi gehienak babesgabezia eta menpekotasun egoeran ateratzen dira errekurtsio horietatik hezitzaileek diotenez:

E: Antes salían más empoderados, sí. Ahora, sin embargo, más desprotegidos, salen más dependientes, mucho más dependientes...

M: ¿Qué porcentaje dirías, más o menos, que salen siendo todavía dependientes?

E: ¿Porcentaje de chicos que salen dependientes? Pfff... ¿setenta? Sí, siguen siendo dependientes, antes les veías... antes los chicos que salían ya salían con su trabajo, su casa, venían aquí de visita, te invitaban a comer a su casa, con sus amigos, lo que sea, y ya ellos ya tenían su vida. Ahora no, ahora tienes que hacer orientación laboral con ellos, tienes que ayudarles a renovar todos los permisos, tienes que apuntarles a los bancos de alimentos, tienes que escucharles a veces porque también, o sea... ahora salen mucho más dependientes de la administración, considerándonos nosotros como administración, o de las asociaciones, vamos, mucho más dependientes que antes, sí. A nivel de todo, vamos. Esa sería la palabra, más dependientes (E23. Hezitzailea. Goiztiri Elkarte).


Emantzipazio errekurtsioek soilik esparru sozioestrukturean eragitea dute helburu, batik bat IKEDAM ohiek lanpostu bat eskurtzea, ekonomikoki bizimodu autonomo bat egitea ahalbidetuko diena. Hezitzaileetariko batek argi azaltzen duenez ordea, gizarteratzea ez da ikastea edo lanpostu bat izatearen sinonimo; nahiz eta hori oso garrantzitsua izan, beste zenbait esparru ere badaude, emantzipazio errekurtsioetatik eragin beharko liratekeenak. Batik bat, harremanen esparrua landu beharko litzatekeela uste da:

Se piensa que la integración social en la sociedad es estudiar o trabajar, y no, hay muchos más ámbitos, entonces yo creo que se cubre parte de los ámbitos de una persona, no se cubre todos. [...] Está claro que la integración en el mundo laboral, o sea, es... es lo principal, o sea, sin una integración laboral, sin unos recursos económicos que puedan obtener, difícilmente se van a integrar en la sociedad y van a poder vivir en esta sociedad. Pero también es verdad que estando como están las cosas, es casi imposible. Hoy en día no es suficiente darles la oportunidad de formarse para que luego tengan un empleo, es casi imposible el hecho de obtener un puesto de trabajo, por lo tanto también hay que trabajar otras cosas. [...] Sí que nosotros intentamos cubrir lo básico, ¿no? O sea, relaciones afectivas, de amistad... [...] Nos parece importante que puedan participar en cualquier momento de su vida con gente de aquí, y la gente aquí también en los círculos de la gente de fuera. Pero al final, nuestra entidad llega a donde llega también, y desde Diputación no se hace (E9. Hezitzailea. Itaka Fundazioa).

Pero la realidad luego es que cuando... cuando más naturalmente surgen las relaciones, pues ellos en la calle o con el deporte, pues mejor. Nosotros también fomentamos que se apunten a... pues eso que practiquen deporte, pues si hay algún equipo, o que vayan al polideportivo, o... o pues participar en algunas actividades que haya a nivel social o lo que sea, pues que vayan a manifestaciones en contra de la violencia de género, lo típico, que vayan a las EPAs porque allí también pues bueno, pueden conocer a gente, pero... pero aparte de eso poco más se hace, ¿eh? La verdad es que poco más (E23. Hezitzailea. Goiztiri Elkarte).

Hiru porbintzietan ikusitako programa ezberdinek orokorrean egoitza laguntza, laguntza juridikoa eta lan munduan txertatzeko aukerak zabalduko dizkien formakuntza eskaintzea dute helburu. Baliabideak gizarteratze prozesuaren esparru sozioestruturala soilik lantzeraz eta batik bat enplegu bat lortzeraz bideratuta daude beraz. Aurreko azpi-ataleko 6.3. Irudia berreskuratzen badugu, ondorengo litzateke irudia, 18 urte bete eta enplegurik ez duten bitartean emantzipazio baliabideen bitartez diru sarrerak, etxebizitza eta egoera juridiko erregularra bermatuko dira:

6.4. Irudia: Emantzipazio baliabideen eragina IKEDAM ohien gizarteratze prozesuan



Iturria: Elaborazio propioa

Baina baliabide horiek eskuratzeko gehieneko epera iristean enplegurik eskuratu ez badute berriro ere ezer gabe aurkituko dira, eta gaur egungo testuinguru sozioekonomikoa ikusita ez da erraza izango lanpostu bat lortzea. Horrela bada, berriro ere adin nagusitasuna bete zutenean aurkitzen ziren kalteberatasun egoeran egongo dira, gizarteratze prozesuaren esparru eta dimentsiorik bete ezinik. Enplegurik gabe, diru sarrerarik ez dute izango, eta ondorioz ez dute oinarrizko gastuei aurre egiterik izango, ezta baimenak berrituz ere. Eta euren gizarteratze sozioestruturala kolokan geratzeaz gain esparru soziokulturalean ere aurrera egin ezinik aurkituko dira. Laneko harremanik gabe eta komunitatean lasaitasunez agertzeko beldurrez egongo dira, autoktonoekin harremanik gauzatu ezinik, horrek estereotipoak indartzea ekar dezakeelarik, elkarrekiko ezagutzarik eza eta ukapena, eta horrek aldi berean identitate amankomun bat eratzeko ezintasuna. Datorren atalean eredu prototipikoen baitan ibilbide zapuztuaren adibide gisa aurkeztuko den E22ren kasuak ongi isladatzen du errealitate hau.

6.4. Eredu prototipikoen aurkezpena

Gazte hauen gizarteratze errealitatea hobeto azaltzeko, gehiengoaren egoerak edo ibilbideak hobekien isladatzen dituzten bi kasu aukeratu dira eredu prototipiko gisa, jarraian azalduko direnak:

1. eredua: arrakasta erlatiboko ibilbidea

E20

20 urte

Maroko

Goiztiri Elkarte (Mundutik Mundura proiektua)

Hilabete batzuk Amorebietako lehendabiziko arrerako zentruan pasa ostean Gurutzetako zentrura aldatu zuten, bertan 2 urte eta erdi igaro zituelarik. Adin nagusitasuna bete zuenean *Mundutik Mundura* proiektura sarbidea izan zuen eta beste elkarte batzuekin batera proiektua kudeatzeaz arduratzen den Goiztiri Elkartearen pisu batetan bizitzeko aukera izan zuen. Aldi berean Diputazioaren diru laguntza berezia jasotzeko aukera ere izan zuen.

Adin txikikoen zentroan zegoen bitartean eskola graduatua atera zuen, eta zenbait kurso burutu: beira-zuntza, karrozeria eta txapa eta pintura besteak beste. Adin nagusiko zelarik ere ikasten jarraitu zuen, eta praktikak burutu zituen enpresa batetan kontratatzeko zortea izan zuen. Aurretik ere burutu zituen praktikak beste enpresa batzuetan, baina ordura arte ez zuten inon kontratatu. Horrela bada, gaur egun lanean ari da aldizkari eta liburuak koadernatzen dituzten enpresa batetan.

Lanpostua eskuratu zuenean emantzipazio baliabideak utzi zituen eta bere kabuz bizitzen jarri zen beste bi lagunekin batera pisu bat partekatzen duelarik. Enpleguarekin oso gustora dago, arduraldi erdian egiten du lan eta hilero 800€ irabazten ditu. Gelaren alokairua 300€ ordaintzen dituela kontutan izanik, gainontzeko gastuei aurre egiteko ez zaio soberan geratzen, baina ongi moldatzen dela aipatzen du, naiz eta aurrezteko ez zaion iristen.

Egoera juridiko erregularrean aurkitzen da, bi urterako erresidentzia eta lan baimena duelarik, eta horrez gain nazionalitatea izapidetzen ari da. Horrela bada, E20ren gizarteratze sozio-estrukturala bide onetik doala esan daiteke:

lanpostu bat du, gastu ezberdinei aurre egiteko bidea ematen dion soldata, eta erresidentzia zein lanerako baimenak ditu. Aldiz, 5 hilabete barru kontratua amaitzen zaio, eta berrituko ez dioteneko beldurra agertzen du: *“Con esta crisis siempre vives con ese miedo, te pueden echar en cualquier momento”*. Horrek soldatarik ez jasotzea eta etorkizunean egoera irregularrean aurkitzeko arriskua suposatzen diolarik.

Gizarteratze soziokulturalari dagokionean ere nahiko bide ona erakusten du, baina gabeziekin. Bere gizarte sarea ez dela soilik aberkideetara mugatzen aipatzen du, lanetik eratorritako harremanek autoktonoekin kontaktuan egotea ahalbidetzen diote, eta bestalde Kick Boxing-eko talde batetan ere aritzen da, bertako jendeak ere parte hartzen duena. Harreman horiek gaztelera praktikatzeko bidea ematen diote, baita kultura berriaren inguruko ezagutzak jaso eta bere jatorrizko ohiturak igortzeko ere. Baina edonola ere lan orduz haratago harreman gehiegirik ez duela mantentzen lankideekin aipatzen du; eta lagunaren artean (aberkide zein autoktonoak) elkar laguntzen ahalegintzen badira ere, adin beretsuetakoak izanik askotan eman eta jaso dezaketena laguntza mugatua dela.

Identitateari dagokionez nahiko egoera nahasian aurkitzen dela adierazten du, ez dela ez harrera gizartekoa ezta jatorrizko gizartekoa ere sentitzen, galdutako pertsona bat baizik: *“Al final de todo no eres ni de aquí ni de allí, ¿sabes? Eres un perdido, ¿sabes?”*. Horrela bada, oraindik ez du guztizko gizarteratze soziokulturalik lortu, horretarako beharrezkoa izango baita autoktonoekin batera identitate amankomun baten baitan isladatzea euren burua.

Hala eta guztiz, kasu honek nahiko bilakaera egokia izan duen gazte baten egoera aurkezten digu, gizarteratze prozesuaren esparru sozio-estruktural eta soziokulturalean arrakasta erlatiboa erakusten duelarik. Aldiz, bere gizarteratze prozesua enpleguan oinarrituta dago, eta nahikoa litzateke hori galtzea bere ibilbideak buelta erdia eman eta erabat zapuztuta geratzeko, hain zuzen tresna horixe baitan diru sarrerak ahalbidetzen dizkiona, egoera juridiko erregularra, eta baita autoktonoekin harremantzea ere.

2. eredia: ibilbide zapuztua

E22

20 urte

Maroko-Meknes

Goiztiri Elkarte (Mundutik Mundura proiektua)

E22ren kasua esanguratsua da, adin txikikoa zela iritsi zenetik prozesu guztia egokitasunez jarraitu ondoren, 21 urte betetzear dagoenean oso egoera kritikoa aurkitzen delako, erabateko menpekotasun egoeran. 16 urterekin iritsi zen Bilbora eta lehendabiziko arreta eskaintzen duen Amorebietako zentroan egon zen hasierako hilabeteetan. Gero Izurtzako zentrorra aldatu zuten, zeinetara normalean IKEDAM zentzudunenak igortzen diren. Bere aburuz zentrorik hoberena zen, txikia, 18 pertsona soilik bizi ziren bertan, eta gustura egon zen, nahiz eta apur bat urrun zegoen kokatuta, mendian. Urtebete eta zortzi hilabetez egon zen bertan.

Zentro horretan zegoen bitartean eskola graduatua atera zuen, eta bi HKPP burutu zituen, iturgintza eta klimatizazioa. Horiei zegozkion praktikak ere burutu zituen, baina amaitu ostean ez zuen enpresak kontratatzeke zorterik izan. Erresidentzia baimena ere izapidetu zioten. Apurka apurka bere gizarteratze sozioestruturala bermatzen ari zen, formakuntzaren bitartez eta egoera juridiko erregularra eskuratuz.

Durangoko futbol talde batetan jokatzeko aukera ere izan zuen, zeinetan lagun autoktonoak egin zituen. Durangoko eskolan ere egin zituen lagunak, baita euskara pixkat ere ikasi ere. Horrela bada, gizarteratze prozesuaren alderdi soziokulturala ere apur bat bermatuz zioan: bere gizarte sarea ez zen aberkideetara mugatzen, eta autoktonoekin harremana izateak kontaktu interkulturala ahalbidetzen zion. Hala eta guztiz, bere lagun taldea batik bat beste IKEDAM ohi batzuek eratzen dutela aipatzen du, baita autoktonoen aldetik jarrera arrazistak jasan behar izana ere.

18 urte bete zituenean, *Mundutik Mundura* programan sartzeko irizpideak betetzen zituenez Goiztiri Elkarteko emantzipazio pisu batetan plaza lortu zuen. Urtebetez egon zen pisu batetan, eta 6 hilabetez beste batetan. Lehendabizikoan 175 euro inguruko alokairua ordaindu behar zuen, baina janaria eta etxeke gastuetaz Goiztiri arduratzen zen. Bigarrengoan alokairua merkeagoa zen, 120

euro ingurukoa, baina janariaren gastuei jada berak egin behar zion aurre. Gastu horiei aurre egitea posible zitzaien diputazioaren inklusiorako diru laguntza lortu zuelako, hilean 331 euro ematen zizkionak. Goiztiriko pisuetan zegoen bitartean ikasten jarraitu zuen, lorezaintza eta informatikako kurtsoak burutu zituen, eta erresidentzia baimena ere berritu zuen.

Enplegurik aurkitu ez bazuen ere, bere behar ekonomikoak nolabait aseta zeuden diru laguntzaren bitartez, formakuntzan jarraitzen zuen, bizileku bat zuen eta egoera juridiko erregularrean mantentzen zen. Bere gizarteratze prozesuak aurrera jarraitzen zuen beraz, esparru sozioestrukturalari dagokionean behinik behin.

Jadanik iritsi zen emantzipazio pisu batetan egon ahal izateko denbora mugara, hori dela eta, gaur egun pisu arrunt batetan bizi da beste 3 lagunekin batera. Alokairua 175 euro ordaintzen du eta horrez gain gainerako gastu guztiei egin behar dio aurre: etxeko gastuak (argia, ura, gasa), janaria, arropa, etab. Inklusiorako diru laguntza jasotzen jarraitzen du, horrela bada momentuz gastu horiei aurre egiteko gai da, baina egoera ekonomiko larrian dagoela baieztatzen du, dena ordaintzera iristeko zailtasunak dituelarik:

Apurka bere egoera ekonomikoa zailtzen doa beraz, eta gainera laister inklusioko diru laguntza jasotzeko gehieneko epera iristsiko da, inolako diru sarrerarik gabe geratuko delarik, bitarte horretan enplegurik aurkitzen ez badu behintzat. Eta saiatzen ari bada ere, zaila ikusten du lanpostu bat eskuratzea, lan gutxi dagoelako eta gainera esperientzia eskatzen delako. Urte amaieran erresidentzia baimena berritzea tokatzen zaio, eta horretarako bizitzeko bitartekoak eskatuko dizkiote. Kobratzen ari den inklusioko diru laguntzarekin ez da gutxiengora iristen, baina gainera dokumentuak berritzeko data baino lehen amaitzen zaio laguntza hori. Horrenbestez, baimena berritu ezinik aurkituko da, egoera juridiko irregularrean geratuz.


Horrela bada, adin txikiko zen bitartean zein adin nagusitasunera iristean irizpide guztiak bete eta eskuragarri zituen baliabide guztietaz baliatu bazen ere, pixkanaka gizarteratze prozesuan atzera egin eta hasierako puntuan geratzen da. Bere kasua gertutik ezagutzen duen Goiztiriko hezitzailea ere kontziente da bere egoeraz:

Sí, hasta ahora porque lo ha ido haciendo con Goiztiri, pero ahora ya el día que tenga que renovar el permiso de residencia se lo van a denegar fijo, si no tiene trabajo le van a denegar, porque con la ayuda no llega al mínimo que tiene que llegar, y además se le acaba ya, sí, sí. Hamsa ya esta... sin ingresos económicos no puede renovar pero tampoco puede hacer frente a sus gastos. Y con lo difícil que está hoy en día encontrar un trabajo... su proceso de integración lo veo muy complicado. (E23. Hezitzailea. Goiztiri Elkarte)

Bizkaiako mutiko honen kasua aipagarriena izanik ere, Araba eta Gipuzkoan ere badaude antzeko egoeretatik pasatu diren gazteak, emantzipaziorako diru laguntza edo pisu batetan plaza lortu izanik ere, amaiera epera iritsi eta lanposturik gabe zeudenez hasierako puntuak aurkitu direnak, edo hori gertatzeko arriskuan daudenak, aurrera egin ahal izateko ezer gabe.

Nolabait hiru traiektoria bereiziko lirateke adin nagusitasuna betetzen dutenean (6.5. Irudia): 1) Lanpostu bat eskuratu dutenek euren gizarteratze prozesuarekin jarraitu ahal izango dute; 2) Irizpideak bete eta emantzipazio baliabideetarako sarbidea dutenek egonkortasun sozioekonomikoa lortuko dute denbora tarte batetan, horiek erabiltzeko gehieneko epea bete arte. Horiek erabili ostean lanpostu bat eskuratzen badute gizarteratze prozesuan aurrera jarraituko dute lehendabiziko traiektoriari jarraitu diotenenekin batera; aldiz enplegurik lortzen ez badute prozesu hori etenda geratuko da eta gizarte bazterkeria egoeran aurkituko dira gazteak. 3) Eta azkenik, adin nagusitasuna bete ostean enplegurik lortu ez dutenak eta emantzipazio baliabideetara sartzeko irizpideak betetzen ez dituztenak zuzenean gizarteratze prozesua etenda eta gizarte bazterkeria egoeran aurkituko dira.

6.5. Irudia: IKEDAM ohien ibilbideak gizarteratze prozesuan



Iturria: Elaborazio propioa

Lehendabiziko traiektoria E20ren kasua litzateke, gaur egungo testuinguru sozioekonomikoan gertatzeko nahiko zaila dena, azken urteetan gazte etorkinen kontratazioa asko murriztu baita. Gehienetan bigarren edo hirugarren traiektoriak jarraitzen dituzte IKEDAM ohiek, eta bigarren bideari jarraitzen dioten kasu gehienetan, gizarteratze prozesuaren garapen luzeago bat izan ostean hirugarren bideari jarraitu diotenekin batera aurkitzen dira: enplegurik gabe eta gizarte bazterkeria egoeran, E22ren kasuan argi agertzen duen modura.

VII. KAPITULUA: IZEBA PROIEKTUAN PARTE HARTU DUTEN IKEDAM OHIEN GIZARTE KAPITALAREN METAKETA ETA HORREK GIZARTERATZE PROZESUAN DUEN ERAGINA

Aurreko atalean elkarrizketatuen arabera EAEn dauden IKEDAM ohien gizarteratze egoera nahiko kezkarria dela ikusi bada, *Izeba* proiektuan parte hartzeko aukera izan duten eta izebekin harremanetan jarraitzen duten gazte etorkinen egoera nolakoa den ikertu nahi da (2 helburua). Horrela bada, izeben aldetik zein motatako laguntasuna jasotzen duten aztertuko da, II. kapituluan zehaztutako laguntasun mota ezberdinak kontutan izanik (instrumentala, informaziozkoa eta emoziozkoa). Eta ondoren, laguntasun horrek gizarteratze prozesuaren esparru eta dimentsioetan nola eragiten duen ikertuko da.

7.1. Izebengandik jasotako gizarte laguntasuna eta gizarte kapitalaren metaketa

Izeba proiektua berez adin txikiko direnei soilik bideratutako baliabidea bada ere, harreman horrek gehienetan aurrera jarraitzen du adin nagusitasuna bete ostean. Proiektuaren koordinatzaileak aipatzen duenez une horretan harremanean berriro oreka bilatu beharra egoten da, gazteen errealitatea aldatu egiten delako, baina kasu gehienetan egoera berrira egokitu eta erlazioa mantendu egiten da:

M: *Eta adin nagusitasunea iristeienien normalien jarraitzen debe harreman horrekin?*

E: *Bai, bai, gehiengo gehienguak. O sea, hor bai pixkat egiten dutena da berriz orekatu, o sea len zeukaten oreka hori, ez? Ba pixuan zeuden bittartean eta gertu bizi ziren bittartean eta hori dana, ba bat da, eta gero 18 urte betetzean hor berriz ere normalean egoten da momento desestabilizado eta gero berriz be oreka billatzen dute, eta batzun kasuan oreka hori izaten da ba hillean behin geratu, beste batzuk ba jarraitzen dute berdin, astero, beste batzuk ba yo que se, baiña hori da, berriz ere billatzen dute beraien ekilibrio hori (E18. Koordinatzailea. Izeba proiektua).*

Bertako pertsona heldu edo familia batekin harremana izanik, *Izeba* proiektuan parte hartzeko aukera izan duten gazteen gizarte sarea ez da beste IKEDAM ohi batzuetara soilik mugatzen. Eta izeba pertsona edo familiaz gain,

horien lagun eta familia zabalarekin ere mantendu ohi dituzte harremanak.

Horrela bada, euren gizarte sarea zabalagoa eta heterogeneoagoa da:

Gazteak izeben inguruan parte hartzen dute, ezta? Ba baten bat futboleko beterano taldera doa jolastera, beste batzuk, ba hori, poteora ostiraletan, ba gaztea beraiekin joaten da, beste batzuk ba famili bazkarietara, eta bueno, azkenean ba euren sarea ere zabaldu egiten da pixkat, ez? Ez daude beti beste gazte etorkin batzuekin... (E18. Koordinatzailea. Izeba proiektua).

E1: *Luego, otro paso fue presentar a la familia, llevarle a las comidas familiares, y bueno, fue bien...*

E2: *Sí, por lo menos nadie dijo nada, nadie puso mala cara, eh, todo el mundo le admitió, habrían pensado lo que habrían pensado, pero allí nadie dijo nada, ni delante ni detrás. Y encima Mohamed³⁷ (E13) viene, saluda a todo el mundo, da un beso a todo el mundo, y luego cuando se va saluda a todo el mundo, así que bueno, se le ha dado la oportunidad, la gente se ha abierto para que entrara, y luego él ha aprovechado...*

E1: *Cuando no viene, preguntan “¿dónde está Mohamed (E13)?”. Sí... es curioso, esa es la mejor señal, ¿no? (E12. Izebak).*


Pues con mis amigos muy bien, muy bien. De hecho, vamos, cuando hacemos comida y así me dicen “oye llámale a Mustapha”, y me preguntan por él. Bueno, de hecho en su cumpleaños también siempre aviso, digo “oye que sepáis que es el cumpleaños de Mustapha”, tiene Facebook y toda mi cuadrilla le felicita. Y vamos, si hacemos alguna actividad o así está invitado sí o sí. Y con mi familia igual, ¿eh? O sea, viene a comidas familiares, mis sobrinas le hacen dibujos por su cumpleaños... (E21. Izeba).

Suelo ir con ellos a casa de sus padres, en Zarauz. [...] Y con sus amigos, claro, una vez fuimos a Logroño, con sus amigos, estuvimos en una casa, cocinar, estar con ellos... muy bien la verdad, así conoces mejor a la gente y... (E25. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Izeba proiektuan parte hartzeko aukera izan duten IKEDAM ohiek aurkezten duten gizarte sarea beraz osotuagoa da, beste IKEDAM ohi batzuekin mantentzen dituzten *bonding* harremanez eta emantzipazio baliabideak ahalbidetzen dizkieten hezitzaile eta tekinikoekin dituzten *linking* harremanez gain, izebekin eta horien senide zein lagunekin *bridging* erakoak mantentzen dituztelako, kide heterogeneoen arteko harremanak. Horrela bada, azken hauen gizarte sareak ondorengo egitura aurkezten du:

³⁷ Agertzen diren izeba eta hiloben izenak faltsuak dira, elkarrizketatuen anonimatu babesteko asmoz.

7.1. Irudia: Izeba proiektuan parte hartu duten IKEDAM ohien gizarte sarearen eraketa



Iturria: Elaborazio propioa

Euren gizarte sarea zabalagoa eta heterogeneoagoa izanik, bertatik jaso dezaketen gizarte laguntasun aukerak eta pilatu dezaketen gizarte kapitala ere handiagoak dira. Jarraian, izebengandik jasotzen duten laguntasun mota bakoitza azalduko da:

7.1.1. Laguntasun instrumentala

Laguntasun instrumentalak norbanakoei arazo praktikoak konpontzea edo eguneroko eginkizunak burutzea errazten dieten beste pertsona batzuek hornitutako ekintza edo materialei egiten badie erreferentzia (Barrón, 1996; Musitu et al., 2001), izebek IKEDAM ohiei eskaintzen dieten laguntasun instrumentala argi geratzen da erabilteko izan diren gazte etorkinen, izeben euren eta proiektua gertutik ezagutzeko aukera izan duten hezitzaile eta teknikoentzako. Horiek diotenez, gauza asko lortu dituzte gazte etorkinek izebek

emandako laguntasunaren bitartez, hala nola, bizilekua, enplegua, baimenen tramitazioa etab.:

Ha habido izebas que se han implicado muchísimo y en el que gracias a ellos los chavales han conseguido tirar para delante, ¿eh? [...] y se ha conseguido que chicos entrasen a pisos gracias a que los izebas han presionado, o... izebas se han puesto en contacto con nosotros para hacer seguimientos a chicos porque veían que lo necesitaban, o izebas que han encontrado curro a chavales... (E17. Teknikoa. Kolore Guztiak).

Baiña kasu gehienetan laguntzen dute ba hori, que si tramites de papeles, no se que, gero etxea billatzen, eztaikit zer, normalean bolkatzen dia pilla bat, eta beraiek eskertzen dute pilla bat. Eskolekin, lana billatzeko, praktikak non egin, eztaikit zer... elkarrizketak lagundu billatzen, eta gauza hoietan normalean oso gainean egoten dira izebak (E18. Koordinatzailea. Izeba proiektua).

Gazte hauek lanpostu bat eskuratzerako orduan dituzten zailtasunez ohartuta, izebek, zeregin horretan zuzeneko laguntza eman ohi diete. Enpresa desberdinekin harremanetan jarri eta IKEDAM ohia gomendatzeko prest agertzen dira:

Hay que apadrinarles en ese sentido un poco, ¿no? Sobre todo a la empresa que quiere contratarles decirle “que me hago yo responsable”, o sea, es importante decir a la empresa “mira pues le conocemos desde hace cuatro años, mira, tiene estos...” los pros y los contras, les explicas, les dejas claro y “oye, no hay ningún compromiso, si no se porta bien, o lo que sea”. Todo, en fin, como uno más, pero no es uno más, porque claro, es tan costoso hacerles un contrato a ellos, que no es uno más, hay que empujar... (E12. Izebak).

Yo por ejemplo le decía a él, que al final no lo llegó a necesitar, pero era “oye, nos vamos a echar currículums, los dos, te acompaño, echamos por estos sitios...” y jo, al final que vaya con alguien de aquí, que, ¿sabes? Un poco, que puedas respaldarle a él, incluso hacer una carta de recomendación, para que así pudiera ir un poco como recomendado, ¿no? O sea, decir “oye, pues mira, o sea yo te puedo decir de verdad que este chico es... que cumple con esto y con lo otro”. Y, o sea, que en el currículum pusiera mi dirección o mi nombre y teléfono, para que me contacten y pudiera dar referencias (E21. Izeba).

Yo he hablado con ellos “cuando encontréis un trabajo así, me avisáis”. Una vez fui a una oficina a buscar trabajo, y fue conmigo él, le digo al jefe “tengo familia de acogida y tal...”. El jefe habla con él y así puede saber más sobre mi y tengo más probabilidad para que me coja (E25. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Laguntasun hori hainbatetan funtsezkoa da, enpresaburua gazte hauek kontratatu ahal izateko jarraitu beharreko prozedura luzeetan sartzeko konbentzitzeko gakoa izan bait daiteke. Izeba proiektuko erabiltzaile ohi batek bere izebari esker lortu zuen enplegua hain zuzen, eta baita beste zeinbait IKEDAM ohik ere:

E2: Pues Mohamed (E13) esta trabajando, esta respondiendo genial, pero claro, ese contrato de trabajo, pues se lo puso él (señala al otro izeba (E1)), de alguna manera convenció a la empresa para que le contrataran. [...] Y él vive en un piso con tres que trabajan, uno electricista, el otro en una empresa de caucho, allí en Hernani, y el que trabaja distribuyendo periódicos. Entonces bueno, ellos están más o menos bien... Pero claro, el de la electricidad, su izeba era una parlamentaria vasca del PNV, claro... Los de Omar eran otros que viven en Egia, claro, todos tienen por detrás un apoyo (E12. Izebak).

Enplegu bat bilatzerako orduan gazte hauek jasotzen duten laguntasuna eta babesa ere oso garrantzitsua da, gazte askok laguntza horri esker bilatu izan dute lanpostua. Izebarik gabe ziurrenik zailtasun gehiago izango lituzkete... (E18. Koordinatzailea. Izeba proiektua).

Laguntasun instrumental hori jasota ere, zenbaitetan ez da izan posible gazte hauek enplegua aurkitzea, baina hala eta guztiz ere, IKEDAM ohiek esker ona adierazten dute, izebak gutxienik ahalegindu egin direla ikusteak ongi sentiarazten ditu:

Por lo menos que no sale nada, por lo menos ellos también intentaron, ¿sabes? Intentaron pues que consiga un trabajo. Aunque no lo he conseguido por lo menos sí queda esa sensación, que sí intentaron (E24. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Aunque no han conseguido no pasa nada, si han intentado ya está, es lo que importa (E25. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Etxebizitzarekin ere laguntzen diete izebek, emantzipazio pisu batetan plaza bat lortzen edota alokatzeko gela bat bilatzen hain zuzen. Esaterako gazteetariko bat adin txikikoen zentrutik atera ostean bere izebaren hiloba baten etxean gela bat alokatuta egon zen bizitzen:

Yo he salido del centro y me he puesto por mi cuenta en un piso. Al principio estuve viviendo en Urnieta con el sobrino de Jose Luis (su izeba, E12). Él tenía piso, el sobrino, y estuve compartiendo piso con él (E13. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Eta *Izeba* proiektuko koordinatzaileak eta zenbait izebek diotenez, bizilekurik aurkitu ez duten IKEDAM ohien kasuan hainbat izebak euren etxeetan ere hartu dituzte gazte hauek denboraldi batetarako, tutelapeko zentrotik atera eta beste bizileku bat bilatu arte normalki. Izebengatik ez balitz, gazte horiek kalean bizitzen aurkituko lirateke, horrek dakartzan arrisku guztiekin eta integrazio prozesuan suposatzen duen etenarekin:

Izeben etxean asko egon dira, ez? Plaza hori erten arte, libratu arte adin nagusia, ba izeben etxean egon dira. Bestela kalean egon beharko lukete. Klaro, kalean bizitzeak, oso gogorra izateaz gain, eten egiten du ordura arteko integrazio prozesua, ez? Orduan hori garrantzitsua da (E18. Koordinatzailea. Izeba proiektua).

En nuestro caso no ha sido necesario, pero ha habido gente que hasta ha comentado que los chicos se han quedado en la calle y les han dejado un hueco en su casa mientras encontraban alguna cosa (E12. Izebak).

Yo en la calle no he estado porque yo tengo esta familia de acogida aquí, bueno mis izebas, que me ayudan mucho. A mi me han dado las llaves de casa y todo, y me dicen que puedo ir cuando quiera (E25. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Dimentsio juridikoan ematen dieten laguntasuna ere oso esanguratsua da. IKEDAM ohietariko asko izeben etxeetan erroldatuta daudela aipatzen du proiektuko koordinatzaileak, izan ere, baimenak berritu ahal izateko beharrezkoa da etxebizitza batetan erroldatuta egotea:

Jo, enpadronatuta izebaren etxean daude pilla bat, pilla bat, o sea, izugarri, o sea, baña momentu honetan zazpi gutxienez egongo dira. Eta hori funtsezkoa da baimenak berritzeko (E18. Koordinatzailea. Izeba proiektua).

Horrez gain, dokumentuak berritzera ere laguntzen diete beharrezkoa den kasuetan. Eta oso esanguratsuak diren kasu konkretuak ere aipatzen ditu *Izeba* proiektuko koordinatzaileak, esaterako izeba batek gaztea bere diru irabazietan partaide egin zuen, horrela, baimenak berritzea tokatzen zitzaion unean bitarteko ekonomiko nahikoa zituela frogatu ahal izateko, legediak ezartzen duen moduan³⁸:

Eta gero dago izeba bat, eh... inkluso sartu zula bere diru irabazietan. O sea, ba hori, zuk esan dozuna, ez? Que le hacia los costes de la vida, izebak egiten zirela bere gastuen kargu. Modu horretan juridikoki egoera erregularrean egon zitekeen (E18. Koordinatzailea. Izeba proiektua).

Edo are bereziagoa den kasu bat. IKEDAM ohi bat bere izebek jolasten zuten futboleko beterano talde batetan jolasten hasi zen. Talde horretako kideek etorkin gaztea baimenak berritzeko zailtasunekin aurkitzen zela jakin zuten unean etxe-langile gisa kontratatzea erabaki zuten, kide bakoitza Gizarte Segurantzari zegozkion 20 euro ordaintzeko erantzukizuna hartuz:

Daukagu kasu bat, eh... ba hori, ez? Hasi zala gaztea ba izeba eta izebaren lagun artean jolasten beteranotan eta kuadrillatxo guztiaren lagun ein zan. Eta orduan arazoak izan zittun paperak berritzeko, eta denen artean egin zioten kontratu bat... zela da? De empleado de hogar edo, eta bakoitzak pagatzen zuen lo de la Seguridad Social ba 20 euro, del equipo de veteranos cada uno pagaba 20 euros, ordaintzeko seguridade soziala (E18. Koordinatzailea. Izeba proiektua).

Azken ekintza honek agerian uzten du *Izeba* proiektuak izeben gizarte sarea eta orokorrean gizartea senitsibilizatzeko balio duela. Gazte etorkin hauen

³⁸ 33. zita begiratu.

errealitatea gertuagotik ezagutzeko aukera izanda harrera gizartea solidarioagoa edo ulerkorragoa bihurtzen da, estereotipoak alde batetara utziz. Aspektu hau sakonago landuko da emoziozko laguntasunaren baitan (7.1.3. azpi-atala).

Harrera gizarteko hizkuntza ikasi eta praktikatzeko aukera ere ematen du izebekin harremanetan egoteak. *Izeba* proiektuko koordinatzaileak dioen modura, euren gizarte sarea homogenea bada eta beste IKEDAM ohi batzuekin soilik harremantzen badira arabiarrez soilik mintzatuko dira, aldiz izebekin harrera gizarteko hizkuntza hitz egin beharrean aurkituko dira. Gehienak gazteleraz mintzatu ohi dira, aldiz, zenbaitzuk euskaraz hitz egitearen garrantziaz ere ohartzen dira. Horretan eragina izango du izeba familiak berak hizkuntzekiko duen ezagutzak. Edonola ere, argi dago harrera gizarteko hizkuntzarekin zuzeneko laguntza jasotzen dutela:

Azkenean beste gazte etorkin batzuekin bakarrik egoten badira ba normalean euren jatorrizko hizkuntza bakarrik hitz egiten dute, baiña hauek izebekin eta horien senide eta lagunekin egoten direnez, azkenean horrek nahi eta nahi ez bertako hizkuntza ere hitz egitea eragiten du (E18. Koordinatzailea. Izeba proiektua).

Luego, el idioma también, al final, en vez de estar siempre hablando árabe con sus amigos del centro, pues conmigo, mis amigos, mi familia y tal, tiene que hablar castellano y yo sobre todo al principio le notaba un montón, le decía “¡Jolín, cómo estás mejorando con el castellano!” (E21. Izeba).

Me han enseñado unas palabras, “gabon”, buenas noches, dónde vas... Si sabes euskera tienes más oportunidades. Si yo tengo una empresa en Marruecos, si tú vienes, eres vasca, pero si hablas en mi idioma, pues más fácil. Hay algunas veces que le dices “barkatu” cuando le preguntas, y así... ellos también ven que sabes algo, que te esfuerzas (E25. IKEDAM ohia. Izeba proiektua)

Mota askotariko laguntasun instrumentala ahalbidetzen diete beraz izebek IKEDAM ohiei, hala nola, enplegua edota etxebizitza aurkitzeko edo prozedura legalekin zuzeneko laguntza, eta baita hizkuntza berria praktikatzeko aukera ere.

7.1.2. Informaziozko laguntasuna

Informaziozko laguntasunak norbanakoak inguruko pertsonengandik jaso dezakeen aholku eta informazio baliagarriari egiten dio erreferentzia (Wills, 1985). Zentzu horretan, izeben aldetik harrera gizartearen funtzionamenduaren inguruko askotariko informazioa jaso dute IKEDAM ohiek. Esaterako, harrera gizartean zein enplegu aukera dauden azaldu izan diete, edo etxebizitza aukerei buruzko informazioa eman:

E1: *Tratábamos de explicarle "mira, esto hay que hacerlo así, aquí esto funciona así...". Yo, incluso le explicaba mucho la experiencia con mis hijos, tal, cual... como ya he vivido ya con mis hijos todas estas situaciones, de diferente forma, pero al final... entonces tratabas de dar otra perspectiva, otro modelo, otra forma de funcionar, ¿no? Y luego, al cumplir dieciocho años también, o bueno, incluso antes, explicarle las opciones de empleo que podía tener, o las opciones de vivienda, etc. Porque esas cosas no las tienen nada fácil.*

E2: *Sí, por ejemplo, con lo de la vivienda, una de las cosas que estuvimos trabajando con Mohamed (E13) era que "bueno, vete a un piso por tu cuenta fuera de los pisos de emancipación", porque igual podía acceder a un piso de esos, pero él acababa de encontrar un empleo, entonces era mejor que ya saliera de ese bucle, y se lo explicábamos (E12. Izebak).*

Sí, me dan muchos consejos, porque... Siempre le vienes a contar, y te dice que tienes que hacer esto, esto, por ejemplo para encontrar trabajo, o un piso, u otros temas. Y uno recibe consejos, uno... reflexiona... piensas cómo hacer, y así pues todo es más fácil (E24. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Baina batik bat, izebekin (eta horien lagun zein senideekin) harremantzeak informazio kulturalaren trukaketa ahalbidetzen du. IKEDAM ohiek harrera gizarteko kultura eta ohiturak gertuagotik ezagutzeko aukera dute, eta baita euren kultura bertako jendeari ezagutaraztekoa ere. Proiektuaren koordinatzaileak dioen modura, hain zuzen horregatik abiarazi zen halako proiektu bat, adin txikiko diren bitartean euren egoera berean aurkitzen diren beste IKEDAM batzuekin soilik bizitzen direnez ez dutelako bertako jendearekin eta kulturarekin harremanik garatzen:

Danak batera etxe baten beraien artean bakarrik mugitzen ziren, beraien artean bakarrik egoten ziren eta azkenean behai ghettoak sortzen ziren, ez? Eta bueno, azkenean etziren, etziren integratzen bertako kulturarekin edo jendearekin. Eta orduan, ba horregatik pixkat, ba planteatu zan hori, ez? Gazte bakoitzak bertako familia bat erreferente bezala izateko aukera izatea, ez? Ba pixkat, ba hori, ezagutzeko, integratzeko, kultura, eztakit, giroa ere bai, famili giroa, eta bueno, hoixe (E18. Koordinatzailea. Izeba proiektua).

Kultura eta erlijio ezberdinak izateak eta harrera gizarteko balioen ezagutzarik ez izatea gizarteratze prozesurako oztopo izan daitekeela ohartzen dira izebak, eta zentzu horretan proiektuan parte hartzeak bertako bizimodua gertutik ezagutzeko bidea eman dakiekeela. Gizarteratzeko modurik hoberena bertako jendearen egunerokoa ezagutzea litzatekeela aipatzen dute izebek, eta gazteari horri buruzko informazioa esleitzen ahalegintzen dira:

E1: *Entonces, la integración es muy difícil, por problemas de identidad también, porque ellos tienen el tema de identidad también, o sea, con la religión, es un tema de identidad fortísimo. Dos temas, o sea, ellos se forman en guetos, primero por que son marroquíes, y segundo por que son musulmanes.*

E2: Claro, y el tema de los izebas yo creo que hace un papel importante en ese tema, para ellos, de abrir la cabeza, de ver otra forma de estar en el mundo, no solamente su parte de lo que creen, sino que bueno, otra forma de relacionarse, otra forma de estar, plantearse cosas. Y claro, cuando estás solo, pues claro, todo eso no lo tienes (E12. Izebak).

Me gusto la idea del proyecto, y el apuntarme fue realmente porque creía o considero que la gente que viene aquí, la mejor forma de integrarse es conociendo cómo vivimos realmente, no viviendo una vida paralela y menos cuando estamos hablando de menores, de chicos y chicas que viven en una casa tutelados, no es una... no es el día a día nuestro, entonces, quería que tuviesen la oportunidad de conocer mi entorno, mi familia, lo que hacemos la gente aquí en Euskadi, ¿no? [...] Porque también ellos, al final, claro, es que es una cultura muy diferente, ¿no? [...] Que él que realmente conozca, por ejemplo en mi caso, ¿no? Una chica joven, independiente, sin pareja, por ejemplo ¿no? Pues que tienes tu trabajo, que no depende de un hombre. Pues que vea cómo nos relacionamos con los padres, con mi padre, con mi madre, con mi hermana, con mi cuñado... y con los amigos, pues que vea que, pues qué hacemos normalmente, pues nos vamos a tomar unos tragos, nos vamos al txoko, o sea... o nos vamos al cine (E21. Izeba).

IKEDAM ohiak ere kontziente dira harrera gizarteko bizimoduari buruzko aholkuak jasotzen dituztela izeben aldetik, eta hori asko baloratzen dute, gizarte berriko bizimodua ulertzeko bidea ematen dielako:

Sí, la verdad es que sí, es importante. Pues conoces una gente, pues te traen para su casa y, ¿sabes? Pues... te dan consejos, te dan... por ejemplo le preguntas una cosa “que te parece esto?”, y te explican un poco, te dan todo su opinión, ¿no? Pues eso [...] Un marroquí y un español pues no tienen nada que ver pero uno te abre la casa y pues entras, te da confianza, te explica cosas, y vas entendiendo, poco a poco... (E24. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Harrera gizartean bikotekidea aurkitu eta harremana aurrera eramateko izan ditzaketen zailtasunez ere ohartzen dira izebak, eta hemengo bikote ohituren inguruko aholkuak ematen dizkitete:

Y en el tema de las chicas, no le gustan las chicas que llevan velo, le gustan las de minifalda y plataformas. Y para integrarse aquí, para él, para su autoestima es fundamental ligar con una chica de aquí, pues vale, pues está bien, pero entonces, bueno, ¿y cómo va a ser la relación con esa chica? Y decía “no, yo le reconverteré al islam”, y yo decía, “pero tío, ¿a dónde vas?, ¿a dónde vas?”. Entonces, lo tienen difícil, ¿eh? Y en eso también pues le ayudamos a ver, ¿no? que está en otro país diferente, que las relaciones entre chicos y chicas son diferentes (E12. Izebak).

Y luego, claro, las relaciones por ejemplo con las chicas, pues oye, es que tienen una edad en la que quieren conocer a chicas. Y a veces viven en el limbo también, que muchas veces dicen “no, yo soy musulmán y ya le convertiré”. Y claro... le haces ver que lógicamente a una chica euskaldun como que no la va a convertir. Entonces bueno, pues eso, también es la forma de poco a poco decirle “eh, chico, si quieres estar con chicas de aquí, que me parece muy bien, pero espabila, ¿eh? No le digas a una chica euskaldun que le vas a convertir...” Le explicas un poco cómo funcionan las parejas aquí... (E21. Izeba).

Izeba proiektuak IKEDAM ohiei harrera gizarteko balio eta ohiturak ezagutzeko bidea ematearekin batera, izebek eta euren senide zein lagunek gazte etorkin hauen kulturak ezagutzeko aukera ere ematen du. Izebek diotenez gazte etorkin hauekin harremanetan egoteak euren jatorrizko ohiturak gertutik ezagutzeko aukera eman die, eta eurekin erlaziorik izango ez balute egingo ez lituzketen gauzak egin dituzte, hala nola, “halal” haragia jan edota jantoki marokoarretara joan. Izebek ezezik, euren lagun eta senideek ere IKEDAM ohien kultura eta ohiturak ezagutzeko aukera izaten dute:

E1: Jo pues a nosotros nos ha aportado, jo, primero desde el punto de vista humano, humanizarnos más, ser más humanos, eso sí que hemos aprendido, a ser más humanos, a escuchar, a no precipitar, a mantener el hilo. Y luego, también, entender las distintas culturas, las distintas formas de ver el mundo. Y no solo a nosotros, también a nuestra familia, es decir, que vean, que oye, que aquí hay estos temas y que bueno, que tenemos que abrirnos más...

E2: Sí, y también ese acercamiento a la cultura marroquí, comer la carne halal, ir a comprar a la carnicería halal y... descubrir pues restaurantes marroquíes, o sea... que yo si no hubiera estado Mohamed (E13) no habríamos ido (E12. Izebak).

Al final, es también, yo creo que es una manera de educar a mi entorno, a mis amigos, a mi familia, a que hay chicos... O sea, yo creo que también sirve de... Yo estoy segura que yo y también mi entorno, mi familia y mis amigos, le hemos aportado un montón de cosas, pero a la vez, él ha aportado a mi entorno, o nuestra relación ha aportado a mi entorno otra perspectiva de un chico marroquí de diecisiete, dieciocho, diecinueve años. Conocer mejor su experiencia, sus costumbres... (E21, izeba).

Funtsean, kultura ezberdinen inguruko informazio trukaketa horrek kulturartekotasunerako bidea irekitzen du IKEDAM ohi eta autoktonoen artean. Gazteetariko batek dioten modura, adin txikiko ziren bitartean soilik marokoarrekin bizi zen eta harrera gizarteak ez zituen ezagutzen. Izebei esker autoktonoekin kontaktua garatzen da eta eskertu egiten dute:

Claro, por eso te digo, yo con la gente que vivía son marroquíes, y nadie nos ha conocido. Y me gusta estar con ellos, con los izebas, la verdad, te lo juro, lo mejor. Así yo conozco como son, ellos nos conocen a los marroquíes y... (E25. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Eta askotan kontaktu hori elkarri norbere kultura eta balioak ezagutarazteaz haratago doa. Zenbaiten kasuan, izebak Marokora bidaiatu dute gazteekin batera, euren familiak eta bizimodua gertutik ezagutzeko:

Izeba eta osaba asko joan dira bebai gaztearekin Marruekosera familia ezagutzera ta... pilla bat. Ta bueno, hori politta izaten da, oso esanguratsua iruditzen zait, oraintxe justo gaiña dabil bat bere arreba ezkontzen dala, eta izeba familiakin doia ezkontzara (E18. Koordinatzailea. Izeba proiektua).

Sí, creo, tres veces han ido conmigo a Marruecos. Una vez bajaron solos, han estado en mi casa en Marruecos en Asilah. Y fuimos en Navidad, antes de Navidad fuimos los tres, su hija, la Izaskun, y su novio, y su hija fue también, hemos estado como una semana, y después eh... paso no se cuántos, seis meses o siete meses, bajaron ellos a Marruecos otra vez. Ellos también conocen mis hermanos, conocen mis hermanos y todos, mi familia (E24. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Argi dago beraz, informaziozko laguntasun esanguratsua jasotzen dutela IKEDAM ohiek harrera gizartearen funtzionamenduaren inguruan, enplegu zein etxebizitza aukerei buruzkoa, baita ohitura kulturei buruzkoa ere. Baina horrez gain, euren jatorrizko ohiturei buruzko ezagutza ere igortzen diete autoktonoei, horrek elkar ezagutza eta elkarrekiko errespetua ahalbidetzen dielarik, kulturartekotasunerako bidea erraztuko diena (Delgado, 1998; Maalouf, 1999).

7.1.3. Emoziozko gizarte laguntasuna

Azkenik, izebek, emoziozko laguntasuna ere eskaintzen diete, bizitzan aurrera egin ahal izateko ezinbestekoa zaien segurtasuna ematen diena. IKEDAM ohiek izeben babes eta sostenguaren garrantzia aipatzen dute, askotan laguntasun instrumental edo informaziozkoa baino garrantzitsuagoa izan daitekeelarik:

Pffff, una cosa muy importante para mi, ¿eh? Sí, para todos, porque siempre que los he necesitado han estado ahí, estaban ahí siempre, a buenas o a malas, cuando me portaba bien o cuando me portaba mal, han estado ahí. Y ha sido lo mejor para mi, así... (E13. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Sí, la verdad. Pues bueno, te dan seguridad, ¿sabes? Cariño... te tratan de otra manera como diferente, como especial, ¿sabes? Yo siempre que voy, me gusta mucho el pescado, y cuando voy a su casa siempre me tiene pescado preparado y así, gambitas y así, eh... pulpo a la gallega, no sé qué... porque es también, es una mujer mayor y... me trata muy bien. Eso es más importante que el tema económico, ¿sabes? Porque... Animación, te dan energía para poder seguir (E24. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Cuando te mete a su casa y te da llaves, te dan confianza. Es como te he dicho antes, si me pasa algo, si me llevan al calabozo o cualquier cosa... es como ellos se preocupan de mi, ¿sabes? Imagínate, estás enfermo, ¿quién te va a cuidar?, o ¿quién se va a preocupar?, ¿quién?. Pues yo tengo a ellos (E25. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

IKEDAM ohiei euren ezezik, euren jatorrizko familiari ere ematen die segurtasuna beraien semeak izeba batzuk gainean dituela ikusteak, behar egoeran daudenean babesa jasoko dutela jakiteak:

Les digo a mi familia que tengo una familia que me ayuda y se quedan flipados, y dicen "joe, qué cultura más diferente, qué cultura más diferente, ellos siempre te ayudan" y están muy contentos (E13. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Son muy buenas personas. Mi madre siempre me dice, cualquier cosa que le cuento me dice "vete donde ellos, vete donde ellos". Así se siente más segura (E25. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Izebak eurak ere ohartzen dira harrera gizartean bakarrik eta familiarengandik urrun aurkitzen diren gazte etorkinentzat funtsezko oinarria direla, eurretaz arduratzen den norbait izateak itzeleko segurtasuna ematen diela:

Y luego también dar confianza a él, ¿no? Nosotros le decimos "pase lo que pase, y aunque nos peguemos, siempre vamos a estar ahí, o sea, nunca te vamos a abandonar". Y para ellos eso... es decir, estos están perdidos absolutamente, y tener una referencia, y un poco el amor incondicional, ese "pase lo que pase estoy ahí", ¿no? [...] Entonces para ellos eso es, eso les da una seguridad terrible. O sea, eso es un punto de apoyo importante y les da muchísima seguridad ¿no? (E12. Izebak).

Sí, hombre, yo creo que también pues, al final tienes una referencia de, jo, a ver, él es muy independiente, pero bueno, por lo menos en un momento dado si él realmente lo necesita, si realmente, o sea... él sabe que estoy aquí, para ayudarle en lo que pueda, entonces... sí, claro, eso también es un punto importante. Sí, yo creo que es un referente, al final es un poco referente [...] Porque sí, igual puedes estar en un piso, y en ese piso sí, pues te pueden dar más o menos cariño, pero al final no dejan de ser trabajadores (E21. Izeba).

Izeba proiektuko koordinatzaileak ere garrantzitsutzat jotzen du gazteek izeben bidez lortzen duten erreferentzia eta babesa, beharrizan edo arazo egoera baten aurrean norbaitengana jotzeko aukera izatea:

O sea, da erreferente bat izatea, pertsona bat hemen egotea kezkatzen dena, norbait norekin hitz egin dezakezun, eta... ez? O sea, izatea pertsona bat ba hori, ez? Edozein kezka, edozein zalantza edozer gauza daukazula, inkluso pixuarekin, diputazioarekin, ba beti da pertsona bat berarekin konta dezakezuna. Horrek segurtasuna ematen die, eta emozionalki askoz sendoago egotea (E18. Koordinatzailea. Izeba proiektua).

Izeben erreferentzia izateak jarrera desbideratu edo arriskutsuak garatzea ere ekidin dezake, norbaiti axola diela sentitzeak aurrera modu egokian jarraitzeko indarra ematen die:

Por que así tú ves que ahí, tienes ahí algo para ayudarte. Tú puedes venir aquí (a la casa de los izebas) y hablar con ellos y ves que no estás solo. [...] Si no tienes nadie, se te puede ocurrir, se te puede pasar por la cabeza de todo, si no hay nada, porque... porque esforzar tanto. Porque así hace la mayoría, ven que no hay nada, nadie les ayuda, y luego lo echan todo por la borda (E13. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Izeben aldetik jasotzen duten laguntasun horrek harrera gizartean erosoago sentitzeko bidea ematen die IKEDAM ohiei, autoktonoengandik jarrera positiboak jasotzean, eurak ere autoktonoekiko ikuspegi positiboak garantzen dituzte:

Azkenean horrelako proiektu batek autoktonoen aldetik sentsibilizazio gehiago egotea eragiten du bebai, ez? Eta horrek gazteen ikuspegia ere aldatzen du. Ez da berdiña bertako familia batekin egoteko aukerarik izan ez tuen gaztetxo baten egoera, autoktonoen aldetik ba jarrera arrazistak bakarrik ikusi ahal izan dittuna, edo izeben eta horien inguruko pertsonen aldetik jarrera atsegiñak jaso dituen. Klaro, azken hauek harrera gizartearekiko ikuspegi hobea izango dute eta horrek hemengo izatearen identitatea bereganatzen ere lagunduko die, ez? (E18. Koordinatzailea. Izeba proiektua).

Jo, pues al final te sientes mucho mejor, ves que no todos son iguales, de racistas, hay muchos que no son así, y te ayudan, y te sientes a gusto de estar aquí, en San Sebastián, aunque tu familia está en Marruecos, pero aquí también tienes gente importante que te cuidan (E13. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

E: Yo me he acostumbrado, conozco pueblos de aquí, gente de aquí, muy majos, que te ayudan, aunque hay también algunos de racistas, pero como en todos los sitios. Y yo estoy a gusto. Yo cuando he bajado a Marruecos, a veces me aburro, ¿que vas a hacer?

M: ¿Te sientes más de aquí que de allí? O de los dos sitios...

E: Sí, la verdad me gusta mucho esto, me siento bien (E25. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Funtsean, IKEDAM ohiek konfidantza, segurtasuna, maitasuna edota afektua jasotzen dituzte izeben aldetik. Hori pertsona ororen ongizaterako garrantzitsua bada (Barrón et al., 1988; Wills, 1985), are garrantzitsuago bihurtzen da gazte etorkin hauen kasuan, oraindik oso gazteak direlako eta harrera gizartera bakarrik emigratu dutelako, jatorrizko familia eta bere babesetik urrun aurkitzen direlarik. Horrela bada, izebengandik adin horretan beharrezkoa zaien akonpainamendua jasotzen dute.

Bestalde, autoktonoen aldetik jarrera baikorrak ikusteak kulturategotasunean oinarritutako gizarteratze prozesua ahalbidetzen du (Maalouf, 1999), estereotipoak ekidin eta etorkin zein autoktonoak identitate amankomun baten baitan errekonozitzea (Blanco, 1990).

Ondorengo taulan laburbiltzen da IKEDAM ohiek izeben aldetik laguntasun mota bakoitzaren baitan jasotzen duten laguntza:

7.1. Taula: IKEDAM ohiek izebengandik jasotzen duten gizarte laguntasuna

LAGUNTASUN INSTRUMENTALA	<ul style="list-style-type: none"> - Enplegua aurkitzeko zuzeneko laguntza (kurrikulumak banatzen lagundu; lan elkarrizketetara lagundu; enpresariekin hitz egin) - Etxebizitza bilatzeko zuzeneko laguntza (pisu bat bilatzen lagundu; denbora batetarako etxean hartu) - Prozedura legeetan zuzeneko laguntza (baimenak berritzera lagundu; baimenak berri ahazteko izeben etxeetan erroldatzeko aukera eman; izeben diru irabazietan sartu; izeben lagunen artean lan kontratu bat egin) - Harrera gizarteko hizkuntzarekin zuzeneko laguntza (gaztelera zein euskera praktikatzeko aukera)
INFORMAZIOZKO LAGUNTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Harrera gizarteko enplegu aukerei buruzko informazioa jaso - Etxebizitza aukerei buruzko informazioa jaso - Harrera gizarteko ohiturei buruzko ezagutzak jaso - Etorkinen jatorrizko ohiturei buruzko informazioa esleitu
EMOZIOZKO LAGUNTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Konfidantza eta segurtasuna - Maitasuna eta afektua - Entzunak izatea eta euren egoerarekiko arduratzen den norbait izatea - Aurrera egiteko indarra

Iturria: Elaborazio propioa.

7.2. Izeben gizarte laguntasuna gizarteratze prozesuan

Aurreko ataletan IKEDAM ohiek izebengandik jasotzen duten gizarte laguntasuna eta proiektuan parte hartu duten gazteen gizarteratze ibilbideen eredu prototipikoak ikusi badira; atal honetan, laguntasun horrek gizarteratze prozesuan nola eragiten duen aztertu nahi da, 3. hipotesiari erantzuteko bidea emango duena.

Izeben aldetik jasotako laguntasun horrek IKEDAM ohien gizarteratze prozesuko esparru eta dimentsio ezberdinetan eragiten duela esan daiteke, 7.2. taulan ikusi daitekeen moduan. Laguntasun instrumentalaren baitan enplegua edota etxebizitza bilatzeko edo prozedura legalekin jasotzen duten zuzeneko laguntzak gazte etorkinen gizarteratze sozio-estrukturala erraztuko du. Harrera gizarteko hizkuntza praktikatzeko jasotzen duten laguntasun instrumentalak berriz gizarteratzearen esparru soziokulturalea ahalbidetuko du.

Izebengandik jasotzen duten informaziozko laguntasunak ere gizarteratzearen bi esparruetan lagunduko die. Enplegu zein etxebizitza aukerei buruz jasotzen duten informazioak gizarteratze sozio-estrukturalean aurrera egitea ahalbidetuko die. Harrera gizarteko kultura eta ohiturei buruz jasotzen duten ezagutzak, eta autoktonoei euren jatorrizko ohiturei buruzko informazioa igortzeak berriz kulturaren arteko kontaktua posible egiten du, horrek elkarrekiko

ezagutza eta kulturartekotasunean oinarritutako gizarteratzea errazten duelarik. Elkar ezagutza horrek sentibilizazioa ere eragiten du, eta guzti horrek gizarteratze soziokulturala errazten die.

Azkenik, emoziozko laguntasunak gizarteratzearen esparru soziokulturala bermatzen lagunduko luke. Ez litzateke zuzeneko laguntza izango, baina zeharka autoktonoengandik maitasuna, konfidantza, segurtasuna edo ardura bezalako sentimendu eta jarrera positiboak jasotzeak eurekiko irudi on bat garatzea eragingo luke, eta horrek elkarrekiko sentibilitatea gehituko luke. Horrela bada, proiektuak elkarrenganako jarrera arrazistak ekiditen ere lagunduko du, estereotipoak desagitzen eta horrek identitate amankomun baten eraketa erraztu.


7.2. Taula: IKEDAM ohiek izebengandik jasotako laguntasunak gizarteratze prozesuan duen eragina

LAGUNTASUN INSTRUMENTALA	<ul style="list-style-type: none"> - Enplegua aurkitzeko zuzeneko laguntza (kurrikulumak banatzen lagundu; lan elkarrizketetara lagundu; enpresariekin hitz egin) - Etxebizitza bilatzeko zuzeneko laguntza (pisu bat bilatzen lagundu; denbora batetarako etxean hartu) - Prozedura legeletan zuzeneko laguntza (baimenak berritzera lagundu; baimenak berri ahazteko izeben etxeetan erroldatzeko aukera eman; izeben diru irabazietan sartu; izeben lagunen artean lan kontratu bat egin) 	GIZARTERATZE SOZIO-ESTRUKTURALA
	<ul style="list-style-type: none"> - Harrera gizarteko hizkuntzarekin zuzeneko laguntza (gaztelera zein euskera praktikatzeko aukera) 	GIZARTERATZE SOZIOKULTURALA
INFORMAZIOZKO LAGUNTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Harrera gizarteko enplegu aukerei buruzko informazioa jaso - Etxebizitza aukerei buruzko informazioa jaso 	GIZARTERATZE SOZIO-ESTRUKTURALA
	<ul style="list-style-type: none"> - Harrera gizarteko ohiturei buruzko ezagutzak jaso - Etorkinen jatorrizko ohiturei buruzko informazioa esleitu 	GIZARTERATZE SOZIOKULTURALA
EMOZIOZKO LAGUNTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Entzunak izatea, euren egoerarekiko arduratzen den norbait izatea, konfidantza eta segurtasuna - Maitasuna eta afektua - Aurrera egiteko indarra 	GIZARTERATZE SOZIOKULTURALA

Iturria: Elaborazio propioa.

Izeba proiektuan parte hartu izanak IKEDAM ohiei eskaintzen dien gizarte kapitala eta horrek gizarteratze prozesuan ahalbidetzen dieten laguntza argiago ulertzeko 7.2. irudia aurkezten da:

7.2. Irudia: Izebak IKEDAM ohien gizarteratzearen eragile



Iturria: Elabrazio propioa.

Hasteko, izeba familia batekin harremantzeak euren gizarte sarea zabaldu egiten du eta heterogeneoagoa bihurtu, izan ere, jada ez dira beste IKEDAM ohi batzuekin bakarrik harremanduko, baita izebekin eta horien lagun eta senitartekoekin ere. Gizarte sare hori zabalagoa izateak gizarte kapitala metatzeko aukerak handituko dizkie, eta hain zuzen gizarteratze sozioestruturala zein soziokulturala erraztuko dieten laguntasun instrumentala eta informaziozkoa jasoko dute izeben eta euren inguruaren aldetik.

Enpleguaren bilaketari dagokionez enplegu aukerei buruzko informazioa (informaziozko laguntasuna) edota bilaketa horretan zuzeneko laguntza (laguntasun instrumentala) jaso ohi dute IKEDAM ohiek. Zenbait kasutan, laguntasun horri esker gazteek lanpostu bat eskuratu dutela ikusi da, horrek egoera juridiko erregularra eta oinarrizko gastuei aurre egiteko diru sarrerak izatea ahalbidetzen dielarik, eta baita lan harremanak edota komunitatearekin harremanak gauzatzeko aukera ere. Harreman horiek are gehiago zabalduko dute euren gizarte sarea eta gizarte kapitala metatzeko aukerak.

Prozedura legalekin ere izeben aldetiko zuzeneko laguntza jaso ohi dute (laguntasun instrumentala), horrek egoera erregularrean mantentzeko aukerak gehitzen dizkielarik. Modu horretan, gizarte isolamendua ekidingo da, kalera lasaitasunez ateratzea eta komunitatearekin harremantzea ahalbidetuz. Harrerako komunitatearekin harremantzeak aurrez aipatu modura gizarte sarea eta gizarte laguntasuna jasotzeko aukerak handituko ditu.

Erresidentziarekin ere informaziozko laguntasuna (etxebizitza aukerei buruzkoa) eta laguntasun instrumentala (etxebizitzaren bilaketan zuzeneko laguntza edo aldi baterako bizilekua eskaintzea) jaso ohi dute. Horrek kalean bizi beharra ekiditen laguntzen die, berebiziko garrantzia duena, gertaera horrek dakartzan arriskuengatik (baldintza fisiko eta higieniko txarrak, droga kontsumoan erortzeko arriskua, poliziaren jazarpena, etab.) eta gizarteratze prozesuan eragiten duen etenagatik.

Izeba proiektuak autoktono eta etorkinen arteko harremana ere ahalbidetzen du, elkarrekiko ezagutza bermatzen duena. Hau da, alde batetik IKEDAM ohiek harrera gizartearen funtzionamendu eta kulturaren berri jasotzen dute izeben bitartez (informaziozko laguntasuna), baina bestetik izebek ere gazte etorkin horien jatorrizko kulturei buruzko ezagutza eskuratzen dute

(informaziozko laguntasuna), horrek estereotipoak suntsitzen eta elkarrekiko irudi on bat eraikitzen laguntzen duelarik. Kulturarteko kontaktu horrek IKEDAM ohiei harrera gizarteko hizkuntza praktikatzeko aukera ere ahalbidetzen die (laguntasun instrumentala), gizarteratze prozesu egoki batetarako behar beharrezkoa dena (Blanco, 1990, 1993 eta 2001).

Azkenik, emoziozko laguntasuna ere jasotzen dute izeben aldetik, hala nola, maitasuna eta afektua, eurekiko ardura, etzunak izatea, konfidantza eta segurtasuna. Aurrez aipaturiko esparruetan laguntasun instrumentala eta informaziozkoa jasotzeak ere eragiten du emoziozko laguntasun hori sentitzen. Eta horrek batik bat gizarteratzearen esparru soziokulturalari dagokion identitate amankomun batetarako bidea errazten du, IKEDAM ohiek harrera gizartearekiko laguntza eskaintzen dien komunitate baten irudi positibo bat garatuz. Gaur egun oraindik identitate amankomun hori gauzatuta egoteko goizegi izan badaiteke ere (IKEDAMen fenomeno nahiko berria da eta *Izeba* proiektua are berriagoa, 2009an martxan jarria), kulturartekotasunak eta laguntasunaren elkartrukeak denboraren poderioz identitate amankomun bat ekarriko lukeela dirudi, kulturen arteko kontaktua eta ezagutza egonik, eta elkarrekiko jarrerak positiboak izanik puntu amankomunak bilatuz joango direlako, elkarrekin bizikidetzatza harmoniatsu bat izatea erraztuko diena (Delgado, 1998; Maalouf, 1999). Hain zuzen, proiektuan parte hartu duten zenbait gaztek harrera gizartean ongi sentitzen direla diote, baten batek jatorrizko herrialdekoa baino gehiago harrerakoa sentitzen dela ere aipatzen du.

Izebek eta IKEDAM ohiek diotenez, gazte hauen egoera eta gizarteratze prozesua ez lirateke berdinak izango *Izeba* proiektuan parte hartzkeo aukerarik izan ez balute:

M: *¿Piensas que si no hubiera tenido la oportunidad de conocerte su situación actual en cuanto a integración en la sociedad sería diferente?*

E: *Pues yo creo que sí, yo creo que sí. Yo creo que probablemente estaría mucho más cerrado en su mundo, en su burbuja de amigos de su misma edad, eh... marroquí y... sí, o sea, yo creo que ahí le ha roto un poco esa coraza que también muchas veces tienen ellos a abrirse, ¿no? De realmente a demostrar como son, porque al final muchas veces no tienen oportunidad, o ellos que se avergüenzan, o porque nosotros no les dejamos muchas veces, ¿no? De realmente mostrar como son. Entonces yo creo que sí, yo creo que le ha dado más... igual es confianza, la palabra igual sería que le has dado más confianza con mi entorno y tal pues a soltarse más (E21. Izeba).*

Yo creo que el proyecto Izeba, los chavales que han tenido alguien detrás luchando un poco por ellos, jo, tienen muchas más facilidades que quienes han estado solos, porque es... llegar a los dieciocho años y de repente "me han echado del piso, no tengo nada, ¿que hago? ¿Donde voy? Sí, he hecho un CIP pero tampoco me han preparado en el piso para... para ser autónomo, para buscarme la vida" (E12. Izebak).

Sin ellos, estaría... [...] muy diferente, estaría mal... Porque salgo del centro, iba a salir del centro y... Igual me daban un piso, igual me dejaban en la calle, no sabes. Y tener alguien que te de consejo y que te ayude pues es importante (E13. IKEDAM ohia. Izeba proiektua).

Batik bat adin nagusitasuna bete eta babes instituzionala amaitu edo gutxitzen zaienean izeben laguntza, aholkua eta babesa funtsezkoak bilakatzen dira, eta gizarteratze prozesuan aurrera egiten laguntzen die.

7.3. Eredu prototipikoen aurkezpena

Izeba proiektuan parte hartu duten gazte etorkinen kasu prototipikoak azalduko dira jarraian, aurreko kapituluan azaldutako izebarik ez duten gazteekin konparatuz izebak dituztenak euren gizarteratze prozesuari dagokionean non kokatzen diren ikusteko bidea emango dutenak:

1. eredua: arrakasta erlatiboko ibilbidea

E25

21 urte

Maroko-Tanger

Izeba proiektua

EAera 15 urterekin iritsi zen, eta Legorretako zentro batetan egon zen bizitzen 19 urte bete arte. Berak 18 urterekin atera nahi izan zuen zentrotik, baina harrera gizartera iristean egin zioten adin frogak gazteagoa zela xedatu zuen, hori dela eta denbora gehiagoz egotera behartu zuten. Zentrotik atera ostean Kolore Guztiak elkarteak Hernanin zuen emantzipazio pisu batetan plaza lortu zuen. Bertan urtebete inguru egon ostean Diputazioaren diru laguntza lortu zuen (hilean 630€), eta horrenbestez bere kabuz bizitzera pasatu zen. Gaur egun Tolosako pisu batetan bizi da, pisu partekatuan gela bat alokatuta duelarik.

Zentroan zegoen bitartean txapa eta pinturako ikasketak burutu zituen (HKPP eta kurtso profesional bat), eta supermerkatuetan produktuak birjartzen lan egiteko kurtso bat ere bai. Erresidentzia baimena ere izapidetu zioten, baina hala eta guztiz ez du ulertzen zergatik ez zaien lanerako baimena ere ematen. Bere nahia diru laguntza kobratzeari utzi eta lanpostu bat eskuratzea da, izan ere badaki laguntza ekonomiko hori aldi baterakoa dela, baina lan baimenik ez izatea oztopo suertatu zaio beti. Praktikak egin dituen bi lekuetan kontratatzea nahi izan dute, lehendabizi *Transportes Vicuña S. A.* izeneko garraio enpresan, eta ondoren *Día* supermerkatuan, baina lan baimenik ez izateak oztopatu egin zuen bi kasuetan bere kontratazioa.

Bere egoera ekonomikoa nahiko justua dela aipatzen du, pisuaren alokairuan bakarrik ia laguntzaren erdia joaten zaio (300€), eta beste erdiarekin janaria, arropa, garraioa etab. ordaindu behar ditu.

Hala eta guztiz, bere gizarteratze sozioestruturalak nahiko garapen egokia izan duela ikusten da, enplegurik izan ez arren diru laguntza jasotzen duenez bere kabuz bizi eta eguneroko gastuei aurre egiteko gai da, eta egoera juridiko erregularrean aurkitzen da. Gainera jada 2 urterako baimena du, laster berritzea tokatzen zaiolarik eta oraingoan 5 urteko baimena eskuratuko du. Baimen horrek jada erresidentzia eskubidea ezezik lanerakoa ere emango dio. Horrez gain, nazionalitatea eskuratzeko eskaera ere egina du, adin txikikoen zentroan bi urtez tutelatuta egon izana delarik hori lortzeko baldintza.

Horrela bada, lan baimena eskuratutakoan lanpostu bat lortuko dueneko esperantza badu, oso kontziente da gaur egungo testuinguru sozioekonomikoan zaila izan daitekeela, baina saiatu eskero lortu daitekeela uste du. Gainera izeben laguntzarekin kontaktatzen du, behin baino gehiagotan lan eskaintzen berri eman diote, eta baita enpresetan kurrikulumak banatzera lagundu ere. Bertako familia batekin harremanetan daudela ikusteak enpresariei lasaitasuna eta konfidantza ematen dietela aipatzen du.

Eta gizarteratze prozesuaren esparru soziokulturalean ere modu egokian egin du aurrera, hori batik bat izebei esker lortu duelarik. Legorretako zentroan zegoen bitartean ezagutu zuen bere izeba familia, eta ordutik gaur egun arte harremanetan jarraitu dute. Eurekin familia bazkarietara joaten dela aipatzen du, udan beraiekin joaten dela oporretara, izeben lagunekin egun-pasak egin izan

dituela, etab. Horiek autoktonoak izanik euskaldunak nolakoak diren edota zein ohitura dituzten azaltzen dietela dio. Era berean, berak ere Marokoko gauzak azaldu, hango janaria prestatu, etab. egiteko aukera izan duela.

Gaztelera praktikatu eta euskara apur bat ikasteko beta ere izan du, hitz solteak izanik ere ezagutza horrek bere gizarteratzeari begira aukerak irekitzen dizkiola aipatzen du: *“Si sabes euskera tienes más oportunidades”*. Eta identitateari dagokionez, harrera gizartekoa jatorrizko gizartekoa baino gehiago sentitzen dela aipatzen du, jadanik hemengo bizitzara moldatu dela eta gustura bizi dela. Gustura sentitze horretan izeben babesak eragin nabarmena du, harrera gizartearen zati batengandik behinepein errespetatua eta zaindua dela sentitzen duelako. Segurtasun ikaragarria ematen dio edozer gauza gertatuko balitzaio berataz arduratuko litzatekeen familia bat gertu izateak: *“Imagínate, estas enfermo, ¿quien te va a cuidar?, o ¿quien se va a preocupar?, ¿quien?. Pues yo tengo a ellos”*.

Kasu honetan arrakasta ez da erabatekoa, oraindik esparru sozio-estruturalean kolokan aurkitzen delako. Hala eta guztiz, badirudi bide onetik jarraituko duela, laster nazionalitatea eta lan baimena lortuko dituelako, eta horrek lanpostu bat eskuratzea erraztuko diolako. Edonola ere enplegua aurkitzen uste baino denbora gehiago tardatuko balu beti izango luke izeben babesa, euren etxean denbora batez bizitzeko aukera, bertan erroldatzekoa, baimenak berritzaerakoan bizitzeko bitartekoak frogatzekoa, enpleguaren bilaketan enpresariari gaztea gomendatzekoa, etab. Funtsean bere familiarekin bizi den gazte autoktono batek ezegonkortasun laboralean aurkitzen denean guraso edo familiarengandik jasotzen duen babesaren antzeko zerbait izango du IKEDAM ohi honek.

2. eredu: arrakasta osoko ibilbidea

E13

19 urte

Maroko-Tanger

Izeba proiektua

Donostira iritsi zenean Loyolako zentroan egon zen lehendabizi hiru hilabetez, eta gero Igeldokoan, adin nagusitasuna bete arte. Bertan eskola graduatua atera zuen,

eta elektrizitateko HKPP bat burutu zuen. Zentro horretan bizi zen bitartean *Izeba* proiektuan parte hartzeko aukera eman zioten eta onartu egin zuen. Orduz geroztik izebekin (E12) harremanetan jarraitzen du eta berarentzat izugarritzko garrantzia dutela aipatzen du: *“Pffff, una cosa muy importante para mi, ¿eh? [...] Ha sido lo mejor para mi”*.

Adin nagusitasuna bete ostean ez zuen emantzipazio baliabideak erabili beharrik izan, hein handi batetan izebak gainean izan zituelako. Horiek bizilekua bilatzen lagundu zioten, eta hain zuzen adin txikikoen zentrotik ateratzean bere izebaren hiloba batekin batera egon zen bizitzen denbora batez. Gaur egun beste bi lagunekin bizi da pisu partekatuan. Izeben papera esanguratsua izan zen baita ere lanpostua aurkitzerako orduan. Aldizkari banatzaile gisa egiten du lan, 18 urte bete bezain laster lortu zuen, baina aipatzen duenez izeben ekiteagatik ez balitz oso zaila izango zen gazte bere kontratazioa.

Enplegu bat izanik bere egoera ekonomikoa ere egokia da, hilero 1000 euroko soldata jasotzen du, zenbaitetan baita zertxo bait gehiago ere. Bere gastuei aurre egiteko arazorik ez duela aipatzen du, eta horrez gain jatorritzko familiari bidaltzeko eta aurrezteko ere iristen zaiola aipatzen du. Eta egoera juridiko erregularrean aurkitzen da, erresidentzia baimena adin txikikoen zentroan zegoela izapidetu zioten, eta gaur egun enplegu bat izanda lan baimena ere eskuratu du.


Horrela bada, E13ren gizarteratze sozio-estrukturalak garapen egokia izan du: lanean aurkitzen da, egoera ekonomiko egokia du, bere kabuz bizi da eta egoera juridiko erregularrean aurkitzen da. Eta horrez gain, gizarteratze prozesuaren esparru soziokulturalean ere bilakaera egokia izan du. Izebekin ezezik horien lagun eta familiakideekin ere harremantzen da, eta lanpostu bat izateak ere ahalbidetzen dio lankide autoktonoekin harremantzea. Horrela bada bere gizarte sarea zabalagoa eginez joan da, eta ez da soilik aberkideetara mugatzen.

Harreman horiek mantentzearen bidez bertako ohiturak eta bizimodua ezagutuz joan dela aipatzen du, eta bere jatorritzko ohituren berri izateko aukera ere izan duela. Horrez gain hizkuntza praktikatzeko ondo datorkiola dio, gaztelaniaz hitz egiten dute eta bere maila asko hobetu da izebekin kontaktua hasi zuenetik, bere izebek ere gauza bera aipatzen dute (E12). Guzti horrek elkarrekiko ikuspegi positiboak garatzea eragin die, izebek gazte etorkinen egoera gertuagotik

ezagutzeko aukera izan dute eta berak zenbaitetan ikusi izan ahal dituen jarrera arrazistez haratago bertako jende jator eta laguntzailea ere badagoela ikusi du. Funtsean elkarrekiko sentsibilizazioa ematen da eta horrek identitate amankomun bat garatzeko bidea ere zabaltzen du.

Kasu hau bere gizarteratze prozesuan guztizko arrakasta izan duen gazte etorkin baten islada izango litzateke. Gizarteratze sozioestruturalari dagokionez lanean ari da, soldata ona irabazten du eta horrenbestez egoera ekonomiko egokia du eta etxebizitza zein bestelako gastuei modu egokian aurre egiteko gai da. Horrez gain egoera juridiko erregularrean aurkitzen da, erresidentzia eta lan baimenarekin. Era berean esparru soziokulturalari dagokionean ere modu arrakastatsuan egin du aurrera, bere gizarte sarea aberkideez ezezik bertako pertsonen (izebak eta horien lagun eta senideak; laneko harremanak) ere eratzen delako, horrek elkarri norbere kultura eta ohiturak agertzeko bidea ematen dielarik, hizkuntza praktikatzeko aukera eta harrera gizartean eroso sentitzekoa. Eta egunen batetan edozein arrazoi dela eta bere egoera aldatu egingo balitz izeben laguntasuna izango luke ahal bezain pronto berriro egonkortasuna berreskuratzen lagunduko liokeena.

7.3. Irudia: Izeba proiektuan parte hartutako IKEDAM ohien ibilbidea gizarteratze prozesuan



Iturria: Elaborazio propioa

Aurreko kapituluko IKEDAM ohien ibilbideak irudikatzen zituen irudia berreskuratzen badugu (7.3.), *Izeba* proiektuan parte hartu duten gazteek ibilbide berdinei jarraitu ahalko diotela ohartuko gara: baliteke adin nagusitasuna bete orduko enplegua aurkitzea (E13), emantzipazio baliabideak erabili ostean lanpostu bat eskuratzea, edota lan merkatura sarbiderik ez izan eta egoera zailagoan aurkitzea. Baina edonola ere, izebengandik jasotzen duten babesak gizarte bazterkeria egoeran egotetik salbuetsiko ditu, eta enplegurik edota emantzipazio baliabiderik gabe aurkituta ere euren gizarteratze prozesuekin aurrera egiten lagunduko die.

VIII. KAPITULUA: ONDORIOAK

Azken atal honetan, doktoradutza tesi honek planteatzen dituen hipotesien baliozkotze mailaren errepasso bat burutzen da lehendabizi; eta ondoren IKEDAM ohien gizarteratze prozesu faboregarriago bat lortu ahal izateko jarduera proposamenak aurkezten dira.

8.1. Hipotesien eztabaida

Emaitzek argi erakutsi dute IKEDAM ohiak gizarteratze prozesuari dagozkion esparru eta dimentsio ezberdinetan zailtasun anitzekin aurkitzen direla; eta baita errealitate horren eragile nagusia krisi ekonomikoa izan dela ere. Horrela bada, badirudi doktoradutza tesi honetan planteatzen den 1. hipotesia norabide egokian planteatuta dagoela: *Krisi ekonomikoak IKEDAM ohien gizarteratze eredu tradizionala kolokan geratzea eragiten du, lanpostu bat eskuratzearen bidez lortzen zena.*

Oparotasun ekonomikoko garaian, gazte hauen integrazioa lortzeko tresna nagusia enplegua zen. Euren gizarteratzea lortzeko martxan jartzen ziren programak lan merkatutarako sarbidea irekitzea zuten helburu, eta lan nahikoa zegoenez erraz betetzen zen xede hori. Lanpostu bat eskuratzearen bitartez gizarteratze prozesuari dagozkion esparru eta dimentsio gehienetan garapen egokia agertzen zuten. Oinarrizko gastuei aurre egiteko diru sarrera bermatuta zeukaten, baita egoera juridiko erregularra ere, horrenbestez kalera lasaitasunez atera zitezkeen eta komunitateko jendearekin erlazionatu, lankideekin ere harremandu zitezkeen, normalki autoktonoak izaten zirenak, eta horrek kulturen arteko ezagutza, elkarrekiko irudi hobea eta sentsibilizazioa, zein identitate amankomun batetarako bidea erraztuko zizkien, gaur egun lanean dauden gazte etorkinen kasuan (gutxiengoa) gertatzen den modura. Gizarteratzearen esparru sozio-estrutural eta soziokulturalean aurrera egiteko aukerak bermatzen zizkien beraz enpleguak.

Krisi ekonomikoa iristearekin batera, langabezia tasa modu esanguratsuan hazi da ordea, eta gainera IKEDAM ohiei biztanleria orokorrarekin konparatuz modu sakonean eragiten diela ikusi da. Alde batetik, krisiak gehien suntsitzen

dituen lan esparruak gazte horiek ikasten dituzten ofizioei dagozkienak direlako; eta bestetik, atzerritarrak izanik enpresariak eurak kontratatzeke izapide ugari egin behar dituztelako lan baimena lortu eta lanean hasi ahal izateko, hilabeteetan zehar luzatzen den prozesua, eta ondorioz bertako jendea kontratatzeke hautua egiten dute gehienetan.

Horrela bada, IKEDAMen fenomenoaren hasieran gehiengo nagusiak lanpostu bat eskuratzen bazuen, gaur egun hori oso zaila bihurtu dela ikusi da, eta gehienak langabezia aurkitzen direla. Zenbaitzuk lanean ari badira ere, kontratuak epe motzekoak dira gehienetan eta une batetik bestera langabezia geratzeko arriskua nabari da. Eta lanpostu bat eskuratzeak gizarteratze prozesuari dagozkion esparru eta dimentsio gehienetan garapen egokia izateko aukera ahalbidetzen bazuen, gaur egun, esparru guztietan kalteberatasuna erakusten dutela ikusi da.

Batik bat esparru sozioestruturalean izan du zuzeneko eragina krisi ekonomikoak. Esparru horren baitako dimentsio sozioekonomikoari dagokionez egoera larria agertzen dute. Gehiengoak lanposturik ez duenez, errekurtsio ekonomikorik gabe aurkitzen dira, oinarrizko gastuei aurre egin ezinik. Zenbaitek emantzipazio diru-laguntzaren bat kobratzea lortu dute eta egoera hobean aurkitzen dira, baliabide horiek murrizak eta mugatuak diren arren. Lanpostua dutenak egoerarik hoberenean aurkitzen dira, nahiz eta horiek gutxienekoak diren; baina kasu gehienetan, jasotzen dituzten soldatak ez dira altuegiak eta kontratuen iraupena ere aldi baterakoa izan ohi da. Horrela bada, une batetik bestera lanik gabe eta bertatik eratorritako soldatarik gabe aurki daitezke.

Etxebizitza edo bizileku bat izateko ere zailtasun nabarmenak aurkitzen dituzte. Lanetik eratorritako diru sarrerarik gabe, askok ez dute bizitzeko leku duin bat ordaintzerik. Gazte batzuek emantzipaziorako diru laguntza lortu dute eta horren bidez egin diezaiekete aurre etxebizitza baten gastuari. Beste zenbaitek berriz emantzipazio pisu batetan sartzea lortu dute. Baina edonola ere, baliabide horiek denbora jakin batetarako dira eta bitarte horretan enplegurik aurkitzen ez badute bizilekuaren gastuei aurre ezinik aurkituko dira. Kopuru esanguratsu batek kalean bizi beharra ere izan du, horrek izan ditzakeen arrisku guztiekin: baldintza fisikoei dagokionez hotz handia jasan beharra nabarmentzen da, baita higiene falta ere, osasunari dagokionez hainbatetan droga edo substantzia toxikoen

kontsumoan erori dira bizi duten errealitate zaila ahazteko asmoz, poliziaren etengabeko jazarpena ere jasaten dute, etab. Guzti hori euren gizarteratze prozesurako eta ongizate pertsonalerako erabat kontrakoa suertatzen delarik.

Dimentsio juridikoari dagokionean ere, lanposturik gabe eta bizitzeko gutxieneko bitartekorik baieztatu ezinik, baimenak berritzeko zailtasunekin aurkitzen dira³⁹ eta egoera juridiko irregularrerako joera nabarmentzen da gero eta gehiago.

Eta esparru sozioestruturalean bizi duten egoerak soziokulturalean ere eragiten die. Gizarte sare homogeneoa erakusten dute gehienetan, denbora luzez adin txikikoen zentroan beste IKEDAM batzuekin bizi izan direnez eta emantzipazio baliabideetan ere horiekin jarraitzen dutenez, gehien bat euren egoera berean aurkitzen diren aberkideek eratzen dute euren gizarte sarea. Horri gehitu behar zaio, alde batetik langabezia egoeran egoteak ez diela ahalbidetzen autoktonoekin lan harremanak izateko aukerarik. Eta bestetik, egoera juridiko irregularrean egoteak kalera ateratzeko beldurra eragiten diela, poliziak egoera horretan harrapatu ezker euren herrialdeetara itzuliak izan daitezkeelako, horrek nolabaiteko gizarte isloamendua eragiten dielarik.

Nagusiki aberkideek eratzen duten sare horretatik jasotzen duten gizarte laguntasuna eta eskuragarri duten gizarte kapitala garrantzitsua izanik ere, mugatua da. Hasierako unean oinarritzko informazioa jasotzen dute, gizarte berriaren funtzionamenduaren ingurukoa. Baita laguntasun materiala ere, hala nola, janaria, arropa edota hasierako bizilekua ematen diete aberkideek. Eta batik bat laguntasun emozionala, egoera beretsuetan egonik elkarrengandiko ulermena eta kontsolamendua jasotzen dute, zentzu horretan denek aipatzen dute lagunek duten berebiziko garrantzia. Baina edonola ere, laguntasun hori harrera gizartearen gizarteratzeko ez da nahikoa, beste IKEDAM ohiak ere egoera zailean egonik lagunei laguntzea ezinezkoa zaielako.

Gainera, autoktonoekin harremanik garatu gabe, ez da kulturartekotasunik ematen, harrerako kultura ezagutu eta jatorrizkoa igortzeko zailtasunak dituzte. Hori dela eta, ez da elkarrekiko sentsibilizazio gehiegirik garatu, eta harrera gizartearen aldetik jarrera arrazisten biktimak izan dira behin baino gehiagotan,

³⁹ Baimenak berri ahal izateko gutxieneko bitarteko ekonomikoak izatea frogatu behar dutela ezartzen du legediak. 33. zita ikusi.

horrek estereotipoak indartzea eragiten duelarik (Blanco, 1993 eta 2001). Eta harreman horren gabezia ezinezkoa da bi kolektiboen arteko puntu amankomunak aurkitzea (Maalouf, 1999), horrela bada, ez da guztien arteko identitate amankomunik hautematen, hainbat autorentzat gizarteratze prozesu oso baten adierazle litzatekeena (Blanco, 1993 eta 2001; Garreta, 2003).

Hala eta guztiz, hiru lurralde historikoetan emantzipazio baliabideak existitzen direla ikusi da (5.5.1. azpi-atala), nolabait IKEDAM ohien gizarteratze egoera zailari aurre egiten laguntzen dutenak. Hori txalogarria litzateke, izan ere, estatu mailan halako baliabideak eskaintzen dituen autonomia erkidego bakarretarikoa da EAE. Baina baliabide horiek gazte hauen gizarteratze prozesu oso bat ahalbidetzeko alde batetik murrizak eta bestetik ezeraginkorrak direla nabarmendu da analisisian. Honek 2. hipotesiari egingo lioke erreferentzia: *emantzipazio baliabideak mugatuak dira eta ez dira gaur egungo testuinguru sozioekonomikora egokitu, horrek IKEDAM ohien gizarteratze eraginkor bat lortzea ezinezko bihurtzen duelarik.*

Baliabideak ez daude IKEDAM ohi guztientzako eskuragai, kasu bakoitzean irizpide zehatzak ezartzen dira horietara sarbidea izan ahal izateko. Hori dela eta, zenbaiten gizarteratze prozesuak etenda gelditzen dira 18 urte bete ostean, ordura arte babes osoa izatetik bat batean inolako sostengurik gabe egotera pasatzen direlarik, kalteberatasun egoera larrian geratuz.

Eta bestalde, emantzipazio baliabideak ez dira gaur egungo testuinguru sozioekonomikora egokitzen. Hiru lurralde historikoetan ikusitako programa ezberdinek orokorrean egoitza laguntza, laguntza juridikoa eta lan munduan txertatzeko aukerak zabalduko dizkien formakuntza eskaintzea dute helburu. Baliabideak gizarteratze prozesuaren esparru sozioestruturala soilik lantzerik eta batik bat enplegu bat lortzera bideratuta daude. Gaur egungo testuinguru sozioekonomikoa kontrakoa da ordea, eta IKEDAM ohiek lanpostu bat lortzeko zailtasun ugari dituztela ikusi da. Testuingurua aldatu egin da, aldiz emantzipazio baliabideek izaera berbera izaten jarraitzen dute. Horrela bada, gaur egun emantzipazio baliabideak paliatiboak suertatzen dira, lanpostu bat lortu bitartean egonkortasun ekonomiko eta juridikoa eskaintzea dute helburu, baina baliabide horiek jasotzen dituzten bitartean lanposturik lortzen ez badute, horiek jasotzeko gehieneko epea betetzean gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan aurkituko

dira. Berriro ere adin nagusitasuna bete zutenean aurkitzen ziren kalteberatasun egoeran egongo dira, gizarteratze prozesuaren esparru eta dimentsioetan aurrera egin ezinik.

Zentzu horretan esanguratsua eta larria da zenbait gaztek agertzen duten egoera. Emantzipazio baliabideetara sartzeko irizpide guztiak betetzen zituztenez horiek erabili eta gizarteratze prozesuan apurka aurrera egin ostean, enplegurik lortu ez dutelako eta baliabide horiek erabiltzeko gehieneko epera iritsi direlako prozesu guztia bertan bera geratu zaie. VI. kapituluan eredu prototipikoen baitan (6.4. azpi-atala) aurkeztu den ibilbide zapuztua isladatzen duen E22ren kasuak agerian uzten du errealitate hori, irizpide guztiak beteta emantzipazio baliabide guztietaz baliatu eta gizarteratze prozesu egoki bati jarraitu dion gaztea 21 urte betetzear dagoenean bide guztia etenda eta hasierako puntuan aurkitzen da. Horrek, ordura arte urte askotan administrazio publikoarengandik egindako inbertsio ekonomikoa eta gazteak bere aldetik burututako esfortzu pertsonala bertan behera gelditzea eta ordainik ez jasotzea dakar. Eta ordainsaririk gabeko inbertsio batek zentzu gutxi izango luke.

Gizarteratze prozesuari dagokionez errealitate ezberdina agertzen dute ordea adin txikiko ziren bitartean *Izeba* proiektuko erabiltzaile izateko aukera izan zuten IKEDAM ohiek, izeba familiek gizarteratze prozesua errazten dien laguntasuna eskaintzen dietela ikusi baita. Horrela bada, doktoradutza tesi honen 3. hipotesia ere norabide egokian planteatuta dagoela esan daiteke: *Izeba proiektuan parte hartu duten gazte etorkinek gainontzekoek baino gizarteratze egoera hobea aurkezten dute, horiengandik gizarte laguntasuna jasotzen dutelako, gizarteratze esparru eta dimentsioetan aurrera egiten laguntzen diena.*

EAEn dauden IKEDAM ohien gizarte sarea txikia, homogoneoa eta dentsoa dela ikusi da. Hain zuzen, emigratio proiektuari bakarrik ekiteak ezaugarritzen dituen subjektuak dira, euren familia eta lagunak jatorrizko herrialdean utzita. Harrera gizartera iritsitakoan egoera berean aurkitzen diren beste gazte etorkin batzuekin batera bizitzen dira eurentzako eratutako zentro espezifikotan, eta horrek euren gizarte sarea txikia izateaz gain aberkidez eratuta egotea eragiten du. Euren gizarte sarea batik bat beste IKEDAM ohi batzuek eratzen dute, *bonding* motako harreman sendoek. Autoktonoekin mantentzen dituzten harreman

bakarrak emantzipazio baliabideetarako sarbidea ahalbidetzen dieten tekniko eta hezitzaileekin dituztenak izan ohi dira (*linking* harremanak).

Zentzu horretan, egoera ezberdina aurkezten dute *Izeba* proiektuan parte hartzeko aukera izan zuten gazte etorkinek. Horiek, laguntasuna eskaintzen dieten familia edo pertsona autoktono erreferente baten babesarekin kontaktzen dute emantzipazio etapara iritsi eta euren kabuz aurrera egiten hasteko unea heltzen zaienean. Izan ere, nahiz eta berez adin txikikoei soilik bideratutako proiektu bat izan, kasu gehienetan IKEDAM eta izeba familiaren arteko harreman horrek aurrera jarraitzen duela ikusi da. Horrela bada, *Izeba* proiektuan parte hartu duten gazteek aipaturiko *bonding* eta *linking* harremanez gain, *bridging* harremanak ere mantentzen dituzte, urrunagoko kide heterogeneoen artekoak.

Izebekin mantentzen dituzten *bridging* harreman horiek euren gizarteratze prozesurako erakusten duten eraginkortasuna argi geratu da emaitzen analisisian; horien aldetik jasotzen duten gizarte laguntasun instrumental, informaziozko eta emoziozkoak gizarteratze esparru eta dimentsio ezberdinetan positiboki eragiten duela ikusi bait da:

- *Laguntasun instrumentalaren* baitan gizarteratzearen esparru sozioestrukturalari eta baita soziokulturalari dagokion laguntza ere jaso dutela ikusi da. Lehendabizikoari dagokionez enpleguaren bilaketan (kurrikulumak banatzen lagundu; lan elkarrizketetara lagundu; enpresariekin hitz egin) zein etxebizitza bilatzeko (pisu bat bilatzen lagundu; denbora batetarako etxean hartu) edota prozedura legalekin (baimenak berritzera lagutzea; baimenak berritu ahal izateko izeben etxeetan erroldatzeko aukera izatea, izeben diru irabazietan sartzea, izeben lagunen artean kontratu bat egitea) zuzeneko laguntza jaso dute; esparru soziokulturalari dagokionez harrera gizarteko hizkuntza praktikatzeko aukera.
- *Informaziozko laguntasuna* ere gizarteratzearen bi esparruetan jaso dute. Esparru sozioestrukturalean enplegu aukerei eta etxebizitza aukerei buruzko informazioa. Esparru soziokulturallean kulturen arteko kontaktua eta elkarri bestearen balioak igortzea.
- Azkenik *emozozko laguntasuna* ere jaso dute, maila afektiboago batetan kokatuko litzatekeena. Konfidantza, segurtasuna eta afektua eskaini diete,

norbaiti ardura dioteneko sentimendua eta aurrera egiteko indarra. Horrek harrera gizartean gustura sentitzea dakar, eta identitate amankomun baten eraikuntza erraztu dezake, nahiz eta oraindik ez den denbora nahikoa igaro prozesu hori gauzatzeko.

Horrenbestez, *Izeba* proiektuan parte hartu duten IKEDAM ohiak gainontzekoak bezalaxe krisi ekonomikoak eraginda langabezian aurkitu badaitezke, ez dira gizarte bazterkeria edo kalteberatasun egoeran egongo, gizarteratze esparru eta dimentsio ezberdinetan sostengu garrantzitsua ematen dien familia autoktono baten laguntza izango dutelako.

VI. eta VII. kapituluetan eredu prototipikoak aurkezteak (6.4. eta 7.3. azpi-atalak) IKEDAM ohiak euren gizarteratze prozesuari dagokionez non kokatzen diren ikusteko bidea ematen digu, batik bat *Izeba* proiektuan parte hartu ez dutenak non dauden eta izebekin harremanetan daudenak non dauden ikusitekoa. Gaur egungo testuinguru sozioekonomikoa kontrakoa izanik guztientzat izan da (edo ari da izaten) gizarteratze prozesua neketsua eta zaila, baina *Izeba* proiekturik gabe izaera sozio-estrukturaleko emantzipazio baliabideak eskuratzeko aukera izan duten gazteak arrakasta erlatibotik zapuztutako ibilbidera bitartean kokatzen badira, izeben laguntasuna jaso dutenak arrakasta erlatibotik guztizko arrakasta bitartean aurkitzen direla ikusi da.

Horrela bada, doktoradutza tesi honetan argi geratzen da *harreman ahul, egitura zulo* edo *bridging* izaerako harremanek etorkinen gizarteratzean agertzen duten eraginkortasuna. Marko teorikoan gizarte kapitalaren osagai estrukturala lantzerakoan (2.4.1. azpi-atala) kasu bakoitzean lortu nahi diren helburuen arabera mota batetako zein besteko harremanak izatea eraginkorra izango dela ikusi da, momentu jakin batetan *bonding* harremanak pribilegiatzea hobe izan badaiteke, beste une batetan edo helburuak bestelakoak direnean beharrezkoa izan daiteke *bridging* (harreman ahulak edo egitura zuloek ezaugarritzen dituztenak) edo *linking* harremanak indartzea (Woolcock, 2001).

IKEDAM ohien gizarteratzeari dagokionean, gizarte kapitala landu duten autoreen artean Mark Granovetter-ek (1973) *harreman ahulen* inguruan egindako baieztapenak eta Ronald Burt-ek (1992) *egitura zuloen* inguruan egindakoak hobesten dira; eta James Coleman-enak (1988) ezeztatu. Azken autore horrek gizarte sare itxi eta dentsoak gizarte kapital baliabideak sortzerakoan irekiak

baino eraginkorragoak zirela azpimarratu zuen, batik bat kideen artean konfidantza gehiago eta jokabide desleialen aurrean zigortzeko gaitasun gehiago garatuko zelako. Etorकिनен gizarteratzeari buruz ari garenean ordea ez zaigu horrenbeste axola zigortzeko gaitasun hori, helburua ez bait da taldearen funtzionamendu eraginkorra, baizik eta bi taldeen (etorkin zein autoktono) bateragarritasuna, eta etorkinek gizarte saretik gizarteratze prozesuan eta horri dagozkion esparru eta dimentsioetan aurrera egitea ahalbidetuko dien laguntasuna jasotzea. Gainera, taldea itxita mantentzen bada etorkinez soilik eratutako talde homogeen bat izatea eragin dezake, eta integrazio egoki bat emateko beti beharrezkoa izango da kulturen arteko harremana, autoktono eta etorkinen artekoa, estereotipoak ezabatu eta elkarrekiko sentsibilitatea eragiteko (Blanco, 1993 eta 2001).

Hori dela eta, ikerketa honen emaitzak hobeto egokitu dira Granovetter eta Burt-en ekarpenetara. Granovetter-ek (1973), pertsona oroien gizarte sarea gertuko harreman sendoez eta hurrunagoko harreman ahulez osatuta egon behar lukeela aipatzen du, eta lehendabizikoek zenbait arazori aurre egiteko informazio, baliabide eta oinarri emozionala bermatzen badute, bigarrenagoak eraginkorragoak liratekeela beste zenbait onura eskuratzeko, hala nola, enplegua. Burt-ek (1992) ideia berbera bereganatzen du eta gizarte sare itxietatik eratorritako gizarte kapitalak taldearen barne funtzionamendua indartuko badu, egitura zuloen baitan sortutako gizarte kapitalak (nolabait harreman ahulak liratekeenak, harreman multzo ezberdinen arteko lotura bermatzen dutenak) gertueneko harremanetatik at aurkitzen diren baliabide gehigarrietara sarbidea ahalbidetuko lukeela azpimarratzen du. *Bridging* erako harremanak hobesten dituzte beraz autore hauek, urrunagokoak diren kide heterogeneoen artekoak.

IKEDAM ohien kasuan gauza bera ikusi da. Beste IKEDAM ohi batzuegandik (*bonding* harremanak) harrera gizartera iristeko momentuan oinarritzko laguntasun instrumentala, informaziozkoa eta batik bat laguntasun emozionala jasotzen dute. Baina gizarteratze prozesuari begira zailtasun egoera beretsuetan aurkitzen diren norbanakoak izanik, laguntasun horrek ezin du haratago joan. Emantzipazio baliabideak ahalbidetzen dizkieten elkarteekin harremanetan egotea eraginkorra zaie (*linking* harremanak), baina baliabide horiek epe baterakoak izanik jasotzen duten laguntasuna puntuala litzateke.

Zentzu horretan, *Izeba* proiektuan parte hartzeko aukera izan duten IKEDAM ohiek izebekin (eta horien senide zein lagunekin) burututako *bridging* erako harremanetatik euren gizarteratze prozesuan aurrera egitea ahalbidetzen dieten laguntasuna eskuratu dutela ikusi da.

Bridging erako harreman heterogeneoak izateaz gain, garrantzitsua da harremanak familia edo pertsona helduekin eratu izana ere. Izan ere, IKEDAM ohiek oraindik oso gazteak izaten jarraitzen dute eta jatorrizko familiarengandik bananduta aurkitzen dira. Horrenbestez, babesa eta gidaritza ematen dieten pertsona helduak izateak ezinbesteko garrantzia du euren gizarteratze prozesurako. Bravo et al.-ek (2010) aipatzen duten modura, komunitateko beste gazte eta helduekin harreman sare bat eratuta izatea IKEDAM ohien gizarteratze prozesurako gako izango da.

Bestalde, argi geratu da baita ere IKEDAMen gizarte sarean esku-hartzea euren gizarteratze prozesua ahalbidetzeko eraginkorra suertatzen dela. Marko teorikoan aipatu den modura (II. kapitulua, 2.5. azpi-atala), norbanakoek duten gizarte sarearen nolakotasunaren arabera, horietatik eratortzen den gizarte kapital gehiago edo gutxiago eskuratu dute (Atria, 2003; Durston, 2003). Edozein arrazoi dela eta gizarte harremanak etenda edo harreman gutxirekin aurkitzen diren pertsonak kalteberatasun egoeran aurkituko dira (Rubio-Guzman, 2012). Hori dela eta, halako pertsonen kasuan gizarte laguntasunezko harremanak eragitea helburu duten esku-hartzeak sustatzea garrantzitsua izango dela aipatu dute hainbat autorek (Bernat et al., 2010), eta horretarako tipologiak garatu beste zenbaitek (Froland et al., 1981; Gottlieb, 1988).

Etorkinen kolektiboa landu duten autoreek ere agerian jarri dute horien gizarte sareetan esku-hartzeak izan dezakeen garrantzia (Hernandez et al., 2006; Martínez et al., 2011), sare hori eta horrenbestez bertatik eratortzen den gizarte kapitala mugatuta geratzen bait dira emigrazio proiektua burutu ostean. IKEDAM ohien kasuan gauza bera gertatzen dela ikusi da, harrera gizartera iristean horien sareak txikiak, homogeenak eta dentsuak izan ohi direla. Hori dela eta, sare horiek zabaltzeko eta heterogeneoagoak bihurtzeko esku-hartzeak burutzea eraginkorra izan zitekeela aurreikusi da, are gehiago bakarrik eta oso gazterik emigratzen duten subjektuak direla kontutan izanda.

Autore desberdinek garatu dituzten tipologiaren artean (Gottlieb, 1988; Hernandez et al., 2006; Martínez et al., 2011) *Izeba* proiektua esku-hartze maila didaktikoko laguntasun boluntarioarekin bat dator. Boluntarioak laguntasun mota ezberdinak erantzukizunez eta interes pertsonal zein ordainsari ekonomikorik gabe esleitzen dituzten pertsonak lirake, etorkinekin esku-hartzerako orduan harrera gizarteko pertsona autoktonoak lirakeenak (Hernandez, et al., 2006). Horixe da hain zuzen izebek betetzen duten papera, boluntario gisa IKEDAMekin hartu-emanen aritzen dira euren gizarteratze prozesuari dagozkion esparru eta dimentsioetan izugarritzko laguntza suposatzen dutelarik. Beraz, doktoradutza tesi honetan argi geratzen da horrelako esku-hartzeak eraginkorrak direla IKEDAM ohien gizarteratze prozesu egokia bermatzeko, izan ere, horien bidez euren gizarte sarea zabaltzen da, autoktono helduekin harremanak eratzen dira, eta horietatik euren gizarteratze prozesurako lagungarria den gizarte kapitala eskuratzen dute.

Argi geratzen da baita ere, izeba eta IKEDAM ohien arteko harremanetik eratortzen den gizarte kapitalak izaera bikoitza izango lukeela, aldi berean baliabide indibidual zein kolektiboa izango litzatekeelarik. Marko teorikoan ikusi den modura (II. kapitulua, 2.4.2. azpi-atala), zenbait autorek baliabide indibidual gisa definitu dute gizarte kapitala (Loury, Granovetter, Bourdieu), beste zenbaitek berriz baliabide kolektibo modura (Coleman, Putnam). Zentzu horretan Forni et al.-ek (2004) bi eratarikoa izan daitekeela aipatu dute, eta horixe ikusi da lan honetan ere. Lehenik eta behin baliabide indibiduala litzateke, halako harremana mantentzeko aukera izan duten IKEDAM ohiek bakarka eskuratzen dutena eta gizarteratze prozesuan aurrera egiten ahalbidetzen dietena. Baina kolektiboa ere balitzateke, izan ere, izeba eta gazte etorkinen arteko harremanak elkar ezagutza eta sentibilizazioa ahalbidetzen du, elkarrekiko irudi hobea eta kulturarteko gizarte batetarako bidea, jarrera arrazista eta estereotipoen ukapena eta gizarte giro armoniatsuagoa. Hori, etorkinentzat faboregarria izango da, baina baita autoktonoentzat ere, denei bizikidetzaren egoki bat bermatuko dielako, iskanbilak eta giro txarra ekidinez.

8.3. Jarduera proposamenak

Ikerketa honen emaitzetatik abiatuta, krisi ekonomikoko testuinguruan IKEDAM ohien gizarteratze prozesuak bermatu ahal izateko hainbat jarduera proposamen aurkezten dira jarraian:

- *Prozedura juridikoak erraztea*

IKEDAM ohi, hezitzaile zein aditu ugarik egiten diote aspektu honi erreferentzia. Gazte etorkin hauek adin txikiko direla iristen direnez erresidentzia baimena eskuratzeko eskubidea izango dutela jasotzen da legedian⁴⁰. Horrela bada, gehienak erresidentzia baimena eskuratuta ateratzen dira adin txikikoen zentrotik, nahiz eta badauden zenbait kasu ez dutenak baimen hori eskuratu 18 urte bete aurretik, eta ondorioz egoera irregularrean iritsi direnak adin nagusitasunera. Edonola ere, baimen hori ez da betierekoa izan ohi, aldizka berritu egin behar dute eta horretarako irizpide zorrotzak ezartzen dira, horien artean harrera gizartean jarraitzeko gastuei aurre egin ahal izateko bitarteko ekonomiko nahikoa izatea⁴¹.

Gaur egungo krisi testuinguruan IKEDAM ohien gehiengoak ez duela enplegurik ikusi da, eta horrenbestez ezta soldatarik ere. Kasu horretan bitarteko ekonomikoak dituztela egiaztatzeko modu bakarra emantzipaziorako diru laguntzaren bat eskuratu izana da. Hori ez dute guztiek lortzen, horrela bada laguntza eskuratu ez dutenak baimenak berritu ezinik geratuko dira. Baina are kontraesankorragoa da askotan emantzipazio diru laguntzak ez direla baimenak berritzeko eskatzen diren gutxienekora iristen ikustea. Hor sakonki aztertu beharreko puntu bat dagoela uste da, izan ere, ez du zentzurik Diputazioak gazte hauek bizitzeko nahikoa dela deritzon diru kopurua atzeritartasun legediak eskatzen duen gutxienekoarekin bat ez etortzea.

Arrazoia edozein delarik ere egoera irregularrean geratzeak ondorio latzak ditu gazte hauen gizarteratze prozesuarengan, batik bat poliziaren

⁴⁰ Atzeritarren eskubide eta betebeharrei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoko 35.7 artikuluan.

⁴¹ Baimenak berritu ahal izateko gutxieneko bitarteko ekonomikoak izatea frogatu behar dutela ezartzen du legediak. 33. zita ikusi.

jazarpenarekiko beldurra dela eta ezkutuan ibili beharrak eragiten dien gizarte isolamendua eta gizarte bazterkeria arriskua.

Zentzu horretan legea bera gizarteratze eredu tradizionalaren sustatzaile eta gazte hauen bazterkeria egoeraren eragile dela nabarmentzen da. Enplegurik eskuratu ez duen gazteak nekez integratu ahal izango du, baimenak berritzeko aukerarik ez bait du izango. Horrela bada, irizpideak malgutu eta baimenak lortu eta berritzeko erraztasun gehiago eman beharko litzaizkiekeela uste da, bazterkeria egoerak ekiditeko asmoz.

Horrez gain, esparru juridikoaren baitan elkarrizketatuen aldetik agertzen den beste behar bat erresidentzia baimena ezezik lan baimena ere eskuratzeko erraztasun gehiago ematea litzateke. Lan baimen hori izateak lanpostu bat eskuratzeko erraztasuna emango die, enpresa buruak izapideak egitetik salbuetsita egongo direlarik eta horrela gazte hauen kontratazio aukerak zabaldu egingo direlarik. Lanpostu bat eskuratuko balute ez lukete emantzipazio diru laguntzarik eskatu beharrik izango, eta gastu hori ekidin egingo litzateke. Hala eta guztiz, gaur egungo testuingurua kontrakoa da eta ziurrenik lan baimena eskuratuta ere nahiko zailtasun izango lituzkete lanpostu bat lortzeko, baina edonola ere, aukerak beti handiagoak izango dira horretarako baimena badute.

Baimenak lortu eta berritzeko prozedurak estatu mailako legedian jasotzen dira, 4/2000 Lege Organikoan hain zuzen. Horrela bada, maila horretatik etorri beharko dute aldaketek. Lege horrek baimenak berritzeko aukerak erraztu beharko lituzke, etorkinen gizarteratzea prozesuak errazte aldera, baina dirudienez ez dago horretarako interes gehiegirik autoritateen aldetik.

- *Emantzipazio baliabideak testuinguru sozioekonomikora egokitzea*

Krisi ekonomikoa irtsi baino lehen ez zen aurreikusten IKEDAM ohiei babes ematen jarraitu beharrik, izan ere, gehienek adin nagusitasuna bete eta laster lortzen zuten lanpostu bat eta jada euren gizarteratze prozesua gauzatzeko bitartekoak eskuratzen zituzten. Aldiz, gaur egungo egoera bestelakoa da, enpleguaren eskuraketa asko zaildu da, orain dela gutxi gazte horien gizarteratze tresna nagusia zena. Horrela bada, 18 urte bete ostean

askoz laguntasun gehiago behar duen kolektiboa bihurtu da IKEDAM ohiena, eta zentzu horretan kalteberatasun egoera hori ekiditea ahalbidetuko duen emantzipazio baliabide aukera zabaldu beharko litzatekeela uste da; horrela, gazte etorkinak ez daitezten adin nagusitasuna bete eta berehala inolako babesik gabe kale gorrian geratu, zenbaitetan gertatu den moduan.

EAEko hiru probintziek emantzipaziorako baliabideak eskaintzen dituztela ikusi da, eta hori positibotzat jotzen da, adin txikiko diren bitartean administrazio publikoaren aldetik babes osoa jasotzetik adin nagusitasuna betetzearekin batera babesgabezia eta kalteberatasun egoeran gelditzeak ez duelako zentzurik; izan ere, ordurarteko inbertsio ekonomikoa eta gazte etorkinek gizarteratze prozesuan egindako aurrerapenak bertan behera gelditzen dira. Aitzitik, horietara sartzeko irizpideak zorrotzak direla ikusi da, IKEDAM ohi guztiek ez dutelarik horiek eskuratzeko aukerarik. Hori dela eta, sarbide irizpideak malguagoak izan beharko luketela uste da, IKEDAM ohi guztiek aukera berdina izan ditzaten, eta EAEn hilabete batzuk gehiago edo gutxiago pasa izanagatik euren gizarteratze aukerak ezberdinak izan ez daitezten.

Hori lortzeko egokia izango litzateke emantzipazio garaia babesa bermatu beharreko aro gisa arautzea legedian. Orain artean legedian ez da jasotzen adin nagusitasuna betetzen dutenentzako babes edo baliabiderik estatu mailan. Autonomia erkidego mailan *Gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitzako harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 dekretuak* 3.2 artikuluan salbuespenezko kasuetan aurrez tutelatuta egon diren 18 urtetik gorako gazteek egoitza-harrerako baliabideak erabiltzen jarraitu dezaketela ezartzen bada ere (gehienez 18 hilabetez), ez dira horietan jarraitzeko bete beharreko irizpideak zehazten, eta legediak ez du bestelako babesik aurreikusten gazte horientzat.

Horrela bada, eraginkorra izango da EAE mailako legedian emantzipazio garaian IKEDAM ohiei eman beharreko babesa arautzea, horrek Fordu Aldundiak gazte etorkinei babes integralagoa ematera behartuko dituelako, sarbide irizpideak hain zorrotzak izan gabe eta gainera hiru lurralde historikoetan antzeko prozedurak jarraikiz, gaur egun gertatzen ez dena.

Bestalde, emantzipazio baliabideen izaera ere eztabaidan jarri beharko litzateke. Orain arte existitzen diren baliabideak mantentzea egokia izan daiteke, izan ere, gaur egungo krisi ekonomikoko testuinguruak galarazten duen esparru sozioestruturaleko egonkortasuna ahalbidetzen dute: diru iturri bat izatea, bizilekua edota bestelako gastuei aurre egiteko modua, zein egoera juridiko erregularra. Baina jadanik aipatuenez, baliabide horiek paliatiboak suertatzen dira gaur egungo testuinguru sozioekonomikoan; momentuko egoera hobetzen laguntzen dute, baina horiek eskuratzeko gehieneko epea amaitzean IKEDAM ohiak berriro ere hasierako puntuan ezer gabe geratzea eragiten dute denbora tarte horretan lanposturik eskuratzen ez badute.

Gizarteratzeak ez luke izan behar lanpostu bat lortzearen sinonimo, hori dela eta, beste izaera batetako baliabideak martxan jartzea eraginkorra izango litzatekeela uste da. Horiek gizarteratze prozesuaren esparru soziokulturala ahalbidetzen duten baliabide eta estrategiak lirateke, batik bat gizarte sarean eragitea helburu dutenak, eta denboran zehar iraunkorragoa izan ohi den gizarte kapitala eragiten dutenak. Gainera izaera soziokulturala izanik ere, zeharka esparru sozio-estruturalean ere eragina izango dute.

Mota horretako baliabideen artean *Izeba* proiektuaren antzeko izaera dutenak bultzatuko lirateke. IKEDAM ohi eta pertsona autoktonoen artean harremanak sortzean euren gizarteratze prozesuan aurrera egiten laguntzen dien laguntasuna eta kapitala lortuko dute gazteek. Denboran zehar iraunkorra izango den baliabidea da, pertsonen arteko harremanek denboran zehar luze irauten bait dute normalean. Hori dela eta, esparru sozioestruturalari dagozkion baliabideak jasotzeko epea amaitu eta egoera zailean geratu badaitezke ere, pertsona autoktonoen babes eta aholkua izango dute, euren gizarte bazterkeria egoera ekidingo duena eta ahalik eta lasterren esparru sozioestruturalean egonkortasuna aurkitzen lagunduko diena.

Horrela bada, Gipuzkoako kasuari dagokionez, *Izeba* proiektua adin nagusikoengana ere zabaltzea eraginkorra izango litzatekeela uste da, edo antzeko izaera duen beste proiektu bat sortzea jadanik 18 urte bete dituztenentzat emantzipazio baliabide modura. Izan ere, adin txikiko ziren

bitartean guztiek ez zuten proiektuaren erabiltzaile izateko aukerarik izan, eta emantzipazio garaian aurkitzen diren egoera berezia dela eta funtsezkoa litzateke une horretan familia autoktonoek eman diezaieketen babesera sarbidea izatea.

Bestalde, proiektuak gazte etorkinen gizarteratze prozesuan erakutsi duen eraginkortasuna ikusita, Gipuzkoaz gain, gainontzeko lurralde historikoetara ere zabaldu beharreko baliabidea dela irizten da. Hiru lurralde historikoetan halako baliabideak izateak EAEko IKEDAM ohi guztien gizarteratze prozesuak lagundu eta erraztuko lituzke, eta baita kulturen arteko ezagutza bermatu ere, aurreiritziak suntsituz eta elkarbizitza armoniatsu bat ahalbidetuz.

BIBLIOGRAFIA

BIBLIOGRAFIA OROKORRA

- Accem (2008). *Análisis de las migraciones. España como "emisor" y "receptor" de inmigrantes*. Madrid: Accem-Asociación Comisión Católica de Migración.
- Agrela, B. (2002). "El poder de las definiciones en la construcción de las otras: reflexiones sobre las retóricas demarcaciones entre las semejantes y las diferentes". In Gregorio, C. eta Agrela, B. (Ed.), *Mujeres de un solo mundo: globalización y multiculturalismo*. Granada: Feminae.
- Aguado, M. T. (1997). *Educación multicultural: su teoría y su práctica*. Madrid: UNED-Universidad Nacional de Educación a Distancia.
- Alarcón, A. (2004). "Discriminación positiva de un grupo lingüístico en el ámbito socioeconómico". In *Sistema. Revista de ciencias sociales*, (183), 99-116 or.
- Alonso, L.E. (1998). *La mirada cualitativa en sociología*. Madrid: Fundamentos.
- Aparicio, R. eta Tornos, A. (2005). *Las redes sociales de los inmigrantes extranjeros en España*. Madrid: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.
- Aparicio, R. eta Tornos, A. (2010). *Las asociaciones de inmigrantes en España. Una visión de conjunto*. Madrid: Ministerio de Trabajo e Inmigración.
- Arango, J. (2012). "Del boom a la crisis: La inmigración en España a fines de la primera década del siglo XXI". In Matia, F.J. (Zuz.), *Crisis e inmigración. Reflexiones interdisciplinares sobre la inmigración en España*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 23-45 or.
- Ararteko (2005). *Bakarrik dauden adingabeko atzerritarren egoera EAEn*. Vitoria-Gasteiz: Ararteko.
- Ararteko (2011). *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak*. Gasteiz: Ararteko. 2012/10/22 berreskuratua: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_2354_1.pdf
- Ararteko (2013). *Recomendación general 5/2013 del Ararteko, de 17 de junio. Garantías en la atención a los menores/jóvenes extranjeros no acompañados*.

- 2014/11/16 berreskuratua:
http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_3081_3.pdf
- Ararteko (2014): *Eusko legebiltzarrarentzako urteko txostena 2013. Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena*, Vitoria-Gasteiz, Ararteko. 2014/05/20
berreskuratua:
http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3302_1.pdf
- Ararteko (2015). *Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2014. Haur eta nerabeentzako bulegoaren txostena*. Vitoria-Gasteiz: Ararteko. 2015/06/13
berreskuratua:
http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3640_1.pdf
- Arellano, J. (2008). *Capital social: ¿Despolitización del desarrollo o posibilidad de una política más inclusiva desde lo local?*. Hegoa Working Papers 46 zbk. Bilbo: Hegoa.
- Aroian, K.J. (1992). "Sources of social support and conflict for Polish immigrants". In *Qualitative Health Research*, 2, (2), 178-207 or.
- Atria, R. (2003). "Capital social: Concepto, dimensiones y estrategias para su desarrollo". In Atria, R. eta Siles, M. (Biltz.), *Capital social y reducción de la pobreza en América Latina y Caribe: En busca de un nuevo paradigma*. Chile: CEPAL-Comisión Económica para América Latina y el Caribe, 581-590 or.
- Barquín, A. (2004). "El Euskera y La Integración Lingüística De Los Inmigrantes". In *Cuaderno De Trabajo. Gipuzkoako SOS Arrazakeria*, 26.
- Barrón, A. (1996). *Apoyo social. Aspectos teóricos y aplicaciones*. Madrid: Siglo XXI de España editores.
- Barrón, A., Lozano, P. eta Chacón, F. (1988). "Autoayuda y apoyo social". In Martín, A., Chacón, F. eta Martínez, M. (Ed.), *Psicología Comunitaria*. Madrid: Visor.
- Barruti, M. (1990). "El proceso inmigratorio y la identidad étnica en un municipio del área metropolitana da Barcelona". In Pujadas, J.J. eta Cucó, J. (Koord.), *Identidades colectivas: etnicidad y sociabilidad en la Península Ibérica*. Valentzia: Generalitat Valenciana, 85-99 or.
- Bates, T. (1994). "Social Resources Generated by Group Support Networks May Not Be Beneficial to Asian Immigrant-Owned Small Businesses". In *Social Forces*, 72, (3), 671-689 or.
- Berger, P. (1971). *Para una teoría sociológica de la religión*. Barcelona: Kairós.

- Bermúdez, M.^ªM. (2004). *Los MINA: niños de la calle en la España del siglo XXI*. Madril: Témpora.
- Bernat, J.S., Agost, M.R., Fuertes, A.M., Fuertes, I., Montañés, C., Bucur, E.R. eta Soto, G. (2010). *Estudio del capital social a partir de las redes sociales y su contribución al desarrollo socioeconómico: el colectivo de inmigrantes rumanos en la provincia de Castellón*. Cuadernos de Investigación 13 zbk. Valentzia: CeiMigra Fundazioa.
- Blanco, C. (1990). *La integración de los inmigrantes en Bilbao*. Bilbo: Bilboko Udala.
- Blanco, C. (1993). *La integración de los inmigrantes en las sociedades receptoras*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Blanco, C. (2000). *Las migraciones contemporáneas*. Madril: Alianza Editorial.
- Blanco, C. (2001). La integración de los inmigrantes. Fundamentos para abordar una política global de intervención. *Revista Migraciones*, 10, 207-248 or.
- Blanco, C. (2005). Movimientos migratorios: Aproximaciones teoricas y metodológicas desde las Ciencias Sociales. *Ciudadania e inmigración: políticas de inclusión social y políticas de acomodamiento* solasaldian aurkeztutako ponentzia, Sabadell. 2013/05/20 berreskuratua: <http://www.sabadelluniversitat.org/SBDUniversitat/d/CBlanco-S1-p.pdf>
- Blanco, C. (2006). "Las migraciones internacionales y su impacto social en Europa y en España". In Soto, P. (Ed.), *Hacia el aula intercultural. Experiencia y referentes* Madril: Ministerio de Educación y Ciencia, 41-64 or.
- Blanco, C., Alvite, P., Gómez, F. (2000). *La inmigración extranjera en el País Vasco, Cartografía de un nuevo ciclo*. II Congreso sobre la inmigración en España: España y las migraciones internacionales en el cambio de siglo. 2015/10/22 berreskuratua: <http://www.documentacion.edex.es/docs/1308BLAinm.pdf>
- Bosswick, W. eta Heckmann, F. (2006). *Integration of migrants: contribution of local and regional authorities*. Dublin: European Foundation for the Improvement of Living and Working Conditions. 2015/07/17 berreskuratua: <http://www.eurofound.europa.eu/pubdocs/2006/22/en/1/ef0622en.pdf>
- Bott, E. (1990). *Familia y red social*. Madril: Taurus.
- Bourdieu, P. (1985). *¿Que significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Madril: Akal.

- Bourdieu, P. (1986). "The forms of capital". In Richardson, J.G. (Ed.) *Handbook of Theory and research for the sociology of education*. New York: Greenwood Press, 241-258 or.
- Bourdieu, P. (2000). "Sobre el poder simbólico". In *Intelectuales, política y poder* (traducción de Alicia Gutiérrez). Buenos Aires: UBA/ Eudeba, pp. 65-73.
- Bourdieu, P. (2001). "El capital social. Apuntes provisionales". In *Zona Abierta*, 94-95, 83-87 or.
- Bourdieu, P. eta Wacquant, L.J.D. (1994). *Per una sociología reflexiva*. Barcelona: Herder.
- Boyd, M. (1989). "Family and Personal Networks in International Migration: Recent Developments and New Agendas". In *International Migration Review*, 23, (3), 638-670 or.
- Bravo, A., Santos, I. eta Del Valle, J.F. (2010). *Revisión de actuaciones llevadas a cabo con menores extranjeros no acompañados en el Estado Español*. Oviedo: Consejería de Bienestar Social y Vivienda. Gobierno del Principado de Asturias.
- Brown, J.A.C. (1967). *La psicología social en la industria*. México: Fondo de Cultura Económica.
- Buendía, L. (1996). "La formación de los profesores para una escuela intercultural". In *I Jornadas sobre invernaderos e inmigrantes: Marginación y educación intercultural* solasaldian aurkeztutako ponentzia, Almería.
- Burt, R. (1992). *Structural Holes. The Social Structure of Competition*. Cambridge, MA: Harvard University Press.
- Burt, R. (2000). "Structural Holes versus Network Closure as Social Capital". In Lin, N., Cook, K, eta Burt, R. (Ed.), *Social Capital: Theory and Research*. New York: Aldine de Gruyter, 31-56 or.
- Burt, R. (2004). "Structural holes and good ideas". In *The American Journal of Sociology*, 110, (2), 349-399 or.
- Cachón, L. (2003). "La inmigración en España: Los desafíos de la construcción de una nueva sociedad". In *Migraciones*, 14, 219-304 or.
- Cachón, L. (2008). "La integración de y con los inmigrantes en España: debates teóricos, políticas y diversidad territorial". In *Política y Sociedad*, 45, (1), 205-235 or.

- Calvo, T. (1995). "Antropología de las diferencias: clases, razas y etnias en las sociedades modernas". In Morente, F. (Ed.), *Judío, negro y tuerto. Cuadernos de debate intercultural*. Jaén: Cruz Roja Española, 23-49 or.
- Capdevila, M., eta Ferrer, M. (2003). Los menores extranjeros indocumentados no acompañados (MEINA). Bartzelona: Generalitat de Catalunya.
- Castaño, M.S. (2005). "Los valores éticos del capital social y su influencia en el crecimiento económico". In *Ética y Economía*, 823, 131-140 or.
- Castel, R. (1992). La inserción y los nuevos retos de las intervenciones sociales. In Álvarez-Uría, F. (Biltz.), *Marginación e inserción. Los nuevos retos de las políticas sociales*. Madril: Endymión, 25-36 or.
- Castel, R. (1995). *La metamorfosis de la cuestión social. Una crónica del asalariado*. Paris: Fayard.
- Cea D'Ancona, M^aA. eta Valles, M.S. (2014). *Evolución del racismo, la xenofobia y otras formas conexas de intolerancia en España*. Madril: Subdirección General de Información Administrativa y Publicaciones.
- Cohen, S. eta McKay, G. (1984). "Social support, stress and the buffering hypothesis. A theoretical analysis". In Baum, A. Taylor, S.E. eta Singer, J.E. (Ed.), *Handbook of Psychology and Health*. Nueva Jersey: Erlbaum, 253-267 or.
- Cohen, S. eta Syme, L. (1985). *Social support and health*. Nueva York: Academic Press.
- Coleman, J. (1988). "Social capital in the creation of human capital". In *American Journal of Sociology*, 94, 95-120 or.
- Coleman, J. (1990). *Foundations of Social Theory*. Cambridge: Harvard University Press.
- Comas, D. eta Pujadas, J.J. (1991). "Familias migrantes: reproducción de la identidad y del sentimiento de pertenencia". In *Revista de Sociología*, 36, 33-56 or.
- Conde, F. (2010). *Análisis sociológico del sistema de discursos*. Madril: CIS-Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Cooley, Ch.H., 1909. *Social Organization: A Study of the Larger Mind*. New York: Charles Scribner's Sons.
- Cutrona, C.E. (1986). Behavioral manifestations of social support. A microanalytic investigation. In *Journal of Personality and Social Psychology*, 51, (1), 201-

- 208 or.
- Davis, K. (1965). The urbanization of the human population. In *Scientific American*, 213, (3), 40-53 or.
- Delgado, M. (1998). *Diversitat i integració*. Barcelona: Empúries.
- Del Arco, I. (1998). *Hacia una escuela intercultural. El profesorado: formación y expectativas*. Lleida: Edicions Universitat de Lleida.
- Díaz López, M., 2003. *Apoyo social y salud mental en inmigrantes: sus efectos sobre la integración*. Madrid: Consejería de Servicios Sociales de la Comunidad de Madrid.
- Díaz-Veiga, P. (1987). Evaluación del apoyo social. En R. Fernández Ballesteros (Ed.), *El ambiente. Análisis psicológico*. Madrid: Pirámide.
- Duplá, A. eta Fagoaga, J. (2007). "Entrevista Con Uri Ruiz Bikandi Sobre La Reforma De Los Modelos Lingüísticos". In *Mugak*, 39.
- Durkheim, É. (1989). *El suicidio*. Madrid: Akal
- Durston, J. (2003). "Capital social: parte del problema, parte de la solución, su papel en la persistencia y en la superación de la pobreza en América Latina y el Caribe". In Atria, R. eta Siles, M. (Biltz.), *Capital social y reducción de la pobreza en América Latina y Caribe: En busca de un nuevo paradigma*. Chile: CEPAL-Comisión Económica para América Latina y el Caribe, 147-202 or.
- EDE Fundazioa (2011). *Relaciones de solidaridad entre inmigrantes: acercamiento a las redes informales de apoyo de menores y jóvenes no acompañados en la CAPV*. Bilbo: EDE Fundazioa.
- EDE Fundazioa (2012). *Experiencias de solidaridad de jóvenes migrantes: la integración social a través del voluntariado*. Bilbo: EDE Fundazioa.
- Edwards, B. eta Foley, M. (1998). "Civil society and social capital beyond Putnam". In *The American Behavioral Scientist*, 42, (1), 124-139 or.
- Epelde, M. (2011). *Rights of unaccompanied foreign minors in Gipuzkoa and their implementation in practice*. Master amaierako tesina, International Institute for the Sociology of Law (argitaragabe).
- Felner, R.D., Ginter M., eta Primavera, J. (1982). "Primary prevention during school transitions: Social support and environmental structure". In *American Journal of Community Psychology*, 10, (3), 277-290 or.

- Foley, M.W. eta Edwards, B. (1999). "Is it time to disinvest in Social Capital?". In *Journal of Public Policy*, 19, 141-173 or.
- Forni, P., Siles, M., eta Barreiro, L. (2004). "¿Que es el Capital Social y cómo Analizarlo en contextos de Exclusión Social y Pobreza? Estudios de Caso en Buenos Aires, Argentina". In *JSRI-Julian Samora Research Institute*, 35.
- Fox, J. (1996). "How Does Civil Society Thicken? The Political Construction of Social Capital in Rural Mexico". In *World Development* 24, (6), 1089-1103 or.
- Franzé, A., Casellas, L. eta Gregorio, C. (1999). "Intervención social con población inmigrante: Peculiaridades y dilemas". In *Migraciones*, 5, 25-54 or.
- Froland, C., Pancoast, D.L., Chapman, N.J. eta Kimboko, P. (1981). "Linking formal and informal support systems". In Gottlieb, B.H. (Biltz.), *Social networks and social support*. Londres: Sage, 259-277.
- Fuertes, A.M., Agost, M.R., Fuertes, I. eta Soto, G. (2013). "Las aportaciones del apoyo social al capital social: propuesta de un modelo integrado y convergente". In *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 77, 155-188 or.
- Gracia Canclini, N. (2001). *Culturas híbridas: estrategias para entrar y salir de las modernidad*. Barcelona: Paidós Iberica.
- García Cívico, J. (2011). "Sobre el proceso de integración social de inmigrante en España. La cuestión de los indicadores". In *Revista Electrónica del Instituto de Investigaciones "Ambrosio L. Gioja"*, 7, 50-77 or.
- Garreta, J. (2003). *La integración sociocultural de las minorías étnicas (Gitanos e inmigrantes)*. Barcelona: Anthropos.
- Giménez, C. (1993). "¿Que entendemos por integración de los inmigrantes?. Una propuesta conceptualizada". In *Entreculturas*, 7, 12-15 or.
- Giménez, C. (1996). "La integración de los inmigrantes y la interculturalidad. Bases teóricas para una propuesta práctica". In *Arbor CLIV*, 607, 119-147 or.
- Giménez, C. (2003). "Pluralismo, Multiculturalismo e Interculturalidad". In *Educación y futuro: revista de investigación aplicada y experiencias educativas*, 8, 11-20 or.
- Giménez, C. eta Suárez, L. (2000). *Menores extranjeros no acompañados*. Madrid: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.
- Goffman, E. (1963). *Estigma: La identidad deteriorada*. Buenos Aires: Amorrortu.

- Golding, M.J. eta Baezconde-Garbanati, L.A. (1990). "Ethnicity, culture and social resources". In *American Journal of Community Psychology*, 18, (3), 465-486 or.
- Gómez, O., Barbosa, F., López-Caniego, M^aD. eta Martínez, M^aA. (2005). "La integración: conceptualización y análisis". In *Puntos de Vista*, 3, 7-31 or.
- Gonzalo, A., Jiménez, E. eta Vozmediano, L. (2010). *Adingabeak edo atzerritarak? Esku hartzeko politiken azterketa, lagundu gabeko adingabe atzerritarren gainekoa*. Vitoria-Gasteiz: Ararteko.
- Gordon, M. (1964). *Assimilation in American life*. New York: Oxford University Press.
- Gottlieb, B.H. (1988). "Support interventions: A typology and agenda for research". In Duck, S.W. (Ed.), *Handbook of personal relationships*. New York: John Wiley & Sons.
- Gracia, E., Herrero, J. eta Musitu, G. (1995). *El apoyo social*. Bartzelona: PPU-Promociones y Publicaciones Universitarias.
- Granovetter, M. (1973). "The strength of weak ties". In *American Journal of Sociology*, 78, (6), 1360-1380 or.
- Granovetter, M. (1982). "The strength of weak ties: a network theory revisited". In Marsden, P., Lin, N. (Ed.), *Social structure and network analysis*. Beverly Hills: Sage, 201-232.
- Grasmuck, S. eta Pessar, P., (1991). *Between two islands. Dominican international Migration*. Berkeley-Los Angeles-Oxford: University of California Press.
- Gregorio, C. (1998). *Migración femenina. Su impacto en las relaciones de género*. Madril: Narcea de Ediciones.
- Grootaert, C. eta Van Bastelaer, T. (2002). *Understanding and measuring social capital: a multidisciplinary tool for practitioners*. Washington: World Bank.
- Gurak, D.T. eta Caces, F. (1998). "Redes migratorias y la formación de sistemas de migración". In Malegsini, G.C. (Biltz.), *Cruzando fronteras. Migraciones en el Sistema Mundial*. Madrid: Icaria.
- Hammar, T. (1990). *Democracy and the Nation State: Aliens, Denizens and Citizens in a World of International Migration*. Warwick: Avebury.
- Hammar, T. eta Lithman, Y. G. (1989). "La integración de los migrantes: experiencias, conceptos y Políticas". In OCDE, *El futuro de las migraciones*.

- Madrid: Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, 347-385 or.
- Hanifan, L. (1916). "The Rural School Community Center". In *Annals of the American Academy of Political and Social Science*, 67, (1), 130-138 or.
- Heller, P. (1996). "Social Capital as a Product of Class Mobilization and State Intervention: Industrial Workers in Kerala, India". In *World Development* 24, (6), 1055-1071 or.
- Hernández, S. (2003). *La otra cara de la inmigración: necesidades y sistemas de apoyo social*. Almería: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Almería.
- Hernández, S., Alonso, E. eta Pozo, C. (2006). "Social Support Interventions in Migrant Populations". In *British Journal of Social Work*, 36, (7), 1151-1169 or.
- Herreros, F. (2002). *¿Porqué confiar?: el problema de la creación de capital social*. Doktoradutza tesia, Madrid: CEACS-Centro de Estudios Avanzados en Ciencias Sociales.
- Herreros, F. eta de Francisco, A. (2001). "Introducción: el capital social como programa de investigación". In *Zona Abierta*, 94/95, 1-46 or.
- Hobfoll, S.E. eta Stokes, J.P. (1988). "The process and mechanics of social support". In Duck, S.W. (Ed.), *Handbook of personal relationships*. New York: John Willey & Sons.
- House, J.S. (1981). *Work stress and social support*. Reading, Mass: Addison-Wesley.
- House, J.S., Umberson, D. eta Landis, K.R. (1988). "Structures and processes of social support". In *Annual Review of Sociology*, 14, 293-318 or.
- Howe, D. (1997). *La teoría del vínculo afectivo para la practica del trabajo social*. Bartzelona: Paidós.
- Iglesias e Ussel, J. (2010). *Las políticas de integración social de los inmigrantes en las comunidades autonomas españolas*. Bilbo: BBVA Fundazioa.
- Ikuspegi@k (2015). *Immigrazioaren begirada 57*. Zbk. Biztanleria atzerritarra EAEn, 2015. 2015/09/10 berreskuratua: <http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/panoramicas/eus/panoramica57eusOK.pdf>
- Inkeless, A. (2000). "Measuring social capital and its consequences". In *Policy Sciences*, 33, 19-42 or.
- Colectivo Ioé (2008). *Inmigrantes, nuevos ciudadanos: ¿hacia una España plural e intercultural?* Madrid: FUNCAS-Fundación Cajas de Ahorros Confederadas.

- Colectivo Ioé (1992). *La Inmigración Extranjera En Catalunya: Balance y Perspectivas*. Bartzelona: Institut Català d'Estudis Mediterranis.
